

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**

*Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**

*Dirección de Servicios y Régimen
Jurídico*

2009ko LAN MERKATUAREN ERROLDA

EMAITZA OROKORRAK

1. Adin aktiboan dagoen biztanleriari buruzko datu orokorrak

1.1. Egungo egoera.

Lan Merkatuaren Erroldari (LME) dagokionez, adin aktiboan edo potentzialki aktiboan dagoen biztanleria 16-64 urtekoa izaki Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonen osatzen dute. LMEan jasotako datuen arabera¹, 2009ko laugarren hiruhilekoan guztira 1.451.941 pertsonak osatzen zuten egoera horretako biztanleria EAEn.

Biztanleria hori sexuaren arabera banatuz gero (barne-banaketa), banaketa erlatiboki orekatua ateratzen da: gizonak % 50,5 eta emakumeak % 49,5 dira.

16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sexua	Absolutuak	%
Gizona	732.548	50,5
Emakumea	719.393	49,5
Guztira	1.451.941	100,0

Oro har, sexuen artean oreka egon ohi da Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan. Oreka txikieneko egoera Tolosa-Goierri eskualdean dago; izan ere, gizonak % 52,4 eta emakumeak % 47,6 dira eskualde horretan.

16-64 urteko biztanleria, sexuaren eta eskualdearen arabera (% horizontalak)

Eskualdea	Sexua	
	Gizona	Emakumea
Gasteiz	51,2	48,8
Aiaraldea	51,8	48,2
Eskuinaldea	49,0	51,0
Bilbo	48,9	51,1
Ezkerraldea	50,5	49,5
Bizkaia-Kosta	51,3	48,7
Durungaldea	51,1	48,9
Donostialdea	50,3	49,7
Tolosa-Goierri	52,4	47,6
Debagoiena	51,7	48,3
Debarrena	52,0	48,0
Guztira	50,5	49,5

¹ EUSTATEk aurkezten ditu eta BJARA egokitzen ditu LME datuak. Helburua honako hau da: Eusko Jaurlaritzaren estatistika-eragiketarako zifra orokorrekiko –jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzkoekiko– koherentziari eustea.

Adina kontuan izanik, 16-64 urteko biztanleriari dagokionez, orain ere adin-talde gazteenak nagusitzen direla egiaztatzen da, 45 urtetik beherakoak % 58,7 baitira. Hala eta guztiz ere, adin aktiboan dagoen EAeko biztanleriak zahartzeko joera duela begi-bistakoa da. Horrela, 2009an biztanleriaren kolektibo handiena ez zen inolaz ere 20-34 urtekoena —2003ra arte bezala—, 35-49 urteko biztanleen kolektiboa baizik. 2009aren amaieran, kolektibo horretan sartu ziren adin aktiboko biztanleen % 36; 20-34 urtekoak aldiz, % 29,4 ziren, eta 50-64 urtekoek, azkenik, % 29,7. 16-19 urteko gazteak, bestalde, erreferentziazko biztanleriaren apenas % 4,8 dira.

16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	Absolutuak	%
16-19 urte	70.409	4,8
20-24 urte	105.167	7,2
25-29 urte	142.052	9,8
30-34 urte	180.114	12,4
35-39 urte	183.430	12,6
40-44 urte	171.525	11,8
45-49 urte	167.591	11,5
50-54 urte	161.894	11,2
55-59 urte	142.092	9,8
60-64 urte	127.667	8,8
Guztira	1.451.941	100

EAEko eskualdeen egoera aztertu ondoren, 35 urtetik beherako biztanleriaren nagusitasun erlatiboa ikusten da oraindik ere eskualde batzuetan. % 34-36ko kopuruak daude Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon eta Debagoiengan. Hala eta guztiz ere, EAEko gainerako eskualdeetan handiagoa da 35-49 urtekoen garrantzi erlatiboa. Errealitate hori Aiaraldean ikusi zen 2005ean eta Durangaldean 2006an, eta 2007an Ezkerraldera eta Donostialdera zabaldu zen, 2009an Bizkaia-Kostara eta Tolosa-Goierriara hedatuz. Eskualde horietan, 35-49 urteko pertsonen proportzioa % 35,5-39,5 zen.

Debarrenean, adin aktiboko biztanleriaren zahartze-prozesua are nabarmenagoa da; izan ere, kasu horretan, 50 urtetik gorako biztanleriak funtsezko garrantzia du, zehazki, guztizkoaren % 33,7 2009an, hots, 35-49 urteko pertsonen duten proportzio berbera. Adin aktiboko biztanleriaren zahartze-prozesua ez da soilik atzematen 35-49 urtekoen garrantzi erlatiboa handiagoa delako, baita adin handiagoko biztanleriaren garrantzi erlatiboak gorantz egiten duelako ere. Ildo horretatik, EAEko hainbat eskualde nabarmentzen dira, jada, 50 urtetik gorakoaren proportzioa % 30etik gorakoa delako. Horixe gertatzen da Eskuinaldea, Ezkerraldea, Debagoiena eta Debarrena eskualdeetan.

16-64 urteko biztanleria, adinaren eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Adina		
	< 35 urte	35-49 urte	50-64 urte
Gasteiz	35,7	35,4	28,9
Aiaraldea	34,1	36,5	29,4
Eskuinaldea	34,9	33,9	31,2
Bilbo	35,3	35,1	29,6
Ezkerraldea	34,2	35,6	30,2
Bizkaia-Kosta	33,6	37,4	29,0
Durungaldea	32,3	39,4	28,3
Donostialdea	33,6	37,1	29,3
Tolosa-Goierri	33,5	36,9	29,6
Debagoiena	34,1	33,7	32,2
Debabarrena	32,6	33,7	33,7
Guztira	34,3	36,0	29,7

1.2. Azkenaldiko bilakaera.

1997-2007 aldiko beheranzko joeraren kasuan ez bezala (adin potentzialki aktiboko biztanleriaren bolumena % 2,9 murriztu zen aldi horretan), LMEaren datuen arabera, 2007-2009 aldian biztanleria horrek gora egin zuen. EAEko 16-64 urteko biztanleria % 1,8 handitu zen biurteko horretan, 2007an 1.425.959 pertsona izatetik 2009an 1.451.941 pertsona izatera aldatuz. 2005-2007 aldian ikusitako % 0,5eko jaitsieraren ondoren, 2001-2005 aldian ikusitako goranzko joerari heltzea ekarri du bilakaera horrek, % 0,6ko areagotzeari esker 1997-2001 laurtekoan ikusitako % 3ko jaitsiera hein batean arinduz. Azkenaldiko areagotzea atzeritarren immigrazioarekin lotuta dago hein handi batean, 2001-2005 laurtekoan ere gertatzen zen bezala, baina hala eta guztiz ere, 16-64 urteko biztanleriari dagokionez 1997an erregistratutako zifrara (1.468.915 pertsona) iristea ez du ahalbidetzen.

2007-2009 aldian biztanleriak bilakaera positiboa izateak, haatik, ez du esan nahi aurreko urteetan ikusitako egiturazko aldaketak alde batera utzi zirela. Aldaketa horiek 35 urtetik beherako garrantzia murriztu zelako agertu ziren batez ere; talde hori adin potentzialki aktiboko biztanleriaren % 44,5 zen 1997an, 2005an, ordea, % 37,4 zen, 2007an, aldiz, % 35,4, eta 2009an, azkenik, % 34,3. Beherakada hori bereziki nabarmena da 25 urtetik beherako kasuan, biztanleriaren % 42,7 galdu baitzuen adin-tarte horrek 1997-2007 aldian. 2005-2007 aldia soilik hartuz gero, 25 urtetik beherako zifra % 9,1 murriztu zen EAEn. 2007-2009 aldian beheranzko joera murriztu bazen ere, biurteko horretan zeinu negatiboari eutsi zitzaion (% -1).

Aurreko mendeko 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera izandako jaiotza-tasaren jaitsiera nabarmenak ere eragina du 25-34 urteko biztanleriaren barruan. 2005-2007 aldian,

ordea, biztanleria gazteenaren beherakada-erritmoen nabarmentze erlatiborako joerak 25-34 urteko pertsonen multzora hedatzeko joera zegoen, denbora-tarte horretan biztanleriaren bolumena % 4,1 murriztuz. Epe luzeko ikuspegitik begiratuta talde horretan jaitsiera oraindik mugatua bazen ere (-% 4,7 1997-2007 aldian), 2005-2007 aldian ikusitakoak erakusten zigun 25 urtetik beherakoen taldean duela urte batzuetatik hona biztanleriari antzematen zaion murrizketa handirako prozesua jadanik hasi zela nabarmen zabaltzen 25-34 urteko taldera. 2007-2009 aldian, hain zuzen, talde horretan gertatu zen jaitsiera handiena, adierazitako biurtekoan talde horretako biztanleriak % 1,6ko galera izanez.

35 urtetik beherako biztanleriaren beherakadaren kasuan ez bezala, 1997-2007 aldian % 12,9 hazi zen 35-64 urteko biztanleriaren bolumena; 2007-2009 aldian hazteko joera horri eutsi zitzaion, 35-49 urteko pertsonen hazkundera % 3,3 izan baitzen, eta % 4, berriz, 50 urtetik gorakoena, hots, 2005-2007 biurtekoan ikusitakoa baino handiagoa (% 2,5 eta % 2,9, hurrenez hurren).

Adin potentzialki aktiboko biztanleriaren zahartze-prozesuarekin batera, Euskadin 50 urtetik gorako biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa duela aipatu behar dugu. Ildo horretatik, 2001era arte, 35-49 urteko taldeak izan zuen biztanleriaren hazkunde handiena, eta 2001-2007 urteetan, aldiz, hazkunde hori 50-64 urteko pertsonen taldean izan zen, 2007-2009 aldian joera hori finkatuz.

**16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(2005-2009 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Sexua eta adina	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gizonak	724.351	720.205	732.548	-0,6	1,7	1,1
Emakumeak	709.253	705.754	719.393	-0,5	1,9	1,4
< 25 urte	195.184	177.369	175.576	-9,1	-1,0	-10,0
25-34 urte	341.477	327.490	322.166	-4,1	-1,6	-5,7
35-49 urte	493.463	505.928	522.546	2,5	3,3	5,9
50-64 urte	403.480	415.172	431.653	2,9	4,0	7,0
Guztira	1.433.604	1.425.959	1.451.941	-0,5	1,8	1,3
Emakumeak %-tan	49,5	49,5	49,5			
16-34 urtekoak % -tan	37,4	35,4	34,3			

Eskualde-esparruan, oro har, emakumeen garrantzi erlatiboan egonkortzeko joera ikusi da, eta baita 35 urtetik beherako biztanleriaren garrantziaren galera ere. Adin aktiboko biztanleriari dagokionez, 35 urtetik beherako biztanleen garrantzi erlatiboa nabarmen murrizteko joera EAEko eskualde guztietan sumatu da.

2005-2009 aldian, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Durangaldea eta Tolosa-Goierri eskualdeetan jaitsi zen nabarmenki 35 urtetik beherakoen proportzioa 16-64 urteko biztanleriaren barruan, 4-5 puntuko jaitsierekin, Gasteizen eta Donostialdean 3 puntuko txikiagotzea gaudituz. Adierazitako bi eskualde horietan eta Nerbioi ibaiaren itsasadarraren bi aldeetan jaitsiera hori deigarriagoa izan zen 2005-2007 aldian, eta Durangaldearen eta Tolosa-Goierriren kasuan, berriz, jaitsiera handiagoa izan zen 2007-2009 aldian.

**16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2009 aldia)**

(Biztanleriaren barne-egituran izandako aldaketak)

Eskualdea	Emakumeak %-tan			< 35 urtekoak %-tan		
	2005	2007	2009	2005	2007	2009
Gasteiz	49,0	49,0	48,8	38,8	36,8	35,7
Aiaraldea	48,4	48,3	48,2	36,6	34,4	34,1
Eskuinaldea	50,4	50,7	51,0	39,0	35,8	34,9
Bilbo	50,9	50,7	51,1	35,8	35,6	35,3
Ezkerraldea	49,3	49,3	49,5	38,5	34,5	34,2
Bizkaia-Kosta	48,3	48,6	48,7	36,3	35,9	33,6
Durangaldea	48,6	48,6	48,9	37,5	36,0	32,3
Donostialdea	49,8	49,9	49,7	36,9	34,5	33,6
Tolosa-Goierri	47,8	47,8	47,6	38,5	36,4	33,5
Debagoiena	48,2	48,2	48,3	36,6	36,6	34,1
Debarrena	48,2	48,2	48,0	34,7	34,8	32,6
Guztira	49,5	49,5	49,5	37,4	35,4	34,3

2. Biztanleria aktiboa

2.1. Egungo egoera.

16-64 urteko biztanleria aktiboaren kopurua milioi bat lagunetik gorakoa zen (ekonomikoki aktiboak diren 1.037.659 pertsona, hain zuzen ere) Euskal Autonomia Erkidegoan 2009ko laugarren hiruhilekoan. Horrek zera esan du, EAEko jarduera-tasa Europar Batasuneko (EB-27) batez bestekoa baino handiagoa izan zela aipatutako denbora-tartean (% 71,5 eta % 71, hurrenez hurren)².

16-64 urteko guztizko biztanlerian oreka zegoela ikus daiteke sexuen arabera banaketari dagokionez, baina biztanleria aktiboan, aldiz, gizonak ziren nagusi biztanleria aktiboaren barruan, 2009aren amaieran Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona aktibo guztien % 55,7 gizonak izaki. Egoera hori emakumeen jarduera-tasa nabarmen txikiagoarekin lotuta dago (emakumeen artean, % 63,9, eta gizonen artean, berriz, % 78,9). Haatik, 2009aren amaieran, emakumeen jarduera-tasa EB-27kora (% 64,4) hurbildu zen nabarmenki, Europako batez bestekoa baino apenas puntu erdi txikiagoa izanik. Gizonen jarduera-tasak, berriz, Europakoa baino handiagoa izaten jarraitzen zuen, zehazki, hura baino 1,3 puntu handiagoa (% 77,6 EB-27an).

16-64 urteko biztanleria aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduera-tasa %-tan)

Sexua	Absolutuak	%	Jarduera-tasa
Gizona	577.695	55,7	78,9
Emakumea	459.964	44,3	63,9
Guztira	1.037.659	100	71,5

2009an, EAEko bi eskualdek gainditzen zuten argi eta garbi EB-27ko jarduera-tasaren batez bestekoa, zehazki, Arabako Gasteizek eta Gipuzkoako Donostialdeak, biak % 73,4ko jarduera-zifrekin. EAEko gainerako eskualde gehienak EB-27ko batez besteko mailen inguruan zeuden; horrela, % 70-71,5eko zifrak zituzten Bilbok, Ezkerraldeak, Bizkaia-Kostak, Durangaldeak, Debagoienak eta Tolosa-Goierriak. Aiaraldean eta Debabarrenean, berriz, zifrak ez ziren batez besteko horren oso desberdinak, zehazki, % 69 eta % 69,5, hurrenez hurren. Jarduera-tasa Eskuinaldean baino ez zen nabarmen desberdina, 2009an eskualde horretan baitzegoen EAEko maila txikiena, % 67,6arekin.

² Atal honetan aurkezten diren EB-27ko jardueraren gaineko datuak 2009ko Laugarren hiruhileko Lan Indarrari buruzko Estatistikari (Labour Force Survey) dagozkio, betiere 15-64 urteko biztanleriaren kasurako kalkulaturak.

Donostialdean zein Gasteizen, bi sexuei dagozkien jarduera-tasak EAEko batez bestekoak baino handiagoak dira, baina emakumeen jarduera-tasa, aitzitik, EAEko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da eskualde horietan, zehazki, % 66-67. Ildo horretatik, baina alderantzizko norabidean, EAE osoko batez besteko jarduera-tasa orokor txikienak dituzten eskualde guztiek –Aiaraldeak, Eskuinaldeak eta Debabarrenak– emakumeen jarduera-tasa txikia dute, EAEko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa kasu guztietan; izan ere, Aiaraldean eta Eskuinaldean ehuneko hori % 60 ingurukoa edota are txikiagoa da. Aiaraldean gizonen jarduera-tasa EAEko batez besteko mailen antzekoa da, eta Debabarrenean eta Eskuinaldean, berriz, gizonen jarduera-tasa EAEko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa, % 75,5 inguruko zifrekin.

Emakumeen jarduera-tasak ere jarduera-tasa orokorreari dagokienez EAEko batez bestekoaren inguruko eskualdeetako jarduera-maila orokorra agertzeko joera dauka. Horrela, EAEko batez bestekoa baino ehuneko apur bat txikiagoekin bada ere, emakumeen jarduerarako joerak EAEko batez bestekotik gertuagoko mailak ditu –% 62 eta % 63– Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin, Bilbon % 64,2ra igoz (EAEko batez bestekoa baino apur bat handiagoa). Eskualde horietan guztietan, gizonen jarduera-tasak % 78-80 dira, eta horrenbestez, EAEko batez bestekoaren ingurukoak dira oro har.

Kasurik ezohikoena Debagoiena dugu. % 67,8arekin, eskualde horretan emakumeek EAE osoko joera handiena dute jarduerarako. Hala eta guztiz ere, 2009an eskualde horretan emakumeek jarduera-tasa handia izatea EAEko gizonen jarduera-tasa txikienarekin (% 73,1) konpentsatzen zen.

Aurkeztutako datuek erakusten dutenez, jarduera-tasa orokorrek eta emakumeen jardueratasek lotura estua dute, eta errealitate hori Debagoienean baino ez da nabarmen desberdina. Hala ere, eskualde horretan gertatzen den bezala (gizonen jarduera-tasa txikiak EAEko batez bestekoa baino jarduera-tasa txikiagoak zehazten ditu, kontuan hartuz testuinguru horretan emakumeek jarduerarako oso joera handia dutela), EAEko beste zenbait tokitan ere gizonen jarduera-maila erabakigarria da. Eskuinaldean eta Debabarrenean, gizonen jarduera-tasa konparatiboki txikiagoek emakumeen jarduera-maila erlatiboki txikien eragina areagotzen dute; horrela, EAEko jarduera-tasa orokorraren azpitik kokatzen dira adierazitako eskualde horiek, zehazki, 2 puntu baino gehiago azpitik.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasak, sexuaren eta eskualdearen arabera

(%-tan)

Eskualdea	Sexua			Emakumezko aktiboaren %-a
	Gizona	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	79,6	67,0	73,4	44,6
Aiaraldea	78,9	59,4	69,5	41,2
Eskuinaldea	75,4	60,1	67,6	45,4
Bilbo	78,3	64,2	71,1	46,1
Ezkerraldea	79,9	62,1	71,1	43,3
Bizkaia-Kosta	78,5	62,6	70,7	43,0
Durungaldea	78,1	61,9	70,2	43,1
Donostialdea	80,6	66,1	73,4	44,7
Tolosa-Goierrri	79,0	63,1	71,5	42,0
Debagoiena	73,1	67,8	70,6	46,4
Debarrena	75,7	61,7	69,0	43,0
Guztira	78,9	63,9	71,5	44,3

Adinaren aldagaia kontuan izanik, biztanleria aktiboaren zatirik handiena EAEn 25-39 urtekoei dagokiela egiaztatu da. Pertsona horiek aktiboaren guztizko bolumenaren % 42,5 osatzen dute, eta bost urteko adin-taldeetan % 83,3-89,2ko jarduera-tasara heltzen da. Aktiboaren beste talde garrantzitsua osatzen dute 40-49 urtekoek: biztanleria aktiboaren % 27,6 dira eta % 83,6-85,1eko jarduera-tasak dituzte, 25-39 urteko pertsonen taldekoen antzekoak, hain zuzen ere.

50 urtetik gorakoek, aldiz, biztanleria aktiboaren % 24 osatzen dute, eta gainerako % 6a 25 urtetik beherakoei dagokie. 25-49 urteko pertsonen dagokiena baino jarduera-tasa nabarmen txikiagoak badira ere, adin horietako pertsonen jarduera-tasak oso desberdinak dira barrutik. Horrela, 50-54 urteko pertsonak % 75,6ra iristen dira, eta 55-59 urtekoak, berriz, % 63,4ra. 20-24 urteko pertsonen taldean % 54,7ra jaitsi badira ere, oraindik ere jarduerarako joera nagusitzen da adin-talde horretan. 60 urtetik gorakoek eta 20 urtetik beherakoek artean, ordea, egoera bestelakoa da, jarduera-tasa oso txikiak baitituzte bi kasuetan (% 28,6 eta % 7, hurrenez hurren).

Egiazta daitekeen bezala, jarduerarako joerak gehiengo izateko joera duen adin-tartea 20-59 urteko pertsonena da, eta 25-54 urtekoen kasuan, zifrak biztanleria aktiboaren % 75-90 tartean daude.

16-64 urteko biztanleria aktiboa, adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduera-tasa %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Jarduera-tasa
16-19 urte	4.927	0,5	7,0
20-24 urte	57.532	5,5	54,7
25-29 urte	118.370	11,4	83,3
30-34 urte	160.633	15,5	89,2
35-39 urte	161.177	15,5	87,9
40-44 urte	146.000	14,1	85,1
45-49 urte	140.060	13,5	83,6
50-54 urte	122.420	11,8	75,6
55-59 urte	90.059	8,7	63,4
60-64 urte	36.481	3,5	28,6
Guztira	1.037.659	100	71,5

Lurralde-dimentsioan, bestalde, egiazta daiteke jarduera-tasa orokor handienak dituzten bi eskualdeetan –Gasteizen eta Donostialdean– adinaren araberako jarduera-tasa espezifikoak kasu guztietan direla EAEko batez besteko espezifikoak baino handiagoak, eta 50 urtetik beherako pertsonen kasuan, alde horiek nabarmenagoak direla. Alderantzizkoa ikusten da Aiaraldean, Eskuinaldean eta Debabarrenean, % 70etik beherako tasa orokorrekin; izan ere, EAEko batez bestekoak baino txikiagoak dira eskualde horietako tasak oro har, batik bat 25 urtetik gorako pertsonen kasuan.

Jarduera-tasa orokor ertainak dituzten eskualdeek, aitzitik, oso egoera desberdinak islatzen dituzte adinaren arabera. Esate baterako, zenbait eskualdetan zera da ezaugarri nagusia, 25 urtetik beherakoen artean jarduera-tasa txikiagoa dela (Durangaldean, % 31,8, Bizkaia-Kostan, % 21,7, eta Debagoienera, berriz, % 16,6); izan ere, aipatutako hiru eskualdeek EAEko zifra txikiak dituzte. Gazteenen egoerarekin kontrajarrita, Bizkaia-Kostan 25-49 urtekoen artean jarduera-tasa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da, eta Debagoienera gauza bera gertatzen da baina 35 urtetik gorakoekin. Haatik, Durangaldean ere tasa konparatiboki txikiak ikusi dira 35 urtetik gorakoen artean; izan ere, 25-34 urteko pertsonen dagokionez, EAEko batez bestekotik gora dagoen eskualde bakarra dugu Durangaldea.

Bilbo, Ezkerraldea eta Tolosa-Goierrri, bestalde, EAEko batez bestekotik gora daude 25 urtetik beherakoen jarduerarako joerari dagokionez, % 37,4-38,3ko zifrekin. Bilboren kasuan, jarduerarako joera konparatiboki handiago hori 50 urtetik gorakoen artean ere atzeman da (% 60,1), baina 25-49 urteko pertsonen artean, berriz, batez bestekoa baino zifra nabarmen txikiagoa du adierazitako eskualdeak. Bestalde, EAEko batez besteko espezifikoekiko jardueraldea handiena 35 urtetik gorakoen artean ikusten da Ezkerraldean, bereziki 50 urtetik gorako pertsonen gogozkiela. Tolosa-Goierrin, ostera, 35 urtetik gorakoen artean batez bestekoa baino jarduerarako joera handiagoa egoteaz gain, EAEko batez besteko espezifikoekiko jardueraldea

esanguratsuak 35-49 urteko pertsonen taldera mugatuta daude. Ezaugarri hori, hots, 35-49 urteko pertsonen taldean jarduera-tasa txikiagoa izate hori, izan ere, aztertutako hiru eskualdeetako bigarren ezaugarria dugu.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasak, sexuaren eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Adina				Guztira
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	>50 urte	
Gasteiz	39,0	87,2	89,3	57,9	73,4
Aiaraldea	35,9	83,9	82,2	56,1	69,5
Eskuinaldea	32,1	81,9	82,9	55,8	67,6
Bilbo	38,3	83,6	83,0	60,1	71,1
Ezkerraldea	38,2	86,9	84,9	56,1	71,1
Bizkaia-Kosta	21,7	88,0	87,6	56,3	70,7
Durungaldea	31,8	87,4	83,4	56,7	70,2
Donostialdea	37,1	89,7	87,1	58,5	73,4
Tolosa-Goierri	37,4	89,0	83,5	57,8	71,5
Debagoiena	16,6	86,2	89,8	60,9	70,6
Debabarrena	38,7	83,0	85,7	54,4	69,0
Guztira	35,6	86,6	85,6	57,7	71,5

2.2. Azkenaldiko bilakaera.

Jarduera-datuen azkenaldiko bilakaera aztertzerakoan³, nabarmendu beharreko datu bat dago, azken urteetan 16-64 urteko biztanleria aktiboaren gaineko zifrek epe luzean hedatzeko izandako joerak bultzada berria izan duela, hain zuzen ere. Horrela, biztanleria aktiboaren bolumena % 3,5 hazi zen 2007-2009 biurtekoan; 1997-2007 denbora-tartean ikusitako hazkundearen (% 6,5) erdiaren baino gehiagoren baliokidea da adierazitako zifra hori, eta baita 2005-2007 biurtekoko % 0,5 baino askoz handiagoa ere, Horrela, 2001-2005 denbora-tartean biztanleria aktiboaren ezaugarria izan zen hazkunde-dinamika hartzen da berriz ere, aktiboaren bolumena % 4,2 haziz, 1997-2001 laurtekoan horrelako biztanleriak izandako hazkunde-erritmoa txikiagotzearekin kontraesanean (zehazki, % 1,7, eta 1993-1997 aldian, berriz, % 2,1).

³ Jarduera-zifrek azkenaldian izan duten bilakaera aztertzeko, kontuan izan behar ditugu lehengo mende amaieran Eurostatek eta Eustatek egindako aldaketak, jarduerarekiko loturari dagokionez, biztanleriaren aldagaia osatzeko prozeduran. Konparazio batera, jatorrizko BJA metodoko datuei eustea erabaki da, 2001era arte (urte hori barnean hartuta) eta hortik aurrera, metodo berriari dagozkion datuekin lan egitea.

Jarduera-tasen azkenaldiko gorakadarekin –2005-2007 aldian ikusitakoa finkatzen duenarekin– lotuta dago arestian aipatutako aldaketa; 2005-2007 aldian, bestalde, biztanleria aktiboren hazkundeak izandako moteltzea bi urte horietan biztanleria potentzialki aktiboaren bolumena jaitsi izanarekin lotuta dago batez ere. 2003-2005 denbora-tartean ikusitako geldialdiarekin kontrastean (jarduera-zifrak % 69,6ra iritsi ziren denbora-tarte horretan), orduz geroztik jarduera-tasa berreskuratu egin zen, 2006an % 70era iritsiz, eta 2007an, berriz, % 70,3ra. Areagotze hori handiagoa izan zen 2007-2009 aldian, 2009an % 71,5eko zifrara iritsiz. Epe luzean, jarduera-tasaren hazkundea begien bistakoa da; jarduera-tasa apenas % 64,1 zen 1997an.

Biztanleria aktiboaren bilakaera oso desberdina da 2007-2006 aldian, sexuaren arabera. Batetik, 2007-2009 aldian gizonen biztanleria aktiboak jaisteko zuen joera finkatu zen (% -0,4); 2005-2007 aldian ikusi zen lehen aldiz prozesu hori, % 0,6ko jaitsierarekin. Aitzitik, adierazitako denbora-tartean emakume aktiboen bolumenaren hazkunde-erritmoa areagotu zen, % 8,9ko igoerarekin (2005-2007 biurtekoko zifra baino lau aldiz baino gehiago handiagoa, aldi horretan % 2 baitzen). Horrenbestez, emakumeen biztanleria aktiboaren goranzko joera bizkortu egin zela adierazten dute datu horiek, eta bizkortze horrek, berriz, 2003-2005 aldian erregistratutako geldialdiarekin eta 2005etik aurrera gizonen biztanleria eraginpean hartzen zuen jaitsierarekin kontrastatzen du. Oro har, 2005-2009 aldian gizonetako aktiboen kopuruak % 1eko jaitsiera izan zuen, eta emakumetako aktiboenak, berriz, % 11,1eko igoera.

Emakumeen jardueraren bilakaeran izandako kontrasteak 2007-2009 aldian sexuen araberako jarduera-tasak nabarmen hurbiltzen lagundu zuen. 1997-2007 aldian etengabe baina neurrian murriztu ondoren (1997an 23,7 puntuko aldea izatetik 2007an 20,7 izatera aldatuz), diferentziala ia sei punturekin murriztu zen 2007-2009 aldian, 14,9 puntuan geratuz 2009ko amaieran. Emakumeen jarduera-tasak epe luzean izandako gorakadarekin –2007-2009 aldian bereziki handia izan zenarekin– lotuta dago deskribatutako joera; tasa hori % 52,2 zen 1997an, % 55,3 2001ean, % 58,4 2005ean, % 59,9 2007an eta % 63,9, azkenik, 2009an. Dena dela, azken urteotan lehen aldiz gizonen jarduera-tasetan ikusitako beherakadak ere eragina du. Hala, 1997-2005 aldian % 75,9tik % 80,5era igo ondoren, gizonen tasak jaitsiera garrantzitsua izan zuen, 2009an % 78,9ra iritsi arte.

Jarduera-zifrek azkenaldian izandako bilakaeran alde handiak islatzen dituen beste aldagai bat adina dugu. Horri dagokionez, daturik deigarriena biztanleria aktiboaren bolumenak gazteen taldean izandako beherakadari eutsi ziola da. 2005-2007 aldiarekin konparatuz beherakadaren erritmoa moteldu bazen ere, 2007-2009 aldian 25 urtetik beherako biztanleria aktiboak % 7,7ko jaitsiera izan zuen, eta 25-34 urtekoen taldeak, berriz, % 2,5.

25 urtetik beherakoen kasuan, berriz, 16-24 urteko biztanleria aktiboaren bolumen osoaren % 44,2 metatzen zuten 1997-2007 aldian zifra horiek. Jaiotze-tasaren jaitsierarekin ez ezik (zalantzarik gabe, hori da kausa garrantzitsuena), jarduerarako gero eta joera txikiagoarekin ere lotuta dago adierazitako joera. 1997ko % 39,1etik handiagotu eta gero, 25 urtetik beherakoen jarduera-tasa 2003an % 45,2 izatetik 2005ean % 39,7, 2007an % 38,1 eta 2009an % 35,6 izatera aldatu zen horri dagokionez. 1997-2009 aldian ikusitako zifrarik txikiena dugu 2009koa, alde handiarekin.

Biztanleria aktiboen bolumenak jaisteko izan duen joera 25-34 urtekoen kasuan ere atzeman da, dimentsio kualitatibo deigarriagoarekin. Horrela, 1997-2007 aldian adin horietako aktiboen kopuruak % 5,9ko beherakada izan bazuen eta azken urteotan beherakada-erritmoa moteldu bazen ere, kasu horretan pertsona aktiboen zifretan izandako beherakada handienak 2005-2009 aldikoak dira. Laurteko horretan, 25-34 urteko biztanleriak % 6,6ko beherakada izan zuen, 1993-1997 eta 1997-2001 laurtekoetako % 1etik beherako murriztapenekin kontrastean. Talde horretan jarduera-tasak 2003tik aurrera izandako beheranzko joera, halaber, 2007-2009 aldian areagotu zen. Horrela, 2003an % 89,4 izatetik 2005ean % 87,5 izatera aldatu zen, eta 2009an, berriz, % 86,6 izatera.

Beste muturrean, jarduera-zifren bilakaerak azken urteotan oso positiboa izaten jarraitu zuen 35 urtetik gorako pertsonen kasuan. 35-49 urteko pertsonen taldeari dagokionez, biztanleria aktiboa % 20,3 hazi zen 1997-2007 aldian, eta 2005-2007 aldian % 3,8ko hazkunde nabarmena izaten jarraitu zuen, 2007-2009 aldian hazkunde hori % 5era iritsiz. Taldearen jarduera-tasak goranzko joerari eutsi zion, 1997an % 79 baitzen, 2005ean % 83,1 eta 2009an % 85,6.

Baina 50 urtetik gorakoen artean handitu zen gehien biztanleria aktiboa, 1997-2007 aldian % 37,4 handitu zela erregistratu baitzen; 2007-2009 aldian, berriz, handiagotze horrek % 11,8ko hazkundera izan zuen. Bilakaera positibo horrek jarduera-tasa nabarmen haztearekin lotuta dago (1997an % 44,1 zen, 2001ean, berriz, % 48,7, 2005ean, ostera, % 52,2, eta 2009an, azkenik, % 57,7), 25 urtetik beherakoei azken urte honetan dagokien tasa baino 22 puntu baino apur bat gehiago (1997an apenas 4,9 puntuko aldea zegoen).

Aipatutako aldaketak inplikazio garrantzitsuak izaten ari dira biztanleria aktiboaren barne-egituraren oinarriko ezaugarrien konfigurazioan, zehazki biztanleria gazteenaren garrantzia murriztuz. Horrela, bada, 1997an 35 urtetik beherakoak Euskadiko biztanleria aktiboaren % 45,2 ziren baina proportzioa jaitsi egin zen, 2005ean % 37,7ra, 2007an % 35,3ra eta 2009an % 32,9ra.

Egun bizi dugun krisialdi-testuinguruan, ikusitako joerek (horien ezaugarria da 35 urtetik gorako pertsonen jarduerak bilakaera hobea duela, 50 urtetik gorakoen artean bereziki handiak diren efektuekin, eta kontuan hartuz testuinguru horretan, era berean, emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzen ari direla) jardueraren aurrean erakusten duten jokabide mota 1997. urtea baino lehen ikusitakoarekin alderatuz oso desberdina da. Uzkuordura edo atzeraldi ekonomikoko aurreko aldietan, izan ere, kolektibo gazteenak eta zaharrenak (bereziki, emakumeen artean) lan-merkatutik ateratzea izan ohi zen jokabide nagusien ezaugarrietako bat. Gaur egun, lan-merkatutik ateratzeko prozesuak biztanleria gazteenean du eragina, baina ez biztanleria zaharrenean, ezta emakumeen artean ere. Aldaketa hori, neurri batean, okupaziorako sarbidea izateko eredu baten ondorio da, eta eredu horrek, enplegua sortzeko prozesu luze batean –2007an buru eman zuenean–, emakumei eta adineko pertsonari mesede egin die modu bereizgarrian.

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(2005-2009 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Sexua eta adina	Absolutuak			Hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gizonak	583.244	579.896	577.695	-0,6	-0,4	-1,0
Emakumeak	414.036	422.462	459.964	2,0	8,9	11,1
< 25 urte	77.482	67.659	62.459	-12,7	-7,7	-19,4
25-34 urte	298.791	286.114	279.003	-4,2	-2,5	-6,6
35-49 urte	410.211	425.889	447.237	3,8	5,0	9,0
50-64 urte	210.796	222.695	248.960	5,6	11,8	18,1
Guztira	997.280	1.002.357	1.037.659	0,5	3,5	4,0
Jarduera-tasa	69,6	70,3	71,5			

**16-64 urteko biztanleriaren jardueraren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldian)**

(%-tan)

Sexua eta adina	Jarduera-tasak					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gizonak	75,9	78,9	80,1	80,5	80,5	78,9
Emakumeak	52,2	55,3	59,0	58,4	59,9	63,9
< 25 urte	39,1	40,1	45,2	39,7	38,1	35,6
25-34 urte	88,5	87,9	89,4	87,5	87,4	86,6
35-49 urte	79,0	80,6	82,4	83,1	84,2	85,6
50-64 urte	44,1	48,7	51,0	52,2	53,6	57,7
Guztira	64,1	67,2	69,6	69,6	70,3	71,5

2007-2009 aldirian jarduera-tasaren hazkundera bereziki handia izan zen zenbait EAEko zenbait eskualdetan. Hori horrela izanik, jarduerarako joera 1,6 puntu handitu zen Bizkaia-Kostan, 2,5 puntu inguru Bilbon eta Gasteizen eta 3,3 puntu Ezkerraldean. Donostialdean handiagotzea positiboa izan bazen ere, zertxobait txikiagoa izan zen (+0,6 puntu). Gasteizen kasuan, azkenaldiko bilakaerak joera-aldaketa bat ezarri du, 2005-2007 aldirian jarduera-tasa murriztu ondoren; gainerako eskualdeetan, bestalde, 1997az geroztik ikusitako jarduera-tasa zabaltzeko prozesua finkatu da.

Gasteizen eta Donostialdearen kasuan ez bezala (eskualde horietako jarduera-tasak EAEko batez bestekoa baino handiagoak ziren 2007an), errolda honetan kontuan hartutako Bizkaiko hiru eskualdeetan ikusitako areagotze handiari esker, EAEn 2009an zegoen batez besteko mailetara hurbil daitezke eskualde horiek, bereziki Bilboren eta Ezkerraldearen kasuan. Arestian aipatutako bi eskualde horietako jarduera-tasa EAEko batez bestekoa baino 1,5 puntu txikiagoa zen 2007an.

16-64 urteko biztanleriaren gaineko zifra orokorren bilakaera dela-eta, biztanleria aktiboaren hedatze-joera bereziki nabarmena da, eskualde horien barruan, Bilbon, Ezkerraldean eta Gasteizen. Toki horietan, biztanleria aktiboaren bolumena % 4,7, % 6,3 eta % 9,3 hazi zen 2007-2009 aldirian, hurrenez hurren, % 3,6tik gora Bizkaia-Kostan eta % 1,9tik gora Donostialdean. Bilboren kasuan izan ezik (eskualde horretan, biztanleria aktiboaren bolumena 2007-2009 aldirian baino ez zen hasi hazten, apenas % 4,4 haziz 1997-2009 aldirian), bilakaera horren ondorioz, aktiboaren guztizko kopuruak % 10etik gorako hazkundera izan zuen erreferentziazko eskualdeetan hamabi urteko denbora-tarte horretan.

Lehen aipatutako eskualdeetan jarduerak izan duen bilakaera positiboaren kasuan ez bezala, EAEko gainerako eskualdeetan jarduera-tasak behera egin zuen 2007-2009 biurtekoan, gutxien urbanizatutako eta industria-sektorearen garrantzi handieneko eskualdeetan izan ezik. Hortaz, jarduera-tasa 0,5 puntutik gora murriztu zen Durangaldean eta Debabarrenean, 1,2 puntu Eskualdean eta 2,5 puntu inguru Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Kasu gehienetan beheranzko joera duela gutxi hasi bazen ere, zenbait tokitan 2005-2007 aldirian atzemandako aldaketa finkatu zuen 2007-2009 biurtekoko bilakaerak. Horrela, biurteko horretan Eskualdeko jarduera-tasa egonkortu zen, Tolosa-Goierri eta Debagoienean jarduerarako joera jaisteko prozesua hasiz (jarduera-tasa oso nabarmenki handitu zen 1997-2005 aldirian eskualde horietan).

16-64 urteko biztanleriak gora egin zuen aztertutako zenbait eskualdetan, baina jarduera-tasaren jaitsierak ez zuen eragotzi zenbait kasutan biztanleria aktiboaren guztizko bolumenak hazten jarraitzea, 2007-2009 aldirian Aiaraldean eta Durangaldean puntu bateko areagotzeak gertatuz, gutxi gorabehera. Aiaraldearen kasuan 1997-2009 aldi osoan areagotze hori soilik % 8

baino apur bat handiagoa izan ez bazen ere, errealitate horri esker, 1997-2009 aldian Durangaldeak hazkunde handienetakoa izaten jarraitu zuen aktiboen kopuruari dagokionez (% 15,1).

2007-2009 aldian, biztanleria aktiboaren bolumena egonkortu egin zen Debabarrenean, baina hala eta guztiz ere, eskualde horrek biztanleria aktiboaren % 0,2 galdu zuen 1997-2009 aldian; erregistro hori bereziki negatiboa da EAEn testuinguruan. Bestalde, erreferentziazko biurtekoko jaitsiera erlatiboki txikia izan zen Eskuinaldean (% -0,4). Hala eta guztiz ere, eskualde horretan % 12,5eko hazkundeari eutsi zitzaion 1997-2009 aldi osoan.

Termino erlatibotan, biztanleria aktiboaren azkenaldiko galera deigarriena Gipuzkoako bi eskualderi dagokie, zehazki, Debagoienari eta Tolosa-Goierri, % 2 baino jaitsiera apur bat txikiagoekin. Bilakaera hori 1997-2009 aldian Tolosa-Goierri eskualdean biztanleria aktiboak izandako % 7ko hazkundearekin bateragarria da oraindik ere, baina Debagoienean hazkunde hori % 2,3raino murriztu zuen.

Aurkeztutako datuak aztertuz egiazta daitekeenez, 1997-2009 aldian biztanleria aktiboa ia erabat egonkortu zitzaielako nabarmendu ziren Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeak; Bilbon, Tolosa-Goierri, eta Aiaraldean, berriz, biztanleria aktiboa bere neurrian baino ez zen hazi (% 4,4, % 7 eta % 8,4). Gainerako eskualdeen kasuan, biztanleria aktiboak denbora-tarte horretan izandako hazkunde % 10-15 izan zen, eta Gasteizek eta Bizkaia-Kostak maila hori gainditu zuten, % 17,5 inguruko zifrekin.

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2009 aldia)

(Aktiboak, hazkunde %-tan eta jarduera-tasak izandako aldaketak)

Eskualdea	Aktiboak				Hazkunde %-tan		Jarduera-tasa			
	1997	2005	2007	2009	09/97	09/07	1997	2005	2007	2009
Gasteiz	118.371	126.798	127.298	139.082	17,5	9,3	69,2	71,1	70,7	73,4
Aiaraldea	18.841	19.590	20.271	20.426	8,4	0,8	66,3	68,7	72,2	69,5
Eskuinaldea	67.131	76.113	75.813	75.543	12,5	-0,4	61,6	68,8	68,8	67,6
Bilbo	158.664	155.757	158.086	165.573	4,4	4,7	64,1	66,7	68,8	71,1
Ezkerraldea	171.575	180.138	177.597	188.730	10,0	6,3	59,8	66,9	67,8	71,1
Bizkaia-Kosta	49.729	53.989	56.463	58.488	17,6	3,6	65,9	69,1	69,2	70,7
Durangaldea	49.424	53.615	56.288	56.878	15,1	1,0	62,9	69,3	70,8	70,2
Donostialdea	206.199	222.380	223.299	227.522	10,3	1,9	65,9	72,5	72,8	73,4
Tolosa-Goierri	48.454	53.887	53.006	51.863	7,0	-2,2	64,0	74,4	73,8	71,5
Debagoiena	28.339	31.155	29.674	28.999	2,3	-2,3	63,7	73,6	73,2	70,6
Debabarrena	24.596	23.859	24.563	24.555	-0,2	0,0	63,0	65,8	69,8	69,0
Guztira	941.324	997.280	1.002.357	1.037.659	10,2	3,5	64,1	69,6	70,3	71,5

2007-2009 aldian jarduera-tasan jaitsiera izan zuten eskualdeen kasuan, gizonen jarduera-tasak beherakada handia eduki izana elementu erabakigarria izan zen. Tasa hori 3,5-4,1 puntu murriztu zen Aiaraldean, Eskuinaldean eta Durangaldean, 4,9-5,4 puntu Tolosa-Goierri eta Debagoienean eta 6,7 puntu Debabarrenean. Alabaina, jarduera-tasak 2007-2009 aldian izandako beherakadaren intentsitatea agertzerakoan, eskualde horietako batzuetan emakumeen jarduera-tasak izandako bilakaera garrantzitsua dela adierazi behar da; izan ere, jarduera-tasaren beherakada handienak –Aiaraldekoko, Tolosa-Goierrikoa eta Debagoienekoa– emakumeen jarduera-tasak nolabait egonkortzearekin edota jaistearekin lotuta daudela ikusiz (Eskuinaldean, ostera, 1,8 puntuko hazkundera gertatu zen, Durangaldean 2,6koa eta Debabarrenean 5,7koa).

Gizonen jarduera-tasek 2007-2009 aldian egonkortzeko edota jaisteko joera zuten testuinguruan, 2007-2009 aldian hedakorrek ziren eskualdeen kasuan (egonkortze edo jaitsiera horiek orain arte aipatutako eskualdeetakoak baino txikiagoak baziren ere) fenomeno hori emakumeen jarduera-tasaren goranzko bilakaerarekin lotuta dago jarduerarako joerari dagokionez. Horrenbestez, jarduera-tasa orokorra handiagotzea emakumeen jarduera-tasa nabarmen handiagotzearekin lotuta dago Gasteizen, Bilbon eta Ezkerraldean, 5 puntutik gora handiagotzearekin, hain zuzen ere. Ezkerraldearen kasuan, hazkunde horretan lagundu du adierazitako denbora-tartean gizonen jarduera-tasa ia puntu bat areagotu izanak. Donostialdean eta Bizkaia-Kostan emakumeen tasak hazkunde txikiagoa izanaren ondorioz (2,4 eta 3,1 puntu, hurrenez hurren), jarduera-tasa orokorrak ere goranzko bilakaera izan du, gizonen jarduera-tasa egonkortu izanak edota gehiegi jaitsi ez izanak faboratuta.

Eskualdeen eta sexuen arabera 2007-2009 aldian gertatutako tasa-aldaketek, laburbilduz, emakumeen jarduera-tasaren hobekuntza-mailaren eta jarduera-tasaren dinamika orokorraren artean lotura estua dagoela islatzen jarraitzen dute. Testuinguru horretan, eta aurreko aldietan bezala, gizonen jarduera-tasetan gerta litekeen bilakaera negatiboak emakumeen tasaren efektu positibo muga dezakeen faktore izaten jarraitzen du.

Nolanahi ere, batzuetan emakumeen jarduera gutxiago hazteko edota egonkortzeko eta jaisteko joera zuen testuinguruan, gizonen jardueraren beherakadaren dimentsioak beste eginkizun bat izan zuen 2007-2009 aldian. 2005-2007 aldian EAeko eskualde gehienetan emakumeen jarduerak bilakaera positiboak izan bazuen ere, 2007-2009 aldian EAeko eskualde askotako tasa orokorretan ikusitako beherakadaren intentsitatea agertzeko oso kontuan hartu beharreko bihurtu zen arestian aipatutako faktore hori, haren garrantzia eta intentsitatea handiagotu egin baitziren.

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera
(2007-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Sexua			
	Gizonak		Emakumeak	
	2007	2009	2007	2009
Gasteiz	82,2	79,6	58,7	67,0
Aiaraldea	82,6	78,9	60,9	59,4
Eskuinaldea	79,5	75,4	58,3	60,1
Bilbo	78,7	78,3	59,1	64,2
Ezkerraldea	79,0	79,9	56,2	62,1
Bizkaia-Kosta	78,4	78,5	59,5	62,6
Durungaldea	81,6	78,1	59,4	61,9
Donostialdea	81,8	80,6	63,7	66,1
Tolosa-Goierri	83,9	79,0	62,7	63,1
Debagoiena	78,5	73,1	67,5	67,8
Debabarrena	82,5	75,7	56,1	61,7
Guztira	80,5	78,9	59,9	63,9

Adinaren araberako jardueraren gaineko datuak ere garrantzitsuak dira. 2007-2009 aldian jarduera-tasa orokorrean beherakada izan zuten eskualdeen kasuan (Aiaraldea, Eskuinaldea, Durungaldea, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debabarrena), 50 urtetik beherakoen artean, eta are argiago, 35 urtetik beherakoen artean jarduerak izandako bilakaera negatiboak zeregin erabakigarria izan zuela egiazta daiteke. Aitzitik, ia eskualde guztietan, Tolosa-Goierri izan ezik, 50 urtetik gorako jarduerarako joerak goranzko joera orokorra izan zuela nabarmen daiteke.

Bestalde, 2007-2009 aldian jarduera-tasa orokorrean izandako bilakaera positiboa, bilakaera onena izan zuten eskualdeei dagokienez, 35 urtetik gorako biztanleriaren ia jarduera-tasa gehienek izandako areagotzearekin lotuta dago, eta Bilbo da areagotze horretatik kanpo geratu zen eskualde bakarra, 35-49 urteko pertsonen dagokienez. Eskualde askotan, hala nola Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, 35 urtetik beherako biztanleriaren jardueratasak egonkortzeko, edo maiztasun handiagoz, jaisteko prozesua konpentsatzeko joera du arestian aipatutako bilakaera horrek. Hala eta guztiz ere, Gasteizen, eta are argiago, Bilbon, ikusten da pertsona gazte horiek jarduerarako duten joerak izandako gorakadak ere eragina duela jarduera-tasa orokorraren hazkunderan, eta era berean, EAEko lurralde gehienetan atzemandako joera orokor negatiboarekin kontrastatzen du horrek guztiak.

**16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
(2007-2009 aldia)
(%-tan)**

Eskualdea	Adina							
	< 25 urte		25-34 urte		35-49 urte		50-64 urte	
	2007	2009	2007	2009	2007	2009	2007	2009
Gasteiz	37,4	39,0	85,8	87,2	85,3	89,3	55,4	57,9
Aiaraldea	38,4	35,9	91,2	83,9	85,6	82,2	54,3	56,1
Eskuinaldea	39,7	32,1	86,3	81,9	83,5	82,9	52,5	55,8
Bilbo	32,0	38,3	80,1	83,6	84,3	83,0	55,1	60,1
Ezkerraldea	40,9	38,2	88,4	86,9	80,6	84,9	46,8	56,1
Bizkaia-Kosta	24,1	21,7	91,7	88,0	82,3	87,6	53,6	56,3
Durangaldea	33,0	31,8	88,6	87,4	85,8	83,4	53,3	56,7
Donostialdea	43,8	37,1	89,5	89,7	85,3	87,1	56,8	58,5
Tolosa-Goierri	43,0	37,4	92,7	89,0	85,7	83,5	58,2	57,8
Debagoiena	36,9	16,6	89,9	86,2	91,4	89,8	53,7	60,9
Debarrena	41,5	38,7	92,2	83,0	85,7	85,7	51,8	54,4
Guztira	38,1	35,6	87,4	86,6	84,2	85,6	53,6	57,7

3. Biztanleria landuna

3.1. Egungo egoera. Datu orokorrak.

BJA metodora eta elebaziora egokitutako terminotan, LMEan detektatutako 16-64 urteko biztanleria landuna 947.259 pertsona ziren 2007aren amaieran, eta honenbestez, EAEn adin aktiboko biztanleriaren okupazio-koefizientea % 65,2 da⁴.

Biztanleria aktiboan gertatzen zen bezala, okupazio-zifrei dagokienez, sexuen artean desoreka garrantzitsua dago. Horrela, ikusten da biztanleria landunaren % 55,4 gizonak direla, eta % 44,6 emakumeak. Landunen taldean gizonak garrantzi handiagoa eta jarduerarako joera handiagoa izateak okupazio-koefizienteetako alde garrantzitsuekin lotuta dago: % 71,6 gizonen artean eta % 58,8 emakumeen artean.

16-64 urteko biztanleria landuna, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta okupazio-koefizienteak %-tan)

Sexua	Absolutuak	%	Okupazio-koefizienteak
Gizona	524.590	55,4	71,6
Emakumea	422.669	44,6	58,8
Guztira	947.259	100	65,2

2009aren amaieran, EAeko okupazio-koefizientea EB-27ko herrialdeetako (% 64,4) baino apur bat handiagoa zen. Euskadik Europar Batasuna (EB-27) osatzen duten estatuetako hamaseik baino maila hobea zuen urte horretan. Europar Batasun zaharraren barruan, EAeko okupazio-mailak hegoaldeko estatu gehienetakoak (Espainia, Italia edo Grezia) baino handiagoak dira, baita Europako erdialdeko eta iparraldeko zenbait herrialdeetakoak baino handiagoak ere, hala nola Frantzia, Belgika edo Irlanda; eta Finlandiarekin alderatuz gero, 3 puntu baino gutxiagoko aldea dugu. Zabaltzearen ondorioz sartutako beste herrialdeen artean, Ziprek eta Esloveniak soilik dute EAek baino okupazio-koefiziente handiagoa, eta 2009an Estoniak eta Letoniak EAek baino okupazio-koefiziente txikiagoa zuten.

⁴ Okupazio-koefizientea honako hau da: erreferentziako biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urteko biztanleria) lan egiten ari diren biztanleek osatzen duten proportzioa.

Europar enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (pertsona aktibo guztiei dagokienez, biztanleria landunaren kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori formaren aldetik ez da oso zuzena, izan ere enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da horrela. Horregatik, LMErako *okupazio-koefiziente* kontzeptua erabiltzea nahiago da.

Haatik, 2007an ikusitakoarekin alderatuz, okupazio-koefizienteak enplegu-maila handienak zituzten herrialdeekin zuen distantzia zabaldu egin zen oro har. Erresuma Batuarekin alderatuz, distantzia hori 4,5 puntukoa da, eta Alemaniarekin, Austriarekin eta Suediarekin alderatuz, berriz, 6 puntutik gorakoa. Danimarkarekin alderatuz, 9 puntukoa da, eta Herbehereekin alderatuz, azkenik, 11,3 puntukoa.

Erreferentzia gisa EB-27ko batez besteko orokorra oinarri hartuta, alabaina, EAEk lehen aldiz gainditzen ditu Europako okupazio-koefizienteak, gizonen nahiz emakumeen kasuan. Horrela, EAEko emakumeen okupazio-koefizienteak Europakoa 0,3 punturekin gainditzen zuen 2009an (EAEkoa, % 58,8, eta EB-27koa, % 58,5).

Hala eta guztiz ere, koefiziente hori zenbait herrialdetakoa baino 10 puntutik gora txikiagoa da, hala nola Herbeheretakoa, Danimarkakoa edo Suediakoa baino 10 puntutik gora txikiagoa. Orobat, zifra hori beste hainbat herrialdetakoa, esate baterako, Alemaniakoa, Austriakoa, Erresuma Batukoa eta Finlandiakoa baino 5-9 puntu txikiagoa da. Haatik, 2007-2009 aldian distantzia hori txikiagotu egin zen adierazitako herrialde gehienek kasuan.

Adierazitakoa gorabehera, emakumeen okupazioak izandako bilakaera positiboaren aurka, gizonen okupazio-koefizientean EAEren aldeko diferentziala 5,9 puntutik 1,3 puntura murriztu zen, (EAEren kasuan, % 71,6, eta EB-27ren kasuan, berriz, % 70,3). 2009an, izan ere, EBko hamar herrialdek EAEko gizonen okupazio-maila gainditzen zuten, eta 2007an berriz, apenas hiruk (Zipre, Danimarka eta Herbehereak). Greziakoa, Txekiar Errepublikakoa, Luxemburgekoa, Erresuma Batukoa eta Suediakoa baino 3 puntu txikiagoa da adierazitako koefizientea, baina Alemaniarekiko, Austriarekiko, Ziprerekiko edo Danimarkarekiko aldea 4-6 puntu da. Herbehereekiko distantzia, oster, 10,1 puntu da.

EAEko gizonen koefizienteak 2006tik aurrera zenbait herritakoa –esaterako, Erresuma Batukoa– gainditzen bazuen ere, enpleguaren duelako gutxiko dinamikak, horrenbestez, aldaketa erabakigarria ekarri zuen alderatutako okupazio-mailetan, EAEko gizonen biztanleriari dagokionez. 2007an hiru herrialderen azpitik zegoen EAE, eta 2009an, oster, hamar estatuk gainditzen zuten; halere, badago hori baino negatiboagoa den beste datu bat, distantzia handiagotu egin zela, hain zuzen, zehazki, 2007an puntako herrialdeekin (Danimarka eta Herbehereak) 2-4 puntuko aldeak izatetik 2009an 5-10 puntuko aldeak izatera aldatu zen.

**Adin aktiboan dagoen biztanleriaren okupazio-koefizienteak Europar Batasunean,
sexuaren arabera. 2009. urtea**
(%-tan)

Estatua	Sexua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Alemania	76,0	67,1	71,6
Austria	77,4	66,0	71,6
Belgika	67,3	56,2	61,8
Bulgaria	65,3	57,2	61,2
Zipre	77,2	62,9	70,0
Danimarka	77,0	71,4	74,2
Eslovakia	66,1	52,2	59,2
Eslovenia	71,2	63,5	67,5
Estonia	60,8	62,5	61,7
Finlandia	67,8	66,7	67,3
Frantzia	67,9	59,6	63,7
Grezia	72,8	48,7	60,8
Hungaria	61,0	50,2	55,5
Irlanda	64,5	56,6	60,6
Italia	68,1	46,1	57,1
Letonia	57,5	59,2	58,4
Lituania	57,1	60,2	58,7
Luxemburg	72,8	56,6	64,8
Malta	70,9	38,3	55,0
Herbehereak	81,7	71,3	76,5
Polonia	65,9	53,0	59,4
Portugal	70,3	61,3	65,7
Erresuma Batua	74,4	65,1	69,7
Txekiar Errepublika	73,6	56,7	65,3
Errumania	64,0	50,8	57,4
Suedia	73,4	69,1	71,3
Espainia	65,4	52,5	59,0
EB-27	70,3	58,5	64,4
EAE	71,6	58,8	65,2

Iturria: 2009ko LIE- 4. hiruhilekoa (15-64 urtekoei aplikatutakoak). Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) datuak EAErako.

Eskualdeen okupazio-koefizientei dagokienez, EAEko eskualdeetako posizioa askotarikoa da. Krisialdia gorabehera, 2009an EAEko eskualde gehienek EB-27ko batez bestekoa (% 64,4) baino okupazio-koefiziente handiagoa izateagatik nabarmentzen jarraitzen zuten. Eskualde horien barruan, Donostialdeak, Tolosa-Goierrik eta Debagoienak zuten posiziorik hobereena, argi eta garbi % 65etik gorako okupazio-koefizienteekin (% 67,9, % 67,4 eta % 66,7, hurrenez hurren). % 65 inguruan dabilta Arabako eskualdeak (% 65 Aiaraldean eta % 65,5 Gasteizen) eta Bizkaia-Kosta (% 65,2) oraindik ere.

Baina 2007an ez bezala, aipatutako eskualde horietatik bat bera ere ez da hurbiltzen Europan okupazio-maila handiena duten Estatuaren posizioetara, 16-64 urteko biztanleriaren okupazioari dagokionez, % 70etik gorako okupazio-koefizienteak baitituzte⁵.

Horretaz gain, eta 2006an edo 2007an ez bezala, orain eskualde asko daude berriz ere EB-27ko okupazioaren batez besteko mailatik behera. 2009an, Bilbo inguruko hiru eskualdeak berriz ere Europako batez bestekoaren azpitik edo maila horretan zeuden: Eskuinaldean eta Ezkerraldean % 63,5 inguruko okupazio-koefizientea zuten, eta Bilbon % 64,4; Durangaldea ere antzeko egoeran zegoen (% 63,9). Hala ere, kasu horietako ezeinetan Europarekiko distantziak ez du gainditzen puntu bateko aldea. Europarekiko alderik handiena Gipuzkoako eskualde batek dauka, Debabarrenak, 16-64 urteko biztanleriaren barruko okupazio-koefizientea % 62,6 izanik (EB-27ko batez bestekoa baino 1,7 puntu gutxiago).

Gogoan izan beharrekoa da konparazio-okerragotzeko prozesua 2006-2007 aldira aurreratu zela Bilboaldean. Aldi horretan, adierazitako eskualdeko okupazio-koefizientea Europako 2007ko batez bestekoa baino apur bat beherago kokatu zen berriz ere, Ezkerraldearen antzeko posizioan kokatuz (Ezkerraldeak ez du sekula gainditu EBko batez bestekoa).

Okupazio-maila orokorra emakumeen okupazio-koefizienteekin lotuta dago hein handi batean. Ildo horretan, EB-27ko emakumeen batez besteko okupazio-koefizientetik gora edo gertu dauden EAEko eskualdeak Europako batez besteko okupazio-maila erraz gainditzen dutenak dira oro har, hala nola Gasteiz, Bizkaia-Kosta, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena. Eskualde horietako batzuetan emakumeen okupazio-koefizienteak EB-27koak baino nabarmen handiagoak dira. Debagoienera bereziki handia da maila hori, % 63,4ko koefizientea izaki, eta beraz, Europako maila altuenetatik gertu dago. Gasteizen eta Donostialdean ere emakumeen koefizientea % 60tik gorakoa da, zehazki, % 61,3 eta % 61,7, hurrenez hurren.

Aiaraldea dugu EB-27koa baino koefiziente orokor handiagoa izaki gaur egun emakumeen koefizientea Europakoa eta EAEkoa baino nabarmen txikiagoa duen eskualde bakarra (Arabako eskualdean, % 54,9, eta Euskadin, berriz, % 58,8). Hala ere, gizonen okupazio-koefizientea Europakoa nahiz EAEkoa baino askoz ere handiagoa duelako nabarmentzen da adierazitako eskualdea (% 74,4).

⁵ Aiaraldean, Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debagoienera (% 70etik gora), okupazio-koefizientea Europako batez bestekoa baino handiagoa zen 2007an (5-7 puntu), eta Europan okupazio-maila handienak zituzten herrialdeetako posizioetatik hurbil zeuden (egia esan, soilik honako haueetatik urruntzen ziren nabarmen: Suediako % 74tik, Herbehereetako % 76,4tik eta Danimarkako % 77,4tik).

Donostialdea eta Tolosa-Goierri ere % 74-75eko mailetan kokatzen dira gizonen okupazio-koefizienteei dagokienez, eta zirkunstantzia horri esker, EAEko rankingeko lehen postuetan kokatzen dira okupazio-koefiziente orokorren mailari dagokionez. Euskadin emakumeen okupazio-maila handia duten Gasteiz eta Debagoiena eskualdeek, aitzitik, zenbait posizio galdu zituzten oro har, 2009an EAEko testuinguruan gizonen okupazio-maila txikiak –zehazki, % 70 baino apur bat txikiagoak– izatearen ondorioz. Egoera hori apur bat orekatuagoa da Bizkaia-Kostan; izan ere, eskualde hori, funtsean, EAEko batez besteko mailetan kokatuta dago, gizonen zein emakumeen okupazio-koefizienteei dagokienez.

Bilboko egoera, alabaina, Aiaraldean ikusitakoaren kontrakotzat har dezakegu. Horren ildotik, % 58ko edo hortik gorako emakumeen okupazio-koefizientea izaki okupazio-adierazle orokorrean EAEko batez besteko orokorretik behera kokatuta dagoen eskualde bakarra da. Eskualde horretan gizonen okupazio-koefizientea % 70,4 delako gertatzen da hori, hots, Europakoa baino hamarren bat handiagoa baina EAEkoa baino puntu batetik gora txikiagoa.

EAEkoa baino okupazio-koefiziente orokor txikiagoa duten gainerako eskualdeetan (Eskuinaldea, Ezkerraldea, Durangaldea eta Debabarrena) emakumeen okupazioa % 55,4-56,9 da, hau da, EAEko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa. Gizonen okupazio-mailak % 70etik beherakoak izateak, bestalde, Eskuinaldea eta Debabarrena okupazio-ranking orokorretako azken postuetan egotea agertzen du.

2009an gizonen okupazio-koefizienteek aurreko urteetan ikusitakoarekin alderatuz garrantzi desberdinak izan dituztela nabarmendu behar da. 2007ra arte, EAEko eskualdeetan gizonen okupazio-maila altua izateak emakumeen okupazio-maila konparatiboki baxuak konpentsatzea ahalbidetzen zuen, eta horri esker, okupazio-koefiziente orokorrak EB-27ko batez besteko mailak baino altuagoak ziren oro har; 2009an, errealitate horrek Aiaraldean baino ez zuen jarraitzen birtualtasuna izaten, eta baita Bizkaia-Kostan ere, baina askoz ere gardentasun txikiagoz. Izan ere, 2007an EAEko eskualde guztiek Europako gizonen batez besteko okupazio-maila argi eta garbi gainditzen zuten, eta 2009an, berriz, Gasteizek, Debagoienak, Debabarrenak eta Eskuinaldeak EB-27ko gizonen batez besteko okupazio-koefizientea baino txikiagoa zuten, Bizkaiko gainerako eskualdeak batez besteko horren antzeko mailetan kokatuz.

Emakumeen okupazioari dagokionez, azkenik, nabarmendu beharrekoa da Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon, Donostian eta Debagoienean guztizko biztanleria landunaren barruan emakumeek garrantzi erlatibo handiagoa dutela, % 45-46,5eko zifrekin. Ezkerraldeko, Bizkaia-Kostako, Durangaldeko eta Debabarreneko zifrak, ostera, ez dira arestian aipatutakoak baino askoz ere txikiagoak, % 43 ingurukoak izaki. Tolosa-Goierriin proportzio hori % 41,6ra jaisten da, eta gutxienekoa Aiaraldekoa dugu, % 40,7arekin.

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteak, sexuaren eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Sexua			Emakume landunen %-a
	Gizona	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	69,5	61,3	65,5	45,7
Aiaraldea	74,4	54,9	65,0	40,7
Eskuinaldea	69,9	56,9	63,3	45,9
Bilbo	70,4	58,6	64,4	46,5
Ezkerraldea	71,4	55,4	63,5	43,3
Bizkaia-Kosta	72,0	58,0	65,2	43,3
Durungaldea	71,0	56,5	63,9	43,2
Donostialdea	74,1	61,7	67,9	45,1
Tolosa-Goierri	75,2	58,9	67,4	41,6
Debagoiena	69,7	63,4	66,7	45,9
Debarrena	68,9	55,9	62,6	42,8
Guztira	71,6	58,8	65,2	44,6

Adinaren eta okupazioaren arteko aldea kontuan hartuz, 25-34 urteko taldea biztanleria landunaren barruan nabarmendu beharrekoa dela berretsi da, guztizko okupazioaren % 25,8arekin. Hala ere, tarteko adineko biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa du. Hori horrela izanik, biztanleria landunaren % 44 35-49 urtekoa da, eta 35-44 urtekoek guztizkoaren % 30,1 osatzen dute. 50 urtetik gorakoak biztanleria landunaren % 25 dira, eta 25 urtetik beherakoak, aldiz, apenas % 5,1. EAEko biztanleria landuna zahartzen ari da, biztanleria horren batez besteko adina altua baita gaur egun, zehazki, 41,1 urte⁶.

Okupazio-koefizientearen maila handienak 30-49 urteko pertsonenak dira, zehazki, % 79-80,5. 2009an, mailarik altuena 35-44 urteko pertsonena zen; izan ere, adin horretako pertsonen baino ez zuten gaintitzen % 80ko okupazio-koefizientea, eta 30-34 urtekoen eta 45-49 urtekoen kasuan, koefiziente horiek % 79 ingurukoak ziren.

25-29 urtekoen adin-tarteak eta 50-54 urtekoenak, bestalde, EAEko batez besteko okupazio-koefizienteak gaintitzen jarraitzen zuten, % 72,2ko eta % 71,7ko zifrekin, hurrenez hurren. Zifrak % 60,4ra jaisten dira 55-59 urteko pertsonen kasuan, eta askoz ere argiago, 20-24 urtekoen kasuan, % 50eko maila gaintitu gabe (zehazki, % 42,4 du). Okupaziorako sarbidea are eskasagoa da 60-64 urteko pertsonen kasuan (% 27,5), eta are txikiagoa 20 urtetik beherakoaren artean. Kolektibo horretan, erreferentziazko taldearen guztizko biztanleriaren % 5,2 baino ez dira landunak.

⁶ Batez besteko hori biztanleria landunari dagokio, orokorrean; beraz, 65 urtetik gorako landunen talde txikia ere barnean hartuta dago.

16-64 urteko biztanleria landuna, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta okupazio-koefizienteak %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Okupazio-koefizienteak
16-19 urte	3.689	0,4	5,2
20-24 urte	44.594	4,7	42,4
25-29 urte	102.597	10,8	72,2
30-34 urte	142.259	15,0	79,0
35-39 urte	147.509	15,6	80,4
40-44 urte	137.449	14,5	80,1
45-49 urte	132.106	13,9	78,8
50-54 urte	116.094	12,3	71,7
55-59 urte	85.842	9,1	60,4
60-64 urte	35.119	3,7	27,5
Guztira	947.259	100	65,2

Adinaren gaineko datuak eskualdeen arabera kontuan hartuz, okupazio-koefiziente orokor handienak dituzten eskualdeak (Arabakoak eta Gipuzkoakoak, Debarrena izan ezik, eta Bizkaia-Kosta) 35-49 urteko biztanleriari dagokionez EAEko batez bestekoa baino okupazio-koefiziente nabarmen handiagoak dituztelako nabarmentzen direla esan dezakegu (Aiaraldea da salbuespen bakarra).

Alabaina, erreferentziazko eskualdeak desberdinak dira beste zenbait alderditan. Horietako bik, Donostialdeak eta Tolosa-Goierrik –Euskadiko okupazio-maila altuena dutelako nabarmentzen direnek, hain zuzen–, EAEko batez bestekoak baino okupazio-koefiziente handiagoak dituzte adin guztietan, bereziki 50 urtetik gorakoei dagokienez. Diferentzial argiena (+4,3 puntu Donostialdean eta +5,1 Tolosa-Goierrian), alabaina, 25-34 urteko pertsonena da.

Debagoiena, bestalde, 35 urtetik gorako pertsonen taldean okupazio-koefiziente handiak dituelako nabarmentzen da (+8,3 puntu 35-49 urteko pertsonen kasuan eta +3,9 puntu 50 urtetik gorakoenean); 25-34 urtekoen taldean batez bestekoaren antzeko koefizientearekin eta 35 urtetik beherakoen taldean oso okupazio-maila txikiarekin konpentsatzen da errealitate hori (-15 puntu batez bestekoarekin alderatuz). Bi zirkunstantzia horiek direla-eta, Debagoieneko okupazio-koefiziente orokorra Donostialdekoa eta Tolosa-Goierrikoa baino zertxobait txikiagoa zen 2009an.

Bizkaia-Kostak eta Gasteizek, ostera, 35-49 urteko pertsonen taldean baino ez dituzte gainditzen EAEko batez besteko mailak argi eta garbi, eta gainerako adin-taldeetan batez besteko balioen inguruan daude. Bi eskualde horietan, hala ere, balio horietatik beherako zifrak detektatzen dira adin-talde batzuetan: 25-34 urtekoen taldean Gasteizen kasuan (-2,7 puntu EAEko batez bestekoarekin alderatuz) eta 25 urtetik beherakoen taldean Bizkaia-Kostaren kasuan (-10,9). Zirkunstantzia horrek azaltzen du eskualde horietako balio orokorrak okupazio-maila handieneko eskualdeetakoak baino txikiagoak izatea.

Aiaraldea, bestalde, ezohiko kasua da, % 65 inguruko edo hortik gorako okupazio-koefizienteak dituzten eskualdeen artean, 35-49 urteko pertsonen taldean batez bestekotik behera dagoen eskualde bakarra baita (-1,8 puntu). Gainerako adin-taldeek batez bestekoen antzeko balioak dituzte, baina 25-34 urteko pertsonen kasuan 1,1 puntu gehiago.

Okupazio-maila txikiak dituzten eskualdeak –Durangaldea eta Debabarrena– 25 urtetik gorako adin-talde guztietan EAEko erreferentziako batez bestekoa baino zifra txikiagoak zituztelako nabarmendu ziren 2009an. Debabarrenak 25-34 urteko pertsonen okupazio-maila txikia izateak (-4,8 puntu EAEko batez bestekoarekin alderatuz), gainera, okupazio-mailari dagokionez eskualde horrek Euskadiko posizio txarra izatea azaltzen du.

Bilbok, bestalde, EAEko okupazio-koefiziente okerrenetakoak ditu 25-49 urtekoen taldean, baina egoera hori hein batean konpentsatzen du 25 urtetik beherakoen nahiz 50 urtetik gorakoen mailak batez bestekoak baino nabarmen handiagoak izatearekin. Azkenik, Eskuinaldean eta Ezkerraldean EAEko batez besteko mailaren antzeko okupazio-koefizienteak daude 35 urtetik beherakoen taldean, baina okupazio orokorreko maila konparatua txikia izatearen arrazoia zera da, 35-64 urteko pertsonen okupazio-koefizienteak baxuak direla 35-64 urtekoen kasuan.

Okupazio-mailarik handieneko eskualdeei dagokionez, nolana ere, eta kontuan hartuz salbuespen bakarra Bilbo dela 50 urtetik gorako taldean, 35 urtetik gorako pertsonen taldean okupazio-koefiziente txikiak daude eskualde guztietan. Okupazio-maila handiena duten EAEko eskualdeak normalean 50-64 urtekoei dagozkien batez besteko zifretan kokatzen direnez gero, 35-49 urtekoen okupazio-diferentziala –eskualde horietan % 81etik gorako zifrak eta okupazio-maila txikiagoa dutenetan % 78,5eko edo hortik beherako zifrak dituenak– erabakigarria da Euskadiko okupazio-koefiziente orokorretako desberdintasunak agertzeko.

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteak, adinaren eta eskualdearen arabera (%-tan)

Eskualdea	Adina				
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	>50 urte	Guztira
Gasteiz	28,5	73,3	81,5	55,5	65,5
Aiaraldea	26,7	77,1	78,0	55,0	65,0
Eskuinaldea	27,1	75,6	78,3	53,5	63,3
Bilbo	30,4	72,0	76,8	57,0	64,4
Ezkerraldea	27,5	76,5	77,3	51,9	63,5
Bizkaia-Kosta	16,6	76,7	82,4	54,5	65,2
Durangaldea	27,3	73,8	78,0	53,6	63,9
Donostialdea	29,6	80,3	82,2	55,9	67,9
Tolosa-Goierri	28,6	81,1	81,4	56,1	67,4
Debagoiena	12,5	76,2	88,1	58,8	66,7
Debabarrena	28,7	71,2	78,5	53,4	62,6
Guztira	27,5	76,0	79,8	54,9	65,2

3.2. Egungo egoera. Egiturazko datuak.

3.2.1. Sektorearen eta jarduera-adarraren arabeko datuak.

EAEko biztanleria landunaren sektoreen arabeko banaketak zerbitzuen sektorea gailentzen zela azaltzen zuen 2009an; izan ere, aztertutako biztanleriaren % 67,5 da sektore hori. Industriak landunen % 22,5 biltzen ditu, eraikuntzak, berriz, % 8,4 eta lehen sektoreak, azkenik, % 1,6.

Jarduera-adarrak aintzat hartuta, okupazioa honako eremu hauetan banatzen da nagusiki:

- a) Merkataritza eta ostalaritza: % 20,2
- b) Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak: % 15,7
- c) Metalurgia, eta makineriaren eta bestelako materialen eraikuntza: % 14,1
- d) Finantza-erakundeak eta enpresetarako gainerako zerbitzuak: % 12,8
- e) Eraikuntza: % 8,4
- f) Beste merkataritza-zerbitzu batzuk (etxeko zerbitzua barne): % 7,2
- g) Garraioak eta komunikazioak: % 6,2
- h) Administrazio Publikoa: % 5,4
- i) Manufaktura-industria (paperaren sektorea barnean hartuta): % 4,4
- j) Beste industria batzuk (kimika, energia, erauzketa, kautxua): % 3,9
- k) Nekazaritza eta arrantza: % 1,6.

Datuek honako hau adierazten dute: batetik, zuzeneko industria-produkzioarekin eta nekazaritza-produkzioarekin alderatuta, zerbitzuen sektorea gero eta gehiago ari dela gailentzen (% 67,5-32,5eko proportzioan), eta bestetik, industriaren barnean, metalaren sektoreak (guztizko okupazioaren % 14,1), eta zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkataritza-zerbitzuek –

merkataritza, ostalaritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta etxeko zerbitzua– oso garrantzi handia dutela. Sektore horiek okupazioaren % 27,4 biltzen dute, zerbitzu publikoek, orokorrean, aldiz, % 21 (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, Administrazio Publikoa), eta gizabanakoentzako eta enpresetarako zerbitzu orokorrek % 19,1 biltzen dute (garraioak eta komunikazioak, finantza-erakundeak eta enpresetarako zerbitzuak).

16-64 urteko biztanleria landuna, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektorea eta adarra	Absolutuak	%
Nekazaritza	15.131	1,6
Industria	213.230	22,5
Eraikuntza	79.332	8,4
Zerbitzuak	639.080	67,5
Nekazaritza	11.979	1,3
Arrantza	3.152	0,3
Erauzketa-industria	1.887	0,2
Elikagai-industria	12.597	1,3
Paper-industria	12.203	1,3
Industria petrokimikoa	8.269	0,9
Kautxu-industria	13.536	1,4
Bestelako gai ez-metalikoen industria	6.065	0,6
Metalurgia	58.515	6,2
Makinagintza	34.986	3,7
Material elektrikoa	13.925	1,5
Garraio-materiala	26.427	2,8
Bestelako manufaktura-industria	17.291	1,8
Energia-produkzioa	7.527	0,8
Eraikuntza	79.332	8,4
Merkataritza	135.720	14,3
Ostalaritza	55.787	5,9
Garraioak eta komunikazioak	59.114	6,2
Finantza-erakundeak	23.186	2,4
Enpresetarako zerbitzuak	98.159	10,4
Administrazio Publikoa	50.978	5,4
Hezkuntza	68.346	7,2
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	79.857	8,4
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	43.214	4,6
Etxeko zerbitzuak	24.719	2,6
Zehaztu gabe	486	0,1
Guztira	947.259	100

Eskualde-esparruan, nabarmendu beharreko funtsezko datu bat dago: 2007ra arte ikusitakoaren kasuan ez bezala, gaur egun, zerbitzuen sektorea EAeko eskualde guztietan da nagusi. 2007an, Aiaraldearen, Durangaldearen, Tolosa-Goierriren eta Debagoienaren kasuan nekazaritzan, industrian eta eraikuntzan zegoen okupazio gehiena, baina, harrez geroztik, zerbitzuen sektoreko okupazioak hartu zuen hegemonia eskualde horietan. Debagoiena da

jarduera ekonomikoen bi nukleo handien garrantzi orekatuari eusten jarraitzen dion eskualde bakarra, % 49,8arekin.

Industriari eta eraikuntzari dagokienez, bigarren sektorearen baterako garrantzia % 49,4 da Debagoiengan, % 44-45 inguru Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, eta % 40,2 Durangaldean. Gasteizen proportzio hori % 34,4ra jaisten da, eta Bizkaia-Kostan % 30,9ra. Gainerako eskualdeetan industriaren garrantzi erlatiboa % 30etik beherakoa da, eta Bilbon dago gutxienekoa, % 22arekin.

Industria-esparruan, metalaren industrian enpleguak duen garrantzia (metalurgia eta makineriaren eta bestelako materialen eraikuntza) nabarmentzekoa da industria-garrantzi handieneko zenbait eskualdetan. Hain zuzen, Deba ibaiaren haraneko eskualdeetan gertatzen da hori, zehazki, Debagoiengan % 37,8arekin eta Debabarrenean % 34,9arekin. Zifrak % 25 baino apur bat handiagoak dira Durangaldean eta Tolosa-Goierri (% 25,3 eta % 26,2, hurrenez hurren), eta Aiaraldean, berriz, % 21,7 da. Eraikuntzak eta gainerako industriek, bestalde, okupazioaren % 10 gaintzen dute eskualde horietan, gutxienekoa Debabarrenean izanik, % 10,4arekin. Adar horietako okupazioak garrantzi bereziki handia du Aiaraldean, okupazioaren % 23,7ra heltzen dela.

Zerbitzuen sektorearen hegemonia argia da EAEko eskualde gehienetan, Gasteizko eta Bizkaia-Kostako biztanleria landunaren % 63 eta Ezkerraldeko eta Donostialdeko % 69-70eko zifrak barne. Eskuinaldean eta Bilbon, izan ere, sektorearen okupazioa % 75etik gora ere iristen da, maila handiena Bilbon dagoela, % 77,7arekin.

Zerbitzuen sektoreak garrantzi handiena duen gune geografikoei dagokienez (Bilbo inguruko hiru eskualdeak eta Donostialdea), eskualde horietan merkataritza-zerbitzuen (merkataritza, ostalaritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta etxeko zerbitzua) eta finantza-entresa eta -erakundeetako zerbitzuen artean dauden aldeak egiteko bereizgarria erabakigarria da. Azken adar horietan okupazioaren garrantzia Ezkerraldeko % 42,5 eta Eskuinaldeko % 45,4 bitartekoa da (Bilbon % 44,6 eta Donostialdean % 43,4). Eskualde horietan guztietan, ehuneko balio horiek industriako eta eraikuntzako landunen balioak baino gutxienez 13 puntu handiagoak dira.

Nekazaritza eta arrantzari dagokienez, 2007an Bizkaia-Kostan (% 5,6) eta Aiaraldean (% 4) soilik zuten garrantzi esanguratsua bi adar horiek. EAEko gainerako eskualdeetan % 3tik behera kokatu ziren.

16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Jarduera-sektorea			
	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gasteiz	2,7	27,4	7,0	62,9
Aiaraldea	4,0	38,0	7,4	50,7
Eskuinaldea	0,5	17,3	6,0	76,3
Bilbo	0,2	14,2	7,8	77,7
Ezkerraldea	1,1	18,5	11,1	69,3
Bizkaia-Kosta	5,6	20,9	10,0	63,5
Durangaldea	1,1	33,5	6,7	58,7
Donostialdea	1,6	19,3	8,8	70,3
Tolosa-Goierri	2,4	36,2	8,2	53,2
Debagoiena	0,4	43,4	6,0	50,2
Debarrena	1,5	38,6	6,7	53,2
Guztira	1,6	22,5	8,4	67,5

16-64 urteko biztanleria landunaren banaketa eskualdearen eta jarduera-adarraren arabera
(% bertikalak)

Jarduera-adarra	Eskualdea											
	Gasteiz	Aiaraldea	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia-Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa-Goierri	Debagoiena	Debarrena	
Nekazaritza	2,7	4,0	0,5	0,1	1,1	2,3	1,1	1,0	2,4	0,4	1,2	
Arrantza				0,1		3,3		0,5			0,3	
Erauzketa-industria	0,1	0,0	0,2	0,2	0,3		0,6	0,2		0,2	0,3	
Elikagai-industria	1,7	1,8	1,1	0,3	1,0	3,0	0,4	1,8	1,6	1,9	0,9	
Paper-industria	0,8	0,7	0,8	1,2	1,2	0,7	1,0	1,7	3,9	0,6	0,9	
Industria petrokimikoa	0,7	0,9	1,6	0,9	1,7	0,4	0,7	0,6	0,3			
Kautxu-industria	4,2	3,1	0,5	0,7	0,7	1,8	1,0	1,4	0,8	0,6	1,3	
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,5	4,4	0,5	0,5	0,9	0,1	1,3	0,3	1,0	0,6		
Metalurgia	7,1	13,6	4,1	3,2	5,0	4,4	15,1	3,7	11,5	15,5	13,6	
Makinagintza	2,5	2,9	2,1	1,7	2,3	2,9	3,9	4,4	6,6	15,0	14,3	
Material elektrikoa	1,6	0,8	1,4	1,6	1,1	1,6	0,9	1,5	2,1	1,8	2,0	
Garraio-materiala	5,6	4,3	1,5	0,9	2,3	3,0	5,4	1,2	5,9	5,5	5,0	
Bestelako manufaktura-ind.	2,2	4,7	1,2	1,4	1,5	1,8	2,5	2,1	2,5	1,1	0,3	
Energia-produkzioa	0,5	0,8	2,2	1,7	0,4	1,2	0,6	0,4		0,5		
Eraikuntza	7,0	7,4	6,0	7,8	11,1	10,0	6,7	8,8	8,2	6,0	6,7	
Merkataritza	12,2	11,5	15,6	12,9	16,7	13,6	14,6	15,5	13,3	10,2	13,5	
Ostalaritza	6,2	5,5	6,2	5,5	5,6	5,8	3,6	7,2	4,8	4,9	5,6	
Garraioak eta komunikazioak	4,7	3,6	7,5	7,8	7,0	6,3	5,1	6,9	4,4	2,1	2,9	
Finantza-erakundeak	1,5	1,5	3,5	4,2	1,8	1,8	0,9	2,9	1,4	2,5	1,2	
Enpresetarako zerbitzuak	9,6	7,0	11,7	14,3	11,5	4,8	9,9	9,9	7,1	7,7	7,9	
Administrazio Publikoa	7,6	2,9	6,6	7,1	5,0	7,3	4,5	3,9	2,7	3,7	1,7	
Hezkuntza	5,8	6,4	6,8	8,3	5,6	8,8	7,6	8,0	7,3	9,1	7,4	
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	8,4	6,8	10,0	9,9	9,2	8,2	6,7	8,1	5,8	6,0	5,4	
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	4,2	3,4	4,5	3,9	4,9	5,9	3,4	5,6	3,6	2,2	4,7	
Etxeko zerbitzuak	2,7	1,9	4,0	3,8	2,0	1,1	2,3	2,2	2,9	1,9	2,8	
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

Okupazioaren barne-banaketaren gaineko datuak aztertzerakoan zuhurtzia apur bat eduki behar da. Gerta daiteke datu horiek behar bezala ez azaltzea sektoreek eta jarduera-adarrek eskualde jakin batean duten benetako eragina. Adierazitako eragin hori zehatzago neurtu behar da sektoreetako okupazioaren koefizienteak –hots, okupazio-sektore bakoitzak 16-64 urteko biztanleriaren barruan duen garrantzia– aztertuta.

Hortaz, esate baterako, egiaztatu dugu zerbitzu-sektorearen garrantzia berriz ere argi eta garbi azaltzen dela Bilbon, Eskuinaldean eta Donostialdean, 16-64 urteko biztanleriaren % 47,7-50 sektore horretan aritzen baita, baina aldi berean, Ezkerraldean zerbitzuen adarren egiazko garrantzia apur bat txikiagoa da, eskualde barruan adin aktiboan dagoen biztanleriaren % 44 hartzen duela.

Hala eta guztiz ere, zerbitzuen sektoreak garrantzi handia duen gainerako eskualdeetako baino are handiagoa da Ezkerraldeari dagokion adierazlea, Gasteizkoa eta Bizkaia-Kostakoa baino handiagoa, hain zuzen ere (% 41,2 eta % 41,4, hurrenez hurren). Bi eskualde horietan, halere, sektore horrek okupazio-banaketa orokorrean duen garrantzi konparatiboki txikiagoak (urbanizazio-maila handiko guneekin alderatuz) zerbitzuen sektoreak adin aktiboko biztanlerian eragin kualitatiboki txikiagoa izatearekin baino lotura handiagoa du industriak eta eraikuntzak garrantzi erlatibo handiagoa izatearekin. 16-64 urteko biztanleriak bi sektore horietan duen okupazio-koefizienteak, horrela, % 20ko mailak gainditzen ditu (% 22,5 Gasteizen eta % 20,1 Bizkaia-Kostan), urbanizazio-maila handiko gainerako eskualdeak atari horretatik behera geratuz. Donostialdeko % 19,1eko zifrarekin eta Ezkerraldeko % 18,7ko zifrarekin konparatuz alde horiek oso handiak ez badira ere, Bilbon eta Eskuinaldean ikusitako % 14-15eko mailekin alderatuz oso handiak dira.

70eko eta 80ko hamarkadetan Bilbon eta Bilboko Ezkerraldean eta Eskuinaldean gertatutako desindustrializazio-prozesuaren eragina irudikatzen dute aurreko zifra horiek. Eskualde horietan guztietan, industriako eta eraikuntzako okupazio-koefizienteak % 20 baino txikiagoak ziren 2009an. Bilbon izan da proportzio txikiena (zehazki, % 14,2) eta Ezkerraldean, berriz, handiena (apenas % 18,7). Desindustrializazio-prozesuarekin batera, Bilboko areako eskualdeetako ekonomian hirugarren sektoreak aurrerakada nabarmena izan bazuen ere, begien bistakoa da eskualde horietarako ondorio garrantzitsuak izaten jarraitzen duela, bigarren sektorean oinarri ekonomikoari eustea okupazio-lidergoan lortzeko lehian aritzeko funtsezkoa dela agerian utziz. Ildo horretatik, industriak eta eraikuntzak dituzten okupazio-koefiziente txikiak, dirudienez, Donostialdeko errealitatea Bilbokoarekin edo Eskuinaldekoarekin alderatuz agertzen diren faktore bereizgarri nagusiak dira. Okupazio-koefiziente orokorrak 3,5-4,5 puntuko diferentziala du Gipuzkoako eskualdearen alde, eta hori lotuta dago honako honekin: industriako eta eraikuntzako okupazio-maila Bizkaian aztertutako bi eskualdeetako baino 4,5-5 puntu handiagoa da.

Gutxieneko industria-oinarria finkatzeko premiak, halaz ere, zerbitzuen sektorea behar adina garatuta egotea eskatzen du; izan ere, EAEko zenbait eskualdetan zerbitzuen sektoreak hainbat muga dituela ikusi da. Urbanizazio handieneko eskualdeen esparruan Gasteiz dugu muga horien eraginpeko eskualde nagusia, eskualde horrek zerbitzuetan duen okupazio-koefizientea mota horretako eskualdeetako ohiko mailetatik nabarmen aldenuz. Ildo horretatik, 2009an eskualde horretan zegoen % 41,2ko adierazlea nabarmen alden du zen Bilboko, Eskuinaldeko eta Donostialdeko % 47,5etik gorako zifretatik. Industrian eta eraikuntzan enpleguak garrantzi erlatibo handiagoa izateari esker, Bilbo inguruko hiru eskualdeetako okupazio-koefiziente orokorra gaindi dezake Gasteizek, baina hori gorabehera, zerbitzuen sektorean Donostialdearekin alderatuz duen 6,5 puntuko diferentziala konpentsatzeko ez da nahikoa garrantzi erlatiboa handiagoa izate hori.

EAEEn gutxien urbanizatutako eskualdeek ere badituzte garapen-mugak zerbitzuen sektorean. Horrela, zerbitzuetako okupazioak 16-64 urteko biztanlerian duen garrantzia % 37,5era jaitsi zen Durangaldean, % 35,9ra Tolosa-Goierri eta % 33-33,5eko zifretara Aiaraldean eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan, hots, Debagoiengan eta Debabarrenean. Mota horretako eskualdeei dagokionez, Bizkaia-Kosta dugu gehien urbanizatutako gunetako mailetara hurbiltzen den bakarra.

Alabaina, industrian eta eraikuntzan okupazioak duen intzidentzia EAEEn urbanizazio-maila handiena duten gunetan eta Bizkaia-Kostan baino askoz ere handiagoa da adierazitako eskualdeetan. Adin aktiboko biztanlerian bigarren sektoreko landunek duten proportzioari dagokionez, adierazitako eskualdeen barruan Gasteizek du gehienekoa (zehazki, % 22,5); bestalde, ehuneko hori % 25,7 da Durangaldean, % 28,4 Debabarrenean, eta % 29,5-30eko zifrak Aiaraldean eta Tolosa-Goierri. 2009an gehienekoa Debagoienak izaten jarraitzen zuen, % 32,9arekin.

Bigarren sektoreko okupazio-koefiziente handiari esker, eskualde horietako batzuen kasuan zerbitzuen sektoreen garapen konparatiboki txikia konpentsa daiteke. Horrela, 16-64 urteko biztanleriak industrian eta eraikuntzan % 30eko edo hortik gorako okupazio-maila izateari esker, okupazio-koefiziente orokor handienak dituzten EAEko eskualdeen barruan kokatzen dira Debagoiena eta Tolosa-Goierri. Aiaraldearen kasuan, batetik, 16-64 urteko biztanleriaren % 29,5ek industria-sektorean lana izateari, eta bestetik, biztanleriaren % 2,6k lehen sektorean lana izateari esker, orobat, EAEko batez besteko okupazio-mailetara hurbil daiteke eskualde hori. Bizkaia-Kostako % 3,7ko zifrak ere norabide horretan jokatzen du.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
 (%-tan)

Eskualdea	Jarduera-sektorea			
	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gasteiz	1,7	17,9	4,6	41,2
Aiaraldea	2,6	24,7	4,8	32,9
Eskuinaldea	0,3	10,9	3,8	48,3
Bilbo	0,2	9,2	5,0	50,0
Ezkerraldea	0,7	11,7	7,0	44,0
Bizkaia-Kosta	3,7	13,6	6,5	41,4
Durungaldea	0,7	21,4	4,3	37,5
Donostialdea	1,1	13,1	6,0	47,7
Tolosa-Goierrri	1,6	24,4	5,5	35,9
Debagoiena	0,3	28,9	4,0	33,5
Debarrena	0,9	24,2	4,2	33,3
Guztira	1,0	14,7	5,5	44,0

Kalifikazio-maila handiena eskatzen duten sektoreek 2009an okupazio-mailan zuten eragina balioestean, egiaztatu dugu landunen % 12,3 goi-teknologiako gisa definitzen diren sektoreetan biltzen dela, % 26,2 goi-mailako prestakuntzako sektoreetan eta % 26,2, azkenik, intentsitate kognitibo handia eskatzen duten sektoreetan.

Aztertutako sektore guztiak batera aztertuz, hots, kalifikazio-maila handikotzat har daitezkeenak, zera egiaztatzen da, EAEko biztanleria landunaren % 41,5ek mota horretako sektoreetan duela lana gaur egun.

16-64 urteko biztanleria landuna goi-mailako kalifikazioko sektoreetan
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektore mota	Absolutuak	%
Sektoreak: goi-mailako teknologia	116.495	12,3
Sektoreak: goi-mailako prestakuntza	248.083	26,2
Sektoreak: intentsitate kognitibo handia	304.600	32,2
Goi-mailako kalifikazioko edozein sektore	393.395	41,5
Gainerako sektoreak	553.864	58,5
Guztira	947.259	100

2009an, kalifikazio-maila handiko sektoreek biztanleria landunaren banaketan zuten garrantzi erlatibo handiena Debagoienak zuen, % 49,7arekin. Eta horren ondoren, Bilbok eta Debarrenak, % 47,3ko eta % 46,6ko zifrekin, hurrenez hurren. Aztertutako sektoreek okupazioan zuten garrantziak ere % 40ko mailak gainditzen zituen Eskuinaldean (% 43,7) eta Donostialdean (% 41,7).

Zifrak % 39,9ra jaitsi ziren Gasteizen kasuan, eta % 38,3-39,2ko mailalara Ezkerraldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin. Zifrarik baxuenak Bizkaia-Kostari eta Aiaraldeari dagozkie (% 35,4 eta % 33,4, hurrenez hurren).

Testuinguru horretan, era berean, goi-mailako teknologiako sektoreetan lana duten pertsonen garrantzia nabarmentzekoa da Deba ibaiaren haraneko eskualdeen kasuan, % 23,8arekin Debabarrenaren kasuan eta % 25,4arekin Debagoienaren kasuan. Mota horretako sektoreetan okupazioak duen garrantzia ere oso handia da Tolosa-Goierriin, % 17arekin. EAEko gainerako eskualdeetan % 10-13,7 da proportzio hori.

Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan dagoen 16-64 urteko biztanleria landunaren banaketak duen garrantzia, eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Goi-mailako kalifikazioko sektoreak			
	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Intentsitate kognitibo handia	Goi-mailako kalifikazioa
Gasteiz	12,7	24,6	28,7	39,9
Aiaraldea	10,8	20,5	24,1	33,4
Eskuinaldea	11,3	28,2	36,8	43,7
Bilbo	11,4	32,5	41,9	47,3
Ezkerraldea	10,2	25,4	31,9	39,2
Bizkaia-Kosta	10,0	22,0	27,1	35,4
Durangaldea	13,7	23,5	27,5	38,8
Donostialdea	11,1	27,3	32,6	41,7
Tolosa-Goierri	17,0	19,5	23,2	38,3
Debagoiena	25,4	22,7	27,1	49,7
Debabarrena	23,8	21,6	24,6	46,6
Guztira	12,3	26,2	32,2	41,5

Aurreko datuak aztertzen baditugu, okupazio-koefizienteei dagokienez Bilbok eta Debagoienak bakarrik dute % 30etik gorako proportzioa goi-mailako kalifikazioko sektoreetan lan egiten duen 16-64 urteko biztanlerian (% 30,5 eta % 33,1, hurrenez hurren), eta Debabarrena maila horietara hurbiltzen da (% 29,2).

Erdiko posizioan Donostialdea eta Eskuinaldea daude; eskualde horien kasuan, sektore horietako okupazio-koefizientea % 28,3 eta % 27,7 da, hurrenez hurren. Goi-mailako kalifikazioko sektoretako landunen proportzioa % 26,3 da Gasteizen kasuan eta % 25,8 Tolosa-Goierriin; % 25 baino hamarren batzuk gutxiagoko zifrak dituzte, ostera, Ezkerraldeak eta Durangaldeak. Mailarik baxuenak Bizkaia-Kostari eta Aiaraldeari dagozkie (% 23,2 eta % 21,7, hurrenez hurren).

Goi-mailako teknologiko sektoreetan okupazioak duen eragina 16-64 urteko biztanleriaren % 6,5 eta % 9 da EAEko eskualde gehienetan. Tolosa-Goierri, haatik, % 11,5era jaitsi da, Debabarrenean, aldiz, % 14,9ra, eta Debagoiengan, osera, % 16,9ra.

Okupazio-koefizienteak
Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan dagoen 16-64 urteko biztanleria landuna,
eskualdearen arabera
 (%-tan)

Eskualdea	Goi-mailako kalifikazioko sektoreak			
	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Intentsitate kognitibo handia	Goi-mailako kalifikazioa
Gasteiz	8,4	16,3	18,9	26,3
Aiaraldea	7,0	13,3	15,7	21,7
Eskuinaldea	7,1	17,8	23,3	27,7
Bilbo	7,3	20,9	26,9	30,5
Ezkerraldea	6,5	16,2	20,3	24,9
Bizkaia-Kosta	6,5	14,3	17,8	23,2
Durangaldea	8,8	15,0	17,6	24,8
Donostialdea	7,5	18,5	22,2	28,3
Tolosa-Goierri	11,5	13,2	15,6	25,8
Debagoiena	16,9	15,1	18,1	33,1
Debabarrena	14,9	13,5	15,4	29,2
Guztira	8,0	17,1	21,0	27,1

3.2.2. Lanbidearen araberako datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria landunak 2009an zuen lanbide-egiturari, langile kalifikatuak eta makineriako operadoreak garrantzi handia dute. Izan ere, guztizko okupazioaren % 44,3 osatzen dute, eta langile ez-kalifikatuen taldea gehituz gero (guztizkoaren % 10,7), proportzio hori % 55 izatera iritsiko litzateke.

Piramidearen goialdean teknikariak daude (% 27); autonomoak eta zuzendaritzako langileak, aldiz, biztanleria landunaren % 7,1 dira. Bestalde, langile administrariak okupazioaren % 10,9 biltzen dute.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	Absolutuak	%
Zuzendariak	67.143	7,1
Teknikariak	256.065	27,0
Enplegatu administrariak	103.102	10,9
Langile kalifikatuak	306.394	32,4
Makineriako operadoreak	113.082	11,9
Langile ez-kalifikatuak	100.886	10,7
Zehaztu gabe	586	0,1
Guztira	947.259	100

EAEko enpresetan ez dute modu berean arautzen lanbide-kategoria eta horrek baldintzatu egiten du lanbide-kategoriari buruzko informazioa; hala eta guztiz ere, aldagai hori kontuan izan behar da, lanbidearen eta lanbide-kategoriaren arteko nahasmendua adierazten baitu askotan.

Lanbide- edo behargin-kategoriari buruzko datuek erakusten dute langileen garrantzia argiagoa dela zentzu zorrotzean. Izan ere, langileak guztizko biztanleriaren % 64,9 dira, zehazki, langile kalifikatuak, % 48, eta ez-kalifikatuak, aldiz, % 16,9. Langile arduradunak okupazioaren % 3,4 dira, langile teknikariak, aldiz, % 23,7, eta zuzendaritzako langileak, azkenik, gainerako % 7,9a.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-kategoria	Absolutuak	%
Zuzendariak	74.859	7,9
Teknikariak	224.744	23,7
Arduradunak	32.221	3,4
Kalifikatua	455.006	48,0
Ez-kalifikatuak	160.140	16,9
Zehaztu gabe	289	0,0
Guztira	947.259	100

Lanbidearen aldagaiari erreparatuta berriz ere, ikusiko dugu langileen edo beharginen taldea (kalifikatuak eta ez-kalifikatuak barnean hartuta) dela nagusi ia eskualde guztietan, eta % 60tik gorako mailalara heltzen dela Aiaraldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin. Proportzioa % 58-58,5 da oraindik ere Gasteizen, Debagoiengan eta Debabarrenean. Eskualde horietan guztietan, teknikarien garrantzi erlatiboa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da, eta Aiaraldean, Ezkerraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierriin eta Debabarrenean % 25etik beherakoa. Ildo horretatik, zuzendaritzako langileei dagokienez, EAEko batez bestekoaren antzeko edo hortik beherako zifrak ikusten dira, Tolosa-Goierriren eta Debabarrenaren salbuespen bakarrekin; izan ere, zuzendaritzako langileen garrantzi erlatiboa % 10 baino handiagoa da.

Langile edo behargin kalifikatuen eta ez-kalifikatuen garrantzia % 50etik gorakoa da Donostialdean oraindik ere, baina garrantzi erlatiboa % 51,8ra jaisten da kasu horretan. Teknikarien kolektiboaren garrantzia, kasu horretan, EAEko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da, zehazki, % 26,6. Aitzitik, zuzendaritzako biztanleriari eta enplegatu administrariaren biztanleriari dagokienez, batez besteko hori gainditzen da (eskualde horretako guztizkoaren % 21,6).

Langile edo behargin kalifikatu eta ez-kalifikatuen kolektiboa nagusi izate horren salbuespen argienak Bilbo eta Eskuinaldea ditugu; horrela, kolektibo horren garrantzia % 45,2 eta % 46,8 da eskualde horietan, hurrenez hurren. Langile teknikariek eta enplegatu administrariak beren lanbide-egituraren barruan proportzio handia dutelako gailentzen dira Ezkerraldea eta Bilbo, guztizko biztanleria landunaren % 46,6ko eta % 48,8ko zifrekin, hurrenez hurren (urbanizazio-maila handiko beste zenbait tokitan, proportzio hori % 38,5 da Donostialdean, % 35,7ra jaisten da Gasteizen eta % 33,5era, azkenik, Ezkerraldean).

Alabaina, aurreko urteetan ez bezala, zuzendaritzako langileen kolektiboaren garrantzi erlatiboak EAEko batez besteko mailetatik behera kokatzeko joera du eskualde horietan (% 6,6 Eskuinaldean eta % 6 Bilbon), kasu honetan Gasteizen eta Donostialdean ikusitakoak baino zifra txikiagoekin (% 7,2 eta % 9,8, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Lanbidea			
	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Bestelako langileak
Gasteiz	7,2	26,7	9,0	57,1
Aiaraldea	6,1	21,3	6,6	66,0
Eskuinaldea	6,6	37,0	9,6	46,8
Bilbo	6,0	35,0	13,8	45,2
Ezkerraldea	4,7	22,9	10,6	61,8
Bizkaia-Kosta	4,1	25,5	9,4	61,0
Durungaldea	4,9	19,8	12,1	63,3
Donostialdea	9,8	26,6	11,8	51,8
Tolosa-Goierrri	12,0	19,7	8,3	60,1
Debagoiena	7,3	26,5	9,9	56,3
Debarrena	10,3	20,8	10,5	58,4
Guztira	7,1	27,0	10,9	55,0

Adin aktiboko biztanleriari dagozkion okupazio-koefizienteen maila adierazle gisa erabiliz, lanbide mota bakoitzak benetan duen eraginaren azterketak zenbait ñabardura sartzera behartzen gaitu; horrela, langile edo behargin kalifikatuen nahiz ez-kalifikatuen garrantzi konparatiboki handia eskualde gutxiagotara mugatuta dagoela egiazta dezakegu zehazki.

Mota horretako lanbideek eragin handiena duten eskualdea Aiaraldea da; horrela, eskualde horren kasuan, 16-64 urteko biztanleriaren % 42,9 egoera horretan dago, eta Durungaldea eta Tolosa-Goierrri dira hurrengoak, % 40 baino apur bat handiagoak diren zifrekin (% 40,4 eta % 40,5, hurrenez hurren). Ezkerraldearen eta Bizkaia-Kostaren kasuan, ehuneko hori % 39-40 da. Eskualde horietan, 16-64 urteko biztanleriaren barruan zuzendaritzako langileak, teknikariek eta

enplegatuek duten presentziak % 25 inguruko edo hortik beherako zifretan kokatzeko joera dauka; Tolosa-Goierri, ostera, % 26,9 da proportzio hori.

Datuek irudikatzen dutenez, behargin kalifikatuen eta ez-kalifikatuen benetako garrantzia apur bat txikiagoa da Gasteizen, Debagoienean eta Debabarrenean; horrela, eskualde horretako 16-64 urteko biztanleriaren % 36,5-37,5 dira okupazio-koefizienteak kasu horretan. Gasteizen eta Debagoienaren kasuan, arestian aipatutako eskualdeen kasuan baino zifra altuagoak dituzte zuzendaritzako langileek, teknikariek eta enplegatu administrariak (zehazki, % 28,1 eta % 29,1), Debabarrenaren kasuan ez bezala; kasu horretan, erreferentziazko kolektiboaren presentzia eskualde horretako 16-64 urteko biztanleriaren % 26,1era jaisten da.

Aurreko eskualdeetan ikusitakoarekin kontrastean, zuzendaritzako langileek, teknikariek eta enplegatu administrariak 16-64 urteko biztanlerian garrantzi erlatibo handia dutelako gailentzen dira Eskuinaldea eta Bilbo (% 33,7 eta % 35,3, hurrenez hurren), langile edota beharginen zifra murriztuekin batera, % 30etik beherakoak kasu guztietan, EAeko txikiak, hain zuzen ere (% 29,6 eta % 29,1, hurrenez hurren).

Donostialdeak du posizio onuragarriena, eta okupazioari dagokionez EAeko liderra dela agertzen du horrek. Horri dagokionez, langile kalifikatuen eta ez-kalifikatuen kolektiboak eskualdeko 16-64 urteko biztanlerian duen garrantzi erlatiboa batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa bada ere (% 35,1), zuzendaritzako langileen, teknikarien eta enplegatu administrarien presentzia erlatibo handia duten eskualdeetakoak –esate baterako, Bilboko eta Eskuinaldekoak– baino askoz ere handiagoa da (% 32,8).

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Lanbidea			
	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Bestelako langileak
Gasteiz	4,7	17,5	5,9	37,4
Aiaraldea	4,0	13,8	4,3	42,9
Eskuinaldea	4,2	23,5	6,1	29,6
Bilbo	3,9	22,5	8,9	29,1
Ezkerraldea	3,0	14,6	6,7	39,2
Bizkaia-Kosta	2,7	16,6	6,1	39,8
Durangaldea	3,1	12,6	7,7	40,4
Donostialdea	6,6	18,1	8,0	35,1
Tolosa-Goierri	8,1	13,3	5,6	40,5
Debagoiena	4,9	17,7	6,6	37,5
Debabarrena	6,5	13,0	6,6	36,6
Guztira	4,6	17,6	7,1	35,9

3.2.3. Lanbide-egoeraren araberako datuak.

Lanbide-egoerari dagokionez, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriak okupazioan garrantzia duela ikusiko dugu, biztanleria landunaren % 68,1 biltzen duelako. Garrantziaren arabera, gaur egun bigarren taldea sektore publikoko soldatapeko langileek osatzen dute. Enpresa publikoari eta Administrazioari lotutako langileak kontuan hartzen baditugu, guztizko okupazioaren % 15,3 biltzen dute soldatapeko langile horiek, langile autonomoen kolektiboari dagokion % 9,9 gaindituta. Enplegu-emaile ez-autonomoak guztizko biztanleria landunaren % 3,3 dira, kooperatibistak beste % 2,4, familia-laguntzak % 0,3, eta beste egoera batean dauden pertsonak gainerako % 0,8a.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-egoera	Absolutuak	%
Enplegu-emailea	31.426	3,3
Autonomoa	93.450	9,9
Familia-laguntza	2.395	0,3
Kooperatibista	22.817	2,4
Adm. Publikoko soldatapeko langilea	98.992	10,5
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	46.117	4,9
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	644.830	68,1
Beste egoera bat	7.232	0,8
Guztira	947.259	100

Sektore pribatuko soldatapeko langileen nagusitasun-egoera EAEko eskualde guztietako ezaugarria da. Nolanahi ere, hainbat eskualde nabarmentzen dira biztanleria mota horren proportzioa handiagoa delako, izan ere, lortzen dituzten mailak % 70 inguruak edo hortik gorakoak dira. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, Aiaraldean, Eskualdean, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenean. Eskualde horien kasuan, enpresa pribatuko soldatapeko biztanleriaren proportzioa % 69,8 da Donostialdean eta % 74,5, berriz, Ezkerraldean.

Gasteiz eta Tolosa-Goierrri, bestalde, arestian deskribatutako egoeratik gertu daude, eskualde horietako soldatapeko biztanleriaren % 67,8 eta % 68,7 (hurrenez hurren) enpresa pribatuan baitago. Bilbon proportzioa % 65,4ra jaisten da, eta Bizkaia-Kostan, berriz, % 63ra. Debagoiena are gehiago urruntzen da batez besteko zifretatik, sektore pribatuko soldatapekoak apenas % 50,8 izanik.

Debagoiena eskualdearen ezaugarrietako bat soldatarik gabeko langileen proportzio handia da (% 37,9, EAE osoko batez bestekoa % 15,8 izanik), eta kooperatibismoak gune geografiko

horretan duen garrantziarekin loturik dago ezaugarri hori. Soldatapekoak ez direnen proportzioa ez da hain deigarria, baina batez bestekoa baino nabarmen handiagoa Tolosa-Goierriren kasuan (% 22,6). Gasteizen, Aiaraldean, Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Debabarrenean % 16-18,5eko zifrak dituzte. Eskuinaldean, Bilbon eta Durangaldean mailak % 12,5-14,5eko meletara jaitsi dira, eta Ezkerraldea iritsi da gutxiengora, % 11,6arekin.

Sektore publikoan diharduten soldatapekoen garrantziari dagokionez, biztanleria hori gehiengora iritsi da Bilbon, % 21,3arekin; Bizkaia-Kostan % 18,6 da, eta % 16-17, berriz, Gasteizen eta Eskuinaldean. Ezkerraldean, Durangaldean eta Donostialdean % 13,5-14ra jaitsi dira zifrak, eta % 11-12ko mailetara Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan. Zifrarik baxuenak Aiaraldeari eta Tolosa-Goierri dagozkie (% 9,5 eta % 8,7, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria landunaren banaketa, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera

(% horizontalak)

Eskualdea	Lanbide-egoera		
	Soldatapekoak ez direnak	Soldatapeko langile publikoak	Soldatapeko langile pribatuak eta bestelakoak ⁽¹⁾
Gasteiz	16,0	16,2	67,8
Aiaraldea	17,8	9,5	72,7
Eskuinaldea	12,6	16,7	70,7
Bilbo	14,3	21,3	64,4
Ezkerraldea	11,6	13,9	74,5
Bizkaia-Kosta	18,4	18,6	63,0
Durangaldea	13,8	13,8	72,4
Donostialdea	16,5	13,7	69,8
Tolosa-Goierri	22,6	8,7	68,7
Debagoiena	37,9	11,3	50,8
Debabarrena	16,7	11,7	71,6
Guztira	15,8	15,3	68,8

(1) *Bestelako egoeraren batean* dauden kolektiboa bilduta

Okupazio-koefizienteen azterketak egoera apur bat konplexuagoa dela adierazten du. Sektore pribatuko soldatapeko langileen koefizienteei dagokienez, Debagoieneko maila baxua da nabarmengarria berriz ere; horrela, aipatutako eskualdearen kasuan, kolektibo hori 16-64 urteko biztanleriaren apenas % 33,9 da. Hala eta guztiz ere, Bilbon eta Bizkaia-Kostan ere EAEko batez bestekoa baino zifra nabarmen txikiagoak ikus daitezke (% 41,4 eta % 41,1, hurrenez hurren).

Zifrak batez bestekoaren antzekoak dira, zehazki, % 44,4-44,8 Gasteizen, Eskuinaldean eta Debabarrenean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin erreferentzia hori gaituz, %

46,3arekin. Mailarik altuenak Aiaraldeari, Ezkerraldeari eta Donostialdeari dagozkie, % 47,3-47,4ko zifrekin.

Soldatapeko langile publikoen eragin erlatiborik handiena Bilbori dagokio, eskualde horretan 16-64 urteko biztanleriaren % 13,7 egoera horretan egonik. Zifra hori % 12,1 da Bizkaia-Kostan, Gasteizko eta Eskuinaldeko maila % 10ekin gaindituz (% 10,6 bi kasuetan). Ezkerraldearen, Durangaldearen eta Donostialdearen kasuan, proportzio hori % 8,8-9,3 da. Gainerako eskualdeetan, koefizienteak EAEko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoak dira, Deba ibaiaren haraneko eskualdeetan % 7,5 inguruko zifrak izanik, eta Aiaraldearen eta Tolosa-Goierriren kasuan, berriz, % 6 ingurukoak.

Soldatapekoak ez direnei dagokionez, lanbide-kolektibo horren presentzia nabarmena da Debagoienean, 16-64 urteko guztizko biztanleriaren % 25,2arekin, hots, EAEko batez besteko zifra (% 10,3) baino ia 2,5 aldiz gehiago. Askoz beherago Tolosa-Goierri dago, nahiz eta oraindik EAEko batez bestekoaren gainetik egon argi eta garbi (% 15,2). Jarraian Gasteiz, Aiaraldea, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debarrena daude, % 10,5-12ko zifrekin.

Soldatapekoak ez direnen okupazio-koefizientea % 10 baino txikiagoa da Eskuinaldean, Bilbon eta Durangaldean (% 8-9,2ko zifrak); gutxienekoa, berriz, Ezkerraldeari dagokio, % 7,4arekin.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Lanbide-egoera		
	Soldatapekoak ez direnak	Soldatapeko langile publikoak	Soldatapeko langile pribatuak eta beste batzuk
Gasteiz	10,5	10,6	44,4
Aiaraldea	11,5	6,2	47,3
Eskuinaldea	8,0	10,6	44,8
Bilbo	9,2	13,7	41,4
Ezkerraldea	7,4	8,8	47,3
Bizkaia-Kosta	12,0	12,1	41,1
Durangaldea	8,8	8,8	46,3
Donostialdea	11,2	9,3	47,4
Tolosa-Goierri	15,2	5,9	46,3
Debagoiena	25,2	7,5	33,9
Debarrena	10,5	7,3	44,8
Guztira	10,3	10,0	44,9

2009ko laugarren hiruhilekoan LMEan atzemandako 789.939 soldatapeko langileen % 81,2k kontratu mugagabea du. Horrelako kontraturik gabeko kolektiboak soldatapeko

biztanleriaren % 18,8 dira. Langile horien % 17,1ek aldi baterako kontratua du, eta % 1,8k kontraturik gabe egiten du lan.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Kontratu mota	Absolutuak	%
Mugagabea	641.041	81,2
Aldi baterakoa	134.957	17,1
Kontraturik gabe	13.941	1,8
Guztira	789.939	100

Kontratazio-modalitateak xehetasun handiagoz aztertuz, kontratu mugagabe iraunkorrak % 78,4 direla nabarmendu behar da (% 2,7 gehiago aldizkako kontratu mugagabeak aintzat hartuta). Beste zenbait kontratazio-egoera garrantzitsu obrako eta zerbitzuko kontratuen eta aldi baterako bestelako kontratazio-moduekin lotuta daude (% 8,3 eta % 8,7, hurrenez hurren).

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera
Hurbilketa xehatua
(% bertikalak)

Kontratu mota	%
Mugagabe iraunkorra	78,4
Aldizkako mugagabea	2,7
Ikaskuntza, praktikaldia, prestakuntza	0,6
Urte-sasoikoa	3,0
Probaldikoa	0,6
Bajaren bat betetzeko	1,6
Obrakoa/Zerbitzukoa	8,3
Ahozkoa	0,1
Aldi baterako besteren bat	2,8
Kontraturik gabe	1,8
Guztira	100

Eskualde-eremuan, kontratu motaren eragina aztertuta alde nabarmenak ikusten dira, bereziki, enpresarekiko kontratu-lotura mugagaberik ez duten motetan. EAEko zenbait eskualdetan, lan-kontratu mugagabea ez duen soldatapeko biztanleriaren mailak EAEko batez bestekotik behera daude, % 16-17,6ko zifrekin. Izan ere, Aiaraldea, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debagoiena egoera horretan daude. Eragin hori are txikiagoa da Eskuinaldean, zehazki, % 11,7.

Kontrako muturrean, Ezkerraldean eta Durangaldean EAEko batez bestekoak baino zifra apur bat handiagoak ditu kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko biztanleriaren proportzioak, baina adierazleak % 20tik beherakoak dira kasu horietan (zehazki, % 19,3 eta % 19,4).

Alabaina, Gasteizen, Bilbon eta Tolosa-Goierri % 21,4-22,2ko zifretara igotzen da adierazle hori, Debabarrenean gehienekoa lortuz (% 23,9).

Kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen proportzioa, eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen proportzioa
Gasteiz	22,0
Aiaraldea	17,6
Eskuinaldea	11,7
Bilbo	21,4
Ezkerraldea	19,3
Bizkaia-Kosta	16,0
Durungaldea	19,4
Donostialdea	16,9
Tolosa-Goierri	22,2
Debagoiena	16,6
Debabarrena	23,9
Guztira	18,8

16-64 urteko biztanleria osoan kontratazio mota guztiek duten eraginaren egiazko garrantzia aztertzen badugu, ikusiko dugu mugagabea ez den soldatapeko kontratazioak Gasteizen eta Debabarrenean lortu dituela intzidentzia handienak (% 12 baino apur bat handiagoak), eta Bilbon, Ezkerraldean, Durungaldean eta Tolosa-Goierri intzidentzia hori % 10,7-11,6 dela.

Zifra horiek % 10 baino zertxobait txikiagoak dira Aiaraldean eta Donostialdean (zehazki, % 9,4 eta % 9,5) eta askoz ere txikiagoak Bizkaia-Kostan (% 8,4). Gutxienekoak Eskuinaldeari eta Debagoienari dagozkie, % 6,5-6,8ko zifrekin.

Bestalde, kontratazio mugagabeak 16-64 urteko biztanleria osoan duen eragin handiena Donostialdean eta Eskuinaldean atzeman da (% 46,7 eta % 48,7, hurrenez hurren), Ezkerraldeko % 45 baino apur bat handiagoa, hain zuzen ere. Aiaraldean, Bizkaia-Kostan eta Durungaldean, zifrak EAEko batez bestekoaren antzekoak dira, zehazki, % 43,8-44,1. Gasteizen eta Bilbon, berriz, % 42,5-43ko mailetara jaisten dira, eta Debabarrenean eta Tolosa-Goierri, oster, % 39-40ra.

Debagoiena askoz gehiago aldentzen da zifra horietatik, 16-64 urtekoen % 34,4k soilik baitu soldatapeko kontratu mugagabea; eskualde horretan soldatapeko ekonomiak garrantzi txikiagoa izateak eta lan kooperatiboko eredurako joera egoteak badu zerikusirik aipatutako egoeran.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren eta eskualdearen arabera
 (%-tan)

Eskualdea	Kontratu mota	
	Mugagabea	Ez-mugagabea
Gasteiz	42,9	12,1
Aiaraldea	43,8	9,4
Eskuinaldea	48,7	6,5
Bilbo	42,6	11,6
Ezkerraldea	45,0	10,7
Bizkaia-Kosta	44,1	8,4
Durangaldea	44,1	10,6
Donostialdea	46,7	9,5
Tolosa-Goierra	40,0	11,4
Debagoiena	34,4	6,8
Debarrena	39,2	12,3
Guztira	44,2	10,3

Hemen ez da kontuan hartzen "Bestelako egoeraren bat" izeneko kategoria

Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duen soldatapeko biztanleria landunari buruzko informazioa ere ematen du LMEak. 2009an, eraginpean hartutako pertsonen proportzioa % 2,4 zen.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, Gizarte Segurantzaren aurrean duen egoeraren arabera
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Gizarte Segurantzaren aurrean duen egoera	Absolutuak	%
Kotizatzen dute	770.976	97,6
Ez dute kotizatzen	18.962	2,4
Guztira	789.939	100

Lanaldi aldakorra aztertuta, inkesta egin zen aldian lanaldi normalizatua zuten soldatapeko langileei (721.244 lagun) dagokienez, kasu horretan soilik ikusten da soldatapeko biztanleria landun gehienak (% 66,9) aste bakoitzeko 40 ordu edo gehiagoko iraupena duten lanetan jarraitzen duela, eta % 10 direla asteen 40 orduetik gora lan egiten dutenak. 30-39 orduz lan egiten duten soldatapekoak guztizkoaren % 19,5 dira. 30 orduetik beherako lanaldia (lanaldi partziala, beraz) duten langileek osatzen dute gainerako % 13,6a.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, lan egindako orduen arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanean sartutako orduak	Absolutuak	%
< 10 ordu	12.966	1,8
11-20 ordu	36.940	5,1
21-30 ordu	47.873	6,6
31-35 ordu	99.299	13,8
36-39 ordu	41.435	5,7
40 ordu	410.737	56,9
41-45 ordu	47.467	6,6
> 45 ordu	24.527	3,4
Guztira	721.244	100

Oharra: Adierazitako denboraldian ohiko moduan lan egin zuten soldatapeko langileak

Enplegu jarraitua izan duen biztanleria hartzen badugu kontuan (hortaz, familia-laguntzak eta noizbehinkako lanak edo "lantxoak" ez dira kontuan hartuko), lanaldi partzialeko lanaren proportzioa kalkula daiteke; 30 ordutik beherako iraupen teorikoa dutenak hartuko dira lanaldi partzialtzat. Lanaldi partzialeko enplegua dutenen soldatapekoen proportzioa, hurbilketa horretan, biztanleria landunaren % 12,1era jaisten da.

Eskualdeetako egoera kontuan hartutako adierazlearen arabera aztertuz gero, aipatzeko moduko aldeak sumatzen dira lurraldeetan. Lanaldi partzialeko lanaren sartzeko-maila handienak (% 12,5-13,5) Gasteizi, Durangaldeari, Donostialdeari eta Tolosa-Goierri dagozkie. Aitzitik, proportzio hori % 13,8ra iristen da Bilbon, eta gehienekoa Debarrenak du (% 14,4).

Lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzia txikiagoa da EAEko gainerako eskualdeetan, baita Ezkerraldearen kasuan ere (% 11,6 da eskualde horretan oraino). Debagoienean, adierazle hori % 10 baino txikiagoa da (% 9,3), eta Aiaraldean, Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan, berriz, % 8,3-8,8ko zifrak daude.

Lanaldi partzialeko soldatapeko langileen proportzioa, eskualdearen arabera
(Lanaldi teorikoa)
(%-tan)

Eskualdea	Lanaldi partzialeko soldatapeko
Gasteiz	12,6
Aiaraldea	8,5
Eskuinaldea	8,3
Bilbo	13,8
Ezkerraldea	11,6
Bizkaia-Kosta	8,8
Durangaldea	12,7
Donostialdea	13,3
Tolosa-Goierri	12,8
Debagoiena	9,3
Debarrena	14,4
Guztira	12,1

Oharra: Enplegu jarraituetan okupatutako biztanleria

3.2.4. Egun lana lortzeari buruzko datuak.

LMEak gaur egungo okupazioan emandako denborari buruzko informazioa ematen du. Denbora hori landun bakoitza dagokion enpleguan lanean hasitako urtearen arabera neurtzen da. Eskuragarri dauden datuek erakusten dute lan-merkatuan mugikortasun handia dagoela, eta landunek lanpostuan daramaten denbora igotzen den heinean enpleguen proportzioa pixkanaka-pixkanaka jaitsi egiten dela. Horrela, bada, okupazio-egoera gehienak duela lau urtetik beherako alditik hona okupatutako enpleguei dagozkie (% 36,1). Okupazio-egoeren ia % 56,3 duela 10 urte baino gutxiagoko alditik aurrera okupatutako enpleguei dagokie.

16-64 urteko biztanleria landuna, egungo okupazioan daramaten denboraren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Urteak egungo okupazioan	Absolutuak	%
< 2 urte	160.069	16,9
2-4 urte	182.094	19,2
5-9 urte	190.883	20,2
10-14 urte	128.330	13,5
15-19 urte	76.956	8,1
20 urte edo gehiago	208.887	22,1
Guztira	947.219	100

Oharra: 40 kasu ez dira bildu, horien gaineko informaziorik ez zegoelako.

Enplegua lortzearen azterketa egin ostean, honako datu hau jakitea ere interesgarria iruditu zaigu: egungo lanpostua lortzeko aldi baterako laneko enpresen (ABLE) edo enplegu-bulego publikoren baten laguntza izan dutela diotenen proportzioa. Gure arreta azken bost urteotan izandako enplegu jarraituetan jarritz, zuzeneko eraginak mugatua izaten jarraitzen zuen 2009an. Horri dagokionez, erreferentziazko biztanleria landunaren apenas % 3k lotzen du egungo lana lortu izana bulego publikoek izandako egitekoarekin; proportzio hori ez da gehiegi aldatzen ABLEei dagokionez (% 3,3). Azken urte honetan lortutako enpleguak soilik hartzen baditugu, proportzioa zertxobait handiagoa den arren (% 4,3 eta % 4,9, hurrenez hurren), aintzat hartutako zerbitzuen kudeaketaren eragin zuzena oso txikia da oraino. Egungo enplegua azken bost urteotan lortu duten pertsonen apenas % 6,2k lotzen du ABLEekin edota enplegu-zerbitzu publikoekin (zehazki, lana azken urtean lortu dutenenen % 9k)⁷.

⁷ Kontuan izan datu horietan ez dagoela sartuta ABLEen eta, batik bat, enplegu-bulegoen zeharkako eragina, hasieran enpresen eta langileen artean kontaktua lortzeko ezinbesteko elementuak diren aldetik. Egungo enplegua lortu aurreko prozesuak —enplegu-bulego publikoekin loturikoak— ere ez daude barnean hartuta; esate baterako, informazioa izatea, lanpostuz igotzea, prestakuntzaren bidez hobetzea, eta abar.

Eskualdeen araberako datuetan ez da aldaketa handirik izan bulego publikoen eraginari dagokionez, eskualde gehienek % 3-4ko zifrak dituztela. Hala eta guztiz ere, Deba ibaiaren haraneko eskualdeetan arrakasta-maila handiagoa dagoela nabarmendu behar da; horrela, Debabarrenaren kasuan, % 4,6k azken bost urteetan baliabide horren bitartez lana lortu du, eta Debagoienaren kasuan, berriz, % 8,3k. Zerbitzu publikoen arrakasta-mailak, aitzitik, % 2 inguruko edo hortik beherako zifrak ditu Gasteizen, Aiaraldean eta Donostialdean⁸.

Bestalde, ABLEen eragina % 3,6-4,4 da kasu gehienetan, eta apenas Aiaraldeak gaintzen du % 5eko maila (zehazki, % 5,1 du). Hortik behera, % 2-2,5eko eragin-mailekin, Eskuinaldea, Donostialdea eta Debagoiena ditugu.

Oro har, Debabarrenean eta Debagoienean dute baterako eragin handiena enplegu-bulegoek —publikoek nahiz ABLEek—, azken bost urteetan lana izan duten pertsonen % 8,7-10,5ek zuzenean lotzen baitu enplegua lortu izana horrelako bulegoen kudeaketarekin. Gainerako eskualde gehienetako proportzioa % 6,7-7,5 da (Aiaraldea, Bilbo, Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Tolosa-Goierri). Alabaina, zifrak % 5-6ra jaisten dira Gasteizen eta Eskuinaldean, eta gutxieneko zifra Donostialdeak du, % 3,9arekin.

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman eta enplegu jarraitua duen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(ABLEen edo enplegu-bulego publikoen bidez enplegua lortu dutenak %-tan)

Eskualdea	ABLEen bidezko %-a	Bulego Publikoen bidezko %-a	Bata zein bestea
Gasteiz	4,4	1,4	5,8
Aiaraldea	5,1	1,9	6,9
Eskuinaldea	2,1	3,0	5,1
Bilbo	3,7	3,4	7,0
Ezkerraldea	3,8	3,8	7,4
Bizkaia-Kosta	3,6	3,2	6,7
Durangaldea	4,1	3,6	7,5
Donostialdea	2,0	2,0	3,9
Tolosa-Goierri	3,8	3,5	7,2
Debagoiena	2,4	8,3	10,5
Debabarrena	4,2	4,6	8,7
Guztira	3,3	3,0	6,2

⁸ Hala ere, nabarmendu beharrekoa da Bizkaiko eskualde guztietan eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan zerbitzu publiko horiek nabarmen hobetu zirela 2009an, inkesta egindako urtearen aurreko urtean lana lortu zuten pertsonen ehunekoaren gaineko emaitzei dagokienez.

3.2.5. Enplegua bilatzearen araberako datuak.

Era berean, interesgarria da beste enplegu bat bilatzeak biztanleria landunarengan duen eragina zein den jakitea. Izan ere, egungo lanpostuaren okupazioari dagokionez, langile horiek duten gogobetetze-mailaren eta/edo egonkortasun-mailaren adierazle izan daiteke datu hori.

Horrekin loturik, 42.222 landunek –landun guztien % 4,5ek– adierazi dute gaur egun beste enplegu bat bilatzen ari direla.

16-64 urteko biztanleria landuna, beste enplegu bat bilatzearen arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Beste enplegu bat bilatzen ari da	Absolutuak	%
Bai	42.222	4,5
Ez	905.037	95,5
Guztira	947.259	100

EAEko eskualdeen artean desberdintasunak daude adierazle horri dagokionez. EAEko batez bestekotik behera, eskualde gehienek –Aiaraldea, Eskuinaldea, Bizkaia-Kostak, Durangaldea, Donostialdea eta Tolosa-Goierri– % 3-4ko zifrak dituzte funtsean. % 2,5arekin, alabaina, gutxienekoa Debagoienari dagokio.

Haatik, batez bestekotik gora, biztanleria landunaren artean beste enplegu baten eskaria % 5-5,5 da Gasteizen, Bilboren eta Debabarrenaren kasuan. Ezkerraldea du mailarik handiena, % 6,7arekin.

Beste enplegu bat bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landunaren proportzioa, eskualdearen arabera (%-tan)

Eskualdea	Lan bila ari direnen %-a
Gasteiz	5,0
Aiaraldea	3,9
Eskuinaldea	3,0
Bilbo	5,2
Ezkerraldea	6,7
Bizkaia-Kosta	3,2
Durangaldea	4,1
Donostialdea	3,2
Tolosa-Goierri	3,3
Debagoiena	2,5
Debabarrena	5,3
Guztira	4,5

3.2.6. Enplegu-aniztasuna.

2007ra arte, lanaldi partzialeko lanak garrantzi mugatua zuen gizartean eta ekonomian; horretaz gain, lana bilatzea okupazio berria lortzeko itxaropenarekin lotzen zen, enplegu-osagarriaren helburuarekin baino gehiago. Enplegu-aniztasunaren fenomenoak EAEn oso garrantzi mugatua zuela ulertzeko faktore nagusietako bi ziren arestian adierazitakoak. LMEaren datuen argitara, 16-64 urteko landunen % 1 soilik hartzen zuen eraginpean egoera sozioekonomiko horrek, eta soldatapeko biztanleriari dagokionez, proportzio hori % 0,9ra ere jaisten zen. Egoera hori ez dator bat Europako gainerako herrialdeetako eta Estatu Batuetako errealitatearekin; ni gune geografiko horietan enplegu-aniztasunaren eragina ez den, inolaz ere, txikia.

2009ko datuen arabera, egoera hori ez zen erabat aldatu, baina enplegu-aniztasunaren intzidentzia handiagoa izan zen. Horri dagokionez, biztanleria landunaren % 1,4 eta soldatapeko biztanleriaren % 1,5 eraginpean hartzera iritsi zen faktore hori⁹.

Eragin nabarmen txikiagoa irudikatzen badu ere, 2008ko Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI) ikusitakoarekiko koherentziari eusten dio joera horrek. Horrela, 2004ko LBlari jarraiki, fenomeno horren intzidentzia % 2,2 zen (2005eko eta 2006ko LMEak erregistratutako % 0,8 baino nabarmen handiagoa); 2009ko LBlan bildutako zifrek, ostera, egiturazko enplegu-aniztasunak EAeko soldatapeko biztanleriaren % 3,4rengan eragina zuela erakusten zuten.

Enplegu-aniztasunaren egoeran dagoen 16-64 urteko biztanleria landuna
(% bertikalak)

Enplegu-aniztasuna	%
Bai	1,4
Ez	98,3
Zehaztu gabe	0,3
Guztira	100

Oharra: ED/EE ez dago barnean hartuta

LMEaren hurbilketaren arabera, enplegu-aniztasuna ez zen oso handia EAeko ezein eskualdetan, ia kasu guztietan % 2 baino txikiagoa izanik. Bilbon eta Gasteizen baino ez zen gainditu zifra hori apur bat (% 2 eta % 2,4, hurrenez hurren).

⁹ Egia esan, biztanleria landunaren % 1,7ra igoko litzateke zifra hori enplegu-aniztasunaren galderari erantzun ez dion biztanleria kontuan hartuko bagenu.

Enplegu-aniztasunaren egoeran dagoen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(enplegu-aniztasuneko egoeran daudenak %-tan)

Eskualdea	Enplegu anitz dituztenak % tan
Gasteiz	2,4
Aiaraldea	1,3
Eskuinaldea	0,8
Bilbo	2,0
Ezkerraldea	0,8
Bizkaia-Kosta	0,0
Durangaldea	0,6
Donostialdea	1,8
Tolosa-Goierri	1,5
Debagoiena	1,1
Debarrena	1,3
Guztira	1,4

3.2.7. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak.

2005etik aurrera, biztanleria landunak inkesta egin zen aurreko hilean lortutako diru-sarrera garbiei buruzko informazioa bildu da LMEan. Horri dagokionez, soldatak eragindako diru-sarrerak nahiz soldatarik gabeko jardueretatik datozenak hartuko dira aintzat¹⁰.

Datu horien arabera, 16-64 urteko guztizko landun guztiek izan zuten diru-sarrera positiboren bat 2009an egindako inkestaren aurreko hilean, betiere elkarrizketatuen % 75,6ari buruzko informazioa lortu dela kontuan izanik. EAeko biztanleria landunaren lanaren araberrako diru-sarrera gordinen azterketaren hurbilketari heltzeko nahikoa da adierazitako zifra hori, baina inkestatutako zenbait pertsonak ez erantzun izana garrantzitsua denez, zuhurtzia izan behar dugu ezinbestean. Horri dagokionez, arestian adierazitako zirkunstantzia dela-eta gutxi gorabeherako balioespenekin lan egitea ezinbestekoa da, kontuan izanik datuak falta zaizkien egoerak doitzeko jomuga duen egozpen-prozesuaren bitartez lortu direla balioespen horiek. Jarraian aurkeztuko dugun informazioa, beraz, honako hauetan oinarritzen da: diru-sarrerei buruzko informazioa eman duten pertsona guztietan, eta eskatutako datuak eman ez dituztenen gaineko balioespenean, kontuan hartuz balioespenen arabera diru-sarrera positiboak dituzten landunen % 100ean oinarrituta dagoela azterlana¹¹.

¹⁰ Nabarmendu beharrekoa da diru-sarrerei buruzko informazio horrek ez duela biltzen ezohiko diru-sarrerei dagokien zati hainbanatua, ezta ezohiko jardueretatik datorren ordainketa ere.

¹¹ Erantzunik eman ez duen biztanleriaren diru-sarrera garbien balioespena egite aldera, erantzun dutenen diru-sarrera garbien batez bestekoa egotzi dugu kasu bakoitzean, eta horretarako, hainbat estratu hartu ditugu kontuan, honako aldagai hauetatik eratorrita: lanbide-egoera, lanbide-kategoria eta kontratu mota.

Esan dezakegu EAEko 16-64 urteko biztanleria landunaren batez besteko diru-sarrera garbiak, aparteko ordainsariei dagokien zatia hainbanatu gabe, 1.422,39 € direla 2009ko laugarren hiruhilekoan. 600 €-tik gorako sarrerak aintzat hartutako biztanleria landunaren % 5ek soilik dituen arren, 1.000 € eta 1.200 € baino diru-sarrera txikiagoak dituztenen proportzioa garrantzitsua da: % 21,5 eta % 30,1, hurrenez hurren. EAEko biztanleria landunaren % 53,6k 1.300 € baino gutxiagoko diru-sarrera du hilean oraindik ere.

Lanbide-egoera kontuan izanik, EAEko batez bestekoa baino diru-sarrera nabarmen handiagoak dituzten kolektiboak bi dira. Batetik, enplegu-emaileak, batez beste 1.856,96 €-ko diru-sarrera dutela, eta bestetik, Administrazio Publikoko soldatapeko langileak, batez beste 1.872,20 €-rekin. Kasu horietan, diru-sarreraren batez besteko maila % 30,6-31,6 handiagoa da EAEko batez besteko orokorra baino.

Enpresa publikoan diharduten soldatapekoen diru-sarrerak ere EAEko batez bestekotik gora daude nabarmen, eta askoz ere hein txikiagoan, baita kooperatibisten kolektiboa ere. Batez beste 1.726,83 €-rekin, lehenengoen kasuan % 21,4arekin gainditzen dute EAEko batez bestekoa, eta kooperatibistek, berriz, % 7,5arekin, horien batez besteko diru-sarrerak 1.528,46 € izanik.

Aitzitik, gainerako lanbide-egoeretan dauden diru-sarrerak EAEko batez bestekoak baino txikiagoak dira, baita autonomoenak ere: 1.337,99 €, hots, EAEko batez bestekoa baino % 5,9 gutxiago. Enpresa pribatuko soldatapeko biztanleriaren diru-sarreraren batez bestekoa, berriz, 1.328,61 € da, EAEko batez besteko zifraren % 93,4, hain zuzen ere.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Lanbide-egoera		
Enplegu-emailea	1.856,96	130,6
Autonomoa	1.337,99	94,1
Familia-laguntza	716,51	50,4
Kooperatibista	1.528,46	107,5
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	1.872,20	131,6
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	1.726,83	121,4
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	1.328,61	93,4
Beste egoera bat	787,76	55,4
Guztira	1.422,39	100

Orokorrean hartuta, soldatapeko biztanleriaren egoera, oro har, EAEko batez bestekoaren parekoa da. Batez beste 1.419,98 €-ko diru-sarrerak izanik, lanagatiko diru-sarrera gordinen EAEko batez besteko zifraren % 99,8an dago soldatapeko biztanleria.

Enpresa motaren eragina ez ezik, kontratu motaren eragina balioestea ere garrantzitsua da soldatapeko biztanleriaren taldean. Horrela, bada, kontratu mugagabea dutenek -1.503,49 €-rekin- EAEko batez besteko diru-sarreraren maila % 5,7arekin gainditzen dute; aldi baterako kontratua duten langileen kasuan -1.113,41 €-rekin- batez besteko horren azpitik daude % 21,7arekin, eta kontraturik gabeko langileak, aldiz, % 61,5 azpitik, 547,73 €-rekin.

Aldi baterako kontratua dutenei dagokienez, kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen diru-sarrera maila baino nabarmen txikiagoa dute enpresa-egitura guztietan, publiko nahiz pribatu. Hala ere, Administrazio Publikoko soldatapeko aldi baterako langileen diru-sarrerak EAEko diru-sarreraren batez bestea baino % 8,8 handiagoak dira, eta enpresa publikoko soldatapekoak, aldiz, batez besteko hori baino % 1,2 txikiagoak, baina enpresa pribatuko soldatapeko langileen diru-sarrerak EAEko batez bestekotik % 29,5 behera daude.

Lanbide-egoera, enpresa mota eta kontratu bidezko lotura batera hartuz gero, Administrazio Publikoan kontratu mugagabea duten soldatapeko langileak egoera konparatiboki faboragarrian daudela egiaztatuko dugu. Diru-sarrera garbien batez bestekoa 1.955,06 € izanik, kolektibo horrek enplegu-emaileen diru-sarreraren batez bestekoa ere (1.856,96 €) gainditzen du.

Bestalde, enpresa publikoan diharduten eta kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen batez besteko diru-sarrerak (1.796,75 €) kooperatibistenak baino handiagoak dira (1.528,46 €). Enpresa pribatuan diharduten eta kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen batez besteko diru-sarrerak, era berean, autonomoenak baino handiagoak ziren 2009an (1.414,92 € eta 1.337,99 €, hurrenez hurren), eta zirkunstantzia hori 2007-2009 aldian autonomoen batez besteko diru-sarrerak jaistearekin lotuta dago. Aipatutako bi kolektibo horien diru-sarrerak, hala ere, sektore publikoan aldi baterako kontratatutako langileen batez besteko ordainsaria baino txikiagoak dira bi kasuetan (1.547,12 € Administrazioan eta 1.438,83 € enpresa publikoan), eta 2007-2009 aldian sektore publikoko soldata-errendimendu txikiagoek hazkunde handiagoa izatearekin lotuta dago zirkunstantzia hori. Hazkunde handi horren ondorioz, Administrazioan aldi baterako langileen batez besteko diru-sarrerak kooperatibistenak baino handiagoak ziren 2009an, 2007an ez bezala.

Soldata-eskalako beheko aldean sektore pribatuan aldi baterako kontratuarekin diharduten pertsonak ditugu 1.003,17 €-rekin, eta baita sektore horretan kontraturik gabe dihardutenak ere, hileko 545,96 €-ko batez bestekoarekin. Kasu horietan, soldataren batez besteko hazkundera konparatiboki oso txikia izan zen 2007-2009 aldian. EAEko batez besteko ordainsariarekiko distantziak, horrenbestez, hazkunde nabarmena izan zuen erreferentziazko biurtekoan.

Adierazitakoa ikusirik, egiazta daiteke 2009an enplegu-emaileak eta Administrazio Publikoko aldi baterako soldatapekoak diru-sarreraren egituraren goiko aldean gailendu zirela, eta enpresa publikoan kontratu mugagabearekin ziharduten pertsonak horien antzeko mailak zituztela. Erdiko mailan kooperatibisten kolektiboa eta Administrazio Publikoko aldi baterako biztanleria daude. Kolektibo horienak baino maila apur bat baxuagoarekin, enpresa publikoan kontratu mugagabearekin diharduten soldatapekoak ditugu, eta apur bat beherago, autonomoen kolektiboa. Zerrendaren behereneko zatian, batez bestekotik askoz beheragoko diru-sarrerak izanik, enpresa pribatuko behin-behineko langileak eta kontraturik gabekoak daude.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, enpresa motaren arabera, egungo kontratu mota kontuan hartuta
(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Administrazio publikoa

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %a
Mugagabea	1.955,06	137,4
Ez-mugagabea	1.547,12	108,8
Guztira	1.872,20	131,6

Enpresa publikoa

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %a
Mugagabea	1.796,75	126,3
Ez-mugagabea	1.438,83	101,2
Guztira	1.726,83	121,4

Enpresa pribatua

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %a
Mugagabea	1.414,92	99,5
Aldi baterakoa	1.003,17	70,5
Kontraturik gabe	545,96	38,4
Guztira	1.328,61	93,4

GUZTIRA

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %a
Mugagabea	1.503,49	105,7
Aldi baterakoa	1.113,41	78,3
Kontraturik gabe	547,73	38,5
Guztira	1.419,98	99,8

Diru-sarreraren maila lanbide-egiturarekin loturik dago, argi eta garbi. Batez bestekoa baino % 35,2 handiagoa da zuzendaritzako langileen kasuan, eta % 24 teknikarien kasuan, hurrenez hurren 1.922,46 eta 1.763,08 €-ko batez besteko diru-sarrerak baitituzte. Makineriako operadoreen kasuan, 1.454,03 €-rekin, horiek ere % 2,2arekin gainditzen dute batez bestekoa. Aitzitik, gainerako lanbide taldeetan batez besteko diru-sarrerak nabarmen murriztu dira.

Enplegatu administrariak (1.353,02 €) batez bestekotik % 4,9 jaitsi dira, % 15,1 langile kalifikatuak (1.207,54 €) eta gehienekoarekin, % 35,9 langile ez-kalifikatuak (911,19 €).

Testuinguru horretan, nabarmendu beharrekoa da langileen edo beharginen posizio konparatiboki okerragoa are gehiago okerragotzen dela langile kalifikatuen eta ez-kalifikatuen arteko soldatak batez besteko hazkunde txikiagoa izan duelako; izan ere, 2007-2009 aldian batez besteko ordainsariak ere jaitsiera izan zuen langile ez-kalifikatuen kasuan.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Lanbidea	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Indar Armatuak	1.878,70	132,1
Zuzendariak	1.922,46	135,2
Teknikariak	1.763,08	124,0
Enplegatu administrariak	1.353,02	95,1
Langile kalifikatuak	1.207,54	84,9
Makineriako operadoreak	1.454,03	102,2
Langile ez-kalifikatuak	911,19	64,1
Guztira	1.422,39	100

Lanbide-kategoria kontuan hartzeak aurreko diagnosis berresten du, langileak edo beharginak ordainsarien batez besteko mailetatik aldendu direla irudikatuz; lanbide-kategoria ez-kalifikatuaren kasuan batez besteko ordainsaria jaitsi izana eta beharginenak batez bestekoa baino handiagoz txikiagoa izana dira arestian adierazitakoaren arrazoiak. Horren ondorioz, langile ez-kalifikatuen diru-sarrerak batez bestekoa baino % 35,3 txikiagoak ziren 2009an, eta kalifikatuenak, berriz, batez bestekoa baino % 6,4 txikiagoak. Haatik, EAEko batez besteko mailak % 15,1arekin gainditu zituzten arduradunek, % 25,9arekin teknikariak eta % 30,5arekin zuzendaritzako langileak.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Lanbide-kategoria	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Ez-kalifikatua	919,75	64,7
Kalifikatua	1.331,11	93,6
Arduradunak	1.636,78	115,1
Teknikariak	1.790,10	125,9
Zuzendariak	1.855,90	130,5
Guztira	1.422,39	100

Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuei gagozkiela, industriaren eta eraikuntzaren arloko diru-sarrera garbiak oso handiak direla nabarmendu behar dugu: batez beste 1.513,95 eta 1.460,51 €, hurrenez hurren. Zerbitzu-sektorearekiko aldea, ordea, ez da handiegia okupazio-sektore horretan, 1.392,01 €-ko batez bestekoarekin. Nekazaritza-sektoreko batez besteko diru-sarrerak askoz ere txikiagoak dira, 1.210,00 €-rekin batez beste.

Alabaina, adarraren araberako datuek aurreko ikuspegi hori zehaztera behartzen dute. Alde batetik, batez bestekoa baino diru-sarrera nabarmen handiagoak dituzten hainbat sektore atzeman dira bai industrian, baita zerbitzuetan ere.

Lehenengo kasuan, EAEko batez bestekoa % 15 gainditzen duten diru-sarrerak izanik, erauzketa-industria (1.709,44 €), industria petrokimikoa (1.709,84 €) eta energia-produkzioa (1.648,45 €) aipatuko ditugu; batez besteko hori % 5-15arekin gainditzen dute paper-industriak (1.496,73 €), kautxuaren eta materia plastikoen industriak (1.498,62 €), metalurgiak (1.533,65 €), makinagintzak (1.576,03 €), material elektrikoaren industriak (1.510,18 €), eta garraiatzeko materialaren industriak (1.510,18 €).

Zerbitzu-sektorean, EAEko batez besteko diru-sarrerak % 15arekin gainditzen dituzte honako adar hauek: finantza-erakundeak (1.868,61 €), Administrazio Publikoak (1.877,58 €) eta hezkuntzak (1.703,64 €); bestalde, batez bestekoa % 5-15arekin gainditzen dute garraioen eta komunikazioen adarrak (1.533,00 €), eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrak (1.573,04 €).

Hala eta guztiz ere, sektore horietan badira batez bestekoaren azpiko diru-sarrera maila duten adarrak ere. Zenbait kasutan, diru-sarrera txikiagoak izatearen proportzioa batez bestekoa baino % 10 txikiagoa da, esate baterako, askotariko manufaktura-industrien adarrean (1.309,97 €) edota enpresetarako zerbitzuetan (1.355,38 €). Beste kasu batzuetan, ostera, ordainketa-mailak EAEko batez besteko orokorrarekin duen aldea are nabarmenkiago handiagotu da: % 11,7 elikagai-industrian (1.255,49), % 15,9 merkataritzan (1.196,90 €), % 17,5 bestelako merkataritza-zerbitzuetan (1.173,02 €), % 27,6 ostalaritzan (1.029,87 €) eta % 59,5 etxeko zerbitzuan (576,74 €).

Bigarren sektoreko gainerako adarretan (produktu ez-metalikoen fabrikazioa eta eraikuntza), diru-sarrerak EAEko batez bestekoetatik gertu daude funtsean, hileko 1.450 €-tik apur bat gorako batez besteko zifrekin (1.477,60 eta 1.460,51, hurrenez hurren).

Bestalde, lehen sektorean, EAEko batez besteko orokorra baino % 27 txikiagoak dira nekazaritzako batez besteko diru-sarrerak (1.038,15 €), eta arrantza-adarrak, ordea, % 31rekin gainditzen du batez besteko hori (1.863,20 €).

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta -adarraren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Jarduera-sektorea eta -adarra	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %a
Nekazaritza	1.210,00	85,1
Industria	1.513,95	106,4
Eraikuntza	1.460,51	102,7
Zerbitzuak	1.392,01	97,9
Nekazaritza	1.038,15	73,0
Arrantza	1.863,20	131,0
Erauzketa-industria	1.709,44	120,2
Elikagai-industria	1.255,49	88,3
Paper-industria	1.496,73	105,2
Industria petrokimikoa	1.709,84	120,2
Kautxu-industria	1.498,62	105,4
Bestelako gai ez-metalikoen industria	1.477,60	103,9
Metalurgia	1.533,65	107,8
Makinagintza	1.576,03	110,8
Material elektrikoa	1.510,18	106,2
Garraio-materiala	1.557,33	109,5
Bestelako manufaktura-industria	1.309,97	92,1
Energia-produkzioa	1.648,45	115,9
Eraikuntza	1.460,51	102,7
Merkataritza	1.196,90	84,1
Ostalaritza	1.029,87	72,4
Garraioak eta komunikazioak	1.533,00	107,8
Finantza-erakundeak	1.868,61	131,4
Enpresetarako zerbitzuak	1.355,38	95,3
Administrazio Publikoa	1.877,58	132,0
Hezkuntza	1.703,64	119,8
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	1.573,04	110,6
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	1.173,02	82,5
Etxeko zerbitzuak	576,74	40,5
Guztira	1.422,39	100

Jarraian, diru-sarrerak aztertuko ditugu baina hainbat aldagai demografiko garrantzitsuren arabera; datu horiek adierazten dutenez, gizonen eta emakumeen batez besteko diru-sarrera garbietan alde nabarmena dago. Hori horrela izanik, gizonezkoen batez besteko diru-sarrera garbiak (1.543,38 €) EAEko batez bestekoa baino % 8,5 handiagoak dira, baina emakumeenak batez besteko hori baino % 10,6 txikiagoak dira (1.272,23 €).

Emakumezko biztanleria landunaren diru-sarrerak gizonezkoen batez besteko sarreraren % 82,4 osatzen dute, batez beste. Zifra horrek gorakada izan du 2007an eta 2005ean ikusitako % 78,4ko eta % 78,1eko zifrekin alderatuz, eta baita 2006an lortu zen % 80,4ko zifrarekin

alderatuz ere. Izan ere, gizonen batez besteko ordainsariak % 8,1eko hazkundera izan zuen 2007-2009 aldian, baina emakume landunena, berriz, % 13,6 hazi zen biurteko horretan.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, sexuaren arabera

(Diru-sarrereren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Sexua	Diru-sarrereren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Gizonak	1.543,38	108,5
Emakumeak	1.272,23	89,4
Guztira	1.422,39	100

Sexuaz gain, diru-sarrera garbietan eragin handia duen beste aldagai demografiko bat adina da: biztanleria landunak adinean zenbat eta beherago egin, horien batez bestekoa orduan eta txikiagoa dela ikusi dugu, oro har. 20 urtetik beherakoetan, EAEko batez bestekoa baino % 42 txikiagoak dira diru-sarrerak; proportzio hori % 31,7 da orain 20-24 urtekoen artean, eta % 10,4 25-29 urtekoen artean. 30 urtetik aurrerakoak diru-sarrerak batez bestekoaren antzekoak izateko joera dute: 30-34 urtekoen artean % 4,8 txikiagoak dira, eta % 0,3 txikiagoak 35-39 urtekoen kasuan. 40-49 urtekoen batez besteko diru-sarrerak 40-44 urtekoenak baino % 3,5 handiagoak eta 45-49 urtekoenak baino % 4 handiagoak dira; maila handienak dituen kolektiboa 50-59 urteko pertsonena da (50-54 urteko pertsonen diru-sarrerak batez bestekoa baino % 8,9 handiagoak dira, eta 55-59 urtekoenak, berriz, % 14,6 handiagoak). Batez bestekoarekiko hobekuntza % 2 murrizten da 60 urtetik gorako pertsonen kasuan.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, adinaren arabera

(Diru-sarrereren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Adina	Guztirako okupazioan emakumeak %-tan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
16-19	825,67	58,0
20-24	971,53	68,3
25-29	1.275,03	89,6
30-34	1.353,70	95,2
35-39	1.417,76	99,7
40-44	1.472,73	103,5
45-49	1.479,51	104,0
50-54	1.548,72	108,9
55-59	1.629,40	114,6
60-64	1.450,35	102,0
Guztira	1.422,39	100

Ikasketek ere garrantzi handia duten arren, intzidentzia ez da hain handia unibertsitateko ikasketarik gabeko biztanleria landunaren kasuan. Hori horrela, lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik gabekoen artean, diru-sarreraren batez bestekoa txikia den arren (1.180,64 €, EAEko batez besteko orokorraren % 83,0), aldeak ez dira oso handiak bigarren mailako ikasketak dituztenekin alderatuta, ikasketa horiek ez-lanbidekoak (1.300,99 €, batez bestekoaren % 91,5) edo lanbidekoak izan (1.336,20 €, EAEko batez bestekoaren % 93,9). Unibertsitateko tituludunen kasuan soilik handitzen da nabarmen diru-sarreraren batez besteko maila (1.734,66 €, EAEko batez bestekoaren gainetik % 22,0).

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, ikasketa-mailaren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Ikasketa-maila	Guztirako okupazioan emakumeak %-tan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Lehen mailakoak	1.180,64	83,0
Bigarren mailakoak	1.300,99	91,5
Lanbide-ikasketak	1.336,20	93,9
Unibertsitate-ikasketak	1.734,66	122,0
Guztira	1.422,39	100

Funtsean, eskualdeen arteko aldeak ez dira gehiegizkoak lanagatik batez besteko diru-sarrerei dagokienez. Alde positiboenean, Eskuinaldea, Bilbo eta Debagoiena posizio hobean daude orokorrean, EAEko batez besteko diru-sarreraren maila baino % 5-7,5 handiagoa dutela. Zifrak batez bestekoaren antzekoak dira, ostera, Gasteizen, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, zehazki, apur bat txikiagoa Arabako eskualdearen kasuan eta apur bat handiagoa beste bi eskualdeetan. Zati negatiboenean, batez besteko diru-sarreraren zifrak EAEko batez bestekoa baino % 3,5-4 txikiagoak dira Durangaldean eta Tolosa-Goierriin, % 5-6 inguru txikiagoak Aiaraldean eta Debabarrenean eta distantzia handienarekin (% 6,9), Ezkerraldean.

2007an ikusitakoaren kasuan ez bezala, eskualdeen arteko distantziek handiagotzeko joera dute. Desberdintasunak handiagotu izana lotuta dago 2007-2009 biurtekoan EAEko eskualde desberdinetan batez besteko ordainsariak oso areagotze desberdina izanarekin. Horri dagokionez, maila onenak dituztenen kasuan batez besteko ordainsaria % 11,2 hazi zen 2007-2009 aldirian Donostialdean, % 12,2 Eskuinaldean, % 12,6 Bilbon eta % 17,7 (gehienekoa), Debagoienean. Aitzitik, hazkundera % 7,9 murriztu zen Bizkaia-Kostan eta % 5,1 Gasteizen; hortaz, 2007arekin alderatuz, adierazitako eskualdeek posizio abantailatsuak galdu zituzten maila oneneko eskualdeen barruan, batez bestekoa baino gutxiago haziz.

Gaur egun ordainsari txikiak dituzten eskualdeen kasuan, 2007-2009 aldirian ordainsariak izandako hazkundera EAEko batez bestekoa baino apur bat txikiagoa da, zehazki, % 7,5-8,5

Ezkerraldean, Durangaldean eta Debarrenean. Zifra txikiak Tolosa-Goierri (% 4,9) eta Aiaraldeari (% 3,3) dagozkie; izan ere, adierazitako eskualde horiek Euskadiko batez bestekoaren antzeko zifrak zituzten 2007an, eta azkenaldian ordainsarien batez besteko mailek eskualde horietan hazkunde txikiagoa izan dutela ikusirik, eskualde horietako batez besteko ordainsariek EAEko batez bestekotik aldentzeko joera izan zuten 2007-2009 aldian.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Eskualdea	Guztirako okupazioan emakumeak %-tan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Gasteiz	1.401,48	98,5
Aiaraldea	1.337,18	94,0
Eskuinaldea	1.502,59	105,6
Bilbo	1.528,68	107,5
Ezkerraldea	1.324,54	93,1
Bizkaia-Kosta	1.429,42	100,5
Durangaldea	1.371,00	96,4
Donostialdea	1.439,81	101,2
Tolosa-Goierri	1.366,35	96,1
Debagoiena	1.500,27	105,5
Debarrena	1.348,41	94,8
Guztira	1.422,39	100

3.3. Azkenaldiko bilakaera. Datu orokorrak.

Biztanleria landunak azkenaldian izandako bilakaera aztertzerakoan, 2009an okupazioari dagokionez 1997-2007 aldian ikusitako oso hazkunde-prozesu handia argi eta garbi eten zela nabarmendu behar da lehenik eta behin, urte horretako alderdi nagusi gisa. Aztertutako hamarkadan okupazio berriak etengabe sortzeko prozesuarekin kontrastean (denbora-tarte horretan 220.518 okupazio berri sortu ziren), 2007-2009 aldian okupazio horietako 23.698 galdu ziren EAEn. Ikusitako jaitsieraren ondorioz, 2007an lortutako okupazioaren % 2,4 eta 1997-2007 aldiko okupazio-areagotzearen % 10,7 galdu zen.

Okupazioak duela gutxi izandako beherakada 2008ko krisialdi finantzarioaren ondoriozko dinamika ekonomiko berriaren ondorioa bada ere (beste ezer baino lehen), nabarmendu beharkeoa da ikusitako okupazio-galerak eragindako joera-aldaketa hori adierazitako garaia baino askoz ere lehenagokoa dela. Batetik, 2001-2003 aldian argi eta garbi atzeman zen okupazio berriak sortzeko prozesua moteldu zela. Aldi horretan, okupazioaren urteko batez besteko hazkundera urteko % 1,82 zen, 1997-2001 aldiko urteko % 3,52 baino nabarmen txikiagoa, hain zuzen ere. 2003-2005 aldian gorakada izan eta gero (aldi horretan, okupazioaren urteko batez besteko hazkundera % 3,02 zen), 2005-2006 biurtekoan ikusitakoak –hau da,

okupazioaren hazkundera urteko % 2,09 murriztu izanak— mendearen hasieran euskal ekonomiaren gainean zegoen hautematea finkatu zuen, okupazioaren hazkundera hedakorragoko denbora-tarteetan ikusitakoarekin alderatuz euskal ekonomiaren bizitasunak egiturazko galera izan zuela, hain zuzen ere.

2001-2006 aldirian gertatutako moteltzearekin —heine batean, 2003-2005aldiko berreskurapenak estalitakoarekin— batera, bestalde, okupazioaren hazkundera-erritmoen desazelerazioa nabarmen hazi zen 2006-2007 aldirian. Praktikan, okupazio-mailak egonkortu egin ziren, urteko hazkundera apenas % 0,31 izanik. Krisialdiaren bezpera izan zen hura, eta 2007-2009 aldirian, okupazioa urteko % 1,23ko batez besteko erritmoekin jaitea ekarri zuen berekin.

2007-2009 biurtekoan okupazioak izandako beherakadaren garrantzia gorabehera, ezinbestean adierazi behar da Euskadik azken urtean 2005ekoaren okupazio-maila baliokideari eutsi diola, 1997an baino 196.820 okupazio gehiagorekin; 90eko hamarkadaren bigarren erdian eta XXI. mendeko lehen hamarkadaren lehen erdian enpleguak izandako berreskurapen-prozesua indar handiz hasi zeneko egoera irudikatzen du 1997ak.

Okupazioaren barne-dinamika aztertuz, sexuaren eta adinaren arabera bilakaera desberdina izan zela nabarmendu behar da. Sexuaren aldagaiari dagokionez, 2007-2009 aldirian emakumeen okupazioak hazten jarraitu zuela nabarmendu behar da. Aldi horretan, okupazio-bolumenak % 4,3ko areagotzea izan zuen emakumeen artean, gizonen artean ikusitako % 7,3ko beherakadarekin kontrastean erabat. 1997-2005 aldiko % 4,7 baino txikiagoa den arren, ehuneko horrek zera adierazten du, 2007-2009 biurtekoan emakumeen okupazioa urtean % 2,1 hazi zela batez beste, 2005-2007 aldirian bezainbeste, hain zuzen ere. Hortaz, emakumeen artean okupazioaren hazkundera handia luzatu egin zen, eta 1997-2009 aldirian, okupazio-maila % 57,6 handitu zen.

Azkenaldiko bilakaerak agerian uzten du emakumearen garrantzia gero eta handiagoa dela okupazio berrietan, eta horretaz gain, aurreko urteetan ikusitakoarekin ere bat dator. Izan ere, gizonen enpleguak 2007-2009 aldirian izandako beherakada handia baino lehen, gizonen okupazioa egonkortu egin zen 2006-2007 aldirian. Honenbestez, 2006tik aurrera emakumeen artean baino ez zen sortu enplegua.

Gizonen okupazioak izandako jaitsieraren eraginak beste hainbat ondorio garrantzitsu ere izan ditu. Gizonen artean, azkenaldiko okupazio-galerak erabakigarriak dira, gizonetako biztanleriaren 1997-2007 aldirian ikusitako okupazio-gorakadaren % 49,3ra iristen baitira. Praktikan, gizonen okupazioaren datuak 2001-2003 aldiko zifren antzekoak dira, gizonen kolektiboan enplegu-maila egonkortuta zegoela. 1997arekin alderatuz, gizonen egungo

okupazioari % 8,8ko handiagotzea baino ez dagokio, emakumeen kolektiboari dagokiona baino askoz ere txikiagoa, hain zuzen ere.

Adinaren araberrako bilakaeraren gaineko datuek ere joera desberdinak erakusten dituzte, 2007-2009 aldian adin-talde jakin batzuetan okupazio-hazkundeari eutsi zitzaiola egiaztatuz. Hazkunde deigarriena 50 urtetik gorakoei dagokie; izan ere, talde horretan, okupazioa % 8,5 handitu zen adierazitako aldian, 2005-2007 biurtekoan erregistratutako % 6,1 ere gaudituta.

35-49 urteko pertsonen okupazio-bolumenak ere % 0,3ko hobekuntza izan zuen. Kasu horretan, ordea, 2005-2007 aldiko % 5,6ko hazkundearekin alderatuta jaitsiera nabarmena gertatu da, baina azkenaldiko gorakadari esker, okupazioaren zifrak egonkortzen ari direla esan dezakegu.

Hala eta guztiz ere, bilakaera okerrean 35 urtetik beherako biztanleriari dagokio. Adin horretako pertsonen artean okupazioari buruzko datuak jaitsi egin ziren 2005-2007 aldian, baina krisiaren eraginez, murrizketaren erritmoa areagotu egin zen. 25 urtetik beherakoen kasuan, 2005-2007 aldian okupazio-galera % 9,7 izan zen eta 2007-2009 aldian % 22,5era igo zen galera hori; 25-34 urtekoen kasuan, aztertutako lehenengo biurtekoan jaitsiera apenas % 1,8 izan zen, baina bigarrean, berriz, jaitsiera hori % 10,8raino iritsi zen. Oro har, 25-34 urtekoen kasuan, 2005eko okupazioaren % 12,4 galdu zuten 2009an, eta proportzio hori % 30era iristen da 25 urtetik beherakoen artean.

25-34 urtekoetan okupazioaren jaitsiera fenomeno berria da, 2005az geroztikakoa, baina 25 urtetik beherakoetan okupazioaren beheranzko joera mendearen hasierako urtetan hasi zen, 2002az geroztik areagotu dela. 1997a erreferentziazat hartuta, 2009ko okupazioa % 31,3 txikiagoa da 25 urtetik beherakoen kasuan, eta 25-34 urtekoen artean, 2009ko okupazioa 1997koaren % 6,8 gainetik dago oraindik ere. Joera horren jatorriari dagokionez, belaunaldi gazteenen bolumenean beheranzko eragin handiagoa izan duten aldaketa demografikoak ditugu batetik, eta krisialdiak 25 urtetik beherako pertsonen okupazioan eragin erlatibo handiagoa izana bestetik.

Hala ere, 25-34 urtekoek okupazioaren jaitsieran izan duten garrantzia da kezka gehien eragiten duen joera. Adin-talde horretan, 2001-2005 aldian okupazioak gora egin zuen oraindik, baina 2005-2007 aldian 35 urtetik beherako pertsona guztien okupazio-jaitsieraren % 43 osatetik 2007-2009 aldian % 67,9 osatzera aldatu zen.

Gazteenen artean gertatzen denarekin kontrastean erabat, 35-49 urtekoen kasuan, okupazio-bolumena % 37,6 handitu zen 1997-2009 aldian, eta proportzio hori % 60,4ra iristen zen 50 urtetik gorakoen kasuan. Izan ere, 50 urtetik gorako pertsonen kolektiboan enpleguak duen garrantzia funtsezko alderdia dugu: 2003-2005 aldian okupazio berrien % 16,1 osatzen

zuten, baina okupazioari dagokionez gorakada izan zuten taldeen artean, 2005-2007 aldian kolektibo horrek okupazio berrien % 36,3 osatu zuen, eta 2007-2009 aldian, berriz, % 93,8.

Adin handieneko pertsonen okupazioaren garrantzi hazkorra, alabaina, epe luzeko joera da: 35 urtetik gorako pertsonen 1993-1997 aldiko enplegu berrien % 60,8 osatzen zuten, okupazio berriaren % 63,4 1997-2001 aldian, % 83,4 2001-2005 aldian, eta % 100, azkenik, 2005-2009 aldian. Horien barruan, 50 urtetik gorako pertsonen garrantzia 1997-2001 aldian % 37,3 izatetik 2001-2005 aldian % 40,6 izatera eta 2005-2009 laurtekoan % 57,3 izatera aldatu zen.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldian)
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gizonak	482.219	526.722	527.713	559.737	565.770	524.590
Emakumeak	268.220	335.092	365.726	388.443	405.188	422.669
< 25 urte	70.253	76.498	75.769	68.930	62.276	48.283
25-34 urte	229.339	263.821	270.800	279.457	274.442	244.857
35-49 urte	303.094	347.356	350.868	393.877	415.825	417.065
50-64 urte	147.753	174.139	196.002	205.917	218.414	237.055
Guztira	750.439	861.814	893.439	948.180	970.957	947.259

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldian)
(Hazkundera %-tan)**

Sexua eta adina	Hazkundera %-tan					
	09/07	07/05	09/05	05/01	01/97	09/97
Gizonak	-7,3	1,1	-6,3	6,3	9,2	8,8
Emakumeak	4,3	4,3	8,8	15,9	24,9	57,6
< 25 urte	-22,5	-9,7	-30,0	-9,9	8,9	-31,3
25-34 urte	-10,8	-1,8	-12,4	5,9	15,0	6,8
35-49 urte	0,3	5,6	5,9	13,4	14,6	37,6
50-64 urte	8,5	6,1	15,1	18,2	17,9	60,4
Guztira	-2,4	2,4	-0,1	10,0	14,8	26,2

Salbuespenak salbuespen, 2007ra arte okupazioaren hazkundera ikusitako mugak, zenbait alderditan arazo demografikoekin lotuta zeudenak, esate baterako, jaiotza-tasaren beherakadarekin, bateraezinak izan ziren okupazio-koefizienteen goranzko joerarekin. Horren ildotik, aldaketa nabarmena gertatu zela irudikatzen du 2009ko zifrak, 2007tik okupazio-koefiziente orokorra ia hiru puntu jaitsiz; horrela, 16-64 urteko biztanlerian, 2007an % 68,1 izatetik 2009an % 65,2 izatera aldatu zen okupazioa. 1997an erregistratutako % 51,1 edota 2001eko % 60,5 baino askoz ere handiagoa bada ere, adierazle hori 2005ean erregistratutako % 66,1 baino are txikiagoa da kasu horretan.

Alabaina, okupazio-koefizienteen bilakaera desberdina da sexuaren arabera, eta gizonen kolektiboan baino ez da negatiboa. 1997-2007 aldian % 65,4tik % 78,6ra etengabe hazi ondoren, 2009an beherakada nabarmena ikusi zen, adierazlea % 71,6ra aldatuz, hots, 2007ko erregistroa baino ia 7 puntu gutxiago. Mende honetan ezagunak ez ziren zifretan kokatu zuen gizonen okupazio-koefizientea adierazitako zifra horrek, 1999ko % 69,8 gaindituz baina 2001eko % 73,5etik askoz ere beherago geratuz.

Bilakaera negatibo hori eta emakumeena desberdinak dira. Horren ildotik, emakumeen okupazio-koefizienteak igotzen jarraitu zuen 2009an, 1997an apenas % 36,7 izatetik 2009an % 58,8 izatera aldatuz, 2007ko % 57,4 baino 1,3 puntu handiagoa, hain zuzen ere. 2009ko egoera horrek, izan ere, aldaketa ekarri zuen gizonetikiko berdintasunik ezeko aurretiko egoeren azterketan. Okupazio-koefizienteen mailetan gizonen aldeko desberdintasunek oso garrantzitsuak izaten jarraitzen badute ere (2009an 12,9 puntura iritsiz), 1997an zegoen 28,8 puntuko aldea baino nabarmen txikiagoak dira, eta horretaz gain, 2007an zegoen 21,1 puntuko aldearekiko desberdintasun kualitatiboa irudikatzen dute.

Adinei dagokienez, okupazio-koefizienteek 2007-2009 aldian izandako bilakaera positiboa 50 urtetik gorakoei dagokie eskusiboki. Kasu horretan, okupazio-koefizienteak hazten jarraitu zuen, 1997an erregistratutako % 40,2ko zifraren eta 2007an erregistratutako % 52,6ko zifraren artean ikusitako hazkunde handia finkatuz. 2009ko zifra % 54,9ra iritsi zen, 2007an baino 2,3 puntu gehiago, hain zuzen ere.

35 urtetik beherakoekin gertatutakoarekiko aldea deigarria da. 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, okupazio-koefizientea 7,6 puntu jaitsi zen 2007-2009 aldian. 1997-2003 aldian % 22,7tik % 35,8raino igo ondoren, ikusitako bilakaerak agerian uzten du pertsona gazteen artean okupazio-koefizientei dagokienez 2003an hasitako beherakadaren areagotze nabarmena; hala eta guztiz ere, beherakada horren eraginez koefiziente-maila % 35,1era jaitsi zen soilik 2007an. Azkenaldiko beherakadaren ondorioz, 25 urtetik beherako pertsonen okupazio-koefizientea % 27,5eko zifran kokatu da; are gehiago, zifra hori 2001ean erregistratutako % 32,3 baino nabarmen txikiagoa da. 2007-2009 biurtekoko bilakaerak, beraz, aldaketa kualitatiboa ekarri du, baita aurreko beheranzko joerari dagokionez ere.

2007-2009 aldian 25 urtetik beherakoen okupazio-koefizientean ikusitako beherakada are handiagoa da 25-34 urteko pertsonen kolektiboan, zehazki, 7,8 puntukoa, aztertutako biurtekoan adierazle hori % 83,8tik % 76ra aldatuz kasu horretan. Biztanleria gazteenaren kasuan ez bezala, 25-34 urteko taldearen okupazio-koefizienteek etengabeko hazkundera izan zuten, 1997an % 66,8 izatetik 2007an % 83,8 izatera aldatuz; horrela, 2001etik aurrera, EAEko okupazio-maila handieneko talde izatera iritsi zen. 2009an gertatutako % 76ko jaitsierak, horrenbestez, funtsezko aldaketa kualitatiboa ekarri zuen, eta horren eraginez, okupazio-

lidergoko posizioa 35-49 urtekoen alde galtzeaz gain, 2001ean lortutako % 77tik beherako okupazio-koefizienteetara itzuli zen adierazitako taldea.

Era berean, 35-49 urteko pertsonen kolektiboari dagokionez ikusitako joera-aldaketa ere deigarria da. Okupazio-mailei dagokienez 1997an zuten lehen postura itzuli baziren ere, 2009an adin horretako pertsonen zuten okupazio-koefizientea –% 79,8– 2007ko % 82,2ko zifra baino 2,4 puntu txikiagoa ere bada; ordura arte, okupazio-maila hori hazi baino ez zen egin 1997az geroztik (% 67,7 zen 1997an). Alabaina, 35 urteko biztanleriarena baino apur bat txikiagoa da beherakada hori, 2009ko okupazio-koefizientea, 2009ko okupazio-koefizientea 2005eko antzeko mailetan kokatuz. Adin-talde horrek azkenaldian okupazio-mailetan izandako jaitsierak dakarren eragin kualitatiboa, hala ere, begien bistakoa da.

Okupazio-koefizienteen bilakaerak azkenaldian izandako aldaketek adinaren arabera aldakuntzak irudikatzen dituzte, eta epe luzeko emaitzak aztertzeko garrantzitsuak dira aldakuntza horiek. 1997-2009 aldiko koefizienteak alderatuz gero, adinaren eta okupazio-hobekuntzaren artean dagoen lotura positiboa ikus dezakegu. Horrela, 2009an 25 urtetik beherako okupazio-koefizienteek 1997koak baino 4,8 puntu handiagoak izaten jarraitzen zuten, eta gainera, diferentziala 9,3 punturekin handiagotu zen 25-34 urtekoen taldean, 12,2 punturekin 35-49 urtekoenean eta 14,7 punturekin 50 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan.

Apenas bi urteko denbora-tartean, adierazitako egoerak 2007ra arte ikusitako joerak hautsi zituen. Izan ere, 1997-2007 aldian, adinak behera egin ahala okupazio-koefizienteek hazkunde handiagoa izateko joera zutela ikusi zen oro har, 25 urtetik gorako pertsonen kasuan, behinik behin. Horrela, aipatutako aldian, 17 puntuko hazkundera izan zuen 25-34 urtekoen taldeak, 14,5 puntukoa 35-49 urtekoenean, eta 12,4 puntukoa 50 urtetik gorakoenean.

Adinean behera egin ahala okupazioaren hazkundera handiagoa izateko zuen joera 25 urtetik beherako kasuan soilik zehazten zen, 12,4 puntu erregistratu baitziren, 25-49 urteko pertsonena baino txikiagoa izanik eta 2003tik aurrera talde horretan ikusitako okupazio-koefizienteen egonkortzearen ondorioa izan zela kontuan hartuz. Egonkortze-prozesu horrek apur bat jaisteko joera izan zuen 2005-2007 aldian, eta 1997-2003 aldian gazteen taldearen okupazio-hazkunde handiagoa hautsi zuen. Hori horrela, gazteen okupazio-koefizientea 13,1 puntu hazi zen 1997-2003 aldian, 13 puntu 25-34 urtekoen kolektiboan, 9,1 puntu 35-49 urtekoenean, eta 8,7 puntu, azkenik, 50 urtetik gorakoenean taldean.

Aurkeztutako datuen arabera, 35 urtetik gorako taldean okupazio-hazkunde erlatiboa handiagoa izatea joera demografikoekin lotuta zegoen 2003ra arte (35 urtetik aurrera bolumen askoz handiagoko belaunaldiak daudela kontuan hartuz), adin horretatik aurrera okupazio-koefizienteen hazkunde bereizgarria –praktikan, askoz ere txikiagoa– izateko azkenaldiko

joerarekin alderatuz. Urte horretatik aurrera, ordea, hazkunde erlatibo handiago horrek areagotu egiten du 35 urtetik beherakoen eta gorakoen artean okupazioarekiko joeran ikusten den aldaketa ere, urte gehiagoko pertsonen kasuan oso datu negatiboak izanik. Egiaztatu ahal izan denez, ildo horretatik, 2003tik aurrera 25 urtetik beherako biztanleriaren kasuan, eta 2007tik aurrera 25-34 urteko biztanleriaren kasuan, okupazio-mailen jaitsiera garrantzitsuarekin amaitu zen prozesu bat hasi zen; adierazitako prozesuaren ondorioz, 35 urtetik beherako pertsonen taldeak okupazio-galera absolutu garrantzitsuak izan ditu azken urteotan. 2007-2009 aldian, 35-49 urtekoen kolektiboan ere ikusi zen okupazio-koefizienteen beherakada, baina hala ere, baina beherakada hori txikiagoa izan zen pertsona gazteenen kasuan, eta ondorioz, adin-talde horretan izandako eragina nabarmenki txikiagoa izan zen.

**Okupazio-koefizienteen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldian)
(%-tan)**

Sexua eta adina	Okupazio-koefizienteak					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gizonak	65,4	73,5	74,5	77,3	78,6	71,6
Emakumeak	36,7	47,3	52,2	54,8	57,4	58,8
< 25 urte	22,7	32,3	35,8	35,3	35,1	27,5
25-34 urte	66,8	77,0	79,8	81,8	83,8	76,0
35-49 urte	67,7	74,2	76,8	79,8	82,2	79,8
50-64 urte	40,2	46,2	48,9	51,0	52,6	54,9
Guztira	51,1	60,5	63,4	66,1	68,1	65,2

Eskualdeen araberako zifrei dagokienez, 2007-2009 aldian okupazioaren jaitsierak EAEko eskualde guztietan eragina izan zuela egiaztatu da. Eragin erlatiboa, haatik, desberdina da aztertutako alor bakoitzean.

Zifra erlatibotan, okupazioaren jaitsiera bereziki nabarmena izan da Durangaldean, Tolosa-Goierrin, Debagoiengan eta Debabarrenean. 2009an, eskualde horietako okupazioa % 6-7 murriztu zen 2007arekin alderatuta, eta okupazio-koefizientea, berriz, 5-5,5 puntu. Okupazio-galera % 4,2 izan da Aiaraldean, baina eskualde horren okupazio-koefizientea 6 puntu jaitsi da 2007-2009 aldian (% 71-65). Guztira, EAEn aldi horretan detektatutako okupazio-galeren % 46,4 metatzen dute bost eskualde horiek.

Zifra kualitatibotan, jaitsieraren ondorioak txikiagoak dira Aiaraldean eta Durangaldean; izan ere, eskualde horietan, okupazioak 2007-2009 aldian izandako beheranzko joera dela-eta, 2005eko okupazio-mailetara –2003ekoetara Durangaldean, okupazio-koefizientearen adierazlea kontuan hartuz gero– jaitsi ziren . Tolosa-Goierrin, aitzitik, adierazitako jaitsierak 2003ko zifretara hurbiltzea ekarri zuen, eta beste zenbait eskualderen kasuan, esate baterako, Debabarrenean eta Debagoiengan, baita 2001eko zifretara itzultzea ere.

Gipuzkoako zenbait eskualdetan, 2007-2009 aldiko jaitsiera handi hori aurreko beheranzko joeraren areagotzea baino ez da, 2005az geroztik okupazioak izandako beheranzko joeraren areagotzea, hain justu. Izan ere, 2006-2007 aldian ikusitako bilakaeraren ondorioz, Debagoienean haustura garrantzitsua gertatu zen, aldi horretan okupazioaren % 6,1 galdu baitzuen eskualde horrek. Aldi horretako arazoak Tolosa-Goierri ere sumatu ziren, 2005-2007 aldian okupazioaren % 0,9 galdu baitzen eskualde horretan, nahiz eta 2006-2007 aldian gorakadatxo bat izan zuen. Bilakaera horrek eskualdearen goranzko joera eten zuen aldi horretan; izan ere, 2001-2005 aldian okupazioaren hazkunde erlatibo handieneko eskualdea zen Tolosa-Goierri.

Intentsitate txikiagoz, okupazio-jaitsiera ere garrantzitsua izan zen 2007-2009 aldian Eskuinaldean eta Donostialdean, % -2,6 eta % -3,0, hurrenez hurren. Kasu horietan, okupazio-koefizienteen beherakada 2,6 puntukoa zen Eskuinaldean eta 2,8 puntukoa Donostialdean. Bi eskualde horietarako ondorioak 2005eko okupazio-zifren antzekoetara iristea da, nahiz eta Donostialderako benetako atzerakadaren batekin, okupazio-koefizienteei dagokienez. Nolanahi ere, okupazioaren beherakadaren eragin kuantitatiboa garrantzitsua da eskualde horretan, Euskadiko okupazioak 2007-2009 aldian izandako jaitsieraren % 27,7 osatuz (% 8 Eskuinaldearen kasuan).

Okupazioak beherakada txikiagoa izan zuen Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan, zehazki, % 1,5 2007-2009 aldian; izan ere, eskualde horiek 1,7-1,9 puntu galdu zituzten okupazio-koefizienteei dagokienez. 2009ko okupazio-erreferentzia 2005ekoaren antzekoa izan zen Ezkerraldean, eta baita 2007an Bizkaia-Kostan zegoenaren antzekoa ere. Arestian aipatutako zirkunstantzia hori Bilbon ere ikusi zen, eskualde horrek okupazio-koefizienteko puntu bat galdu baitzuen 2009an, 2007arekin alderatuz (% 65,4tik % 64,4ra aldatuz), baina hala eta guztiz ere, aldi horretan okupazioaren % 0,3 baino ez zuen galdu; horrenbestez, eskualde horretan okupazio-mailak ia erabat egonkortu zirela esan dezakegu. Bizkaiko hiru eskualdeek 2007-2009 aldian okupazioari dagokionez ikusitako jaitsieraren % 15,3 osatzen zuten. Proporzio hori % 23,3ra igotzen da Eskuinaldea kontuan hartuz, Donostialdeko % 27,7 baino are txikiagoa bada ere.

Alabaina, nabarmendu beharrekoa da aipatutako hiru eskualdeen kasuan, Bilbok nahiz Ezkerraldeak 2006-2007 aldian okupazio-galerak izaten ari zirela, aldi horretan % 1,5 inguruko mailetara jaitsiz Bilboren eta Ezkerraldearen kasuan, eta honenbestez, 2006ra arte ikusitako oso okupazio-irabazi handiak mugatuz. Bi eskualde horietan, 2006-2007 aldian erregistratutako beherakadak 2005-2006 aldian izandako hazkunde handiekiko haustura gogorra ekarri zuen (% 5,6 eta % 3,8, aztertutako aldiko bi handienak, hain zuzen ere).

Gasteizko okupazio-koefizienteak 3,8 puntu galdu bazituen ere (2007-2009 aldian % 69,2tik % 65,5era aldatu zen), eskualde horretako okupazio-galerak, Bilboren kasuan bezala, erlatiboki txikiak izan ziren aztertutako aldian, 2007-2009 aldian okupazioak soilik % 0,5eko jaitsiera izanez. Eskualde horretako okupazio-galerek okupazio-jaitsieran izandako kontribuzioa guztizkoaren % 2,6 baino ez da. Gasteizen bilakaera paradoxikoa lotuta dago eskualde horretan adin aktiboko biztanleriak 2007-2009 aldian izandako hazkunde garrantzitsuarekin. Eskualde horretako okupazio-zifrek hein handi batean bere horretan jarraitu bazuten ere, handiagotze horrek presio nabarmena ezartzen zion okupazio-koefiziente baxuari.

Epe luzeko ikuspegitik, azkenaldiko okupazio-beherakadek efektu bat izan zuten, 1997-2009 aldian EAeko eskualdeen kokapenak eskualde bakoitzaren okupazio-hazkunderako gaitasunaren arabera aldatu zituztela, hain zuzen ere. Horri dagokionez, hazkunderik txikienak Tolosa-Goierri, Debabarrenari eta Debagoienari dagozkie (% 18,6, % 10,1 eta % 7,1, hurrenez hurren), aipatutako aldian % 20tik beherako zifrekin. Eskualde horiek apenas biltzen dute aldi horretan erregistratutako guztizko okupazio-hazkunderaren % 5,9. Kontrako muturrean, Bizkaiko bost eskualdeek izan zuten hazkunderik handiena 1997-2009 aldian; horien artean, okupazio-hazkunderik txikiena Bilbok izan zuen % 27arekin, eta handiena, berriz, Eskuinaldeak, % 34,2arekin. Bilbo inguruko hiru eskualdeek 2009a 1997tik banantzen duen okupazio-hazkunderaren % 46,4 osatzen zuten, eta Bizkaia-Kostak eta Durangaldeak beste % 12,2 emango lioke zifra horri.

Erdiko posizioan, Arabako bi eskualdeak eta Donostialdea ditugu, 1997-2009 aldian % 23,3-25,3 hazi baitziren. Aiaraldeari eta Gasteizi dagokionez, aldi horretan sortutako okupazioaren % 13,9 bi eskualde horiei dagokie, eta Donostialdeari, berriz, % 21,6.

Alabaina, Gasteizek eta Donostialdeak izandako bilakaeraren gainean ñabardura bat egin behar da, azkenaldiko okupazio-beherakadez gain, 2006-2007 aldian okupazioak geldialdia izan baitzuen, 2005-2006 aldian batez bestekoa baino okupazio-hazkunde txikiagoa erregistratu ondoren. 2005-2007 aldian bi eskualde horiek okupazio-hazkunde txikia izateak, orobat, 2001-2005 aldian ikusitako okupazio-hazkunderaren desazelerazioa berretsi zuen, eta Gasteizek eta Donostialdeak 90eko hamarkadan okupazio-hazkunderari zegokionez izandako lidergoaren desberdina izan zen errealitate hori.

Okupazioaren bilakaerak 1997-2009 aldian (2007-2009 biurtekoan ikusitako aldaketak barne) izandako efektu garrantzitsuenetako bat okupazio-koefizienteek berdintzeko izandako joera dugu, eta alderdi hori deigarria da urbanizazio-maila handieneko eskualdeen kasuan. 1997an, okupazio-koefiziente handiena duen eskualde urbanizatuak, hots, Gasteizek, 14,2 puntuan gainditzen zuen landunen proportzio txikiena duen eskualdearen, hots, Ezkerraldearen, erregistroa 16-64 urteko biztanleriari dagokionez (batak % 58,6 eta besteak % 44,4). 2009an, Gasteizen eta Ezkerraldearen arteko tarteak 2 puntukoa baino ez da, eskualde horien

koefizienteak hazi diren testuinguruan, nahiz eta azkenaldian jaitsierak gertatu (batak % 65,5 eta besteak % 63,5). Egia da, ordea, 1997-2009 aldian Gasteizko okupazioaren hazkundera txikiagoa izateak eragin duela 2009an Donostialdea izatea okupazio-koefizienterik handiena duen eskualdea, Euskadiko eskualde urbanizatuenen artean (Donostialdeak % 67,9). Baina Ezkerraldearekiko aldea 4,4 puntukoa zen urte horretan eta 1997ko 9,3 puntukoa baino askoz ere txikiagoa zen oraindik ere.

Adierazitako konbergentzia-prozesuan, halaber, ikusi da Bilborentzat ere mesedegarria izan dela, % 64,4ko koefiziente-hazkundera izan baitzuen 2009an, EAEko batez bestekotik 0,9 puntuko aldearekin; 1997an, ordea, 3,4 puntuko aldea zuen. Hobekuntza txikiagoa izan da Eskuinaldean, aztertutako hamar urteko denbora-tartean EAEko 2,7 puntuko batez bestekoarekiko aldea txikiagotuz (1,9), okupazioa % 65 da; 1997-2009 aldian eskualde horretan okupazioak termino erlatibotan hazkunde handiena izan zuela kontuan hartzen badugu, paradoxikoa ematen du hasiera batean. Hortaz, okupazioak izandako hazkundeak, Eskuinaldearen kasuan, okupaziorako joera nabarmen hazi izanarekin baino lotura handiagoa du adin aktiboan dagoen biztanleriaren gehikuntzarekin; joera hori, gainera, 1997-2009 aldian Bilbon edo Ezkerraldean ikusitakoa baino apur bat txikiagoa da.

Aipatutako bilakaera ona den arren, Bilboko areako eskualdeak 70eko eta 80ko hamarkadetako desindustrializazio-prozesuaren ondorioak pairatzen ari dira oraindik ere, zerrendaren beheko zatian baitaude oraindik, okupazioari dagokionez; izan ere, eskualde horiek guztiek EAEko batez bestekoa baino okupazio-koefiziente txikiagoak dituzte.

Testuinguru horretan, nabarmendu beharreko alderditzat har dezakegu honako hau: epe luzera begira, Gasteiz 1997-2009 aldian okupazio-koefizienteak gutxien hobetu dituen eskualdea izan zen (+6,9 puntu, Debagoiena baino bi puntutik gora gutxiago, eta Debagoiena da aldi horretan hazkunde txikiena izan zuen bigarren eskualdea, EAEko batez bestekoa baino 7,2 puntu gutxiagorekin).

Gasteizen bilakaera ez dator bat Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetakoarekin. Azken urteotako okupazioan izandako galera handiak gorabehera — zenbait kasutan, 2007a baino lehen—, 2009an eskualde horiek goiko postuetan daude okupazio-koefizientearen adierazleari dagokionez, eta 1997an, Gasteizek baino okupazio-koefiziente txikiagoa zuten. Alabaina, 1997an lehenengo postuan zegoen arren, Gasteiz 2006an laugarren postura jaitsi zen, eta 2007an seigarrenera, baina 2009an berriz ere laugarrenera igo da, Aiaraldean eta Durangaldean azken urteotan izandako bilakaera negatiboaren ondorioz bada ere.

Gasteizek lehiakortasun-posizioan okerrera egin bazuen, 2001-2007 aldian izandako desfasearengatik gertatu zen hori, okupazio-koefizienteen 2 puntuko hazkundera izan baitzuen aldi horretan, baina Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, batez beste, 7,4 puntukoa izan zen.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2009 aldian)**

(Landunak, hazkundera %-tan eta okupazio-koefizienteetan izandako aldaketak)

Eskualdea	Landunak				Hazkundera % tan		Okupazio-koefizientea			
	1997	2005	2007	2009	09/97	09/07	1997	2005	2007	2009
Gasteiz	100.299	123.764	124.625	123.998	23,6	-0,5	58,6	69,4	69,2	65,5
Aiaraldea	15.497	18.923	19.944	19.109	23,3	-4,2	54,5	66,4	71,0	65,0
Eskuinaldea	52.704	71.288	72.626	70.721	34,2	-2,6	48,4	64,5	65,9	63,3
Bilbo	117.989	144.541	150.399	149.887	27,0	-0,3	47,7	61,9	65,4	64,4
Ezkerraldea	127.202	167.050	170.931	168.679	32,6	-1,3	44,4	62,0	65,2	63,5
Bizkaia-Kosta	41.289	50.792	54.778	53.921	30,6	-1,6	54,7	65,0	67,1	65,2
Durangaldea	40.387	51.241	55.213	51.804	28,3	-6,2	51,4	66,2	69,4	63,9
Donostialdea	167.974	214.242	217.074	210.520	25,3	-3,0	53,7	69,8	70,8	67,9
Tolosa-Goierri	41.273	52.612	52.150	48.942	18,6	-6,2	54,5	72,6	72,6	67,4
Debagoiena	25.591	30.518	29.259	27.398	7,1	-6,4	57,5	72,1	72,2	66,7
Debabarrena	20.234	23.209	23.958	22.280	10,1	-7,0	51,8	64,0	68,0	62,6
Guztira	750.439	948.180	970.957	947.259	26,2	-2,4	51,1	66,1	68,1	65,2

EAEko eskualde desberdinetako okupazio-koefizienteek 2007-2009 aldian izandako beherakada orokorra, funtsean, lotuta dago eskualde horietan guztietan gizonen okupazioari dagokionez erregistratutako jaitsiera garrantzitsuarekin, Bizkaia-Kostan beherakada txikiak erregistratuz (4,5) eta Debabarrenean, berriz, handienak (12,7). Haatik, emakumeen okupazio-koefizienteek –zenbait kasutan goranzko joerari eutsi ziotenek– izandako bilakaerak gizonen okupazio-koefizienteen beherakadak eta ikusitako jaitsieren intentsitatea areagotzeko edota partzialki konpentsatzeko balio du.

Okupazio-koefizienteen beherakadak gehien eragindako eskualdeetako –Aiaraldeko, Durangaldeko, Tolosa-Goierriko, Debagoieneko eta Debabarreneko– errealitatea kontuan hartuz, eskualde horietan guztietan gizonen okupazio-koefizienteek oso beherakada garrantzitsua –kasu guztietan, EAEko batez bestekoa baino handiagoa– izan zutela nabarmendu behar dugu. Hala eta guztiz ere, 2007-2009 aldian okupazio-koefizienteek oro har izandako 5-6 puntuko beherakadak taldearen barneko desberdintasunak ezkututzen dituzte, eta gizonen okupazio-beherakadaren intentsitatearekin zein emakumeen okupazio-koefizienteen bilakaera-zeinu desberdinarekin lotuta daude aipatutako desberdintasunak.

Durangaldearen eta Debabarrenaren kasuan, gizonen okupazioak izandako beherakadaren intentsitatea (-9,7 eta -12,7 puntu, hurrenez hurren) lotuta dago emakumeen okupazioak izandako bilakaera hain negatiboa ez izatearekin, Durangaldean apenas 0,9 puntuko

beherakadarekin (EAEko batez bestekoa baino txikiagoa) eta Debabarrenean 2,4 puntuko areagotzearekin (% 53,5etik % 55,9ra). Adierazitako errealitateari esker, hein batean, gizonen okupazioak izandako beherakada drastikoa konpentsatu zen.

Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, aitzitik, gizonen okupazio-koefizienteek jaitsiera txiki samarragoak izan zituzten, (-7,3, -7,7 eta -8,3, hurrenez hurren), eta emakumeen koefizienteek, berriz, beherakada handiak (-4,7, -2,4 eta -2,5, hurrenez hurren). Debagoienaren egoera berezia nabarmendu behar da kasu horretan, 2006-2007 aldian ikusten hasi baitziren gizonen eta emakumeen koefizienteen beherakadak eskualde horretan (ezaugarri hori duen eskualde bakarra dugu).

Gasteizko okupazio-koefiziente orokorrak 3,8 puntu galdu zituen oro har, eta hein handi batean, Debabarrenekoaren antzeko egoeran zegoen eskualde hori, gizonen okupazio-koefizienteek izandako beherakadari dagokionez eskualde horretako egoerara hurbilduz (-11,1 puntu). Gasteizko okupazio-koefiziente orokorrak izandako jaitsiera Debabarrenekoa baino txikiagoa da (-5,4 puntu Gipuzkoako eskualdean), eta hori lotuta dago Arabako eskualdean emakumeen koefizienteak bilakaera hobea izatearekin. Debabarreneko areagotzea 2,4 puntu izan ziren, eta Gasteizkoa, ostera, 3,8 puntu 2007-2009 aldian, EAEko eskualdeen barruan ikusitako hazkunderik handiena, hain zuzen ere.

Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean ikusitakoaren kasuan ez bezala (eskualde horietan guztietan ere gizonen okupazio-koefizienteen jaitsierak antzekoak izan ziren, zehazki, -7 puntukoa kasu horretan), Eskuinaldeak ere beherakada-maila orokorra murriztea lortu zuen, emakumeen okupazioak portaera onari eutsiz, eta 2007-2009 aldian 1,8 puntuko koefizientea hobetuz. Horrela, aipatutako eskualdeetan okupazio-koefiziente orokorrek 5-6 puntuko beherakadak izan zituzten, eta Eskuinaldean, berriz, beherakada orokorra 2,6 puntukoa baino ez zen izan.

Okupazio-maila orokorrei dagokienez batez bestekoa baino jaitsiera txikiagoak izan zituzten gainerako eskualdeetan –Bilbon, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean–, emakumeen okupazio-koefizienteak egonkortu edo hobetu egin ziren; garrantzitsua baina nolana ere kasu guztietan EAEko batez bestekoa baino txikiagoa den beherakadarekin –4,5-6 puntukoarekin– lotuta dago izandako hobekuntza hori.

Adierazitako eskualdeetan, gizonen okupazio-koefizienteko zenbait barne-desberdintasunez haratago, okupazio-koefiziente orokorraren jaitsiera-maila emakumeen koefizientearen hazkundera handiagoa edo txikiagoa izatearen arabera da beste ezer baino lehen. Horrela, Bilbo emakumeen okupazioaren hazkundera eutsi zion 2007-2009 aldian (3,5 puntu); izan ere, eskualde horrek izan zuen okupazio-koefiziente orokorraren jaitsiera txikiena

aldi horretan (-1 puntu), gizonen okupazio-koefizientean 5,6 puntu galdu bazituen ere. Donostialdeak, berriz, gizonen okupazio-maila antzekoa galdu zuen (-5,7), baina okupazio-koefiziente orokorrean, berriz, 2,8 puntu galdu zituen, emakumeen okupazio-koefizientea ia erabat egonkortu zelako. Bizkaia-Kostaren kasuan, emakumeen okupazio-koefizienteak 2-0,9 puntuko hazkundera izan zituen 2007-2009 aldian, erdiko posizioan kokatuz, baina okupazio-koefiziente orokorra, berriz, 1,7-1,9 puntu jaitsi zen biurteko horretan.

**Okupazio-koefizienteen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera
(2005-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Gizonak			Emakumeak		
	2005	2007	2009	2005	2007	2009
Gasteiz	79,9	80,6	69,5	58,5	57,4	61,3
Aiaraldea	79,3	81,7	74,4	52,6	59,6	54,9
Eskuinaldea	74,4	77,0	69,9	54,7	55,1	56,9
Bilbo	73,1	76,0	70,4	51,2	55,2	58,6
Ezkerraldea	75,3	76,7	71,4	48,4	53,4	55,4
Bizkaia-Kosta	75,1	76,6	72,0	54,2	57,1	58,0
Durangaldea	80,4	80,8	71,0	51,3	57,4	56,5
Donostialdea	79,2	79,8	74,1	60,4	61,6	61,7
Tolosa-Goierri	84,2	82,9	75,2	59,9	61,3	58,9
Debagoiena	79,5	78,0	69,7	64,1	66,0	63,4
Debarrena	77,4	81,5	68,9	49,6	53,5	55,9
Guztira	77,3	78,6	71,6	54,8	57,4	58,8

Adinari dagokionez, 2007-2009 aldian okupazio-koefiziente orokorrean beherakada handienak izan zituzten bost eskualdeen –Aiaraldearen, Durangaldearen, Tolosa-Goierriren, Debagoienaren eta Debarrenaren– ia kasu guztietan, 25 urtetik beherakoen eta 25-34 urtekoen adin-tartean okupazio-koefizienteek 10 puntu inguruko edo hortik gorako beherakadak izan zituzten¹². Eskualde horiek guztiek beste ezaugarri bat ere badute, batez bestekoa baino beherakada handiagoa izan zutela da 35-49 urteko adin-tartean, hain zuzen ere; are gehiago, Aiararen, Durangaldearen eta Debarrenaren kasuan, beherakada hori 6 puntutik gorakoa izan zen. Tolosa-Goierriren salbuespen bakarrarekin (1,6 puntu jaitsi zen koefizientea eskualde horretan), 2007-2009 aldian 50 urtetik gorako kolektiboaren okupazio-koefizienteak goranzko aldaketarekin jarraitu zuen adierazitako eskualdeetan.

Gasteizen, Eskuinaldean eta Donostialdean, berriz, okupazio-mailen beherakada tarteko mailetan kokatu zen; izan ere, eskualde horien kasuan, lehen aipatutako kasuan bezala, 16-49 urteko pertsonen okupazio-koefizienteek beherakada orokorrak izan zituzten. Eskualde

¹² Salbuespen bakarra Durangaldea dugu, 25 urtetik beherakoen kolektiboak 4,4 puntuko jaitsiera izan baitzuen eskualde horretan.

horiek 50 urtetik gorako adin-tarteetako okupazio-koefizienteak kasu guztietan EAeko batez bestekoak baino txikiagoak zirelako ere nabarmentzen baziren ere, bi arrazoi desberdinengatik aldendu ziren okupazio-jaitsieraren eraginpean hein handienez zeuden eskualdeetatik, batetik, 16-49 urtekoen kolektiboan oro har batez besteko jaitsiera-mailak izan zituztelako (Eskuinaldean gertatzen den bezala), eta bestetik, EAeko batez besteko jaitsierak salbuespenezko zenbait kasutan baino ez gainditzeagatik (25-34 urteko pertsonak Gasteizen eta 25 urtetik beherakoak Donostialdean).

2007-2009 aldian okupazio-koefizienteen jaitsiera orokorrak gutxien eragindako posizioetan, Ezkerraldea Donostialdekoaren oso portaera antzekoa izateagatik nabarmentzen da, 25-34 urtekoen kolektiboan eta 35-49 pertsonenean EAeko batez bestekoaren jaitsiera erlatiboki antzekoa izanik, eta baita 25 urtetik beherakoen okupazio-mailen batez besteko jaitsierak baino zifra handiagoekin. Hala ere, eta Donostialdearen kasuan ez bezala, 50 urte edo gehiagoko pertsonen okupazio-koefizienteek askoz ere hazkunde handiagoa izan zutelako nabarmentzen da Ezkerraldea (zehazki, +6,6 puntu, eta Donostialdean, berriz, adin horietako koefizienteak egonkortu direla ikusi da).

Bestalde, Bizkaia-Kostaren portaera Gasteizenaren antzekoa da 35 urtetik beherako pertsonen dagokienez, 25-34 urteko pertsonen okupazio-koefizienteetan 10 puntutik gorako jaitsiera handiarekin. Hala ere, Gasteizen kasuan ez bezala, 35 urtetik gorako pertsonen kolektibo osoan goranzko okupazio-koefizienteari eustea lortu zuen EAeko eskualde bakarra dugu Bizkaia-Kosta.

Bilbon ikusitakoa da portaerarik hoberena. 50 urtetik gorako taldean okupazio-hazkunde handia izan zuelako (+3,8 puntu), 25 urtetik beherako barruan okupazio-koefizientearen areagotzea izan zuen kasu bakarra izan zelako (+1 puntu) eta 25-34 urteko pertsonen artean koefiziente-jaitsiera konparatiboki oso txikia izan zuelako (-2,7 puntu, eta EAeko gainerako eskualdeetan, berriz, gutxienez 5,2 izan zen) bereizten da eskualde hori. Bilbok izandako elementu nabarmen negatibo bakarra 35-49 urteko kolektiboak izandako 4 puntuko jaitsiera dugu, EAE osoan ikusitako % 2,4ko batez bestekoa baino handiagoa, hain zuzen ere.

**Okupazio-koefizienteen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
(2005-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Adina											
	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			50-64 urte		
	2005	2007	2009	2005	2007	2009	2005	2007	2009	2005	2007	2009
Gasteiz	38,4	35,0	28,5	85,9	84,2	73,3	81,9	83,8	81,5	56,1	54,5	55,5
Aiaraldea	31,7	37,2	26,7	86,0	89,5	77,1	80,0	84,0	78,0	49,1	54,1	55,0
Eskuinaldea	28,5	34,8	27,1	81,6	80,7	75,6	78,8	81,1	78,3	51,7	51,9	53,5
Bilbo	26,7	29,4	30,4	76,1	74,7	72,0	77,8	80,8	76,8	45,9	53,3	57,0
Ezkerraldea	42,6	37,3	27,5	78,6	84,3	76,5	75,3	78,6	77,3	40,5	45,3	51,9
Bizkaia-Kosta	19,0	20,9	16,6	78,9	87,2	76,7	82,5	80,8	82,4	53,5	53,2	54,5
Durungaldea	36,9	31,7	27,3	81,2	86,9	73,8	80,0	84,3	78,0	50,3	52,3	53,6
Donostialdea	37,7	41,1	29,6	84,2	86,0	80,3	81,9	83,5	82,2	58,0	56,0	55,9
Tolosa-Goierri	43,8	38,3	28,6	90,9	91,7	81,1	81,6	85,1	81,4	60,5	57,7	56,1
Debagoiena	39,9	34,8	12,5	87,0	87,8	76,2	89,8	90,7	88,1	53,3	53,7	58,8
Debarrena	30,2	38,1	28,7	82,0	88,4	71,2	80,7	85,1	78,5	49,1	51,0	53,4
Guztira	35,3	35,1	27,5	81,8	83,8	76,0	79,8	82,2	79,8	51,0	52,6	54,9

Puntu hau amaitu baino lehen, okupazioak eskualdeen arabera azkenaldian izandako beherakadaren eraginaren gaineko azterketari heldu behar zaio berriz ere. Horri dagokionez, deigarria da 2005-2007 aldiko krisialdiak EAEko zona geografiko desberdinetan azken urteotan okupazioaren bilakaera orokorrean izan duen eragin desberdina.

Hasiera batean positiboena den alderdia zera da, okupazio-krisialdiak ez zuela inplikazio erabakigarriak eduki zenbait eskualde garrantzitsutan, hala nola Bilbon edo Gasteizen. 1997-2007 aldian erregistratutako okupazio-gehikuntzari dagokionez, aldi horretan finkatutako okupazio-irabazien % 1,6 eta % 2,6 baino ez zuten galdu bi eskualde horiek. Zifrek gora egin zuten, baina gehiegizkoak ez izaten jarraitu zuten Ezkerraldean (% -5,2) eta Bizkaia-Kostan (% -6,4). Eskuinaldean, berriz, % 10 ingurukoak ziren (% 9,6), eta Donostialdeak zifra hori gaintitu zuen (% -13,3).

Nolanahi ere, gehien eragindako eskualdeak 2007-2009 aldian okupazio-koefiziente orokorretan 5 puntutik gorako jaitsiera erregistratu zuten bost eskualdeak ditugu. Jaitsiera horrek okupazio-irabazien % 20ko galera ekarri zuen Aiaraldean eta Durungaldean 1997-2007 aldian (% 18,8 eta % 23, hurrenez hurren), Tolosa-Goierri eragina % 29,5era igoz. Baina modu berezgarrian gehien eragindako bi eskualdeak Deba ibaiaren haraneko biak ditugu, Debarrenak aurreko hamar urteetan metatutako irabazien % 45,1 galduz eta Debagoienak, berriz, % 50,7.

Adierazitako bost eskualdeen bilakaera bereziki kezagarria da. 1997-2007 aldian sortutako okupazio berri garbien % 17 ekarri zuten bi eskualde horiek, eta 2005-2007 aldian % 23,4arekin (Tolosa-Goierrin eta Debagoienean aldi horretan ikusitako galerak gorabehera), 2007-2009 aldian Euskadin guztira izandako okupazio-galeren % 46,4 metatzen zuten. Guztira, 1997-2007 aldian metatutako okupazio-irabazien % 29,3 galdu zuten 2007-2009 aldian bost eskualde horiek.

Bizkaiko eskualdeetan ikusitako bilakaerarekin konparatuz (Durangaldean izan ezik), aldea ezin deigarriagoa da. Eskualde horiek –Bilbo inguruko hiru eskualdeek eta Bizkaia-Kostak– okupazioari dagokionez izandako goranzko joera begien bistakoa da, 1997-2007 aldian sortutako okupazio garbi berriaren % 49,7 metatuz (proportzio hori % 61,5 izan zen 2005-2007 aldian). Eskualde horiek erlatiboki ongi eutsi zioten azkenaldiko okupazio-krisialdiari, eta are gehiago, 2007-2009 biurteko erabakigarrian metatutako irabazien % 5 baino ez zuten galdu.

Aipatutako Bizkaiko eskualdeen bilakaera onaren ildo beretik, Gasteizek okupazioaren % 2,6 baino ez zuen galdu 2007-2009 aldian. Edonola ere, eta 1997-2007 aldian okupazioak izandako areagotzearen % 11 Gasteizi badagokio ere, okupazioari egindako ekarpena gero eta txikiagoa izan da Gasteizen kasuan, beste eskualdeekin alderatuz. Hain zuzen, 1997-2001 aldian okupazio berriaren % 14,5 Gasteizi zegokion, 2001-2005 aldian, berriz, % 8,5, eta 2005-2007 aldian, azkenik, apenas % 3,5.

Gasteizen ikusitako joera are deigarriagoa da Donostialdean. 1997-2007 aldian okupazioak izandako hazkundean partaidetza handiagoa irudikatzen duen eskualdea bada ere, denborak aurrera egin ahala, okupazio berriaren gero eta garrantzi txikiagoa dauka: % 24,8 1997-2001 aldian, % 21,6 2001-2005 aldian eta % 11,6 2005-2007 aldian. Gasteizen kasuan ez bezala, 2007-2009 aldiko okupazio-jaitsieran eskualde horrek izandako garrantzia, gainera, oso handia da, EAEn erregistratutako guztizko beherakadaren % 27,7 zehaztuz. Donostialdeak, izan ere, bere okupazio-mailaren % 13,3 galdu zuen aldi horretan.

Nolanahi ere, datu horiek gorabehera, funtsezko beste alderdi bat ez dugu baztertu behar. 2006-2007 aldian bost hiri-eskualde handiek –Gasteizek, Ezkerraldeak, Eskuinaldeak, Bilbok eta Donostialdeak– okupazio-berriaren izandako garrantzi negatiboa dugu alderdi hori, hain zuzen ere; horrela, aipatutako eskualde horiek batera 3.346 okupazio galdu zituzten aldi horretan. 90eko hamarkadaren erdialdean enplegua berreskuratzeko prozesuaren ikuspegitik, gehien urbanizatutako Euskadiko gune guztiek okupazioa galdu zuten 2006-2007 aldian lehen aldiz, 1997-2005 aldiko hazkundearen % 78,2 eta 2005-2006 aldikoaren % 91,5 ekarri ondoren.

2007-2009 aldian okupazioak izandako jaitsierak (EAEko hiri-eskualde handietan 11.850 okupazio baino gehiago galduz), beraz, aurretiaz abian zegoen joera areagotu egin zuten;

testuinguru horretan, 2006-2007 aldian Ezkerraldean eta Bilbon izandako okupazio-galera garrantzitsuen aurrekaria gogorarazi behar da.

Oro har bilakaera positiboagoa izan bazuten ere, EAeko eskualdeen artean gutxien urbanizatuetakoz batzuetan egonkortzeko edota galerak izateko joera izan zuen okupazioak 2006-2007 aldian. Aldi horretan, hazkundearen metaketa Bizkaia-Kostari eta Durangaldeari dagokien eskualde hedakorretan 2006-2007 aldian okupazioak izandako gehikuntza garbiaren % 71,3 metatuz. Bi eskualde horien kasuan izan ezik, beraz, EAeren barruan gutxien urbanizatuetakoz eskualdeetako okupazio-bilakaerak izandako hedakuntza-prozesuaren amaiera finkatu zuen 2007ak, eta izan ere, Debagoienean okupazioak ere behera egin zuen 2006-2007 aldian.

2007-2009 biurtekoan gutxien urbanizatuetakoz tokietan krisialdiak izandako eragina, gainera, konparatiboki askoz ere handiagoa izan zen, egiaztatu ahal izan den bezala. EAeren barruan gutxien urbanizatuetakoz sei eskualdeek –Aiaraldeak, Bizkaia-Kostak, Durangaldeak, Tolosa-Goierri, Debagoienak eta Debabarrenak–, izan ere, aztertutako biurtekoan okupazioak izandako beherakadaren erdia ekarri zuten, eta eskualde urbanizatuak, berriz, gainerakoa, zehazki, bakoitzak % 50 (11.848 okupazio termino absolututan). Baina horrek gehien urbanizatuetakoz eskualdeek 1997-2007 aldian izandako okupazio-irabazien % 7 galtzea ekartzen badu, EAE barruan gutxien urbanizatuetakoz sei eskualdeek % 23,2ko eragina izan zutela adierazi behar da.

Okupazioaren igoeraren eta jaitsieraren banaketa 1997-2009 aldian, eskualdearen arabera (%-tan)

Eskualdea	Okupazioaren igoeraren/jaitsieraren banaketa, aldiaren arabera			2007-2009 aldiko jaitsieraren eragina
	Igoera		Jaitsiera	
	97/07	05/07	07/09	(97/07 aldiko igoerarekin alderatuz)
Gasteiz	11,0	3,5	2,6	-2,6
Aiaraldea	2,0	4,2	3,5	-18,8
Eskuinaldea	9,0	5,5	8,0	-9,6
Bilbo	14,7	23,9	2,2	-1,6
Ezkerraldea	19,8	15,8	9,5	-5,2
Bizkaia-Kosta	6,1	16,3	3,6	-6,4
Durangaldea	6,7	16,2	14,4	-23,0
Donostialdea	22,3	11,6	27,7	-13,3
Tolosa-Goierri	4,9	0,0	13,5	-29,5
Debagoiena	1,7	0,0	7,9	-50,7
Debabarrena	1,7	3,1	7,1	-45,1
Guztira	100	100	100	-10,7

3.4. Azkenaldiko bilakaera. Egiturazko datuak.

Ikusi ahal izan dugun bezala, okupazioa % 2,4 jaitsi da 2007tik 2009ra bitarte. Txostenaren atal honetan komenigarria da okupazioari dagokionez azken bi urte hauetan ikusitako jaitsieraren egiturazko alderdiak kontuan hartzea.

3.4.1. Sektoreen eta jarduera-adarren araberako datuak.

Lehenik eta behin nabarmentzekoa da bilakaera desberdina izan dela sektoreen arabera, eta zerbitzuen sektorean, okupazioak hazteari eutsi diola 2007tik 2009ra bitarte, 30.423 landun berriekin. Horrek esan nahi du bi urtean % 5eko hazkundea izan dela, eta, hori ez ezik, sektoreko okupazioak berriz ere gora egin duela ere, 2005etik 2007ra bitarte erregistratutako % 2aren ostean. Oro har, zerbitzuen sektorean okupazioa % 43,8 hazi da 1997tik 2009ra bitarte.

2007tik 2009ra bitarte zerbitzuetan nabari den joera harritzekoa da, zalantzarik gabe, ez bakarrik krisialdi ekonomiko baten esparruan gertatu delako, baita aurreko urteetako joera nahikoa negatiboa eten egin duelako ere. 2005etik 2007ra bitarte, sektoreko hazkunde-erritmoak behera egin zuen 2005-2006 aldiko % 1,3tik 2006-2007 aldiko % 0,6raino, sektoreari okupazio berria sortzeko gaitasuna agortzen ari zitzaien adierazgarri. Ildo horretatik, aipatzekoa da 2001etik 2005era bitarte gorakada sektore horretan nabari zela gehien, lau urte horietan okupazioak % 17 egin zuelako gora; alabaina, 2005etik 2006ra bitarte zerbitzuak azken tokira igaro ziren enplegua sortzeko erritmoari dagokionez, eta posizio hori finkatu egin zen 2005etik 2007ra bitarte, lehen sektoreari dagokionez izan ezik. Azken batean, 2005-2006 aldiak eten egin zuen 1993. urteaz geroztik sektorean nabarmendu zen hazkunde iraunkorra.

Azkenaldian zerbitzuen sektoreak bilakaera ona izan du; gainerako sektoreetan, aldiz, bilakaera askoz ere okerragoa izan da. Lehen sektorean, okupazioak eusteko joera erakutsi du, % 0,5 baino ez baita jaitsi; industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan, ordea, okupazio-galerak handiak izan dira. Eraikuntzak 9.340 landun galdu ditu 2007tik 2009ra bitarte, eta horrek esan nahi du okupazioa % 10,5 jaitsi dela 2007 urtetik eta % 8,2 2005. urtetik, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, 2007ra arte sektorearen hazkundea handia izan zenez, azken emaitzak zera ematen digu aditzera, 2009ko okupazio-maila 1997koa baino % 28,7 handiagoa izan dela.

Bestetik, eraikuntzaren azkenaldiko bilakaeraren azterketak aditzera ematen digunez, okupazioa 2008ko krisiaren aurretik okerragotu zen. Izan ere, sektorearen okupazio-jaitsiera 2006-2007 aldian gertatu zen, aldi horretan okupazioaren % 2 galdu baitzen. Horrek etendura nabaria ekarri du 2005tik 2006ra bitarte atzemandako joeraren aldean, aldi horretan okupazioa oraindik % 4,7 hazi baitzen.

Industrian okupazioaren krisia orain gutxira arte ez da nabari, baina okupazio-mailak nabarmen gehiago okerragotu dira sektore horretan. Ildo horretan, 2007tik 2009ra bitarte 45.394 okupazio galdu dira, % 17,6 2007ko okupazio-zifren aldean eta % 14,6 2005eko zifren aldean, hurrenez hurren. Askoz ere larriagoa dena zera da, eraikuntzan eta zerbitzuetan ez bezala, krisiaren ondorioz okupazio-maila txikiagoa izan dela 2009an 1997an baino (% -4,7, lehen sektoreak —% -25,8— bakarrik gainditu duen zifra). Krisiak industrian izan dituen ondorioen adierazgarri dugu, halaber, sektore horretan gertatu dela okupazioaren beheranzko joera duten sektoreetako 2007-2009 aldiko okupazio-galera guztien % 82,9.

Industrian nabari den okupazio-jaitsiera hori oso bestelakoa da 2005etik 2007ra bitarte ikusitakoaren aldean, aldi horretan industriak izan baitzuen okupazio-hazkunde handiena (% 3,5; eraikuntzan % 2,7 izan zen, eta zerbitzuetan % 2, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, 2006an eta 2007an joera aldatzen ari zela ikus zitekeen argi eta garbi, okupazioaren hazkunde-tasa aurreko urteko % 2,6tik % 0,9 jaitsi baitzen. Nolanahi ere, esan beharra dago lehenago ere, 2001etik 2005era bitarte zehazkiago, industriaren okupazioa % 1,7 jaitsi zela. Epe luze baten, 2005etik 2006ra bitarte okupazioa % 2,6 hazi izana, 1997tik 2001ra bitarte izandako hazkunde-erritmoetatik gertu, mende berriaren hasierarako enplegua sortzeko gaitasuna agortua zuen sektore baten jardueraren behin-behineko gorakada izan zela esan dezakegu.

Orain artean aurkeztutako datu guztiei buruzko hausnarketa egitean, aipatzekoa da ez dela lehenengo aldia azken urteotan zerbitzu-sektorean jarduerak gora egiten duena, ekonomiaren beste sektore batzuetan zailtasun-egoeran dauden bitartean. 2001-2005 aldian, zerbitzu-sektorearen okupazioaren hazkunde indartu egin zen (1997-2001 aldian batez besteko urteko hazkunde % 3,5 izan zen eta 2001-2005 aldian % 4, hurrenez hurren), eta hori ez dator bat ekonomiaren gainerako sektoreetan atzemandako joera negatiboarekin. Lehen sektorean 1997tik aurrera okupazioak behera egin zuen, eta 2001-2005 aldian industria-sektorean (urteko batez bestekoa: % -0,4); jaitsiera horiekin batera, eraikuntzaren hazkunde-erritmoak ere murriztu egin ziren (urteko batez bestekoa % 5,7 zen 1997-2001 aldian eta % 3 2001-2005 laurtekoan, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, sektoreen araberako zifra handiei begiratu beharrenean, hobe dugu aurreko alderdietan sakontzea, adarren araberako bilakaera aztertuz krisiak eraginpean hartutako eremu nagusiak atzemateko.

Ikuspegi horretatik zera egiaztatzen dugu, 2007-2009 aldiko okupazio-atzerakada bereziki metal-industriaren produkzio-eremuan nabarmendu dela. Oro har, industria horrek 29.710 okupazio galdu ditu aldi horretan, 2007an zeudenen % 18,2 alegia, eta, horrela, 2006tik 2007ra bitarte okupazioan atzemandako itxurazko gorakada geratu egin da bat-batean. Izan ere, adar

multzo horrek 1997-2007 aldi osoko okupazio-irabazien % 110,1 galdu ditu bi urtean bakarrik, eta 2009an okupazioa 1997an baino % 2 txikiagoa izan da.

Metal-industriaren barruan, metalurgia da beherakada handiena izan duen adarra, 2007tik 2009ra bitarte 23.730 okupazio galdu dituelako, hain zuzen ere 2007ko okupazioaren % 28,9, eta, horren eraginez, adar horren okupazio-maila % 20,7 txikiagoa izan da 1997an baino. Nabarmenezkoa da kasu horretan okupazio-krisia 2007 baino lehen gertatu zela, 2005etik 2007ra bitarte okupazio-maila % 2,9 jaitsi baitzen, 2005etik 2006ra bitarte adar horretan nabarmendu zen krisi larriaren ildo beretik. Bestetik, makinagintzaren eta material elektrikoaren edo garraio-materialaren adarretan 5.979 okupazio galdu ziren aldi horretan. Kasu horretan, okupazioaren beherakada % 7,4 baino ez da izan 2007aren aldean, eta 2009an okupazio-zifrak 1997koak baino % 19,9 handiagoak izan dira. 2006-2007 aldian susperraldia nabari bada ere, 2005etik 2006ra bitarte okupazio-jaitsierak nabarmendu ziren adar multzo horren barnean material elektrikoaren fabrikazioan

Industriaren gainerako adarretan 15.684 okupazio galdu dira guztira 2007tik 2009ra bitarte, 2007ko okupazioaren % 16,5 ehunekotan. Kasu horretan, 2007-2009 biurtekoaren galerak 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 201,1 izan dira. Horren ondorioz, 2009an okupazioa % 9 txikiagoa izan da adar horietan 1997an baino.

Aintzat hartutako adarren multzo handian, nabarmenezkoa da elikagai-industrian, paper-industrian eta gainerako manuflakturen industrian 9.871 okupazio galdu direla, eta horren ondorioz gaur egun industria horien okupazio-maila % 13,4 txikiagoa dela 2007an baino. 2005etik 2006ra bitarte adar horietan oso bilakaera egokia izan ostean, 2006tik 2007ra bitarte beheranzko oso joera argia nabarmendu zen okupazioari dagokionez, paper-industrian, eta elikagai-industrian eta gainerako manuflakturen fabrikazioan okupazioa % 3,1 eta % 10 baino gehiago jaitsi baitzen, hurrenez hurren.

Industriaren gainerako adarretan 5.814 okupazio galdu dira guztira, industria petrokimikoaren eta kautxuaren eta material plastikoaren industrien bilakaera okerrari loturik, adar horietan okupazioaren % 20 baino gehiago galdu delako 2007tik 2009ra bitarte, 2009ko okupazioa 1997koa baino % 10etik gora baino txikiagoa izan delarik. Kasu horretan ere, galera horiek 2007 baino lehenago nabarmendu ziren, 2005etik 2007ra bitarte okupazioa % 1,9 jaitsi baitzen industria petrokimikoan, 2005etik 2006ra bitarte adar horrek bilakaera txarra izan zuelako bereziki, eta kautxuaren eta material plastikoaren industrian ere 2006tik 2007ra bitarte % 7,7ko galera izan zelako.

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, industria-adarren multzo handietan izandako galeren aldean, eraikuntzaren bilakaera neurrizkoagoa izan da kualitatiboki, ezbairik gabe garrantzi kualitatibo handia izan badu ere, 9.340 okupazio galdu direla kontuan hartzen badugu.

Oro har, industriaren eta eraikuntzaren adarretan okupazioaren % 15,8 galdu da 2007tik 2009ra bitarte, 1997tik 2007ra bitarte ekonomiaren adar horietan erregistratutako okupazio-irabazien % 88,5. Kasu honetan esan dezakegu, exageratzeko beldurrik gabe, krisiak EAEn eragindako inpaktua dramatikoak izan dela.

Lehen sektorean aipatzekoa da arrantza-sektorea pixka bat suspertu dela, 980 okupazio berri sortu direlako 2007tik 2009ra bitarte. Nolanahi ere susperraldi hori gorabehera, argi dago adar horretan epe luzerako okupazioak behera egin duela, 1997tik 2009ra bitarte okupazioa % 42,5 jaitsi delako. Nekazaritzan, okupazioa % 19,6 jaitsi da 1997tik 2009ra bitarte.

Industriaz aparte, 2007-2009 aldian gertatu diren okupazio-galera esanguratsu bakarrak garraio eta komunikazioen adarrean gertatu dira, aldi horretan 2.810 okupazio galdu baitira, 2007an zeudenen % 4,5. Adar horretan ere krisia lehenago hasi zen okupazioaren % 7,5eko jaitsiera izan zelako 2005 urtearen aldean. Eraikuntzan bezalaxe, krisiaren epe luzerako eragina txikixeagoa izan da, nolanahi ere, epe luzerako ikuspegi batean. Horren haritik, 2007-2009 aldiko galerak 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 15,1 baino ez dira, eta adar horretan okupazioa % 36,4 handiagoa da oraindik ere 1997an baino.

Aldez aurretik aipatutako adarrak krisian egonik ere, 2007-2009 aldian okupazioaren epe luzerako goranzko joera berretsi da zerbitzu-sektoreko gainerako adarretan. 2005-2007 aldian bezalaxe, okupazioaren funtsezko hazkundeak gertatu dira ostalaritzan, enpresetarako zerbitzuetan eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan. Hazkunde-erritmoa zertxobait txikitu da azken urteotan enpresetarako zerbitzuetan (2005-2007 aldiko % 5,4tik 2007-2009ko % 3,9ra), baina ostalaritzan eta, bereziki, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan (11.391 landun garbi irabazi ditu adar horrek) gora egin du (lehenengoan % 5,9tik % 10,3ra, eta bigarrean % 7,1etik % 16,6ra, hurrenez hurren). 2005etik 2009ra bitarte, okupazioa % 24,9 hazi da osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan, ostalaritzaren % 16,8aren eta enpresetarako zerbitzuen % 9,6aren gainetik, hurrenez hurren. Datu horien argitara, esan dezakegu adar horietan okupazioak epe luzera hazteko potentziala duela, bereziki osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan.

2007-2009 aldiko gorakadak 2005-2007 aldian izandako beheranzko joera eten du zerbitzuetako beste adarretan. Hori horrela, honako adar hauek gora egin dute: merkataritzak (2005-2007 aldian okupazioa % 1,9 jaitsi zen eta 2007-2009 aldian % 5,1 hazi da), finantza-erakundeek (% -4,4tik % 12ra), bestelako merkataritza-zerbitzuek (% -11,6tik % 5,8ra) eta

etxeko zerbitzuek (% -2,8tik % 1,8ra)¹³. Alabaina, horren guztiaren ondorioz okupazioa zertxobait handitu da 2005-2009 aldi osoan merkataritzan (% +3,1) eta finantza-erakundeetan (% +7), baina gainerako merkataritza-zerbitzuetan eta etxeko zerbitzuan okupazioa murriztu egin da laurteko horretan (% -6,4 eta % -1). Hala eta guztiz ere, merkataritzaren eta bestelako merkataritza-zerbitzuen adarretan, 2007-2009 aldiko bilakaerak bultzada berri bat eman dio 1997tik 2005era bitarte izandako enplegu-hazkunde handiari.

Okupazioaren bilakaera ez da hain positiboa Administrazioan eta hezkuntzaren adarrean; izan ere, 2007tik 2009ra bitarte, 2005-2007 aldiko okupazio-hazkunde handiak murriztu egin dira. Administrazioan, 2005-2007 aldian % 13,1eko hazkundera izan zen eta 2007-2009 biurtekoan okupazioa gelditu egin da. Hezkuntza, aurreko biurtekoan % 8,3ko hazkundera izan ondoren, 2007tik 2009ra bitarte hazkundera % 1,6 izan da bakarrik, 1.051 landun berriren igoera garbiarekin.

Aurreko datuak laburbildurik, zera ikusten dugu, euskal ekonomiaren adar jakin batzuetan oraindik ere 35.769 okupazio garbi berri sortu direla 2007tik 2009ra bitarte. Termino erlatibotan erreferentziazko biurtekoan okupazio-belaunaldi berri hori honako adar hauetan nabarmendu da, adar bakoitzak igoera horretan izan duen parte-hartze erlatiboa esanbidez adierazi dugularik:

- * Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan, hazkunde handiena izan den adarrei dagokien igoeraren % 31,8 izan da, % 34,8 baldin eta hezkuntza-adarra eransten badiogu.
- * Merkataritzaren eta bestelako merkataritza-zerbitzuen adarrek % 25,1eko ekarpena egin dute guztira, % 18,5 merkataritzak eta % 6,6 bestelako merkataritza-zerbitzuek, hurrenez hurren.
- * Ostalaritza (% 14,6).
- * Enpresetarako zerbitzuak (% 10,4).
 - Finantza-erakundeak (% 6,9).

Aldi horretarako enpleguaren hazkunde positiboa izan duten adarrei dagokienez, 2007-2009 bitartean ikusitako okupazio-hazkundearen % 91,7 biltzen dute adierazitako adarrek, guztiak ere zerbitzu-sektorean bildurik.

¹³ Termino absolututan, talde horretan nabarmentzekoa da bereziki okupazio garbiak merkataritza-adarrean izandako hazkundera (6.615 pertsona), finantza-erakundeetan eta gainerako merkataritza-zerbitzuetan izandakoaren gainetik (2.478 eta 2.360 pertsona, hurrenez hurren).

Aurreko datuak aurreko aldietan erregistratutakoaren aldean jartzen baditugu zera ikusten dugu, adar jakin batzuek okupazioaren hazkundera berebiziko garrantzia edukitzen jarraitu dutela 2007tik 2009ra bitarte. Bereziki, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrek, eta, neurri txikiago batean, enpresetarako zerbitzuek eta hezkuntzak. Adar horietan hazkunderaren % 40-50 bildu zen 2001etik 2007ra bitarte, eta oraindik ere okupazio berriaren % 45,1 biltzen da. Horri erantsi behar diogu, batetik, ostalaritzak gorantz jarraitzen duela, eta, bestetik, merkataritzaren eta merkataritza-zerbitzuen adarrak suspertu egin direla, adar horiek 2001etik 2005erako hazkundera itzuli direlako 2005etik 2007ra bitarte okupazio garbia galdu ondoren, 2005-2006 aldiko bilakaera txarraren ondorioz bereziki. Bestetik, 2007tik 2009ra bitarte Administrazioak ez du ekarpen positiborik egin okupazio berriak sortzeari dagokionez.

Dena den, ezin dugu ahaztu azken urteotan okupazioaren hobekuntzari mesede gehien egiten dioten adar guztien artetik, epe luzera hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrak soilik direla hedakorrak, egiturazko jaitsiera handien eraginpean erori gabe. Horietatik osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrek bakarrik erakutsi dute kontuan hartzeko moduko goranzko joera, azken bi urteetan.

Hazkunde handiena izan duten adarretan, 35.769 okupazio sortu dira; jaitsiera handiena izan duten adarretan, aldiz, 59.467 okupazio galdu dira 2007tik 2009ra bitarte. Bereziki honako adar hauek daude joera horren eraginpean:

- * Metalurgian, jaitsiera handiena izan duten adarren okupazio-galderen % 39,9 izan da, eta proportzio hori % 50 izan da metalaren eta material-fabrikazioaren beste adar batzuk aintzat hartzean.
- * Manufaktura-industrian (elikagaiak, papera eta bestelako manufakturrak) jaitsieraren % 16,6 nabarmendu da.
- * Eraikuntza (% 15,7).
- * Industria petrokimikoa eta kautxuaren eta material plastikoen industria (% 11,1).
- * Garraioak eta komunikazioak (% 4,7).

Oro har, aipatutako adarretan, 2007tik 2009ra bitarte joera negatiboa izandako adarren okupazio-jaitsieraren % 98,1 bildu da. Nabarmenezkoa da makinagintzaren eta garraio-materialaren fabrikazioaren adarretan izan ezik, gainerako adar guztietan jaitsiera-zantzuak agertu zirela 2005-2007 aldiko une batean gutxienez.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(2005-2009 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Adarrak eta sektoreak	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	2007/2005	2009/2007	2009/2005
Nekazaritza	15.082	15.004	15.131	-0,5	0,8	0,3
Industria	249.794	258.625	213.230	3,5	-17,6	-14,6
Eraikuntza	86.373	88.671	79.332	2,7	-10,5	-8,2
Zerbitzuak	596.931	608.657	639.080	2,0	5,0	7,1
Nekazaritza	11.257	12.833	11.979	14,0	-6,7	6,4
Arrantza	3.825	2.171	3.152	-43,2	45,2	-17,6
Erauzketa-industria	1.754	1.721	1.887	-1,9	9,6	7,5
Elikagai-industria	14.404	14.547	12.597	1,0	-13,4	-12,5
Paper-industria	14.271	14.643	12.203	2,6	-16,7	-14,5
Industria petrokimikoa	11.133	10.925	8.269	-1,9	-24,3	-25,7
Kautxuaren eta material plastikoen industria	16.889	17.494	13.536	3,6	-22,6	-19,9
Bestelako gai ez- metalikoen ind.	6.097	6.323	6.065	3,7	-4,1	-0,5
Metalurgia	84.719	82.246	58.515	-2,9	-28,9	-30,9
Makinagintza	34.477	37.688	34.986	9,3	-7,2	1,5
Material elektrikoa	15.486	16.578	13.925	7,0	-16,0	-10,1
Garraio-materiala	24.868	27.053	26.427	8,8	-2,3	6,3
Hainbat manufakturaren ind.	20.605	22.773	17.291	10,5	-24,1	-16,1
Energia-produkzioa	5.091	6.635	7.527	30,3	13,5	47,9
Eraikuntza	86.373	88.671	79.332	2,7	-10,5	-8,2
Merkataritza	131.670	129.105	135.720	-1,9	5,1	3,1
Ostalaritza	47.770	50.579	55.787	5,9	10,3	16,8
Garraioak/Komunikabidea k	63.889	61.923	59.114	-3,1	-4,5	-7,5
Finantza-erakundeak	21.672	20.708	23.186	-4,4	12,0	7,0
Enpresetarako zerbitzuak	89.596	94.455	98.159	5,4	3,9	9,6
Administrazio Publikoa	45.101	50.990	50.978	13,1	0,0	13,0
Hezkuntza.	62.123	67.295	68.346	8,3	1,6	10,0
Osasuna/Gizarte- zerbitzuak	63.940	68.465	79.857	7,1	16,6	24,9
Bestelako merkataritza- zerbitzuak	46.190	40.855	43.214	-11,6	5,8	-6,4
Etxeko zerbitzuak	24.979	24.282	24.719	-2,8	1,8	-1,0
Guztira	948.180	970.957	947.259	2,4	-2,4	-0,1

Biztanleria landunaren azterketan eskualde-aldagaia sartzean, hobe da okupazioak zerbitzuetan eta ekonomiaren gainerako adarretan izan duen bilakaera bereiztea, areago oraindik kontuan hartzen badugu une honetan nabaria dela ekonomiaren sektoreen artean bilakaera desberdinak badaudela okupazioari dagokionez.

Zerbitzu-sektorean okupazioaren goranzko joera nagusi den arren, 2007tik 2009ra bitarte eskualde arteko bilakaera-joera dibergentea mantendu da, aurreko aldietan ikusitakoaren ildo beretik. 2005-2007 aldirako ikusitako okupazioaren goranzko joerari eutsi dioten eskualdeek eman dute daturik positiboena. EAEko hiri-eskualde handietan gertatu da hori, Gasteizen, Bilbon

eta Donostialdean alegia, eta aipatzekoa da 2007tik 2009ra bitarte okupazioaren hazkunde-erritmoa indartu egin dela 2005-2007 biurtekoaren aldean. Hori bereziki esanguratsua da Gasteizen eta Bilbon eskualde horietan biztanleria landunaren bolumenak behera egin baitu biurtekoaren une batean (% -0,3 Gasteizen 2006tik 2007ra bitarte, eta % -1,2 Bilbon 2006tik 2007ra bitarte, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, 2007tik 2009ra bitarte eskualde horretako hazkunde-erritmoak motelxeagoak dira EAEn (% 5) jasotakoak baino, Gasteizen % 4,9, Bilbon % 4,5 eta Donostialdean % 2,7 erregistratu direlako, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, gehien hazi diren eskualdeetan 2007tik 2009ra bitarte zerbitzu-sektorean erregistratutako okupazio-hazkundearen % 40,6 hiru eskualde horietan jaso da.

Durungaldean ere hazkunde positiboa erregistratu da aintzat hartutako bi biurtekoetan (2005-2007 eta 2007-2009). Eskualde horretan, nolanahi ere, 2007tik 2009ra bitarte sektorean izandako hazkunde-maila handienak jaso dira, okupazio-hazkundera guztira % 14,9 izan delako, 2005etik 2007ra bitarte erregistratutako % 10ri jarraipena ematen diona. Oro har, Durungaldeko zerbitzu-sektoreko okupazio-maila % 26,4 hazi da 2005etik 2009ra bitarte, aldi horretan EAEn atzemandako hazkunderik handiena. EAEn biztanleria-bolumen txikia osatzen duen arren, Durungaldean 2007tik 2009ra bitarte okupazioak zerbitzuetan izandako hazkunde osoaren % 12,6 erregistratu da.

Kontua hartzekoa da, halaber, zerbitzu-sektorean okupazioak gora egin duela 2005etik 2007ra bitarte oro har okupazioa galdu zuten eskualde jakin batzuetan¹⁴. Horixe gertatu da Eskuinaldean, Ezkerraldean, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan, besteak beste.

¹⁴ Ezkerraldean, 2005-2007 biurtekoko jaitsiera 2005-2006 aldiko erregistro negatiboekin loturik dago, baina Debagoiengan, 2006-2007 aldiko bilakaera negatiboa da erabakigarriena. Eskuinaldean eta Tolosa-Goierriin, 2005-2007 biurtekoaren fase guztietan beherakadak izan dira.

Eskualde horietan guztietan garrantzitsua da sektorean 2007-2009 biurtekoan izandako hazkundera, nahiz eta zifrarik handienak Ezkerraldean (% 8,8) eta Debagoienera (% 8) erregistratu diren, Eskuinaldean (% 5,7) eta Tolosa-Goierri (% 4,8) hazkundera batez bestekoaren inguruan ibili delarik. Debagoienak eta Tolosa-Goierri zerbitzu-sektorearen okupazioaren hazkunde osoaren % 7,1 baino ez dute ekarri 2007-2009 biurtekoan. Eskuinaldean (% 9,3) eta Ezkerraldean (% 30,2), ordea, proportzioak handiagoak dira, eta azken eskualde hori izan da 2007tik 2009ra bitarte sektorean gehien hazi direnetako bat.

Ezkerraldeko okupazio-hazkundera, termino absolututan Bilbon edo Eskuinaldean jasotakoa baino askoz ere nabariagoa izanagatik ere, Bilboaldeko ezaugarri baten adierazgarri da nolana ere, eraginpean hartutako hiru eskualdeek zerbitzu-sektorearen okupazio-hazkundearen % 55,7 berenganatzen dutelako, Gasteiz eta Donostialdeak batera metatutako % 24,4aren aldean. Izan ere, Bilboaldeko hiru eskualdeen bilakaera erabakigarria izan da EAEko zerbitzu-sektorearen dinamikan 2007tik 2009ra bitarte. Hori hala da eskualde horietan, sektorearen okupazioak goranzko joera argia berreskuratu duelako, 2005etik 2007ra bitarte neurri handi batean galdu bazen ere 1997tik 2005era bitartean eremu horietan indarrean egon dena. 2005etik 2007ra bitarte, okupazioa % 0,5 bakarrik igo zen Bilbon, Ezkerraldean eta Eskuinaldean; 2007tik 2009ra bitarte, ordea, okupazioa % 6,5 igo da zerbitzu-sektorean eskualde horietan, gehienez % 8,8 Ezkerraldean eta gutxienez % 4,5 Bilbon.

Nolana ere, aipatzekoa da 2005-2007 biurtekoan Bilboaldeko eskualdeetan atzemandako joera negatiboa eten izanak, 2007tik 2009ra bitarte EAEko hiri-eremu urbanizatuenetan zerbitzu-sektoreak izandako gorakada orokorrago bat ematen duela aditzera. Donostialdean eta Gasteizen, sektoreak bizitasuna galdu bazuen ere, okupazioak gora egin zuen 2005-2007 aldian; bi eskualde horietan, ordea, 1997-2005 aldian zerbitzu-sektorean nagusi izan zen okupazioaren hazkunde hedakorra eten egin zela ikus zitekeen.

Oro har, 2005etik 2007ra bitarte, sektorea % 1 hazi zen hiriko bost eskualde handietan, eta guztira 4.746 okupazio garbi berri baino ez ziren sortu; 2007tik 2009ra bitarte, aldiz, 25.031 okupazio garbi berri sortu ziren. Gainera, okupazioaren hazkunde-eritmoak aldi horretan ez daude oso urrun 1997-2005 aldian erregistratu eta (% 2,5 urtean batez beste 2007tik 2009ra bitarte; % 3,6 1997tik 2001era bitarte, eta % 3,8 2001etik 2005era bitarte, hurrenez hurren, nabarmen gaintik nolana ere 2005-2007 biurtekoan jasotako % 0,5aren aldean).

Okupazioaren hazkunde-maila handien 2005etik 2007ra bitarteko etenaldia urbanizazio txikiagoko beste zenbait eskualdetara ere hedatu zen, Tolosa-Goierri eta Debagoienera adibidez, 2001etik 2005era bitarte zerbitzuen gorakada handia izan zutenak eta, nolana ere, 2007-2009 biurtekoan goranzko joera hori indar handiz berreskuratu zutenak. EAEko bost eskualde urbanizatu handietan Tolosa-Goierri eta Debagoienera zerbitzuen okupazioaren

hazkunde-erritmoak berreskuratu dira neurri handi batean, beraz, eta Durangaldeak ere goranzko joera argia erakutsi du; hortaz, oro har, 2007tik 2009ra bitarte okupazioaren bilakaera Euskadin bereziki positiboa izan dela esan dezakegu.

Nolanahi ere, esan beharra dago zerbitzu-sektorean azkenaldian izandako bilakaera osoa ez dela positiboa izan. Pixka bat gora egin duen arren, Arabako Aiaraldean zerbitzuen okupazioa % 0,7 baino ez da hazi 2007tik 2009ra bitarte. Eta beraz, eskualde horretan hazkunde-erritmoek beherakada nabarmena izan dute biurteko horretan, 2005-2007 biurtekoan izandako % 5,1aren aldean.

Sektorean bizitasuna galtzeko nabari den joera hori are deigarriagoa da 2005etik 2007ra bitarte zerbitzuen okupazio-gorakada handiena izan zuten bi eskualdeetan, Bizkaia Kostan eta Debabarrenean alegia. Bizkaia-Kostan okupazio-tasa % 0,2 jaitsi da, eta Debabarrenean % 6, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, bi eskualde horiek EAEn 2005-2009 laurtekorako sektorearen okupazioak izandako batez besteko hazkundearen gainetik jarraitzen dute.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera zerbitzu-sektorean, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	73.008	74.274	77.949	1,7	4,9	6,8
Aiaraldea	9.142	9.611	9.681	5,1	0,7	5,9
Eskuinaldea	52.778	51.041	53.956	-3,3	5,7	2,2
Bilbo	107.725	111.292	116.346	3,3	4,5	8,0
Ezkerraldea	107.871	107.464	116.904	-0,4	8,8	8,4
Bizkaia-Kosta	30.219	34.348	34.266	13,7	-0,2	13,4
Durangaldea	24.059	26.462	30.405	10,0	14,9	26,4
Donostialdea	141.935	143.993	147.940	1,4	2,7	4,2
Tolosa-Goierrri	25.772	24.826	26.025	-3,7	4,8	1,0
Debagoiena	13.361	12.744	13.758	-4,6	8,0	3,0
Debabarrena	11.061	12.603	11.852	13,9	-6,0	7,2
Guztira	596.931	608.657	639.080	2,0	5,0	7,1

Beraz, zerbitzu-sektorean eskualdeek bilakaera positiboa izan dute oro har, baina, bestalde, EAEko eskualde guztietan okupazioaren beherakada orokorra gertatu da gainerako sektoreetan. Honako datu hau eman dezakegu arazoaren garrantziaren adierazgarri: aldi horretan, 1997tik 2007ra bitarte sektore horietan erregistratutako okupazio-irabazien % 96,8 galdu du EAEk, eskualdeen gutxienekoa % 41,9 izan delarik.

Bizkaia-Kosta eskualdean nabarmendu da gutxien beherakada, 2007tik 2009ra bitarte zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan okupazioa % 3,8 jaitsi delako eskualde horretan. Handiagoak izanagatik ere (% 8-9ko galerak), Arabako Gasteiz eta Aiaraldea eskualdeetan eta

Gipuzkoako Debabarrenean beherakada ez da % 10era iritsi. Okupazio-galerak % 14,5 hazi dira, gutxi gorabehera, Bilbon eta Donostialdean, eta % 16,1etik % 18,6ra bitarte, berriz, Ezkerraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Gehienezko beherakadak Eskuinaldean eta Durangaldean gertatu dira, okupazioa % 22,3 eta % 25,6 jaitsi baita zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan.

Nolanahi ere, okupazioak azkenaldian EAEko eskualde guztietan izan duen beherakadaren garrantzia neurtzeko, kontuan hartzekoa da 2005-2007 aldian okupazioaren hazkundera oso bestelakoa izan zela eskualdeen arabera; izan ere, aldi horretan, okupazioak behera egin zuen zenbait eskualdetan, hala nola Gasteizen, Bizkaia-Kostan eta Debaren bailarako eskualdeetan. Aiaraldean eta Bizkaiko eskualde gehienetan, ordea, Bizkaia-Kostan izan ezik, okupazioaren hazkunderak % 5aren gaineko maileri eusten ziren oraindik ere.

Hortaz, 2005-2009 aldiko bilakaera osoa kontuan hartzen badugu, zera ikusten dugu, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreen eremuan hamarkadaren erdialdetik nabari diren prozesu negatiboak Aiaraldea eta Bizkaia-Kosta eskualdeetan nabari dela gutxien, okupazioa % 3,6 eta % 4,5 jaitsi baita eskualde horietan. Aiaraldean okupazioa % 5,6 hazi da 2005-2007 biurtekoan, eta horrek konpentsatu du neurri batean 2007tik 2009ra bitarte izandako beherakada handia, EAEko batez besteko jaitsiera (% -8,8) baino txikiagoa izan bazen ere; Bizkaia-Kostan, berriz, okupazioa % 0,7 jaitsi zen 2005etik 2007ra bitarte, eta 2007-2009 aldiko jaitsiera ez da hain nabaria izan (% -3,8). 1997-2007 aldian zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan izandako okupazio-irabaziei dagokienez, bi eskualde horietan nabarmendu dira gutxien 2007-2009 biurtekoaren okupazio-galerak. Hala eta guztiz ere, biurteko horretan 1997-2007 aldiko irabazien % 41,9 galdu da Bizkaia Kostan eta % 51,5 Aiaraldean, hurrenez hurren. Nolanahi ere, Aiaraldean okupazioa 1997koa baino % 10 handiagoa da, eta Bizkaia-Kostan, berriz, % 5,8 handiagoa.

2005-2009 laurtekoan, okupazio-galerak % 9,5 izan dira Gasteizen, Eskuinaldean eta Bilbon. Gasteizen okupazioak beherakada handia izan du zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan 2007-2009 biurtekoan, baina, batez beste, beherakada hori EAEn (% -8,8) baino txikiagoa izan da, nolanahi ere 2005etik 2007ra bitarteko okupazio-mailen % 0,8 beherakada txikiarekin zerikusia duena. Bilbon eta Eskuinaldean beherakada handiagoak izan dira 2007tik 2009ra bitarte, % 14,7 eta % 22,3, hurrenez hurren, aurreko biurtekorako, 2005-2007 aldirako alegia, okupazioaren hazkunde handiak gertatu baziren ere (% 6,2 eta % 16,6, hurrenez hurren). Gorakada hori 2005-2006 biurtekoari eta Bilbori dagokio neurri handi batean, baina esan beharra dago eremu horrek okupazioa galdu duela 2006tik 2007ra bitarte.

Oso handiak izanagatik ere, 2007-2009 aldian izandako okupazio-galerak, 1997-2007 aldian izandako irabazien aldean, oraindik ere txikiagoak dira eskualde horietan EAEko batez

bestekoaren aldean: % 65 Gasteizen eta Bilbon, eta % 88,3 Eskualdean, hurrenez hurren. Eskualdean, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan okupazioa % 3,9 handiagoa izan da 1997an baino, eta ehuneko hori % 5,5 izan da Gasteizen eta % 10,2 Bilbon, hurrenez hurren. Bizkaia-Kostan bezala, Gasteizen ere, nolani ere, okupazioaren beheranzko joera nabari da epe luzera zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan, 2001etik aurrera.

Ezkerraldearen bilakaera Bilbo eta Eskualdea eskualdeen bilakaeraren antzekoa izan da: 2007tik 2009ra bitarte beherakada handiak izan dira (% -18,6 kasu honetan), 2005etik 2007ra bitarte ere hazkunde esanguratsuak (% 7,2) izan ondoren. Nolanahi ere, okupazioaren beherakada % 10 baino handiagoa izan da 2005-2009 laurtekoan (% -12,7). Ezkerraldeak 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 112,1 galdu du 2007tik 2009ra bitarte, eta horregatik 2009an okupazio-maila % 2,4 txikiagoa izan da zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan 1997an baino.

2005-2009 aldiko okupazio-galera orokorrak % 13,5etik % 14,6ra bitarte igo dira Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean. Lehen bi eskualdeetan, 2007tik 2009ra bitarte zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan okupazioak izandako % 15 inguruko beherakadak zerikusia izan du horretan, 2005etik 2007ra bitarte % 1etik % 2ra bitarte izandako hazkundeak neurri batean baino konpentsatu ez duena. Debabarrenean, ordea, 2007tik 2009ra bitarteko % 8,2ko beherakada 2005-2007 biurtekoaren % 6,5eko beherakadari metatu zaio. Donostialdeak 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 91,9 galdu ditu 2007tik 2009ra bitarte, eta 2009ko okupazio-maila % 1,5 handiagoa izan da 1997an erregistratutakoa baino; Tolosa-Goierri proportzioa % 104,5 izan da, eta horrek esan nahi du zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan okupazio-maila txikiagoa izan dela 2009an 1997an (% -0,8) izan zena baino. Gauza bera gertatu da Debabarrenean, baina kasu horretan adierazlea % 603,9 izan da, 1997-2007 aldian okupazioak sektore horietan izan duen beherakada txiki-txikiaren ondorioz, 2001etik aurrera etengabeko okupazio-beherakadak izan diren neurrian. Nabarmentzekoa da 2009an Debabarrenean okupazio-tasa % 6,9 txikiagoa izan dela 1997an baino, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan .

2005etik 2009ra bitarte, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan, okupazioaren beherakada Durangaldean eta Debagoienez nabarmendu da bereziki, laurteko horretan 2005ean zuten okupazioaren % 21,3 eta % 20,5 galdu dutelako, hurrenez hurren. Durangaldean, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreen okupazioa % 5,8 hazi zen 2005-2007 biurtekoan, 2007tik 2009ra bitarteko % 25,6ko beherakadak konpentsatu duena. Debagoienez, aldiz, okupazioa % 17,4 jaitsi da, eta horrek areagotu egin du 2005etik 2007ra bitarte atzemandako % 3,7ko beherakada

2007-2008 aldian Durangaldean izandako okupazio-galerak 1997-2007 hamarkadako irabazien % 166,3 izan dira, eta proportzio hori % 328,1 izan da Debagoienez, eskualde horretan ere okupazio-mailek behera egin dutelako mendearen hasieratik zerbitzu-arlokoak ez

diren sektoreetan. 1997. urtearen aldean, Durangaldeak zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreen okupazioaren % 12 galdu du 2009an, eta proportzioa hori % 12,8 izan da Debagoiengan.

2007-2009 aldiko okupazio-galeren eskualdez eskualdeko banaketari erreparatzen badiogu, zera ikusten dugu, beherakada absolutuak EAeko bost hiri-eskualde nagusietan kontzentratu direla, okupazio-galeren % 68,4 eskualde horietan gertatu baita. Bilboaldeko eskualdeetan gertatu da beherakada handiena: % 41 (Ezkerraldean % 21,6, Bilbon % 10,5 eta Eskuinaldean % 8,8, hurrenez hurren), eta, jarraian, Donostialdean (% 19,4) eta Gasteizen (% 8,1). Eskualde handietatik aparte, nabarmentzekoa da Durangaldean okupazioa % 13,5 jaitsi dela, eta Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeek ere proportzio hori lortu dutela.

Ildo horretatik, atal honetan oso kontuan hartzekoa da euskal eskualde askotan, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan biztanleria landunaren beherakada askoz ere lehenago gertatu zela 2007-2009 biurtekoaren krisialdia baino. Gasteiz, Bizkaia-Kosta, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan, enplegua galtzeko joera nagusitu da sektore horietan 2001. urteaz geroztik, eta okupazioak 2005etik 2006ra bitarte bakarrik egin zuen pixka bat gora, eskualde jakin batzuetan. 1997-2001 aldiko okupazio-hazkunde handien ostean, 2007rako lau eskualde horietan nabaria zen 2001ean baino okupazio-tasa txikiagoa zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan. Horren aldean, okupazioaren beherakada txikiagoa izan da 2007tik 2009ra bitarte eskualde horietan, Debagoiengan izan ezik, eta horrek ezkutatu du nolabait zerbitzu-sektoretik kanpoko enpleguak bilakaera negatiboa izan duela epe luzera eskualde horietan.

Ildo beretik, Bizkaia-Kostaren eta Gasteiz Deba ibaiaren bailarako bi eskualdeekin lotzen duen arearen bilakaera oro har negatiboaz gain, 2006tik 2007ra bitarte Bilbon eta Ezkerraldean zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreen okupazioan izandako beherakadak ere nabarmendu behar dira (% -2,3 eta % 4,3, hurrenez hurren). Egia esateko, bi eskualde horiek elementu asko dituzte komunean 2001-2007 aldian enplegua galdu zuten lau eskualdeekin. Alde bakarra dago horien artean, eta hain justu 2005-2007 aldiko okupazio-hazkunde garbia ez ezik, 2007ko okupazio-maila 2001ekoa baino handiagoa izatea ere justifikatzen du alde horrek; hauxe da alde hori: 2005etik 2006ra bitarte, zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreei dagokienez, Bilbon eta Ezkerraldean izandako okupazioaren hazkunde handia. Beraz, aldi horretan izan ezik, mende berriaren lehen urteetan sektore horietako okupazioan epe luzerako galera izateko joera dago. 2007tik 2009ra bitarte berretsi da bilakaera hori, beherakada % 15etik gertu ibili delako edo % 15 baino handiagoa izan delako bi eskualde horietan.

Neurri txikiagoan bada ere (jaitziera soilik % 0,3 baita), Donostialdean ere behera egin du okupazioak zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan 2006tik 2007ra bitarte, 2001-2005 aldiko jaitziera txikia luzatuz; 2005-2006 aldian gorakada izan zen (% 1,3), baina ez du askorik konpentsatu aurreko galera. Enplegu garbia galdu ez badu ere, eskualde horretan, zerbitzu-

arlokoak ez diren sektoreen okupazioa gelditu egin zen 2001etik 2007ra bitarte. 2007-2009 biurtekoan, eskualde horretan ere zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreen okupazioa % 15 jaitsi da, gutxi gorabehera.

Izan ere, 2001etik 2007ra bitarte, Aiaraldean, Eskuinaldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierrin bakarrik ageri da, gorabeherak gorabehera, okupazioaren epe ertainerako eta epe luzerako goranzko joera argia zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan, eta 2006tik 2007ra bitarte goranzko joera horri eutsi zioten. Hortaz, azpimarratzekoa da Aiaraldean izan ezik, sektore horietan okupazioaren beherakada betiere handiagoa izan dela eskualde horietako batez bestekoa baino 2007-2009 biurtekoan, eta beherakada hori bereziki Eskuinaldean eta Durangaldean nabarmendu dela.

Aipatutako datuek aditzera ematen dutenez, EAeko zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetako okupazio-oinarriaren egitura hauskorra da, eta hauskortasun hori, azkenaldiko krisi ekonomikoaren ondorioz nabarmendu bada ere, 2001-2007 aldian ere atzeman zitekeen, aldi horretako datuek erakusten dutenez.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landunaren bilakaera zerbitzu-arlokoak ez diren sektoreetan, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	50.756	50.351	45.927	-0,8	-8,8	-9,5
Aiaraldea	9.781	10.334	9.428	5,6	-8,8	-3,6
Eskuinaldea	18.510	21.585	16.765	16,6	-22,3	-9,4
Bilbo	36.816	39.107	33.347	6,2	-14,7	-9,4
Ezkerraldea	59.179	63.467	51.673	7,2	-18,6	-12,7
Bizkaia-Kosta	20.573	20.430	19.655	-0,7	-3,8	-4,5
Durangaldea	27.182	28.751	21.399	5,8	-25,6	-21,3
Donostialdea	72.307	73.081	62.513	1,1	-14,5	-13,5
Tolosa-Goierrri	26.840	27.324	22.917	1,8	-16,1	-14,6
Debagoiena	17.158	16.516	13.640	-3,7	-17,4	-20,5
Debabarrena	12.148	11.355	10.429	-6,5	-8,2	-14,2
Guztira	351.249	362.300	307.693	3,1	-15,1	-12,4

Azpimarratzekoa da 2007tik 2009ra bitarte okupazioak goranzko joerari eutsi diola goi-mailako kalifikazioko sektoreetan. Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan okupazioa % 2,6 hazi da aldi horretan, eta bilakaera hori ez dator bat euskal ekonomiaren gainerako sektoreetan okupazioak izan duen % 5,7ko beherakadarekin .

Nolanahi ere, goi-mailako kalifikazioko sektoreetan okupazioaren hazkundea goi-mailako prestakuntzaren eremura eta ezagutzaren indar handiaren eremura mugatzen da, 2007tik

2009ra bitarte landunen kopurua % 6,6 hazi baita. Goi-mailako teknologiako sektoreetan, ordea, okupazioa % 1,5 jaitsi da biurteko horretan.

Epe ertainerako eta epe luzerako joerei erreparatuta, aipatzekoa da okupazioaren hazkundera moteldu egin dela okupazio handiko sektoreetan, 2005-2007 biurtekoaren % 5etik 2007-2009 biurtekoaren % 2,6ra jaitsi baita. Datu horiek berretsi eta areagotu egiten dute 1997az geroztik atzemandako beheranzko joera. Hala, goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, okupazioaren urteko hazkunde-erritmoa jaitsi egin da etengabe: 1997-2001 aldian % 4,6 izan zen, 2001-2005 aldian % 3,8, 2005etik 2007ra bitarte % 2,5, eta 2007tik 2009ra bitarte % 1,3, hurrenez hurren.

Okerrera zera da, goi-mailako kalifikazioko enpleguaren hazkunde-erritmoen epe luzerako beheranzko joera horrek goi-mailako teknologiako sektoreetako okupazioaren bilakaera txarrarekin duela zerikusia. 2007tik 2009ra bitarte okupazioa % 1,5 jaitsi da, eta kasu honetan ez dator bat, inola ere, 2005etik 2007ra bitarte atzemandako % 6,7ko hazkundearekin. Goi-mailako prestakuntzako sektoreetan, ordea, okupazioak erritmo onean jarraitu du, hazkundera pixka bat bakarrik jaitsi delako, hain zuzen ere 2005-2007 aldiko % 7tik 2007-2009 aldiko % 6,6ra. Ezagutzaren indar handiaren sektoreetan ere hazi dira okupazioaren hazkunde-erritmoak (2005-2007 aldian % 4,6 izan zen; 2007-2009 aldian, aldiz, % 6,6).

Goi-mailako teknologiako sektoreetan enpleguak azkenaldian izan duen bilakaera kezkatzeko modukoa da, 2006tik 2007ra bitarte itxuraz okupazio mota horren gorakada zena (% 4,8ko hazkundera) eten baita 2007tik 2009ra bitarte. Horrek zerikusia du, neurri handi batean, 2001etik aurrera sektore horien okupazioak izan duen joera-aldaketa handiarekin. Horrela, bada, 1993tik 2001era bitarte pixkanaka-pixkanaka hazi ostean, eta EAEn aldi horretako okupazioaren hazkunde handiena izanik, 2001-2005 aldian % 0,3ko jaitsiera izan zuten goi-mailako teknologiako sektoreek okupazioan, aurreko laurtekoetako % 25etik gorako hazkunderekin kontrastean. Era berean, okupazio-galera hori deigarria da goi-mailako kalifikazioko gainerako sektoreetan 2001etik 2005era bitarte atzemandako % 20tik gorako hazkunde-mailekin alderatuta.

2005etik 2006ra, datuen arabera, berretsi egin zen goi-mailako teknologiako sektoreetako okupazioak izandako bizitasun txikiagoa, nahiz eta urte horietan % 1,8ko gorakadatxo izan okupazioan. Hortaz, 2007-2009 aldiko datuek sendotu egite dute, okupazio-galerei dagokienez kasu honetan, mende berriko lehen hamarkadan izandako joera-aldaketa, industriaren sektorean oro har atzemandako bilakaeraren ildo beretik.

2006tik 2007ra bitarte bilakaera-ildo berri bat abiatu zen kalifikazio txikiagoko sektoreetan, okupazioaren % 0,9 galdu baitzen bi urte horietan, eta joera hori sendotu da 2007tik 2009ra

bitarte, % 5,7ko jaitsiera izan delako. 2001-2006 aldian sektore horietan okupazio-hazkunde handia izan zen, baina esan beharra dago hazkunde-erritmoak 1997-2001 aldikoaren azpitik ibili zirela.

Goi-mailako teknologiako sektoreen bilakaera negatiboa den arren, goi-mailako kalifikazioko sektoreek gero eta garrantzi handiagoa dute EAEn okupazio berria sortzeari dagokionez. Sektore horiek okupazio-hazkundeari egin dioten ekarpena okupazio garbi berriaren % 46,9 izan zen 1997. urtetik 2001. urtera bitarte, % 58,2 2001-2005 aldian eta % 80,9 2005-2007 biurtekoan, hurrenez hurren. Kalifikazio-maila txikiagoko okupazioak behera egin duenez, EAeko okupazioa, oro har, jaitsi egin da 2007tik 2009ra bitarte, baina goi-mailako kalifikazioko enpleguak goranzko joerari eutsi dio aldi horretan, betiere goi-mailako teknologiako sektoreetan okupazioari buruz aipatutako xehetasunak alde batera utzi gabe.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landunaren bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan , okupazio-sektorearen arabera (2005-2009 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Sektore mota	Absolutuak			Hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Goi-mailako teknologia	110.827	118.277	116.495	6,7	-1,5	5,1
Goi-mailako prestakuntza	217.398	232.665	248.083	7,0	6,6	14,1
Ezagutzaren indar handia	273.326	285.861	304.600	4,6	6,6	11,4
Goi-mailako kalifikazioa	364.967	383.384	393.395	5,0	2,6	7,8
Gainerakoak	583.213	587.573	553.864	0,7	-5,7	-5,0
Guztira	948.180	970.957	947.259	2,4	-2,4	-0,1

Eskualdez eskualde, eta termino erlatibotan, goi-mailako kalifikazioko sektoreetako okupazio-hazkunde handiena Ezkerraldean, Debagoiengan eta Debabarrenean izan da 2007tik 2009ra bitarte. Biurtekoaren hazkundea % 10,7 izan da Ezkerraldean, % 13,5 Debagoiengan eta % 20,5 Debabarrenean, hurrenez hurren. Eskualde horiek % 50,7ko ekarpena egin diote okupazioaren hazkundeari goi-mailako kalifikazioko sektoreetan 2007tik 2009ra bitarte: Ezkerraldeak % 33,2, Debabarrenak % 9,1 eta Debagoienak % 8,4, hurrenez hurren.

Aipatzekoa da, nolana ere, atzemandako hazkundeak ez duela konpentsatzen 2005etik 2007ra bitarte Debagoiengan erregistratutako % 19,9ko jaitsiera, ezta Debabarrenean aldi horretan erregistratutako % 2,1eko jaitsiera ere. Ezkerraldeak bakarrik eutsi dio goranzko joerari 2005. urteaz geroztik, 2005. urteko % 6,1etik hazkunde-erritmoak gora egin duelako.

Goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, okupazioaren hazkundea handia izan da oraindik ere Bilbon, Durangaldean eta Donostialdean: % 4,7, % 5,6 eta % 6,3, hurrenez hurren. Donostialdean izan ezik (gora egin du 2005-2007 aldiko % 4,4aren ostean), gainerako

eskualdeetan hazkunde-erritmoa jaitسي da (% 9,9 Bilbon eta % 16,1 Durangaldean 2005etik 2007ra bitarte). Aintzat hartutako okupazio motaren hazkunde absolutuari dagokionez, eskualde horietan hazkundera % 49 izan da 2007-2009 aldian: % 27,1 Donostialdean, % 16,4 Bilbon eta % 5,5 Durangaldean, hurrenez hurren.

Aiaraldean, goi-mailako kalifikazioko enpleguaren hazkunde-erritmoak % 0,9ra jaitسي dira 2007tik 2009ra bitarte, eta eskualde horretan horrelako okupazioa sortzeko erritmoak behera egin du 2005-2007 biurtekoaren % 5,1etik. Gasteizen, okupazioa askoz ere nabarmenago egonkortu da sektore horietan, % 0,1 jaitسي baita 2005etik 2007ra bitarteko % 0,8ko igoera txikiarekin kontrastean.

Bestetik, aipatzekoa da hiru eskualdetan oso beherakada handia nabarmendu dela goi-mailako kalifikazioko sektoreetako okupazio-zifretan 2007tik 2009ra bitarte: Tolosa-Goierri (% -7,5), Eskuinaldean (% -9,2) eta Bizkaia-Kostan (% -19,4). Bizkaiko bi eskualdeetan beherakada horien % 83 gertatu da. Bizkaia-Kostan izan ezik, eskualde horietan okupazioa batez bestekoaren azpitik hazi zen 2005etik 2007ra bitarte.

2005-2007 aldian etenaldi nabaria gertatu zen Arabako eta Gipuzkoako eskualdeetan ordura arte goi-mailako kalifikazioko enpleguan izandako hazkunde handian, eta orain aurkeztutako datuek ez dute guztiz aldatzen 2007an ateratako ondorioa, hazkunde-erritmoak Bizkaiko eskualdeetan bakarrik nabarmendu direlako. Ildo horretatik, 2005etik 2009ra bitarte Arabako eta Gipuzkoako eskualde askotan hazkundera batez bestekoaren azpitik ibili da (Aiaraldea), horrelako okupazioak ia-ia egonkortu dira (Gasteiz) edo erreferentziazko sektoreetan okupazioaren zifra absolutuak jaitسي dira (Tolosa-Goierri eta Debagoiena). Aldi berean, horrelako okupazioen hazkunde-maila handienak Bizkaiko Bilbo, Ezkerraldea eta Durangaldea eskualdeetan gertatu dira.

Hala eta guztiz ere, 2007tik 2009ra bitarteko aldian okupazioak goranzko joera berreskuratu du goi-mailako kalifikazioko sektoreetan Donostialdean eta Debarrenean, eta horrenbestez eskualde horiek Bizkaiko aipatutako eskualdeetara hurbildu dira hazkunde-mailetan. Alabaina, biurteko horretan okupazioak behera egin du nabarmen erreferentziazko sektoreetan Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan, eta horren ondorioz okupazioak behera egin du Bizkaiko bi eskualde horietan 2005-2009 laurtekoan.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan,
eskualdearen arabera
(2005-2009 aldia)**

Eskualdea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	49.113	49.501	49.438	0,8	-0,1	0,7
Aiaraldea	6.015	6.324	6.380	5,1	0,9	6,1
Eskuinaldea	32.883	34.079	30.938	3,6	-9,2	-5,9
Bilbo	61.684	67.778	70.953	9,9	4,7	15,0
Ezkerraldea	56.236	59.652	66.057	6,1	10,7	17,5
Bizkaia-Kosta	19.892	23.671	19.088	19,0	-19,4	-4,0
Durangaldea	16.416	19.056	20.116	16,1	5,6	22,5
Donostialdea	78.974	82.456	87.685	4,4	6,3	11,0
Tolosa-Goierrri	19.982	20.257	18.740	1,4	-7,5	-6,2
Debagoiena	14.968	11.991	13.616	-19,9	13,5	-9,0
Debarrena	8.805	8.618	10.383	-2,1	20,5	17,9
Guztira	364.967	383.384	393.395	5,0	2,6	7,8

3.4.2. Lanbidearen araberako datuak.

2007tik 2009ra bitarteko okupazioaren datuak aztertzean zera ikusten dugu, bilakaera desberdina izan dela talde profesionalaren arabera. Hala, langile kalifikatuen edo kalifikazio gabekoen kolektiboek bilakaera okerragoa izan dute besteen aldean, baita makineriako operadoreek ere. Hala, langile kalifikatuen kopurua % 7,5 jaitsi da 2007tik 2009ra bitarte, eta beherakada % 16,7 izan da kalifikazio gabeko langileen artean, 2005-2007 bi urtekoaren hazkunderarekiko kontraste handian bi kasuetan (% 5,2 kalifikatuen kasuan eta % 9,1 kalifikazio gabekoen artean, hurrenez hurren).

Makineriako operadoreentzat beherakada txikixeagoa izan bada ere (% -4), kolektibo horretan jaitsi dira gehien 2005-2009 laurtekoaren zifrak, okupazioaren beherakada lehenago, 2005-2007 biurtekoan hain zuzen, gertatu baitzen (% -6,8 aldi horretan). Oro har, kolektibo horretan biztanleria landuna % 10,5 jaitsi da 2005etik 2009ra bitarte, eta beherakada hori % 9,1 izan da aldi horretan kalifikazio gabeko langileentzat eta % 2,7 langile kalifikatuentzat, hurrenez hurren.

Langile kalifikatuak, kalifikazio gabekoak eta makineriako operadoreak batera hartuta, talde profesional horietan 49.674 okupazio galdu dira: % 49,7 langile kalifikatuen artean, % 40,7 kalifikazio gabeko langileen artean eta % 9,6 makineriako operadoreen artean, hurrenez hurren. Aipatutako galderen ondorioz, okupazioa % 8,7 jaitsi da batez beste 2007-2009 biurtekoan, 2005etik 2007ra bitarte izandako % 3,2ko hazkundera konpentsatzen duena. Oro har, talde profesional horietan 2005eko okupazioen % 5,8 galdu da.

Datu horiek epe luzerako testuinguru batean jarri behar ditugu, horien esanahia ulertzeko. Ildo horretatik, talde profesional horien okupazioaren hazkunde-erritmoen beharrezko joera baten testuinguruan jarri behar dira. Hala, 1997-2001 laurtekoan hazkunde-erritmoa % 3,3 izan zen urtean batez beste; 2001etik 2005era bitarte % 1,4 izan zen, eta, 2005-2007 biurtekoan, % 1,6. Krisiaren eraginez, beharrezko joera hori areagotu da, hau da, enplegu-galera handiak gertatu dira, % -4,5 batez beste urtean talde profesional horientzat 2007tik 2009ra bitarte.

1997-2007 aldiko okupazio-irabaziei dagokienez, 2007-2009 biurtekoan okupazio-galera handiak izan dira, erreferentziazko irabazien % 59,1 kalifikazio gabeko langileen artean, % 39,4 langile kalifikatuen artean eta % 32,1 makineriako operadoreen artean, hurrenez hurren. Oro har, hiru kolektibo horiek 1997tik 2007ra bitarte metatutako okupazio-irabazien % 44,5 galdu dute 2007tik 2009ra bitarte.

Aintzat hartutako talde profesionaletan ez bezala, zuzendari, teknikari eta administrarien artean 25.887 enplegu irabazi dira 2007-2009 aldian, eta administrarien (2007-2009 biurtekoaren igoeraren % 47,6 aintzat hartutako hiru taldeetan) eta zuzendarien (% 40,9) ekarpena funtsezkoa izan da horretan. Teknikarien artean, ordea, igoera nabarmen txikiagoa izan da: % 11,6.

Goranzko joera duten talde profesionaletan, okupazioa teknikarien artean hazi da gutxien 2007tik 2009ra bitarte: % 1,2, 2005-2007 aldiko % 3,9tik etengabe behera egin duelarik. Administrarien artean, ordea, okupazioaren hazkunde-erritmok gora egin du, hain zuzen ere 2005etik 2007ra bitarteko % 4,9tik 2007-2009 biurtekoaren % 13,6ra. Azkenik, 2005etik 2007ra bitarte % 14 jaitsi bazen ere, zuzendarien okupazioak gora egi du nabarmen 2007tik 2009ra bitarte, okupazio-bolumena % 18,7 igo baita. Hala eta guztiz ere, 2005-2009 aldian hazkundera % 2,1 baino ez da izan zuzendarien artean, teknikarien % 5,1aren eta administrarien artean nabari den gehieneko % 19,1aren azpitik.

Bereziki nabarmentzekoa da teknikari eta administrarien eremuetan okupazioa sortzeari dagokionez epe luzera gertatu den beheranzko joera. Kasu horretan, okupazioen laurtekoko hazkundera, 1993tik 1997ra bitarteko % 5,7tik 1997tik 2001era bitarteko % 21,5era igo zena, % 15,5era jaitsi zen 2001-2005 laurtekoan eta % 8,8ra 2005etik 2009ra bitarte. 2005-2009 laurtekoan nabarmendu den hazkunde-tasa handia administrarien artean okupazioak gora egin duelako gertatu da bereziki, teknikarien artean 2007tik 2009ra bitarteko hazkundera % 1,2 baino ez delako izan. Horren haritik, okupazio tekniko berriak sortzeko erritmoa moteldu egin da 2005. urteaz geroztik. 1997tik 2005era bitarte, hazkundera % 5 baino gehiago izan zen urtean; teknikarien artean, aldiz, okupazioa % 1,9 baino ez zen hazi 2005etik 2007ra bitarte, eta % 0,6 2007tik 2009ra bitarte, hurrenez hurren.

Zuzendariei dagozkien zifren bilakaerak erakusten duenez, okupazioaren bilakaera ezegonkorragoa izan da kolektibo horretan. Zuzendarien artean goranzko joera nabari da azkenaldian, okupazioa % 18,7 igo delako 2007tik 2009ra bitarte, eta hori ez dator bat 2005-2007 biurtekoan atzemandako % 14ko beherakadarekin. Nolanahi ere, 2001etik 2005era bitarte izandako hazkunde handiaren (% 22,3) ildo beretik doa, 1997tik 2001era bitarte izandako % 4,6ko beherakadaren ostean nabarmendu zena.

Azkenik, nabarmentzekoa da 2005etik 2009ra bitarte korrelazio positiboa nabari dela lanbidearen eta okupazioaren dinamikaren artean. Hala, okupazioa % 18,7 hazi da zuzendarien artean, teknikari edo administrarien artean erregistratutako % 4,5aren gainetik. Langile kalifikatuak eta makineriako operadoreak osatutako taldean okupazioa % 6,6 jaitsi da, baina kalifikazio gabeko langileen artean nabari da beherakada handiena: % 16,7.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen arabera
(2005-2009 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Lanbidea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Indar Armatuak	147	498	297	238,3	-40,3	101,9
Zuzendariak	65.757	56.567	67.143	-14,0	18,7	2,1
Teknikariak	243.536	253.073	256.065	3,9	1,2	5,1
Enplegatu administrariak	86.567	90.784	103.102	4,9	13,6	19,1
<i>Teknikariak/Administr.</i>	<i>330.103</i>	<i>343.856</i>	<i>359.168</i>	<i>4,2</i>	<i>4,5</i>	<i>8,8</i>
Langile kalifikatuak	314.832	331.100	306.394	5,2	-7,5	-2,7
Makineriako operadoreak	126.382	117.834	113.082	-6,8	-4,0	-10,5
Kalifikazio gabeko langileak	110.958	121.103	100.886	9,1	-16,7	-9,1
<i>Bestelako langileak</i>	<i>552.172</i>	<i>570.036</i>	<i>520.363</i>	<i>3,2</i>	<i>-8,7</i>	<i>-5,8</i>
Guztira	948.180	970.957	947.259	2,4	-2,4	-0,1

2007-2009 aldian okupazioa lanbide motaren arabera eta eskualde-egoeraren arabera nola bilakatu den aztertzean, honako alderdi hauek nabarmen daitezke:

Zuzendariei dagokienez, oso hiru egoera desberdin nabarmen daitezke okupazioaren azkenaldiko bilakaeran. Batetik, zenbait eskualdetan 2007tik 2009ra bitarte mantendu edo areagotu egin da 2005etik 2007ra bitarte okupazioan atzeman zen beheranzko joera. Deigarriena Bizkaia-Kostan gertatu da, 2007tik 2009ra bitarte zuzendarien okupazio-maila % 28,8 jaitsi delako, 2005-2007 biurtekoaren % 30,6 luzatzen duena. Oro har, eskualde horretan zuzendarien enpleguaren % 50,6 galdu da 2005etik 2009ra bitarte.

2005-2007 biurtekoaren beherakada arin edo moderatuak beste bi eskualdetan ere areagotu egin dira 2007tik 2009ra bitarte: Aiaraldean eta Bilbon. Arabako eskualdean, lehen biurtekoaren % 2,9ko beherakadaren ostean bigarrenaren % 17,3 etorri da, Bilbon, berriz, hiri-eskualdea izaki, beherakadaren erritmoa igo da % 4,8tik % 11,2ra bitarte. Oro har, Aiaraldean zuzendarien okupazioa % 19,7 jaitsi da 2005etik 2009ra bitarte, eta Bilbon, berriz, % 15,5, biak ere kontuan hartzeko moduko beherakadak beraz, zuzendarien okupazioari dagokionez. Eskuinaldean ere beherakada nabari da aintzat hartutako bi biurtekoetan, baina beherakada arinagoak izan dira (% -0,9 eta % -0,2, hurrenez hurren), 2005etik 2009ra bitarte zuzendarien % 1,1 bakarrik galdu dutelarik.

Azpitarratzekoa da Aiaraldean izan ezik (pixka bat gora egin du: % 6,9), aldeztatik aipatutako eskualdeetan 2009ko zuzendari kopurua 1997an erregistratutakoa baino nabarmen txikiagoa dela: % 20,4 Eskuinaldean, % 23,5 Bilbon eta % 41,8 Bizkaia-Kostan¹⁵. Gauzak horrela, Bilbon eta Eskuinaldean beherazko joera nabari da zuzendarien kopuruan, eta joera horri eutsi egin diote 1997. urteaz geroztik, gorakada txiki batzuk gorabehera: 2006an Eskuinaldean eta 2007an Bilbon. Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan, aldiz, beherakada askoz ere berriagoa da, 2005-2006 biurtekoaren ondokoa.

¹⁵ Azpitarratzekoa da Aiaraldean zuzendarien okupazioaren bilakaera negatiboa 2006-2009 aldira mugatu dela, eta eskualde horretan 1997-2006 aldian izandako igoerak EAEko batez bestekoaren gainetik ibili direla beti. Hori dela-eta, eskualde horretan kopuru handiagoak jaso dira 2009an 1997an baino.

Beste hiru eskualdetan, zuzendarien okupazioak 2005etik 2007ra bitarte nabarmen behera egin ondoren, horrelako okupazioek gora egin dute 2007tik 2009ra bitarte, nolana ere nahikoa izan ez dena aurreko biurtekoaren beherakadak konpentsatzeko. Hori Durangaldean nabarmendu da bereziki. 2005etik 2007ra bitarte zuzendarien okupazioaren % 32,2 galdu ondoren, kolektibo horren bolumena 2007tik 2009ra bitarte baino ez da hazi (% 2,8), baina, oro har, 2005etik 2009ra bitarte, zuzendarien okupazioaren % 30,3 galdu da. Eskuinaldean, Bilbon eta Bizkaia-Kostan bezala, Durangaldean ere 2009ko zuzendarien kopurua 1997an erregistratutakoa baino txikiagoa izan da (% -15,7).

Debarrenean, zuzendarien ehunekoa % 42,8 jaitsi da 2005etik 2007ra bitarte, baina langile horien kopurua % 68,4 igo da 2007tik 2009ra bitarte, eta, horrenbestez, 2005-2009 aldian, 2005ean zegoen zuzendari kopurua % 3,7 jaitsi da. Ildo beretik, mugimenduak lasaiagoak izan badira ere, Ezkerraldean zuzendarien okupazioa % 11,9 igo da 2007tik 2009ra bitarte, 2005etik 2007ra bitarte kolektibo horren kopurua % 15,6 jaitsi ondoren. Oro har, Ezkerraldean, zuzendarien % 5,6 galdu da 2005etik 2009ra bitarte, 2005eko zifra kontuan hartuta. Bestetik, Debarrenean eta Ezkerraldean, zuzendarien okupazioari buruzko zifrak % 20 handiagoak izan dira 1997an baino, beste zenbait eskualdetatik (Eskuinaldea, Bilbo, Bizkaia-Kosta edo Durangaldea) nabarmen uruti.

Nolana ere, orain artean aintzat hartutako eskualdeetan 5.898 okupazio galdu dira guztira zuzendarien artean 2005etik 2009ra bitarte. Zatiirik handiena, guztizkoaren % 57, lehen sektoreak betidanik garrantzi handia izan duen eskualdeei dagokie, Durangaldeari edo Bizkaia-Kostari adibidez. % 27,9, berriz, Bilbori dagokio, eta % 7,9 Ezkerraldeari, hurrenez hurren. Oro har, zuzendarien artean 2005etik 2009ra bitarte galdutako okupazioen % 93,6 Bizkaian kontzentratu da.

Debarrena eskualdearen ildo beretik neurri batean, Gipuzkoako bi eskualdetan zuzendarien okupazioak gora egin du berriz ere 2007tik 2009ra bitarte, 2005etik 2007ra bitarte kolektiboak beherakada handia izan ondoren. Debarrenean ez bezala, nolana ere, 2009an zuzendarien okupazioa nabarmen handiagoa izan da 2005ean baino. Debagoienean, 2005etik 2007ra bitarte % 30,3 jaitsi ondoren, 2007-2009 biurtekoaren % 62,1eko hazkundera etorri da, eta, horren ondorioz, 2005-2009 aldian hazkundera % 13 izan da guztira. Bestetik, Donostialdeko datuek aditzera ematen dutenez, okupazioa % 23,7 jaitsi da lehen biurtekoan, eta bigarrean, aldiz, % 52,2 egin du gora; horren ondorioz, igoera orokorra % 16,2 izan da 2005etik 2009ra bitarte.

Tolosa-Goierri ere nabarmendu da zuzendarien okupazioaren gorakada handi hori 2007tik 2009ra bitarte, zuzendarien zifra guztira % 95,1 igo delako aldi horretan, baina kasu horretan, nolana ere, hazkundera jarraitua izan da, 2005etik 2007ra bitarte ere nabarmendu baitzen (% 98

19,8). Hala, Gipuzkoako eskualdean, okupazioaren bolumena % 133,7 igo da 2005etik 2009ra bitarte. Gasteizen ere, Tolosa-Goierri bezala, zuzendarien okupazioak goranzko joera izan du 2005-2009 aldiko bi biurtekoetan, askoz ere neurri txikiago batean izan bada ere (% +6,2 2005etik 2007ra bitarte, eta % +3,8 2007tik 2009ra bitarte, hurrenez hurren). Hala, zuzendarien kopurua % 10,3 baino ez da hazi 2005etik 2009ra bitarte, Donostialdean eta Debagoiengan erregistratutako ehunekoen azpitik.

Nolanahi ere, aipatutako lau eskualde horiek —Gasteiz, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena— garrantzizko bi ezaugarri partekatzen dituzte. Batetik, 2005etik 2009ra bitarte zuzendarien okupazioa bi eskualde horietan hazi da bakarrik, eta, bestetik, 1997-2009 aldirian okupazio mota hori bi eskualde horietan hazi da bereziki. Lehen ezaugarriari dagokionez, bi eskualde horiek 7.283 okupazio garbi sortu dituzte guztira 2005etik 2009ra bitarte, eta okupazio horien % 85,4 Donostialdean eta Tolosa-Goierri kontzentratu da. 1997-2009 aldirio hazkundeari dagokionez, Gasteizen % 29,7 izan da, Donostialdean % 67,2, Debagoiengan % 85,4 eta Tolosa-Goierri % 176,6, hurrenez hurren.

16-64 urteko biztanleria landunaren (zuzendariak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	8.103	8.604	8.934	6,2	3,8	10,3
Aiaraldea	1.458	1.415	1.171	-2,9	-17,3	-19,7
Eskuinaldea	4.735	4.690	4.682	-0,9	-0,2	-1,1
Bilbo	10.634	10.124	8.989	-4,8	-11,2	-15,5
Ezkerraldea	8.360	7.053	7.894	-15,6	11,9	-5,6
Bizkaia-Kosta	4.482	3.110	2.214	-30,6	-28,8	-50,6
Durangaldea	3.607	2.447	2.515	-32,2	2,8	-30,3
Donostialdea	17.711	13.514	20.572	-23,7	52,2	16,2
Tolosa-Goierri	2.514	3.011	5.875	19,8	95,1	133,7
Debagoiena	1.770	1.233	1.999	-30,3	62,1	13,0
Debarrena	2.386	1.365	2.298	-42,8	68,4	-3,7
Guztira	65.757	56.567	67.143	-14,0	18,7	2,1

Teknikari eta administrarietako dagokienez halaber, eskualdez eskualde alde handiak izan dira okupazioaren azkenaldiko bilakaeran. Azpimarratzekoa da bereziki eskualde jakin batzuetan okupazio-mailek beherakada handia izan dutela 2007tik 2009ra bitarte. Aiaraldean eta Eskuinaldean teknikarien eta administrarietako okupazioa % 4,7 eta % 4,9 jaitsi da, hurrenez hurren, eta, beraz, batera hartuta, okupazioa galdu dute 2005-2009 aldirian. Aiaraldean, azkenaldiko beherakadari 2005etik 2007ra bitarteko % 0,2ko beherakada metatu behar zaio, eta horren ondorioz, erreferentziazko laurtekoan % 4,9ko jaitsiera izan da guztira. Eskuinaldean, beherakada % 0,1 baino ez da izan 2005etik 2009ra bitarte, baina 2005etik 2007ra bitarte horrelako okupazioak % 5 hazi dira.

Eskuinaldearen ildo beretik, 2007tik 2009ra bitarte Bizkaia-Kostan teknikari eta administrarien okupazio-mailetan atzemandako beherakada handiak (% -9,3) ez du berekin ekarri 2005-2009 aldian okupazioak behera egin izana, 2005-2007 biurtekoan gorakada handia izan zelako (% 20,5); horrenbestez, okupazio mota hori % 9,3 handiagoa izan da 2009an 2005ean baino. Hala eta guztiz ere, lanbide-dimentsio horretan behera doazen eskualdeetan 2007tik 2009ra bitarte teknikari eta administrarien eremuan galdu diren 3.885 okupazioen % 93,2 Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan galdu da. Bestetik, 2007tik 2009ra bitarte, bi eskualde horietan 1997tik 2007ra bitarte teknikari eta administrarien eremuan erregistratutako okupazio-irabazien % 15,3 eta % 19,5 galdu dute, hurrenez hurren, Aiaraldeari dagokion % 13,9aren gainera.

Bizkaia-Kostan ez bezala, Debabarrenean 2007tik 2009ra bitarte okupazioa % 2,9 hazi bada ere, gorakada hori ez da nahikoa izan 2005etik 2007ra bitarte erregistratutako % 7,2ko beherakada konpentsatzeko. Oro har, eskualde horrek teknikari eta administrarien okupazioaren % 4,5 galdu du 2005-2009 laurtekoan.

Debabarrenean ez bezala, hiru eskualdek —Ezkerraldea, Durangaldea eta Debagoiena— nabarmen gainditu dituzte 2007-2009 biurtekoan 2005etik 2007ra bitartez izandako beherakadak. Azken biurtekoaren hazkundera bereziki handia izan da eskualde horietan, % 12,7 19,7 eta 26,4, hurrenez hurren, 2005-2007 aldiko beherakadak (% -1,9, -12,6 eta -9,8, hurrenez hurren) erraz konpentsatzen dituztenak. Eskualde horietan korrelazio positibo bat ikus daiteke, halaber, 2005-2007 aldiko beherakadaren intentsitatearen eta 2007-2009 biurtekoaren susperraldiaren intentsitatearen artean. Horren ondorioz, teknikari eta administrarien okupazioa % 10 baino gehiago hazi da 2005-2009 laurtekoan hiru eskualde horietan.

Hiru eskualde horiek ekarpen handia egin diote teknikari eta administrarien okupazio-bolumenaren hazkunderari 2007-2009 biurtekoan, horrelako okupazioen hazkunderaren % 58,9 berenganatu dutelako gora egin duten eskualdeetan. 2007tik 2009ra bitarte okupazio mota hori hazi den eskualdeek sortutako 18.995 lanpostuen % 33,6 Ezkerraldeari dagokio, % 14,3 Durangaldeari eta % 11 Debagoienari, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, teknikari eta administrarien okupazioak Bilbon hazi dira bereziki 2005etik 2009ra bitarte, guztira % 19,2 hazi baita, aintzat hartutako hiru eskualdeen gainera. Horietan ez bezala, Bilbon hazkunde handiak izan dira nola 2005etik 2007ra bitarte (% 9,8), hala 2007tik 2009ra bitarte (% 8,6), eta, gainera, azken biurteko horretan, gora egin du, 2006tik 2007ra bitarte hazkunde egonkortu ostean. 2007tik 2009ra bitarte, Bilbok % 30,4 ekarri dio teknikari eta administrarien okupazioaren hazkunderari gora egin duten eskualdeetan, eta Ezkerraldeak bakarrik gainditu du zifra hori, erreferentziazko biurtekoan hazkunde erlatibo handiagoa izan

duelako (% 12,7). Bilbok eta Ezkerraldeak, teknikari eta administrarien artean 2007tik 2009ra bitarte sortutako okupazio berriaren % 64 berenganatu dute.

Beste hiru eskualdetan, hain zuzen ere Gasteizen, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin, okupazioak hazkunde positiboa izan du 2005-2009 laurtekoaren bi biurtekoetan. Nolanahi ere, eskualde horiek ez dira izan 2005-2009 laurtekoan hazkunde handiena izan dutenak.

Tolosa-Goierri izan du bilakaerarik onena. Eskualde horren hazkunde-erritmoa 2005-2007 aldiko % 3,5etik 2007-2009 aldiko % 6ra igo da, eta, horrenbestez, 2005-2009 laurtekoan, guztira, hazkundera % 9,7 izan da, erreferentziako laurtekoan gehien hazi diren eskualdeetan atzemandako hazkunderaren azpitik, nolanahi ere.

Bestetik, Gasteiz eta Donostialdea % 0,5 eta % 1,1 baino ez dira hazi 2007tik 2009ra bitarte, hurrenez hurren. Gasteizen, gainera, teknikarien eta administrarien okupazioa egonkortzeko joera lehenago nabarmendu zen, hain zuzen ere 2005-2007 biurtekoan (% +0,8), baina 2005etik 2009ra bitarte teknikari eta administrarien zifra % 1,2 baino ez zen hazi. Donostialdean, aldiz, 2005-2007 aldiko % 6,5eko igoerak ahalbidetu du 2005-2009 laurtekoan % 7,7ko hazkundera lortzea, Tolosa-Goierriin atzemandako joeratik ez oso urrun. Azken eskualde hori suspertu egin da azken bi urteetan. Donostialdean, ordea, teknikari edo administrarien okupazioa sortzeko erritmoa nabarmen murriztu da 2007-2009 biurtekoan.

Gasteizen, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin gertatutakoak zerikusia du neurri batean 2006tik 2007ra bitarte eskualde horietan teknikari eta administrarien eremuetan okupazioak izan duen beherakadarekin, hiruretan ere okupazioak nabarmen egin duelako behera: % -1,3 Gasteizen, % -2,9 Donostialdean eta % -4,8 Tolosa-Goierriin, hurrenez hurren. Hortaz, hazkunderaren susperraldiaren adierazgarri diren heinean, 2007-2009 aldiko zifrak hobeak dira hiru lurralde horietan aldeztatik aurreikus zitezkeenak baino.

Nolanahi ere, azkenaldiko testuinguru historikoan, teknikari eta administrarien zifrei buruzko datuek dimentsio positibo zabalagoa dute. Ildo horretatik, gogora ekartzekoa da 1997tik 2005era bitarte teknikari eta administrarien okupazioan hazkunde handia eta orokorra nabarmendu bazen ere, 2006tik 2007ra bitarte joera-aldaketa finkatu zela nolabait, horrelako okupazioen bilakaeran. Aldi horretan zazpi izan ziren teknikari eta administrarien okupazioa galdu zuten eskualdeak: Gasteiz, Ezkerraldea, Durangaldea eta Gipuzkoako lau eskualdeak; eta gainera Bilbok egonkortzeko joera argia erakutsi zuen. 2007tik 2009ra bitarte okupazioak gora egin du eraginpeko eskualde guztietan talde profesional horietan, okupazioaren hazkundera betiere positiboak izan direlako, intentsitatean gorabeherak izan badira ere. 2006tik 2007ra bitarte teknikari eta administrarien okupazioa nabarmen hazi zen eremuetan (Aiaraldea, Eskuinaldea,

Bizkaia-Kosta), ordea, okupazioaren krisia nabarmendu da aldi horretan, neurri handiagoan edo txikiagoan.

16-64 urteko biztanleria landunaren (teknikari edo administrariak) bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	43.977	44.313	44.519	0,8	0,5	1,2
Aiaraldea	5.611	5.599	5.333	-0,2	-4,7	-4,9
Eskuinaldea	33.098	34.749	33.059	5,0	-4,9	-0,1
Bilbo	61.319	67.334	73.101	9,8	8,6	19,2
Ezkerraldea	51.108	50.112	56.499	-1,9	12,7	10,5
Bizkaia-Kosta	17.228	20.763	18.834	20,5	-9,3	9,3
Durangaldea	14.182	13.808	16.522	-2,6	19,7	16,5
Donostialdea	75.213	80.109	80.982	6,5	1,1	7,7
Tolosa-Goierri	12.466	12.902	13.674	3,5	6,0	9,7
Debagoiena	8.746	7.887	9.967	-9,8	26,4	14,0
Debarrena	7.302	6.779	6.974	-7,2	2,9	-4,5
Guztira	330.250	344.354	359.465	4,3	4,4	8,8

Oharra: Datuetan Indar Armatuak sartuta daude

Amaitzeko, bestelako langileen, hau da, makineriako operadoreen edo langile kalifikatuen edo kalifikazio gabeko langileen, eskualdez eskualdeko bilakaera aztertu behar dugu. Kolektibo horrek azkenaldian izan duen bilakaera funtsezkoa da, ezbairik gabe, eta bi alderdi espezifiko biltzen ditu. Batetik, 2007tik 2009ra bitarte okupazio-maila (% 8,7 aldi horretan) galdu duen talde profesional handi bakarra da. Bestetik, erreferentziazko kolektiboan nabarmentzekoa da okupazio-zifren bilakaeran joera-aldaketa nabaria gertatu dela azken bi urteetan, 2005etik 2007ra bitarte hazkundera oraindik positiboa izan baitzen (% 3,2). Gainera, 2006tik 2007ra bitarte okupazioak goranzko joera horri eutsi zion; zuzendari, teknikari eta administrarien artean, aldiz, beherazko joera nabarmendu zen aldi horretan.

Kalifikatutako eta kalifikatu gabeko lanen okupazioari dagokionez, makineria-operazioekin zerikusia duten lanak barne, EAEko eskualde industrializatuenetako batzuetan nabarmendu da beherakadarik handiena. Krisi-egoeren berezko mailetaraino jaitsi da okupazioa kasu horietan: % 15,9 Durangaldean, % 17,7 Debarrenean, % 18,9 Tolosa-Goierri, eta % 23,4, gehienekoa, Debagoienean.

Durangaldean eta Debarrenean, ordea, beherakada horren aurretik gorakada handiak (% 15etik gorakoak) nabarmendu dira okupazio-mailetan 2005etik 2007ra bitarte, eta, horren ondorioz, 2005-2009 laurtekoan beherakada orokorrak % 2 eta % 3,8ra izan dira. Tolosa-Goierri eta Debagoienean ez da gauza bera gertatu: lehen eskualdeak okupazioaren % 3,7

galdu zuen 2005etik 2007ra bitarte; bigarreanean, ordea, egonkortzeko joera argia nabarmendu zen, % 0,7 bakarrik hazi baitzen. Oro har, bi eskualde horietan okupazioa % 20 baino gehiago jaitsi da bestelako langileen artean 2005-2009 laurtekoan (% 21,9 Tolosa-Goierri eta % 22,9 Debagoianean, hurrenez hurren).

Bestelako langileen artean okupazioa pixka bat arinagoa izan bada ere 2007tik 2009ra bitarte aurreko eskualdeetan baino, Donostialdean % 10aren gaintik dabil oraindik ere, eta eskualde horretan okupazioaren % 11,7 galdu da aldi horretan makineriako operazioekin eta kalifikatutako eta kalifikatu gabeko lanetan diharduten langileen artean. 2005etik 2007ra bitarte % 1,8 bakarrik hazi ondoren, Donostialdean bestelako langileen okupazioaren % 10,2 galdu da 2005etik 2009ra bitarte, eta Tolosa-Goierri eta Debagoienak bakarrik gaintu dute proportzio hori laurteko horretan.

Gipuzkoako eskualde guztietan eta Durangaldean, 2007-2009 aldiko krisiak eragin handia izan du aintzat hartutako talde profesionalen okupazioan. Durangaldeak eta Donostialdeak 1997tik 2007ra bitarte kolektibo horrek izandako okupazio-irabazien % 60-70 galdu dute aldi horretan (% 60,1 eta 66,7, hurrenez hurren) . Debagoianean eta Tolosa-Goierri % 100etik gertu ibili dira (% 96,5 eta 97,9), eta gorenkoa Debagoianean erregistratu da: % 366,8.

Krisiak bestelako langileen artean izandako eragina ez da aipatutako eskualdeetara mugatu, beste zenbait eskualdetan ere nabarmendu delako, Bilbon eta Ezkerraldean adibidez, non okupazioaren % 7,3 eta % 8,4 galdu duten 2007tik 2009ra bitarte, hurrenez hurren. Bilbon kolektibo hori % 0,5 baino ez zen hazi 2005etik 2007ra bitarte, eta 2005-2009 laurtekoan, guztira, okupazioaren % 6,9 galdu da bestelako langileen artean. Ezkerraldean, okupazioa % 5,7 hazi denez, % 3,2 galdu da laurtekoan Hala eta guztiz ere, 2007-2009 biurtekoaren krisiaren ondorioz, eskualde horretan 1997-2007 aldian izandako okupazio-irabazien % 35,9 galdu da eskualde horretan (% 31,3 Bilbon).

Arabako bi eskualdeetan eta Eskuinaldean ere okupazioak behera egin du bestelako langileen taldean, baina kasu horretan eragina askoz ere txikiagoa izan da: % -0,6 Bizkaiko eskualdean, % -1,6 Gasteizen eta % -2,5 Aiaraldean, hurrenez hurren. Gasteizen eta Eskuinaldean, okupazioa egonkortu da edo pixka bat jaitsi da 2005etik 2007ra bitarte (% 0 eta % -0,8, hurrenez hurren), eta, oro har, okupazioa % 1,5 jaitsi da, gutxi gorabehera, 2005-2009 laurtekoan. Aiaraldeak, aldiz, emaitza positiboa lortu du azkenean, eskualde gutxi bezala. 2005etik 2007ra bitarte atzemandako % 9,1aren hazkundeari esker, eskualde horretan okupazioa % 6,3 handiagoa izan da 2009an 2007an baino.

Bizkaia-Kostaren bilakaera ez da ohikoa aipatutako beherakaden testuinguruan, eskualde horrek bakarrik egin duelako aurrera bestelako langileen okupazioari buruzko zifretan, eta, hori ez ezik, 2005-2007 eta 2007-2009 biurtekoetan, egonkortasunez hazteari eusten diolako ere (% 103

6-6,5, gutxi gorabehera). Oro har, eskualdean okupazioa % 13 hazi da talde profesional horien artean 2005-2009 laurtekoan.

Epe luzeago batera aztertuta, Durangaldean izan ezik, Bizkaiko gainerako eskualdeetan okupazioak gorakada handienetako bat izan du erreferentziazko talde profesionalen artean, eta horren adierazgarri dugu Ezkerraldean eta Bilbon 2009ko okupazio-mailak % 20 handiagoak izan direla, gutxi gorabehera, 1997koak baino . Proporzioa % 23,6 izan da Bizkaia-Kostan eta % 42,7 Eskuinaldean, hurrenez hurren. Aiaraldea eskualdean ere 2007tik 2009ra bitarteko krisiak eragin txikia izan du bestelako langileen artean, eta aipatutako eskualdeetako gutxieneko mugetara hurbildu da, % 17,6ko aurrerapenarekin.

2007-2009 aldian okupazioaren beherakada handia izanagatik ere, Durangaldean okupazioa % 14,3 handiagoa izan da 2009an 2007an baino. Zifra horrek Gasteizko % 11,2 gainditu du, eta esan beharra dago azkenaldiko krisiak ez duela Gasteizen eragin handirik izan, baina, hala eta guztiz ere, okupazioaren zati handi bat galdu zuela bestelako langileen artean 2001etik 2005era bitarte; gainera, ondorenean ez du galdutakoa berreskuratzeko aukerarik izan. Hain zuzen ere, 2007. urtearen amaieran Gasteiz zen EAeko eskualde bakarra 2001ean baino landun kopuru txikiagoa zuena lanbide mota horietan.

2007-2009 aldiko krisia Gipuzkoako eskualdeetan nabarmendu da gehien bestelako langileen artean Zehazkiago, bestelako langileen artean okupazioa ia-ia berdina izan da 2009an eta 1997an Tolosa-Goierri eta Debarrenean (% 0,5 eta % 0,8 handiagoa bakarrik); Donostialdean, berriz, 1997ko okupazio-maila % 7,1 baino ez da hazi.

Baina Debagoienean nabarmendu dira beste inon baino gehiago krisiak bestelako langileengan izan dituen ondorioak. Eskualde hori izan da mendearen lehen hamarkadaren amaieran 1997an erregistratutakoa baino okupazio-maila txikiagoa izan duen bakarra, 2009an % 18,2 txikiagoa izan delako.

2005-2007 aldia funtsezkoa izan da langile kalifikatuen eta kalifikazio gabekoen edo makineriako operadoreen okupazio-krisiaren garapenean, baina ezin dugu alde batera utzi aurkeztutako zifrek erakusten duten joera-aldaketa 2007-2009 biurtekoaren aurretik garatu dela. Ildo horretatik, EAEn oro har 2005-2007ra bitarte hazkunde positiboa orokorra izan bada ere, euskal eskualde askotan kolektiboa egonkortzeko prozesua nabarmentzen hasia zen aldi horretan, hazkunde-maila txikiekin eta batzuetan okupazio-beherakadarekin. Hala, bestelako langileen okupazio-bolumenak behera egin zuen eskualde batzuetan, Eskuinaldean (% -0,8) eta Tolosa-Goierri (% -3,7) adibidez. Gasteizen, aldiz, hazkundera nulia izan zen, eta Bilbon eta Debagoienean % 0,5etik gertu ibili zen. Hazkundera Donostialdean nabariagoa izan bazen ere, % 1,8 baino ez zen izan erreferentziazko biurtekoan.

16-64 urteko biztanleria landunaren (bestelako langileak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	71.684	71.708	70.544	0,0	-1,6	-1,6
Aiaraldea	11.855	12.930	12.605	9,1	-2,5	6,3
Eskuinaldea	33.455	33.187	32.980	-0,8	-0,6	-1,4
Bilbo	72.588	72.941	67.602	0,5	-7,3	-6,9
Ezkerraldea	107.582	113.765	104.191	5,7	-8,4	-3,2
Bizkaia-Kosta	29.082	30.906	32.873	6,3	6,4	13,0
Durungaldea	33.453	38.958	32.767	16,5	-15,9	-2,0
Donostialdea	121.319	123.451	108.966	1,8	-11,7	-10,2
Tolosa-Goierrri	37.632	36.237	29.393	-3,7	-18,9	-21,9
Debagoiena	20.003	20.139	15.432	0,7	-23,4	-22,9
Debabarrena	13.520	15.814	13.008	17,0	-17,7	-3,8
Guztira	552.172	570.036	520.363	3,2	-8,7	-5,8

3.4.3. Lanbide-egoeraren araberako datuak.

2007-2009 aldiko okupazio-datuak ere erakusten dute EAEn lanbide-egoeraren arabera izandako bilakaera desberdina izan dela. Batetik, kolektibo profesional batzuek goranzko joera erakutsi dute okupazioari dagokionez, eta guztira 15.124 okupazio berri sortu dituztealdi horretan.

Hazten ari diren okupazio-eremuetan 2007tik 2009ra bitarte sortu diren okupazio berrien % 45 sektore publikoaren soldatapekoei dagokie. Lanbide-egoera mota horren okupazioa % 4,9 hazi da 2007tik 2009ra bitarte, 2005-2007 biurtekoaren % 6,6aren azpitik beraz. Oro har, okupazio-zifrak % 11,9 hazi dira 2005-2009 laurtekoan.

Esan beharra dago, nolana ere, 2007-2009 biurtekoaren gorakadaren % 99,6 enpresa publikoari dagokiola, eta Administrazioan okupazioak egonkortasunari eutsi diola, zentzu hertsian. Izan ere, okupazioa % 5,2 jaitsi da Administrazioan 2005etik 2009ra bitarte, 2005-2007 biurtekoan atzemandako beherakadaren ondorioz; enpresa publikoan, aldiz, % 82,2 igo da laurteko horretan. Nolanahi ere, sektore publikoaren eremu horretan, okupazioaren hazkunde-erritmoa nabarmen jaitsi da azken urteetan: 2007tik 2009ra bitarte % 17,3 izan zen, eta 2005-2007 biurtekoan, berriz, % 55,4.

Beste egoera batzuetan dauden kolektiboak 2007-2009 aldiko hazkundearen % 19,1 jaso du okupazioak gora egin duen kolektiboetan. Gainera, enplegu-emaleen eta

kooperatibisten artean ere okupazioaren gorakada nabari da, erregistratutako gorakadaren % 19,8 eta 16,1, hurrenez hurren. Bi kasuetan, okupazioak gorakada nabarmena izan du 2007tik 2009ra bitarte (% 10,5 enplegu-emaleen artean eta % 11,9 kooperatibisten artean, hurrenez hurren), 2005etik 2007ra bitarteko beherakada handien ondoren (% -5,6 eta -18,7, hurrenez hurren). Horren ondorioz, enplegu-emaleen artean okupazioa % 4,4 hazi da 2005-2009 laurtekoan, eta horrenbestez, 2001etik 2006ra bitarte enpleguan nabarmendu zen goranzko joera itzuli da; kooperatibisten artean, aldiz, okupazio-zifra % 9 txikiagoa izan da 2009an 2005ean erregistratutakoa baino.

Hala eta guztiz ere, kooperatiba-eremutik datozen datuak interesgarriak dira, orain gutxira arte kezagarria zen bilakaera baten etenaldia erakusten duten neurrian. Hala, kooperatibisten bolumenak nabarmen egin zuen gora 1993tik 2001era bitarte; 2001-2005era bitarte, aldiz, hazkundera gelditu zen, eta 2005etik 2006ra bitarte nabarmen jaitsi zen. 2006tik 2007ra bitarte, nolana ere, nolabaiteko susperraldia iragarri zen, aldi horretan okupazioa % 5 hazi zelako.

Okupazioari dagokionez behera egin duten lanbide-egoeretan, okupazio-zifra orokorretan ageri den beherakadak 38.222 pertsona hartu ditu eraginpean 2007tik 2009ra bitarte. Bi kolektibok izan dute zeresan handia beherakada horretan: autonomoek eta sektore pribatuko soldatapekoek.

Autonomoek berenganatu dute atzemandako beherakada osoaren % 38, eta horren ondorioz okupazioa % 13,6 jaitsi da 2007tik 2009ra bitarte, 2005-2007 biurtekoaren % 5,4ko beherakadari jarraipena ematen diona. Oro har, autonomoen artean okupazioa % 18,3 jaitsi da 2005etik 2009ra bitarte, eta, joera negatibo horrekin batera, okupazio-zifrak egonkortu egin dira 1997tik 2005era bitarte.

Horren haritik, argi dago autonomoen artean okupazioaren problematika 2007-2009 biurtekoa iritsi aurretik nabarmendu zela. 1997tik 2001era bitarte nabaria zen autonomoen kopuruaren behera egiteko joera. 2001etik 2005era bitarte okupazioak gorakada txiki bat izan zuen, baina 2005-2006 biurtekoan beste beherakada bat etorri zen, okupazio-mailak % 6,3 jaitsi zirelako, 2006tik 2007ra bitarteko % 0,9ko hobekuntzak ezer gutxi konpentsatu zuena. Krisiak kolektiboaren zailtasunak areagotu zituen, beste beherakada handi bat gertatu baitzen: % 13,6..

Enplegu-emaleak eta kooperatibistak batera aztertzean informazio osagarria ageri da, kontuan hartzekoa dena bi kolektiboen artean nolabaiteko lotura dagoen neurrian. Horrela jokatuta, zera ikusten dugu, enpresaburuaren eta autonomoen biztanleria % 6,9 hazi zela 2001-2005 aldian, 1997-2001 laurtekoan % 0,8 murriztu ostean, eta 2005etik 2007ra bitarte % 5,5 jaitsi zela, 2007-2009 aldiko % 8,6ko jaitsierarekin areagotu zena. 2006. urtetik 2009. urtera finkatu egin den arren, joera negatibo hori suma zitekeen jada 2005etik 2006ra, okupazioak % 3

egin baitzuen behera. Datuen arabera, beraz, azken urteotan, enpresa-arloko ekimenak abiaraztearekin loturiko pertsonen okupazioan beheranzko joera izan da.

Autonomoen artean okupazioaren beherakada handia izan da; nolana ere, 2007tik 2009ra bitarte enpleguaren beherakada sektore pribatuko soldatapekoen artean nabarmendu da bereziki, kolektibo horrek bereganatu duelako 2007-2009 biurtekoan behera egin duten lanbide-egoeren okupazio-galeren % 61,5¹⁶. 2005-2007 biurtekoan okupazioa % 4,3 hazi zen kolektibo horretan, baina jarraian, 2007tik 2009ra bitarte, landunen zifra % 3,6 jaitsi da erreferentziazko taldean.

Laurtekoaren testuinguru orokorrean, sektore pribatuko soldatapekoen artean enpleguak azkenaldian izan duen beherakada ez da nahikoa izan, nolana ere, 2009ko enplegu-maila 2005ekoa baino txikiagoa izan dadin ahalbidetzeko, kolektibo horretan okupazioa % 0,5 handiagoa izan delako 2009an. Hala eta guztiz ere, krisiaren eragina nabari da, eta horren adierazgarri dugu 2007-2009 aldian izandako galerak 1997tik 2007ra bitarte sektore pribatuko soldatapekoen artean erregistratutako okupazio-irabazien % 12 izan direla.

Sektore pribatuko soldatapekoen artean nabari den bilakaerak agerian jarri duenez, aldaketa handia gertatu da kolektibo horren eta sektore publikoaren soldatapekoen artean, eta horrek erakusten du eremu pribatuan enplegua okerrago bilakatzen ari dela eremu publikoan baino, mende berriaren ekonomian. Hortaz, okupazioaren hazkundera hiru aldiz handiagoa izan zen sektore pribatuan 1997-2001 aldian (batean % 22,6, eta bestean % 7,8); 2001-2005 aldian, ordea, orekatu egin zen, bi lanbide-egoeretan okupazio-hazkundera % 11,4 izan baitzen. 2005etik 2007ra bitarte, sektore publikoa enplegua sortzearen buruan jarri zen, okupazioa % 6,6 igo zelako, sektore pribatuko soldatapekoen artean erregistratutako % 4,3aren gainetik. Ekonomiaren eremu publikoan soldatapekoen kolektiboak hazten jarraitu du 2007tik 2009ra bitarte (% 4,9); sektore pribatuak, ordea, krisiari egin behar dio aurre zuzenean, eta okupazioa % 3,6 jaitsi da.

Adierazitako bilakaera, enplegu publikoari azken urte hauetan eman zaion bultzada handiaren emaitza da. Horrek zenbait ondorio ekarri ditu berekin; besteak beste, 1993tik 2001era bitarte % 21etik 16,8ra jaitsi ondoren, eta 2007ra arte neurri handi batean proportzio horri eutsi ostean, sektore publikoaren soldatapekoen okupazioa % 18,4raino igo da EAEn 2009an. Guztizko okupazioan duen parte-hartzea, nolana ere, txikiagoa izan da 2009an 1993an eta 1997an (% 18,7) baino.

¹⁶ Hori are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu 2007ra arte sektore pribatuaren soldatapeko biztanleria zela enplegua sortzeko osagai nagusia. Horren haritik, 2001etik 2007ra bitarte soldatapekoek berenganatu dute aldi horretan gora egin duten okupazio-eremuetan sortu diren okupazio berrien % 77.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren arabera
(2005-2009 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Lanbide-egoera	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Enplegu-emailea	30.114	28.438	31.426	-5,6	10,5	4,4
Autonomoa	114.415	108.197	93.450	-5,4	-13,6	-18,3
Familia-laguntza	3.123	2.589	2.395	-17,1	-7,5	-23,3
Kooperatibista	25.067	20.388	22.817	-18,7	11,9	-9,0
Sekt. publ. soldatapeko lang.	129.710	138.296	145.108	6,6	4,9	11,9
Herri Administrazioko soldatapekoa	104.394	98.965	98.992	-5,2	0,0	-5,2
Enpresa publikoko soldatapekoa	25.316	39.332	46.117	55,4	17,3	82,2
Enpresa pribatuko soldatapekoa	641.434	668.712	644.830	4,3	-3,6	0,5
Beste egoera bat	4.318	4.337	7.232	0,4	66,8	67,5
Guztira	948.180	970.957	947.259	2,4	-2,4	-0,1

Lanbide-egoeraren arabera okupazioak eskualdez eskualde izan duen bilakaerari dagokionez, hasteko nabarmentzekoa da 2007tik 2009ra bitarte, oro har, soldatapekoak ez direnen artean okupazioa jaisteko joerari eutsi zaiola: % -6,0, 2005etik 2007ra bitarte atzemandako % -7,6aren azpitik.

Aurreko biurtekoan bezala, okupazioaren galera ia orokorra izan da, eta EAEko hamaika eskualdeetatik bederatziri eragin die 2007tik 2009ra bitarte. 2005-2009 laurtekoaren ikuspegian, soldatapekoak ez direnen bolumena EAEko eskualde guztietan jaitsi dela esan dezakegu.

Laurteko hori aintzat hartzen badugu, beherakada bereziki deigarria izan da Aiaraldea (% -20), Eskuinaldean (% -21,1) eta Durangaldean (% -22,7), % 20ko mugatik gertu ibili delako edo muga hori gainditu delako. Beste zenbait eskualdetan ere beherakada handia izan da, % 15etik gora Ezkerraldean (% -16,1) eta Donostialdean (% 16,8), eta beste zenbaitetan % 10aren inguruan ibili dira: % 9,7 Bilbon, % -10 Bizkaia-Kostan, % 11,3 Debagoienean eta % -9,9 Debabarrenean, hurrenez hurren. Beste zenbait eskualdetan, aldiz, beherakada arinagoa izan da, % 5aren azpitik ibili delako 2005etik 2009ra bitarte: Gasteiz (% -4,6) eta Tolosa-Goierri (% -3,8).

Soldatapekoak ez direnen artean 2005etik 2009ra bitarte galdu diren 22.630 okupazio garbien banaketari dagokionez, zera ikusten dugu, galera horien % 37,3 Bilbori, Eskuinaldeari eta Ezkerraldeari dagokiela (% 10,2, 10,5 eta 16,6, hurrenez hurren). % 31 Donostialdeari

dagokio, % 14,1 Bizkaia-Kostari eta Durangaldeari, % 9,6 Gipuzkoako gainerako eskualdeei, eta gainerako % 8a Arabako bi eskualdeei

16-64 urteko soldatapekoa ez den biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	20.802	19.521	19.837	-6,2	1,6	-4,6
Aiaraldea	4.247	4.351	3.395	2,5	-22,0	-20,0
Eskuinaldea	11.277	9.078	8.893	-19,5	-2,0	-21,1
Bilbo	23.769	22.515	21.466	-5,3	-4,7	-9,7
Ezkerraldea	23.365	24.498	19.605	4,9	-20,0	-16,1
Bizkaia-Kosta	11.012	10.123	9.915	-8,1	-2,1	-10,0
Durangaldea	9.245	7.194	7.143	-22,2	-0,7	-22,7
Donostialdea	41.693	39.490	34.688	-5,3	-12,2	-16,8
Tolosa-Goierrri	11.474	9.191	11.043	-19,9	20,2	-3,8
Debagoiena	11.698	9.598	10.373	-17,9	8,1	-11,3
Debarrena	4.137	4.054	3.729	-2,0	-8,0	-9,9
Guztira	172.718	159.612	150.088	-7,6	-6,0	-13,1

Aldez aurretik aipatu dugunez, sektore publikoaren soldatapekoen okupazioa % 11,9 hazi da 2005etik 2009ra bitarte. Alabaina, ez dago esaterik horrelako okupazioetan azken urteetan okupazioaren hazkundera orokorra izan denik; izan ere, egoera eskualdez eskualde zehatz-mehatz aztertuta, oso bestelako joerak ageri dira bilakaerari dagokionez, kasuaren arabera.

Horren haritik, Lan Merkatuaren Erroldaren datuek aditzera ematen dute 2005-2009 laurtekoan enplegu publikoa sortzeko egindako ahaleginak bereziki Bizkaian areagotu direla. 2005etik 2007ra bitarte okupazioa % 1,4 jaitsi zen Ezkerraldean, baina kasu horretan izan ezik, Bizkaiko eskualde guztietan sektore publikoaren okupazioak gora egin du 2005-2007 eta 2007-2009 biurtekoetan. Bilbon, Durangaldean eta Bizkaia-Kostan nabarmendu da bereziki gorakada hori, hiru kasuetan sektore publikoaren soldatapekoen okupazioa % 30aren gainetik hazi delako 2005etik 2009ra bitarte: % 36,4, 32,1 eta 30,8, hurrenez hurren. Ezkerraldean eta Eskuinaldean ere hazkundera garrantzizkoa izan da, baina nabarmen txikiagoa: % 12,5 eta % 9,3, hurrenez hurren.

Durangaldean eta Bizkaia-Kostan, 2005-2007 aldian gertatu da hazkunde nagusia: Bilbon eta Ezkerraldean, berriz, okupazio mota horren hazkundera 2007tik 2009ra bitarte nabarmendu da bereziki (% 29,8 Bilbon, eta % 5,1 2005-2007 biurtekoan; eta % 14,1 eta % -1,4 Ezkerraldean.) Eskuinaldean, aldiz, hazkundera txikiagoa izan da, baina baita egonkorragoa ere (% 4,5 biurtekoan).

Bizkaiko eskualdeetan, okupazio publikoaren maila kasu guztietan igo da 2007tik 2009ra bitarte; Arabako eta Gipuzkoako eskualdeek, aldiz, okupazioa galdu dute aldi horretan sektore publikoaren soldatapekoen artean, 2005etik 2007ra bitarte joera orokorra goranzkoa izan bazen ere. Horren ondorioz, Gasteizen gorakada txikia atzeman da (% 1,5), eta Donostialdean, berriz, beherakada txikia (% -1,2) Debabarrenean eta Tolosa-Goierriin beherakada nabarmen handiagoa izan da: % -4 eta % -7,1, hurrenez hurren.

Eredu horri dagokionez, esan beharra dago Aiaraldean eta Debagoienean aldaketaren bat izan dela. Aiaraldean, 2007-2009ko beherakada handiagoa izan da, eta gainera 2005etik 2007ra bitarte ere behera egin zuela hartu behar da kontuan. Hala, Aiaraldeak sektore publikoaren soldatapekoen okupazioaren % 18 galdu du 2005. urteaz geroztik. Debagoienean, aldiz, sektore publikoaren okupazio-mailak nabarmen hobetu dira 2007-2009 biurtekoan, eta, horrela, 2005-2007 biurtekoan izandako beherakada handia konpentsatu da. Nolanahi ere, horren ondorioz % 1,7 baino ez da hazi 2005-2009 aldian.

Soldatapeko biztanleria publikoaren beheranzko mugimenduek ez dute eragin kuantitatibo handirik izan 2005-2009 laurtekoan (1.190 okupazio gutxiago). Gehien hazi diren eskualdeetan, aldiz, goranzko mugimenduak nabarmendu dira, eta, ildo horretatik, 16.588 okupazio garbi berri sortu dira erreferentziazko aldian. Lurrealde lurrealdeko banaketari dagokionez, % 97,9 Bizkaia dagokio, eta % 51,4 Bilbori (% 15,7 Ezkerraldean, % 14,2 Bizkaia-Kostan, % 10,5 Durangaldean eta % 6,1 Eskuinaldean, hurrenez hurren).

Hamarkadaren erdialdera arte, Bilboaldeko hiru eskualdeetan enplegu publikoak gero eta garrantzi txikiagoa zuela ikus zitekeen, baina joera hori eten egin da, eta horixe da, hain zuzen, gertatutako aldaketen ondorioetako bat. Hala, Bilbok; Eskuinaldeak eta Ezkerraldeak soldatapeko biztanleria publikoaren % 45-46 berenganatzen zuten 1997tik 2001era bitarte; 2005ean, aldiz, % 42,5 izan ziren, eta azkenik, 2006an, % 40,1. 2009an, ordea, zifrak gora egin zuten: % 46,3. Bizkaia-Kostan eta Durangaldean aurrerapena askoz ere jarraituagoa izan da: eskualde horietan, okupazio publikoaren % 8,4 zegoen 1997an; 2009an, aldiz, % 11,8 erregistratu da, aintzat hartutako eremuetako biztanle-bolumenarekin bat etorritz.

1997ko % 28,1etik 2006ko % 32,3ra igo bazen ere, Gipuzkoak soldatapeko okupazio publikoari egindako ekarpena % 31,1era jaitsi da 2007an eta % 26,7ra 2009an, hurrenez hurren. Arabako eskualdeetan, aldiz, beherakada ia etengabea nagusitu da, okupazio publikoa Araban % 17,9 izan zelako 1997an, % 16,7 2007an eta % 15,1 2009an, hurrenez hurren.

**16-64 urteko soldatapeko biztanleria landun publikoaren bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2009 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	19.825	20.934	20.115	5,6	-3,9	1,5
Aiaraldea	2.211	2.168	1.814	-1,9	-16,3	-18,0
Eskuinaldea	10.803	11.307	11.811	4,7	4,5	9,3
Bilbo	23.420	24.622	31.948	5,1	29,8	36,4
Ezkerraldea	20.870	20.584	23.480	-1,4	14,1	12,5
Bizkaia-Kosta	7.668	9.179	10.028	19,7	9,3	30,8
Durangaldea	5.416	6.500	7.155	20,0	10,1	32,1
Donostialdea	29.142	31.240	28.784	7,2	-7,9	-1,2
Tolosa-Goierri	4.595	5.613	4.270	22,1	-23,9	-7,1
Debagoiena	3.047	2.625	3.099	-13,8	18,1	1,7
Debabarrena	2.713	3.525	2.604	29,9	-26,1	-4,0
Guztira	129.710	138.296	145.108	6,6	4,9	11,9

Aldez aurretik ikusi dugunez, 2007tik 2009ra bitarte okupazioan nabari den beherakadak sektore pribatuko soldatapekoei eragin die bereziki. Beste egoera batzuetan daudenen kolektiboa barne hartuta, biztanleria mota horrek okupazioaren % 3,1 galdu du aldi horretan, 2005-2007 biurtekoaren % 4,2ko hazkundetik urruti. Biurteko horretan, okupazioak gora egin du eskualde guztietan; 2005-2009 laurtekoan, aldiz, okupazioa galtzeko joera nagusitu da.

2007tik 2009ra bitarte, beherakada nabarmenenak, % 10etik gertukoak edo handiagoak, Durangaldean (% -9,7), Tolosa-Goierri (% -10), eta bereziki Debagoiengan (% -18,3) erregistratu dira. Gipuzkoako bi eskualdeetan, beherakada orokorra atzeman da 2005eko zifren aldean (% -8 Tolosa-Goierri eta % -11,7 Debagoiengan, hurrenez hurren). Debagoiengan, horrek zerikusia dauka 2007-2009 biurtekoan okupazioan nabarmendu den beherakada handiarekin, nahiz eta sektore pribatuko soldatapekoek nabarmen gora egin 2005etik 2007ra bitarte (% 8); Tolosa-Goierriko beherakadan, ordea, 2005-2007 aldian izandako hazkunde txikiak (% 2,2) eragin du bereziki. Durangaldean, aldiz, gorakada handia izan da 2005-2007 biurtekoan (% 13,5), eta horri esker eskualde horretako zifrak % 2,5 handiagoak izan dira 2009an 2005ean baino.

Hala eta guztiz ere, 2007-2009 biurtekoan Durangaldeak galdu du 1997-2007 biurtekoan sektore publikoaren soldatapekoen artean irabazitako okupazioen % 27,7, eta proportzio hori % 40,8 izan da Tolosa-Goierri. Krisiak are eragin handiagoa izan du Debagoiengan, eskualde horretan kolektibo horren okupazioaren aldez aurreko irabazien % 104,3 galdu delako 2007tik 2009ra bitarte, 2009ko zifra 1997koa baino % 0,9 txikiagoa izan delarik.

Aipatutako hiru eskualdeetan baino arinagoa izan bada ere, Bilbon ere kontuan hartzekoa izan da sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren okupazioaren azkenaldiko galera, 2007tik 2009ra bitarte kolektibo horren okupazioa % 6,6 jaitsi den heinean. Beherakada horrek guztiz konpentsatzen ditu 2005-2007 aldiko % 6,1eko irabaziak, eta, horrenbestez, okupazioaren beherakada garbia % 0,9 izan da 2005etik 2009ra bitarte. Debabarrenean, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren beherakada arina izan bada ere (% 2,6), 2005etik 2007ra bitarte eskualde horretako soldatapeko biztanleria egonkortu zen (% +0,1), harritzekoa dena eskualdearen aldi horretako testuinguruan; horren ondorioz, 2005-2009 laurtekoan beherakada handixeagoa (% -2,5) izan da Gipuzkoako eskualde horretan. Aipatutako bilakaera Bilbon nabarmendu da bereziki, eta eskualde horrek 1997-2007 aldiko okupazio-irabazien % 22,3 galdu du 2007tik 2009ra bitarte; Debabarrenean, berriz, proportzioa % 13,2 izan da.

Bestetik, sektore pribatuko soldatapeko okupazioaren beherakada % 4aren inguruan ibili da Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan (% -4,3 eta % -4,2, hurrenez hurren). Bilbon bezala, Eskuinaldean ere errealitate horrek 2005-2007 aldiko hazkundera (% 6,2) konpentsatu du, baina kasu horretan 2009ko okupazio-zifrak 2005ekoak baino handiagoak izan dira (% +1,6). Bizkaia-Kostan, aldiz, bilakaera positiboagoa izan dute. Izan ere, 2005-2007 biurtekoan hazkundera handia izan zen, eta okupazio-mailak % 10,5 hazi ziren; horrenbestez, okupazioa % 5,8 handiagoa izan da 2009an 2005ean baino sektore pribatuko soldatapekoen artean.

Gasteizen eta Ezkerraldean, 2005-2009 aldian, sektore pribatuko soldatapekoen artean egonkortzeko joera nagusitu da: 2005etik 2007ra bitarte okupazioaren hazkundera txikia izan zen (% 1,2 eta % 2,5), eta, jarraian, 2007tik 2009ra bitarte, beherakadak oso txikiak izan dira (% -0,1 eta -0,2, hurrenez hurren).

Azken bi urteetan, Aiaraldean eta Donostialdean gertatu da bilakaerarik onena, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren okupazio-maila % 3,5 eta % 0,5 igo baita. Donostialdeak, Gasteizek eta Ezkerraldeak egonkortzeko joera erakutsi dute soldatapekoen okupazio-zifrei dagokienez (% 2,5eko hazkundera Donostialdean 2005-2009 aldian, % 2,3 Ezkerraldean eta % 1,1aren gainetik Gasteizen, hurrenez hurren); Aiaraldea, aldiz, 2005-2009 laurtekoaren bi biurtekoetan hazteko joera argia erakutsi duen eskualde bakarra izan da. Oro har, sektore pribatuko soldatapeko biztanleria % 11,5 hazi da eskualde horretan aintzat hartutako laurtekoan.

Sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren artean azkenaldian nabarmendu den beherakada balioestean, kontuan hartzekoa da joera-aldaketa 2005-2007 biurtekoaren krisialdia baino lehen gertatu dela eskualde gehienetan. Hala, 2005-2007 laurtekoaren datuek aditzera eman zuten, batetik, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren okupazio-zifrak egonkortuta zeudela Gasteizen, Eskuinaldean eta Tolosa-Goierriin, eta, bestetik, beste zenbait eskualdetan

zifra horiek behera egin zutela: % 1,3 Ezkerraldean, % 1,8 Debagoiengan eta % 3,6 Bilbon, hurrenez hurren.

Bilbon, Ezkerraldean eta Debagoiengan 2006tik 2007ra bitarte nabarmendu zen bilakaera negatibo goiztiarrak, aurrerantzean zenbait eten deigarri gertatuko zirela eman zuen aditzera. Hala, Bilbon, 2006tik 2007ra bitarte eten egin zen 2005etik 2006ra bitarte atzemandako % 10eko gorakada handia, antza, 2001. urteaz geroztik atzemandako gorakada handia areagotuko zuena. Ezkerraldean halaber, 2006-2007 aldiko beherakadak eten egin zuen 2005etik 2006ra bitarte izandako gorakada, 1997tik 2005era bitarte horrelako enpleguei eskualdean emandako bultzada handia sendotu zuena. Debagoiengan, berriz, 2006ra arteko bilakaerak aditzera eman zuen sektore pribatuko soldatapekoen enpleguaren hazkunde-erritmoa poliki-poliki azkartzen ari zela, ordura arte eskualde horretan enplegu mota horrek arrakasta urria izan bazuen ere, kooperatiba-ereduak bertan duen eragin bereizgarriaren ondorioz.

Gasteiz eskualdean ere dezelerazio-prozesua nabarmendu zen, okupazio-hazkundera % 1,4 baino ez zelako izan 2005etik 2006ra bitarte. 2006tik 2007ra bitarte okupazioaren % 0,2 galdu ostean, eskualde horrek % 1,2ko hazkundera baino ez zuen lortu 2005etik 2007ra bitarte sektore pribatuko soldatapekoen zifrei dagokienez. 2006an eta 2007an gora egin bazuen ere, Donostialdea % 2 baino ez zen hazi 2005etik 2007ra bitarte, eta okupazioaren % 0,2 galdu zuen 2005etik 2006ra bitarte.

Debarrenean, berriz, 2005-2007 biurtekoan areagotu egin zen sektore pribatuan soldatapeko enplegua sortzeari dagokionez aurreko urteetan nabari zen bizitasun urria. Eskualde hori 2006tik 2007ra bitarte suspertu bazen ere, 2005-2006 biurtekoaren erregistro negatiboen ondorioz sektore pribatuko soldatapekoak % 0,1 baino ez ziren hazi 2005etik 2007ra bitarte. Nolanahi ere, okupazio mota horren hazkunde txikia epe luzerako arazoa zen eskualde horretan. Ildo horretatik, 1997tik 2005era bitarte, Debarrenean enplegu mota hori EAEn batez bestekoaren azpitik hazi zen, argi eta garbi.

Ikus daitekeenez, Euskadiko hamaika eskualdetatik zortzitan, 2007ko krisiaren aurretik krisi- edo moteltze-zantzu argiak ikus zitezkeen sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren bilakaeran. Gasteizen, Ezkerraldean, Donostialdean, eta neurri txikiagoan, Debarrenean, oro har, okupazioak bizitasuna galtzen jarraitu zuen sektore pribatuko soldatapekoen eremuan, 2007tik 2009ra bitarte okupazio-beherakada oso handia izan ez bazen ere. Eskuinaldean eta Bilbon, ordea, galera esanguratsuak izan dira azken biurteko horretan, eta Tolosa-Goierri eta Debagoiengan beherakada askoz ere larriagoa izan da.

Aurreko eskualde multzoaren okupazio-hazkundearen moteltze-zantzuei ihes egin zieten zenbait eskualdek, Bizkaia-Kostak eta Durangaldeak adibidez, 2007tik 2009ra bitarteko krisiari egin behar izan diote aurre bat-batean, eta krisi hori azken eskualde horretan nabarmendu da bereziki. Krisi-testuinguru berrian, Aiaraldeak bakarrik lortu du, 2005-2007 biurtekoaren aldean hazkundera moteldu bada ere, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren hazkunde-erritmo handi bati eustea.

Termino absolututan, 2007rik 2009ra bitarte sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren okupazio-zifrak jaitsi diren bederatzi eskualdeetan 22.164 okupazio galdu dira guztira aldi horretan kolektibo profesional horretan. Beherakada horren % 40,7 Bilbon eta Eskuinaldean gertatu da (% 30,6 eta 10, hurrenez hurren). Tolosa-Goierri eta Debagoienean beherakada osoaren % 30,8 kontzentratu da (% 16,8 eta 14), eta Durangaldean eta Bizkaia-Kostan ere kontuan hartzeko moduko proportzioa izan da: % 24,9 (% 18,1 eta 6,8).

Lurralde lurralde, Arabak ez du okupaziorik galdu 2007tik 2009ra bitarte sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren bolumenean. Bizkaian galeren % 69,3 metatu da, eta Gipuzkoan % 30,7. Horrek goitik behera aldatzen du 2005etik 2007ra bitarte atzemandako egoera, eta horrenbestez Bizkaia biurteko horretan sortutako okupazio garbi berriaren % 74,3 bereganatu du, Gipuzkoako eskualdeen % 18,4aren eta Arabakoaren % 7,3aren gainetik.

**16-64 urteko sektore pribatuko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera,
eskualdearen arabera
(2005-2009 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	83.137	84.170	84.046	1,2	-0,1	1,1
Aiaraldea	12.465	13.425	13.900	7,7	3,5	11,5
Eskuinaldea	49.208	52.241	50.016	6,2	-4,3	1,6
Bilbo	97.352	103.262	96.472	6,1	-6,6	-0,9
Ezkerraldea	122.815	125.849	125.594	2,5	-0,2	2,3
Bizkaia-Kosta	32.112	35.477	33.978	10,5	-4,2	5,8
Durangaldea	36.581	41.519	37.506	13,5	-9,7	2,5
Donostialdea	143.407	146.344	147.048	2,0	0,5	2,5
Tolosa-Goierrri	36.543	37.347	33.629	2,2	-10,0	-8,0
Debagoiena	15.774	17.036	13.926	8,0	-18,3	-11,7
Debarrena	16.359	16.380	15.948	0,1	-2,6	-2,5
Guztira	645.752	673.049	652.063	4,2	-3,1	1,0

Oharra: Bestelako egoeraren batean dagoen kolektiboa barnean hartuta

3.4.3.1. Soldatapeko biztanleriari buruzko datu osagarriak.

Lan Merkatuaren Erroldaren aurreko edizioetan agerian geratu denez, EAEko lan-merkatua aztertzean honako datu honi garrantzi berezia eman behar zaio: okupazioaren bilakaerak, kontratu motaren arabera, 1997az geroztik izan duen joera-aldaketa. Izan ere, 1997-2005 aldian mugagabea ez den kontratua duten landunen kopurua murriztu da, 1993-1997 aldian izandako % 45,1eko hazkunde izugarriarekin erabateko hausturan; 1997az geroztik, ordea, kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen kopuruak gora egin du etengabe.

2005-2006 aldian joera horiek sendotu eta areagotu dira, kontratu mugagabea duten landunen kopurua % 8,3 hazi baita eta soldatapeko beste egoera mota batean dagoen biztanleriaren bolumena % 10,1 jaitsi baita. Beherakada horrek berekin ekarri du, lehen aldiz, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen kopuruaren beherakada absolutu handia, 1997tik 2005era arteko beherakadak oso txikiak izan zirela aintzat hartuta; hortaz, aldi baterako eta kontraturik gabeko soldatapeko okupazioaren zifrak aldi horretan egonkortu egin zirela esan dezakegu.

1997-2006 aldi osoa kontuan hartzen badugu, kontratu mugagabea zuten soldatapeko langileen kopurua % 65 hazi zen, eta mugagabea ez den kontratua zuten edo kontraturik ez zuten langileen bolumena, ordea, % 11,2 jaitsi zen; jaitziera horren % 88,6 2005-2006 aldian ikusitako beherakadarengatik gertatu zela esan daiteke.

Testuinguru horretan, 2006. urtetik 2007. urtera bitarteko bilakaera are deigarriagoa da oraindik, mugagabea ez den enpleguak gora egin baitu, eta enplegu mugagabeak, aldiz,

behera. Hala, kontratu mugagabea zuten soldatapekoen kopurua % 2,4 jaitsi zen aldi horretan, kontratu mugagaberik ez zuten soldatapeko biztanleriaren % 13,3ko hazkundetik oso urruti. Kontratu mugagaberik ez zuten soldatapekoen kopuruak 1997ko mailak berreskuratu zituen, 2005-2006 aldiko jaitsiera handiaren ostean.

Hala eta guztiz ere, joera-aldaketaren arabera aldi baterako edo kontraturik gabeko soldatapeko biztanleriak epe luzera gora egin lezakeela aditzera eman zezakeen arren, krisiak ildo horretatik etor zitezkeen aurreikuspen guztiak apurtu ditu. Behin-behineko soldatapekoen okupazio-bolumenaren ikaragarritzko beherakada izan da krisiaren ondorio nagusia. 2007an 204.973 pertsona zeuden egoera horretan, baina 2009an kopurua txikiagoa izan da: 148.898. Behin behineko edo kontraturik gabeko 56.075 okupazio galdu dira, beraz, eta horrek esan nahi du horrelako okupazioak % 27,4 jaitsi direla 2007tik 2009ra bitarte.

Kontratu mugagabea duten soldatapekoei dagokienez, 2006tik 2007ra bitarte 617.101 okupaziotik 602.035 okupaziotara jaitsi ondoren, 1997-2006 aldian okupazio mota horretan nabarmendu zen hazkunde handia berriz ere ageri zen, indar handiz gainera, 2007tik 2009ra bitarte. Hala, kontratu mugagabea dutenak 641-041 dira 2009an, 2007an baino % 6,5 gehiago (guztira, 39.006 okupazio garbi irabazi dira).

Epe luzera argi dago okupazio mugagabea sendotzeko joera dagoela, 1997tik 2009ra bitarte okupazio mota hori % 71,4 igo delako. Egoera mugagabearen ez dagoen biztanleria landunaren artean, ordea, % 26,9 jaitsi da, 2007-2009 biurtekoaren krisiaren ondorioz bereziki

Kontratazio ez-mugagabearen garrantzi kuantitatiboaren murrizketa deigarria da termino erlatibotan. Soldatapekoen artean, mugagabea ez den enpleguaren proportzioa guztirakoaren % 35,3 izatera heldu zen 1997an, eta 2001-2003 aldian % 29 ingurura; baina 2005ean % 26,1eko mailaraino jaitsi zen, hain zuzen ere 1993. urteko maila (% 26,3) baino bi hamarren gutxiago.

2006. urtean, ordea, aurrerapen garrantzitsua gertatu zen, proportzioa % 22,7ra iritsi zelako. Urtebetean bakarrik, kontratu mugagaberik ez duten pertsonen proportzioa 3,4 puntu jaitsi zen, 2001-2005 laurtekoan erregistratutako 3 puntuko jaitsieraren gainetik. Hala ere, aurrerapen horiek 2006tik 2007ra bitarte aldatu ziren, eta proportzioa % 25,4raino igo zen.

Krisiak behin-behineko eta kontraturik gabeko biztanlerian izandako eragin ikaragarriaren eta mugagabeko kontratazioaren azkenaldiko gorakadaren eraginez, 2009ko adierazlea % 18,8 izan da, 6,5 puntu 2007koaren azpitik, eta lehen aldiz urte askoan % 20aren azpitik.

**16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, kontratu motaren arabera
(2005-2009 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Kontratu mota	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Mugagabea	570.040	602.035	641.041	5,6	6,5	12,5
Ez-mugagabea	201.104	204.973	148.898	1,9	-27,4	-26,0
Guztira	771.144	807.008	789.939	4,7	-2,1	2,4
Kontratu mugagaberik ez duten pertsonen %	26,1	25,4	18,8			

Argi dago kontratu mugagabea duten soldatapekoek bilakaera egokia izan dutela 2007tik 2009ra bitarte Euskadiko eskualde gehienetan. Izan ere, eskualde horietako gehienetan soldatapeko biztanleria horren etengabeko gorakada nabari da, eta hazkunde-erritmoek ere gora egin dute oro har 2007tik 2009ra bitarte.

2005-2009 laurtekoan, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean erregistratu dira igoera nagusiak, % 20aren gainetik ibili baitira (% 20,1 eta 23, hurrenez hurren). Nolanahi ere, zifrak % 15etik gertu edo ehuneko horretatik gora ibili dira Eskuinaldean (% 15,5), Donostialdean (% 17,3) edo Debagoienean (% 14,7), baina esan beharra dago Gipuzkoako eskualdeetan hazkunde-erritmoak txixixeagoak izan direla 2007-2009 biurtekoan 2005-2007 biurtekoan baino. Bilbon, halaber, hazkunde-mailak % 10aren gainetik ibili dira: % 11,2.¹⁷

Aiaraldean ere kontratu mugagabea duten soldatapekoen okupazioaren gorakada handia izan da 2005etik 2009ra bitarte, okupazioa % 13,4 hazi baita aldi horretan. Gorakada hori 2007tik 2009ra bitarteko % 21,1eko hazkundearen ondorioz etorri da, 2005etik 2007ra bitarteko % 6,3ko beherakada —Euskadiko eskualdeetan aldi horretan erregistratu den beherakada gutxietako bat— konpentsatu duena.

Nolanahi ere, EAEko eskualde guztietan kontratu mugagabea dutenen okupazioaren mailak ez dira nabarmen hobetu. Gasteizen, esaterako, okupazio mugagabearen zifrak egonkortzeko joera nagusitu da, eta % 0,1 baino ez da hazi, 2005-2007 aldian batez bestekoaren azpitik ibili zen gorakadari metatu behar zaiona. Oro har, okupazio mugagabea % 3,9 baino ez da igo eskualde horretan 2005etik 2009ra bitarte.

¹⁷ Kontuan hartzekoa da aipatutako eskualdeetan izandako gorakadek aukera eman dutela Bilbon, Donostialdean eta Debagoienean 2006tik 2007ra bitarte atzemandako beherakada puntualak gainditzeko. Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Debagoienean, beherakada horiek, guztira, 2005eko mugagabeko soldatapeko biztanleriaren % 5 baino gehiago izan ziren.

Debabarrenean ere kontratu mugagabea duten soldatapeko biztanleria nolabait egonkortzeko joera nabarmendu da; izan ere, eskualde horretan kontratu mugagabea duten soldatapekoen bolumena % 0,5 bakarrik hazi da 2007-2009 biurtekoan. Kasu horretan, nolana ere, dinamika hori 2005-2007 biurtekoan soldatapeko biztanlerian nabarmendu zen beherakada garrantzitsu eta etengabearen haritik etorri zen; horren ondorioz, horrelako ezaugarriak dituzten landunen kopurua % 13 txikiagoa izan da 2009an 2005ean zegoena baino.

Tolosa-Goierri eskualdean, halaber, kontratazio mugagabearen bolumena jaitsi egin da 2005etik 2009ra bitarte (% -3,6). Kasu horretan, okupazio mota hori krisian egon da 2006. urteaz geroztik, eta horren haritik beherakada etorri da: % 5,5 2006tik 2007ra bitarte eta % 8,2 2007tik 2009ra bitarte, 2005etik 2006ra bitarte izandako % 11,1eko gorakada konpentsatu dutenak. 2006tik 2009ra bitarte, Tolosa-Goierri 1997tik 2006ra bitarte kolektibo horretan erregistratutako okupazio-irabazien % 30,3 galdu du. Tolosa-Goierri Euskadi eskualde bakarra da non 2006-2009 aldiko beherakada eta krisia kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleriarengan ere bereziki nabarmendu den, dimentsio kuantitatiboa, gainera, garrantzizkoa izan delarik.

Okupazio mugagabearen krisia Durangaldean ere nabarmendu da 2007tik 2009ra bitarte, eskualde horretan kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleria % 5.6 jaitsi baita aldi horretan. Kasu horretan, beherakada ez da nahikoa izan 2005-2007 aldiko % 13,5eko gorakadari aurre egiteko, eta horregatik Durangaldean 2009ko okupazioa % 7,1 handiagoa izan da 2005ekoaren aldean erreferentziazko kolektiboari dagokionez.

Durangaldean eta Tolosa-Goierri, soldatapeko okupazio mugagabearen beherakada garrantzizkoa izan da termino kuantitatibotan, 2.136 eta 2.600 okupazio garbi galdu direlako, hurrenez hurren. Erreferentziazko biurtekoan gehien hazi diren eskualdeetan, aldiz, 43.742 okupazio irabazi dituzte. Ezkerraldeak irabazi horien % 35,7 bereganatu du, Donostialdeko % 23,8aren eta Bilbok eta Eskuinaldeak batera eman duten % 23,1aren (% 12,2 eta 10,9, hurrenez hurren) gainetik. Bizkaia-Kostan atzemandako hazkundearen % 10,7 erregistratu da. Ikus daitekeenez, Bilboaldeko eta Bizkaia-Kostako hiru eskualdeen zeregina funtsezkoa izan da, atzemandako gorakadaren % 69,6 bildu dutelako guztira.

Kontratu mugagabea duen 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	78.095	81.105	81.171	3,9	0,1	3,9
Aiaraldea	11.356	10.636	12.882	-6,3	21,1	13,4
Eskuinaldea	47.091	49.628	54.414	5,4	9,6	15,5
Bilbo	89.137	93.784	99.118	5,2	5,7	11,2
Ezkerraldea	99.546	103.906	119.538	4,4	15,0	20,1
Bizkaia-Kosta	29.625	31.747	36.439	7,2	14,8	23,0
Durangaldea	33.354	37.841	35.705	13,5	-5,6	7,1
Donostialdea	123.337	134.205	144.627	8,8	7,8	17,3
Tolosa-Goierri	30.136	31.645	29.045	5,0	-8,2	-3,6
Debagoiena	12.332	13.657	14.149	10,7	3,6	14,7
Debarrena	16.031	13.880	13.953	-13,4	0,5	-13,0
Guztira	570.040	602.035	641.041	5,6	6,5	12,5

Bestetik, aipatzekoa da kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko biztanleriaren beherakada nahikoa ohikoa izan dela, 2007tik 2009ra bitarte, EAEko eskualde guztietan. Eta joera horrek 2006tik 2007ra bitarte biztanleria landunaren kolektibo horretan gertatu zen gorakada handiaren noranzkoa aldatu du, Bilbon izan ezik gainerako eskualdeetan nabarmendu zena. Elementu komun batzuk badaude, beraz, baina beste zenbait alderdik eskualdeen arteko aldeak ere erakutsi dizkigute, eta horiexek garatuko ditugu jarraian.

Kontratu mugagabea ez duen eta soldatapekoa ez den okupazioa gertatu den unearen haritik dator alde horietako bat, zenbait eskualdetan, hain zuzen ere Gasteizen, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoiengan, beherakada hori 2005-2007 biurtekoan gertatu baitzen. Gasteizen, 2005etik 2007ra bitarteko beherakada nahikoa moderatua izan zen (% -4,3), baita, bereziki, 2007tik 2009ra bitartekoa ere (% -2,9), eta, horren ondorioz, kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko biztanleriaren % 7 galdu da 2005-2009 laurtekoan, askoz ere beherakada txikiagoa EAEn batez bestekoa (% 26) baino. Ezkerraldean eta Donostialdean, aldiz, 2005etik 2007ra bitarte % 5-10eko beherakadak izan ostean, 2007tik 2009ra bitarte % 30 jaitsi ziren, gutxi gorabehera, eta horren ondorioz, 2005-2009 laurtekoan beherakada % 34,9 izan zen Ezkerraldean eta % 37,5 Donostialdean, hurrenez hurren. Debagoiengan, 2007tik 2009ra bitarteko beherakada oso handia izan da (% 52,4), eta horren ondorioz Debagoiengan okupazioaren % 56 galdu da 2005-2009 laurtekoan. Beherakada handien artean dago hori, eta Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan aldi horretan erregistratu direnen parean jar daiteke bakarrik.

Izan ere, Eskuinaldea izan da 2005etik 2009ra bitarte kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko okupazio gehien galdu duen beste eskualdeetako bat: % 42,9. Kasu horretan, 2007-2009 biurtekoan izan da beherakadarik handiena (% 45,6), 2005etik 2007ra bitarteko %

4,9ko goranzko joera apurtu zuena. Bizkaia-Kostan gauza bera gertatu zen: eskualde horrek behin-behineko soldatapeko okupazioaren % 31,2 galdu du 2005etik 2009ra bitarte, 2007tik 2009ra bitarteko % 45,7ko beherakadaren ondorioz bereziki, 2005-2007 aldiko % 26,9ko gorakada handia indargabetu duena.

Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan bezala, Aiaraldean, kontratu mugagaberik ez dutenen okupazioa nabarmen jaitsi da 2007tik 2009ra bitarte, % 40tik gorako maila emanez (% -43,6). Nolanahi ere, 2007tik 2009ra bitarte okupazio mota horrek hazkunde handia izan zuen eskualde horretan, eta, horren ondorioz, beherakada % 14,9 baino ez da izan 2005-2009 laurtekoan.

Bilbon eta Tolosa-Goierriin, berriz, kontratu mugagaberik ez dutenen okupazioa ez zen hainbeste hazi 2005etik 2007ra bitarte, eta ondorengo biurtekoaren beherakada ere ez zen oso larria izan; horren ondorioz, 2005-2009 laurtekoaren beherakadak % 13-22 tartean ibili dira Bilbon (% -13,3) eta Tolosa-Goierriin (% -21,6).

Durangaldeari dagokionez, 2007-2009 aldiko batez bestekoa baino jaitsiera txikiagoak (% -15), 2005etik 2007ra bitarte kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen kopuruaren hazkunde nabarmenarekin batera (% 18,8), kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen okupazioaren jaitsiera % 1era mugatu zuen eskualde horretan. Debarrenean, aldiz, 2005-2007 aldiko hazkunde handia izan zen, eta horregatik, 2007tik 2009ra bitarte okupazioaren % 26,3 galdu bada ere, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen okupazio-zifra % 51,2 handiagoa izan da 2009an 2005ean baino.

Kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko biztanleriari dagokionez ageri diren joerak balioestean, funtsezkoa da egiturazko eta koiunturazko faktoreak bereiztea. Koiunturazko terminotan, argi dago 2007-2009 aldiko beherakada handia erabakigarria izan dela, krisi ekonomikoaren eragin nabarmenaren adierazgarri, areago oraindik 2006-2007 aldiko gorakadaren ondoren. 2007-2009 biurtekoan 56.075 okupazio galdu dira guztira horrelako okupazioetan, eta nabarmentzekoa da horien % 44,9 Bilboaldeko hiru eskualdeetan kontzentratu direla, % 23,3 Ezkerraldean bakarrik (Bilbon eta Eskuinaldean, proportzio berbera izan dute: % 10,8). Proportzioa handiagoa da (% 58,1) Bizkaia osoa aintzat hartzen badugu, eta kasu horretan Bizkaia-Kostaren % 10,5 nabarmentzen da. Bizkaitik kanpo, Donostialdeari % 23,7 dagokio; Tolosa-Goierriin eta Debagoienean % 10,5 kontzentratu da (% 4,9 eta 5,5, hurrenez hurren), eta Debarrenean, berriz, % 2,8 erregistratu da. Araban, beherakada osoaren % 5 erregistratu da bakarrik.

Nolanahi ere, atzemandako beherakadak ezin du ezkutatu Euskadiko eskualde askotan okupazio ez-mugagabeak erakutsi duen beheranzko egiturazko joera. Koiunturazkoa soilik izan zen 2006-2007 aldiko gorakada kontuan hartu gabe, nabarmentzekoa da horrelako okupazioak

epe luzerako beheranzko joera erakutsi duela EAEko eskualde askotan. Funtsean, joera hori 2000. urtea baino lehen nabarmendu zen Gasteizen eta Bizkaia-Kostan, mende berriaren hasieran Aiaraldean, Eskualdean eta Durangaldean, eta 2005. urtean Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoiengan, hurrenez hurren (azken bi eskualde horietan, nolani ere, litekeena da kolektiboaren zifrak egonkortzeko joera lehenago —joan den mendearen amaieran, gutxi gorabehera— abiatu izana).

Nolani ere, 2006-2007 aldiko gorakadari garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke, behin-behineko kontratazioa, antza, doitzeko mekanismo gisa orokortzen duelako, baldintza ekonomiko zailtan kontratazioaren joera oraindik goranzkoa sendotzeko. Joera horrek erakusten duenez, euskal enpresek enplegua mantentzearen eta haztearen alde egin zuten une hartan, eta horregatik argitzeko dago zer baldintzak ahalbidetuko zuketean euskal ekonomiak, krisi-egoera berrian, soldatapeko enplegu ez-mugagabearen proportzio handiago bati eustea, enplegu hori ondorenean enplegu mugagabe bihurtzeko bidea erraztearren.

Horren harira aipatzekoa da zenbait eskualdetan, Bilbon eta Tolosa-Goierri adibidez, aldi baterako kontratazioaren gorakada nabaria izan dela epe luzera 2001etik 2006-07ra bitarte, eta, horrekin batera, kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleriak ere gora egin duela. Gainera, 2005etik 2007ra bitarte behin-behineko kontratazioaren gorakada eskualde horietan batez bestekoaren gainetik ibili bada ere, kontratazio mota horri lotutako okupazio-galera txikiagoa izan zen 2007tik 2009ra bitarte batez beste erregistratu dena baino (eta txikiagoa, halaber, aldi horretako beherakadak gehien eragin dien eskualdeei dagokiena baino). Bilbon, okupazio mugagabeak nabarmen egin du gora 2007tik 2009ra bitarte (% 5,7). Tolosa-Goierri, aldiz, okupazio mugagabearen % 8,2 galdu du aldi horretan.

Kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera 16 eta 64 urte bitartekoetan, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	24.669	23.614	22.931	-4,3	-2,9	-7,0
Aiaraldea	3.233	4.879	2.752	50,9	-43,6	-14,9
Eskualdea	12.677	13.299	7.240	4,9	-45,6	-42,9
Bilbo	31.150	33.050	27.009	6,1	-18,3	-13,3
Ezkerraldea	43.785	41.587	28.505	-5,0	-31,5	-34,9
Bizkaia-Kosta	10.108	12.822	6.959	26,9	-45,7	-31,2
Durangaldea	8.488	10.083	8.573	18,8	-15,0	1,0
Donostialdea	47.151	42.748	29.459	-9,3	-31,1	-37,5
Tolosa-Goierri	10.561	11.056	8.284	4,7	-25,1	-21,6
Debagoiena	6.390	5.903	2.811	-7,6	-52,4	-56,0
Debarrena	2.892	5.932	4.373	105,1	-26,3	51,2
Guztira	201.104	204.973	148.898	1,9	-27,4	-26,0

Aldez aurretik aipatu dugunez, 2007tik 2009ra bitarte izandako aldaketek, besteak beste, kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko biztanleriaren proportzioa nabarmen jaitea eragin dute, erreferentziazko proportzioa 2007ko % 25,4tik 2009ko % 18,8ra jaitsi baita, zifrarik txikiena 1997. urteaz geroztik, 2006ko % 22,7 baino are txikiagoa.

Aiaraldean, Eskuinaldean, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoiengan erregistratu dira beherakada handienak 2007tik 2009ra bitarte: 10 puntutik gertu edo are handiagoak. Eskuinaldean izan ezik, eskualde horiek guztiek EAEn batez bestekoa gainditu zuten 2007an soldatapeko biztanleriaren artean kontratu mugagaberik ez duten pertsonen dagokienez, baina 2009rako ia kasu guztietan EAEn batez bestekoaren azpitik kokatu dira. Ezkerraldeak bakarrik jarraitzen du batez besteko horren gainetik: % 19,3.

Beherakada ez da hain nabaria izan, 3,5-7 puntu, 2007an EAEn batez bestekoaren inguruan ibili ziren zenbait eskualdetan (Bilbo, Donostialdea eta Tolosa-Goierri), ezta batez besteko hori nabarmen gainditu zuen Debabarrenean ere. Donostialdean izan ezik (% 16,9), horrek esan nahi du gaur egun tasek batez bestekoa nabarmen gainditzeko dutela, % 21aren gainetik.

Gasteizen (% -0,5) eta Durangaldean (% -1,7) izan dira beherakada arinenak. 2007an eskualde horietan soldatapeko biztanleria ez-mugagabearen proportzioa batez bestekoaren azpitik nabarmen ibili bazen ere, Durangaldeak azkenaldiko aldaketari esker 2009an batez bestekoa gainditzeko aukera izan du (% 19,4), eta Gasteiz soldatapeko okupazio ez-mugagabearen proportzio handiena duten eskualdeen artean kokatu da (% 22).

Epe luzera, ordea, azkenaldiko aldaketaren eragin nagusia tasak elkarrengana biltzea izango da, EAEn eskualde ia guztiak 3 puntuko tartean daudelako une honetan EAEn batez bestekoaren aldean. Behetik Eskuinaldea (% 11,7) eta goitik Debabarrena (% 23,9) bakarrik urruntzen dira nabarmen tarte horretatik.

Mugagabeak ez diren kontratuen proportzioaren bilakaera soldatapeko langileen artean, eskualdearen arabera (1997-2009 aldia) (%-tan)

Eskualdea	Kontratu ez-mugagabeen proportzioa				
	1997	2001	2005	2007	2009
Gasteiz	35,7	25,3	24,0	22,5	22,0
Aiaraldea	33,5	31,2	22,2	31,4	17,6
Eskuinaldea	25,9	31,2	21,2	21,1	11,7
Bilbo	28,8	25,2	25,9	26,1	21,4
Ezkerraldea	37,0	32,4	30,5	28,6	19,3
Bizkaia-Kosta	36,2	30,2	25,4	28,8	16,0
Durungaldea	34,6	30,3	20,3	21,0	19,4
Donostialdea	39,2	30,7	27,7	24,2	16,9
Tolosa-Goierri	40,7	28,0	26,0	25,9	22,2
Debagoiena	42,3	31,9	34,1	30,2	16,6
Debarrena	36,0	22,3	15,3	29,9	23,9
Guztira	35,3	29,1	26,1	25,4	18,8

Soldatapeko langileen taldeak lan egindako ordu kopuruaren bilakaera aztertzen badugu (erreferentziako aste horretan ordutegi normalizatua egin zutenak soilik kontuan hartuta) honako hau ikusten dugu: 2007-2009 aldiaren, lanaldi partzialeko soldatapeko biztanleriaren proportzioa igo da. Proportzio hori % 12,4tik % 13,6ra igo da biurteko horretan, eta gainera 2009an 1997ko goreneko maila (% 12,6) gainditu da.

Bestetik, 2005etik 2006ra bitarte pixka bat gora egin ostean, 2007tik 2009ra bitarteko aldiaren sendotu egin da 40 ordu edo gehiago lan egiten dutenen proportzioa jaisteko prozesua, 2006tik 2007ra bitarte berriz ere nabarmendu zena. Hala, langile gainokupatuaren tasak behera egin du etengabe: % 78,4 1997an, % 72 2005ean, % 70,3 2007an eta % 66,9 2009an, hurrenez hurren. Horren ondorioz, 30-39 ordu sartzen dituztenen kopuruak etengabe gora egin du, epe luzera, 2005etik 2006ra bitarte behera egin bazuen ere: % 9 1997an, % 12,1 2001ean, % 16,3 2005ean % 17,3 2007an eta % 19,5 2009an, hurrenez hurren.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, lan egindako ordu kopuruaren arabera (1997-2009 aldia) (% bertikalak)

Lan egindako orduak	1997	2001	2005	2007	2009
< 30 ordu	12,6	11,8	11,8	12,4	13,6
30-39 ordu	9,0	12,1	16,3	17,3	19,5
40 ordu edo gehiago	78,4	76,1	72,0	70,3	66,9
Guztira	100	100	100	100	100

Oharra: Astearen zehar normalki lan egin duen biztanleria landuna

EAEko zifra orokorrek lanaldi partzialeko lanaren goranzko joera erakusten dute, baina esan beharra dago bilakaera nahikoa desberdina izan dela eskualdearen arabera 2007tik 2009ra bitarte.

Zenbait eskualdetan —Gasteizen, Aiaraldean, Bizkaia-Kostan edo Debagoiengan, adibidez— mendearen erdialdera arte okupazio modalitate horrek erakutsi duen beheranzko joera sendotu edo berreskuratu da. Aipatutako hiru lehen eskualdetan, beherakada 2005etik 2007ra bitarteko hazkundearen ondoren etorri da, eta horren ondorioz 2005-2009 laurtekoaren tasa positiboa izan da (0,3 puntu Aiaraldean, 2 Gasteizen eta 4,7 Bizkaia-Kostan, hurrenez hurren). Tasa % 10,8 izan da Aiaraldean, % 11,8 Bizkaia-Kostan eta % 14,1 Gasteizen, eta azken hori izan da EAEren batez bestekoa gainditu duen eskualde bakarra. Debagoiengan, aldiz, beherakada handia nabarmendu da epe luzera, eta adierazlea 2005eko % 14,1etik 2009ko % 8,8ra jaitsi da.

Eskuinaldean ere adierazleak behera egin du 2005etik 2009ra bitarte, hain zuzen ere % 14,6tik % 10,6ra. Kasu horretan, nolana ere, 2005-2007 biurtekoan izan da beherakadarik handiena, eta adierazlea % 9,5etik % 10,6ra igo da 2007tik 2009ra bitarte.

Ezkerraldean eta Donostialdean, lanaldi partzialeko lanaren proportzioa zertxobait igo da (1-1,5 puntu). Lan modalitate hori ezartzeko erritmoa azkartu egin da 2007tik 2009ra bitarte, % 13,1 eta % 15 lortzeraino, hurrenez hurren. Bilbon 2,9 puntuko igoera izan da, eta eskualde horretan, 2005etik 2007ra bitarte beherakada txikia izan ostean, 2007tik 2009ra bitarte % 11,8tik 15era igo da.

Aldi horretan, Durangaldeak eta bereziki Tolosa-Goierrik eta Debabarrenak egin dute aurrerapenik handiena, lanaldi partzialeko landunen proportzioa 2005-2007 biurtekoan zein 2007tik 2009ra bitarte hazi delako. Durangaldean, gorakada horren ondorioz % 11,8ko tasa lortu da bakarrik; Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, aldiz, % 14,1eko eta % 15,7eko tasa lortu dute, hurrenez hurren, bi kasuetan ere EAEren batez bestekoaren gainetik.

2005etik 2009ra bitarte lanaldi partzialeko okupazioak gora egin izanak ezin du ezkutatu, nolana ere, eskualde askotan epe luzera zifrak jaisteko edo egonkortzeko joerak izatea. Izan ere, Gasteizek, Bilbok, Durangaldeak, Tolosa-Goierrik eta Debabarrenak bakarrik igo dute puntu bat baino gehiago lanaldi partzialeko okupazio-proportzioa 1997tik 2009ra bitarte. Debagoiena, 2007an Gasteizekin egoera hori partekatzen zuena, 1997ko zifraren azpitik kokatu da 2009an. Aldi berean, Gasteizen adierazleak behera egin du 2007-2009 biurtekoan.

Lanaldi partzialeko 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2009 aldia) (%-tan)

Eskualdea	Lanaldi partzialeko landunen proportzioa				
	1997	2001	2005	2007	2009
Gasteiz	12,8	12,5	12,1	16,7	14,1
Aiaraldea	13,3	13,0	10,5	12,3	10,8
Eskuinaldea	11,2	10,7	14,6	9,5	10,6
Bilbo	12,4	11,1	12,1	11,8	15,0
Ezkerraldea	12,8	12,2	11,6	12,2	13,1
Bizkaia-Kosta	12,1	14,1	7,2	12,1	11,8
Durangaldea	9,5	9,1	8,6	10,1	11,8
Donostialdea	14,8	12,9	13,8	13,7	15,0
Tolosa-Goierri	12,1	9,2	7,1	9,8	14,1
Debagoiena	9,9	13,0	14,1	12,1	8,8
Debarrena	10,3	8,6	7,2	10,9	15,7
Guztira	12,6	11,8	11,8	12,4	13,6

3.4.4. Enplegua bilatzearen araberako datuak

2007-2009 aldiko krisiaren haritik, okupazioak behera egin du oro har, eta aldi berean, une honetan eskuragarri dagoen enplegura moldatzen den biztanleria landunak ere behera egin du (erreferentziazko zifraren arabera, 37.145 okupazio galdu dira, 2007ko zifraren % -3,9). Baina krisiak beste ondorio bat izan du: beste enplegu baten bila dabiltzala diotenen kopurua 2007an erregistratutakoa baino % 46,7 handiagoa izan da, 13.447 kasu gehiago guztira.

Horren ondorioz, beste enplegu batean hasi nahi duten landunen proportzioak gora egin du berriz ere, eta guztizko biztanleria landunaren % 4,5 da une honetan. Adierazle horrek 2001etik 2006ra bitarteko % 4-4,5eko zifren ildotik jarraitzen badu ere, 1997ko % 6,9aren oso azpitik, goranzko joera nabaria erakusten du 2007an erregistratutako % 3ko gutxienekoaren aldean.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landunaren bilakaera, beste enplegu bat bilatzearen arabera
(2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-tan)

Beste enplegu bat bilatzen ari da	Absolutuak			hazkundea %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Bai	42.373	28.775	42.222	-32,1	46,7	-0,4
Ez	905.807	942.182	905.037	4,0	-3,9	-0,1
Guztira	948.180	970.957	947.259	2,4	-2,4	-0,1
Lan bila ari direnen %-a	4,5	3,0	4,5			

Nolanahi ere, 2007tik 2009ra bitarte beste enplegu baten bila dabilzan landunen proportzioaren gorakada ez da EAEko eskualde guztietan nabarmendu. Adierazleak egonkor jarraitu du aldi horretan Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, % 3,2ko maila emanez, batez bestekoaren azpitik nabarmen beraz. Debabarrenean gauza bera gertatu da, baina kasu horretan % 5,3 izan da, batez besteko mailak gainditzen dituena, 2005. urteko % 2,8tik gorakada handia izan ostean.

Gasteizen, Aiaraldean, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan, gorakada 0,7-1,4 puntu izan da. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da gorakada, oro har, egoera horretan kasu gutxi zeuzkaten eskualdeetan gertatu dela, eta orokorrean zifrak % 4aren azpitik eta ondorioz EAERen batez bestekoaren azpitik ibili direla 2009an. Gasteiz da salbuespena, eskualde horretan, adierazleak 2005eko % 4,3tik 2007ko % 3,5era behera egin ondoren, berriz ere gora egin zuelako 2009an % 5era iristeraino, 2001ekoaren antzeko zifra batera alegia.

Bilbon, Ezkerraldean eta Durangaldean erregistratu dira gorakada handienak, 2 puntutik gora kasu guztietan, 2007tik 2009ra bitarte. Durangaldean igoera horrek ez du ahalbidetu EAERen batez besteko mailak gainditzea, adierazlea % 4,1 izan delako; azkenaldiko bilakaerari jarraiki, ordea, Bilbo eta Ezkerraldea EAEko sailkapenaren posiziorik okerrenetan kokatu dira. 2005-2007 biurtekoaren bilakaera egokitik urrun, Bilbon adierazlea % 3,1etik 5,2ra igo da, oraindik ere 2005eko % 6,4aren azpitik jarraitzen badu ere. Ezkerraldean, berriz, beste enplegu baten bila dabilen biztanleria landuna % 2,9tik % 6,7ra igo da. Zifrarik handiena da gaur egun, 2005eko % 4,7aren gainetik kasu honetan.

Hala eta guztiz ere, biztanleria landunaren beste enplegu bat bilatzeko joera neurtzen duten eskualde-adierazle guztiak nabarmen txikiagoak izan dira 2009an 1997an erregistratutakoak baino. Debabarrena da salbuespen bakarra, kasu horretan 2009ko zifra 1997koa baino 0,3 hamarren txikiagoa baino ez dela.

**Beste enplegu bat bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landunaren proportzioa,
eskualdearen arabera
(1997-2009 aldia)
(%-tan)**

Eskualdea	Beste enplegu bat bilatzen ari direnen proportzioa				
	1997	2001	2005	2007	2009
Gasteiz	7,9	5,0	4,3	3,5	5,0
Aiaraldea	5,8	7,5	2,1	3,0	3,9
Eskuinaldea	4,9	5,2	5,4	1,6	3,0
Bilbo	7,4	5,2	6,4	3,1	5,2
Ezkerraldea	7,8	5,0	4,7	2,9	6,7
Bizkaia-Kosta	4,9	3,5	2,2	3,2	3,2
Durungaldea	5,8	3,7	2,7	2,1	4,1
Donostialdea	7,7	4,0	4,3	3,2	3,2
Tolosa-Goierra	5,5	2,7	4,7	2,6	3,3
Debagoiena	5,0	3,7	3,3	1,6	2,5
Debarrena	5,6	0,5	2,8	5,3	5,3
Guztira	6,9	4,4	4,5	3,0	4,5

4. Langabeak

4.1. Egungo egoera.

BJA metodologiaren eta elebazio-sistemaren arabera, 2009an EAEn 90.400 langabe zeuden guztira. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 8,7 zen. 16-64 urtekoei dagokienez, horrek esan nahi du adin horretako biztanleria guztiaren % 6,2 langabezian zegoela.

Gau egun, eta azken hamarkadetan ez bezala, gizonezkoak gehiengoa dira langabeen kolektiboan: guztizkoaren % 58,7.. Aurreko urteetan emakumezkoen eta gizonezkoen tasak nolabait elkarrengana hurbildu badira ere —2007ean emakumezkoen langabezia-tasa % 4,1 izan zen, gizonezkoen % 2,4tik gertu—, krisiak eragin handia izan du kolektibo horretan. Hala, 2009ko laugarren hiruhilekoan, gizonezkoen langabezia-tasa emakumezkoena baino handiagoa izan da, puntu batetik gorako aldearekin: % 9,2 eta % 8,1, hurrenez hurren.

16-64 urteko langabeak, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta langabezia-tasa %-tan)

Sexua	Absolutuak	%	Langabezia-tasa
Gizonak	53.105	58,7	9,2
Emakumeak	37.295	41,3	8,1
Guztira	90.400	100	8,7

Krisiak eragin erabakigarria izan du Euskadiko eskualde guztien langabezia-egoeran, 2006-2007 aldiko errealitatea eten duen neurrian; izan ere, lehen aldiz azken hamarkadetan, aldi horretan langabezia-tasak % 5 izan ziren edo balio horren azpitik ibili ziren Euskadiko eskualde guztietan. 2009an, Gipuzkoako Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetan ibili ziren egoera horretatik gertuen. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da eskualde horietan langabezia-tasa orokorra % 5,5 eta 5,6 izan zela, hurrenez hurren; langabezia-zifra horiek % 5 baino txikiagoak izan dira gizonen artean (% 4,9 eta 4,8), eta 1,5 puntu handiagoak muga horren gainetik emakumeen artean (% 6,7 eta % 6,4, hurrenez hurren).

Bi kasuetan langabezia-tasa orokorra % 6,4 izan da, eta esan beharra dago Aiaraldean eta Eskuinaldean ere aurreko egoeratik gertu ibili direla, sexuaren araberako tasa espezifikotako bat % 5 baino handixeagoa izan delarik, osagarria bi kasuetan % 7,5etik gertu kokatu bada ere. Aiaraldeak Tolosa-Goierriren eta Debagoienaren ildoari jarraitu dio, eta langabezia-tasa txikiagoa izan da gizonen artean (% 5,7, emakumeen % 7,5aren aldean). Eskuinaldean, aldiz, langabezia-tasa bi puntu txikiagoa izan da emakumeen artean gizonen artean baino (% 5,3 eta % 7,3, hurrenez hurren).

Donostialdean eta Bizkaia-Kostan bitarteko toki batean kokatu dira 2009ko langabezia-tasa orokorreari dagokienez, eta bi eskualde horietan ere langabeziak eragin txikiagoa izan du emakumeen artean. Langabezia-tasa orokorra % 7,5 izan da lehen kasuan eta % 7,8, pixka bat handiagoa beraz, Bizkaia-Kostan, hurrenez hurren. Bi eskualde horietan, gizonen langabezia-tasa % 8 izan da, gutxi gorabehera (% 8,1 Donostialdean eta % 8,2 Bizkaia-Kostan); emakumeena berriz, % 7ko balioetatik gertuago ibili da: % 6,7 eta 7,2, hurrenez hurren.

Euskadiko gainerako eskualdeetan, langabezia-tasa orokorra % 9-11 izan da. Bilbon (% 9,5), Durangaldean (% 8,9) eta Debabarrenean (% 9,3) oraindik ere % 10aren azpitik ibili da tasa, baina Gasteizen eta Ezkerraldean maila hori gainditu du (% 10,8 eta 10,6, hurrenez hurren).

Durangaldean, Debabarrenean eta Ezkerraldean, gizonen eta emakumeen tasak berdintsuak izan dira, eta batzuen eta besteen mailen arteko aldea gehienez 0,4 izan da Debabarrenean (% 9,1 eta 9,5, hurrenez hurren). Bilbon eta Gasteizen, ordea, gizonen langabezia-tasa 1,3 puntu (% 10,1 batetik eta % 8,8 bestetik) eta 4,1 puntu (% 12,7 batetik eta % 8,5 bestetik) handiagoa izan da.

Hortaz, datuek aditzera ematen dutenez, sexuaren arabera langabezia-tasa espezifikoek % 10eko maila gainditu dute hiru eskualdeetan (Gasteiz, Bilbo eta Ezkerraldea) gizonen dagokienez, eta eskualde bakarrean emakumeen dagokienez (Ezkerraldea). Hortaz, Ezkerraldea izan da bi sexuetan atalase-maila gainditu duen bakarra.

Langabezia-tasen maila orokorrak zerikusi argiagoa dauka gizonen langabezia-tasekin; izan ere, langabezia-tasa orokor handiena izan duten bost eskualdeetan nabarmendu da gehien langabezia gizonen artean. Halaber, langabeziak eragin txikiena izan duen eskualdeetan erregistratu dira gizonen langabezia-tasa txikiak.

Bestetik, gizonen langabezia-tasa handiagoa izanik, kolektibo horrek biztanleria aktiboan presentzia handiagoa duenez, gizonen langabezia-tasa gehiago izan dira langabeen artean. Emakumeek Debagoienean (% 53,8) bakarrik eutsi diote langabeen gehiengoari izateari, eta Aiaraldean (% 48) eta Tolosa-Goierri (% 49,7) % 50etik gertuko zifretan ibili dira. Emakumeek langabeen artean duten presentzia txikiagoa izan da (% 42-44) Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenean, eta are txikiagoa (% 40, gutxi gorabehera) Bizkaia-Kostan eta Donostialdean. Gutxienezko zifrak Eskuinaldean eta Gasteizen erregistratu dira (% 37,8 eta 35,1, hurrenez hurren).

Debagoienean izan ezik gainerako eskualdeetan gizonen langabezia-tasa langabeen artean gehiengoari izatea oso joera berria da, 2005etik 2007ra bitarteko aldirian oso eskualde gutxi baitzeuden egoera horretan. 2007an, esaterako, Gasteizen eta Donostialdean baino ez zen halakorik

gertatu. Gainera, 2007an emakumeen langabezia-tasak handiagoak izan ziren eskualde guztietan, baina 2009an joera hori nabarmen aldatu da.

Izan ere, azken urte horretan, Euskadiko sei eskualdetan (Gasteiz, Eskuinaldea, Bilbo, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Donostialdea) emakumeen tasa espezifikoak txikiagoak izan dira gizonezkoenak baino; Ezkerraldean eta Debabarrenean, aldiz, emakumeen tasa handiagoa izan da, baina gehienez 0,5 puntuko aldearekin gizonen tasaren aldean. Alabaina, emakumeen langabezia-tasa oraindik ere 1,5 puntu handiagoa da Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, nahiz eta eskualde horietan guztietan emakumeen langabezia-tasa EAEren batez bestekoaren azpitik egon. Tolosa-Goierri eta Debagoiena, gainera, emakumeen langabezia-tasa txikiena duten lau euskal eskualdeetako bi dira.

Langabezia-tasa 16-64 urtekoetan, sexuaren eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Sexua			Emakume langabeak %-tan
	Gizonezkoa	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	12,7	8,5	10,8	35,1
Aiaraldea	5,7	7,5	6,4	48,0
Eskuinaldea	7,3	5,3	6,4	37,8
Bilbo	10,1	8,8	9,5	42,6
Ezkerraldea	10,6	10,7	10,6	43,5
Bizkaia-Kosta	8,2	7,2	7,8	39,9
Durangaldea	9,0	8,8	8,9	42,4
Donostialdea	8,1	6,7	7,5	40,2
Tolosa-Goierri	4,9	6,7	5,6	49,7
Debagoiena	4,8	6,4	5,5	53,8
Debabarrena	9,1	9,5	9,3	44,1
Guztira	9,2	8,1	8,7	41,3

Langabezia-egoera gehienak gazteen taldeetan biltzen dira, baina ez nahitaez gazteen artean. Praktikan, arazo horren muin nagusia 20-39 urtekoetan biltzen da. Langabezia-egoeren % 67,2 osatzen dute (% 52,1 20-34 urtekoen kolektiboa soilik aintzat hartuz gero). 40-54 urtekoek ere zati garrantzitsua osatzen dute, guztizkoaren % 25,3 baitira. Gainerako % 7,5a 55-64 urtekoek (% 6,2) edo 20 urtetik beherakoek (% 1,4) dagokie.

Hala eta guztiz ere, termino erlatibotan, langabeziaren eragin nabarmenena 20 urtetik beherakoek dagokie oraindik ere, % 25,1eko langabezia-tasa baitute, 2007ko % 8,4 baino askoz ere handiagoa. 20-24 urtekoen kasuan, % 20ko mugaren gainetik dago oraindik tasa, % 22,5era iristen baita, ia-ia 2007ko % 7,9ko maila hirukoizten duena.

Langabezia-tasetan ere gorakada nabarmena ikus daiteke 2007tik 2009ra bitarte 25 urtetik gorakoen artean; azken urtean, 25-34 urtekoek % 10aren muga gainditu dute (% 13,3, 2007an % 4,7 izanik 25-29 urtekoen artean; % 11,4, 2007an % 3,5 izanik 30-34 urtekoen artean). Zertxobait txikiagoa den arren, 35-39 urtekoen langabezia-tasa % 10aren inguruan ibili da: % 8,5 da, 2007ko % 2,6 erraz gaindituta.

Azkenaldiko gorakadek eragina izan dute, halaber, 40-59 urtekoen artean, % 5 inguruko langabezia-mailara hurbildu baitira berriro ere (% 4,7 55-59 urtekoen artean), eta 40-54 urtekoen artean maila hori gainditu ere egin dute. Hala ere, kasu horretan bost urteko talde bakoitzean zifrak % 5,2tik % 5,9ra bitartekoak izan dira, EAEn batez bestekoarekin (% 8,7) alderatuta txikiak diren arren. Beste behin ere, 60-64 urtekoen artean erregistratu da zifrarik txikiena, langabezia-tasa % 3,7 izan baita.

16-64 urteko langabeak, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta langabezia-tasa %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Langabezia-tasa
16-19 urte	1.238	1,4	25,1
20-24 urte	12.938	14,3	22,5
25-29 urte	15.773	17,4	13,3
30-34 urte	18.373	20,3	11,4
35-39 urte	13.668	15,1	8,5
40-44 urte	8.551	9,5	5,9
45-49 urte	7.953	8,8	5,7
50-54 urte	6.327	7,0	5,2
55-59 urte	4.217	4,7	4,7
60-64 urte	1.362	1,5	3,7
Guztira	90.400	100	8,7

Adinaren eta eskualdearen arabera langabezia-tasei begiratuta ikus dezakegunez, gazteen langabezia-tasa % 10aren gainetik ibili da berriz ere 2009an Euskadiko eskualde guztietan, Eskuinaldean eta Durangaldean gutxieneko zifrak % 14-16 izan direlarik. 25 urtetik beherako langabezia-tasa, berriz, % 20 baino handiagoa izan da gainerako eskualde guztietan, eta Gasteizen, Aiaraldean, Ezkerraldean eta Debarrenean % 25aren gainetik ere ibili da.

2009an, langabezia-maila handien problematika 25-34 urtekoen kolektibora hedatu da, hiru eskualdetan (Aiaraldea, Eskuinaldea eta Tolosa-Goierri) bakarrik eman dituztelako % 10aren azpiko tasak, % 7,7tik 8,8ra bitarteko tasak, zehazkiago. Gasteizen, Bilbon, Durangaldean eta Debarrenean, aldiz, gehieneko mailak % 14-16 tartean ibili dira.

35 urtetik gorakoetan, tasak % 5etik gertu edo maila horretatik beherago ibili dira, eta eskualde bakar batean ez da % 10etik gorako tasa espezifikorik erregistratu adin horretan. Hala ere, langabezia-tasak nahikoa handiak izan dira (% 7,5-9) Gasteizen, Bilbon eta Debabarrenean bizi diren 35-49 urtekoen artean, baita, oro har, Ezkerraldeko 35 urtetik gorakoaren artean ere.

Adinaren arabera langabezia-tasa espezifikoki guztiak batera aztertuta zera ikusten dugu, 2007an ez bezala, Euskadiko eskualde bakar batean ere ez dela erregistratu % 5etik gertuko edo maila horretatik beherako langabezia-tasarik.

Bizkaiko Eskuinaldean gertatu da egoerarik onena. Izan ere, eskualde horretan langabezia-tasak % 5etik gertu edo maila horretatik behera izan dira 35 urtez gorakoaren artean, eta 25-34 urtekoen kolektiboarentzat maila horretatik gertu ibili dira (% 7,7). 25 urtetik beherakoaren artean langabezia-tasa maila horietatik nabarmen urruntzen bada ere, EAEn batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da (% 15,7).

Aiaraldean, langabezia-tasa orokorra Eskuinaldekoaren berdina izanik (% 6,4), alde zuzenetik aipatutako ezaugarrietako asko nabari dira 25 urtetik gorakoaren artean. Nolanahi ere, langabezia-tasa oso handia da (% 25,8), batez bestekoaren gainekoa, adin horretako gazteen artean. 35 urtetik gorakoaren arteko langabezia-tasak (Eskuinaldekoak baino txikiagoak) konpentsatu dute errealitate hori eskualde horretan.

Tolosa-Goierrri eta Debagoiena nabarmendu dira, Aiaraldea bezala, gazteen langabezia-tasak EAEn batez bestekoaren gainetik ibili direlako (% 23,6 eta 24,5), eta gainera Aiaraldeko eta Eskuinaldeko langabezia-tasak gaituztela 25-34 urtekoaren artean, % 10etik gertuko mailara hurbildu edo maila hori gainditzeraino (% 8,8 eta 11,6, hurrenez hurren). Nolanahi ere, eskualde horietan, Aiaraldean eta Eskuinaldean bezala, langabezia-mailak nabarmen txikiagoak izan dira —% 5aren nabarmen azpitik betiere— EAEn batez bestekoa baino 50 urte edo gehiago dituztenen artean. Nolanahi ere, deigarriena zera da, eskualde horietan Euskadiko tasa espezifikoki txikiak dituztela 35-49 urtekoaren artean, eta, horregatik, EAEn langabezia-maila orokor txikiak dituztela. Tolosa-Goierrri % 2,5 eta Debagoiengan % 1,9 izanik, 2009an % 5aren azpitik ibili diren bakarrak izan dira.

Donostialdean eta Bizkaia-Kostan, langabezia-tasak nahikoa handiagoak izan dira Tolosa-Goierrri eta Debagoiengan baino 35-49 urtekoaren artean, eta horregatik batez ere, Donostialdean eta Bizkaia-Kostan langabezia-tasa orokorra 2 puntu handiagoa izan da, gutxi gorabehera, beste bi eskualde horietan baino. Bizkaia-Kostan eta Donostialdean langabezia-tasa handia izan da gazteen artean, % 20 baino handiagoa, baina oro har txikiagoa, nolahi ere, langabezia-tasa orokor txikiagoa duten beste eskualde batzuetan baino; gainera, 50 urte eta gehiago dituztenen artean langabezia-tasak txikiak izan dira. Testuinguru horretan, bi eskualde horiek nabarmendu dira, Tolosa-Goierrri eta Debagoiena bezala, % 10etik gertuko

langabezia-tasak eman dituztelako 25-34 urtekoen artean (% 12,8 eta % 10,5, hurrenez hurren). Nolanahi ere, Tolosa-Goierrik eta Debagoienak ez bezala, eskualde horiek ezin dute konpentsatu 25-34 urtekoen artean Aiaraldeari eta Eskualdeari dagokienez atzemandako aldea, 35-49 urtekoen artean tasak nabarmen txikiagoak izan direlarik.

EAEren batez bestekoaren gaineko langabezia-tasa orokorrak dituzten eskualdeen barnean, Durangaldea bereziki nabarmendu da 25-34 urtekoen artean langabezia-tasa handia izan duelako (% 15,5) Errealitate horrek konpentsatzen ditu, batetik, 25 urtetik beherako en artean nabari den tasa konparazioz txikiagoa, EAEren txikiena dena (% 14,1), eta, bestetik, 35 urtetik gorako en zifrak, batez bestekotik gertu ibili direnak.

Gasteizen eta Debabarrenean, nolanahi ere, langabezia-tasa espezifikoak nabarmen handiagoak izan dira EAEren batez bestekoa baino 50 urtetik beherako adin-talde guztietan. Langabezia-tasa % 25 baino handiagoa izan da 25 urtetik beherako en artean, % 14-16 25-34 urtekoen artean eta % 8,5 inguru 35-49 urtekoen artean, hurrenez hurren. 50 urtetik gorakoei dagokienez, ordea, bi eskualdeek EAEren langabeziaren batez bestekoaren azpitik jarraitzen dute. Debabarrenean tasa oso txikia izan da (% 1,8), Euskadiko txikiena, eta Gasteizen, berriz, 4,1; gainera 25-49 urtekoei dagokienez tasak zertxobait txikiagoak izan dira Arabako eskualdean baino. Horren guztiaren ondorioz, Gipuzkoako eskualdea Gasteizeko zifretatik urrundu da langabezia-maila orokorretan (% 9,3 eta 10,8, hurrenez hurren).

Bilbon, adinaren arabeko langabezia-tasa espezifikoak. Gasteizen eta Debabarrenean erregistratutako en berdintsuak izan dira 25-49 urtekoen artean Bilbok bi eskualde horietako 50 urtetik gorako en langabezia-tasa gainditu du (% 5,1, EAEren batez bestekoaren gainetik adin horietan), baina eskualde horren langabezia-tasa orokorra Debabarrenaren mailetatik gertu ibili da (% 9,5). Langabezia-zifrak txikixeagoak izan dira Gipuzkoako eskualdean baino 25-49 urtekoen artean, eta gainera Bilbon gazteen langabezia-tasa txikixeagoa izan da EAEn baino (% 20,7).

Ezkerraldea eta Gasteiz izan dira 2009an langabezia-tasa orokorrean % 10eko maila gainditu duten bi eskualde bakarrak, eta bi eskualde horietan langabezia-maila espezifikoak berdintsuak izan dira 25 urtetik beherako en artean eta 35-49 urtekoen artean. 25-34 urtekoen artean langabezia-tasa txikixeagoa izan da Ezkerraldean Gasteizen baino (% 12 eta 15,9, hurrenez hurren), baina 50 urtetik gorako en artean erregistratu den tasak (% 7,5) alde hori konpentsatu du, adin horretako en langabeziari dagokionez EAeko eskualde guztien % 5eko mugatik urrundu den bakarra izan baita.

Langabezia-tasa handienak dituzten eskualdeen ezaugarriari begiratuta zera ikusten dugu lehenik eta behin, tasa espezifikokoak oro har nabarmen handiagoak direla 25-49 urtekoen artean. Langabeziak gehien eragin duen eskualde horietan, Gasteizeko edo Ezkerraldeko langabezia-tasa handiagoek zerikusia izan dute, gainera, gazteen artean langabezia-tasek batez bestekoa nabarmen gaintitu izanarekin, 50 urtetik gorakoen artean erregistratutako langabezia-tasa konparazioz txikiak ez dituztelako tasa handi horiek konpentsatu, Ezkerraldean bereziki.

Langabeziak eragin txikiagoa izan duen eskualdeetan, hau da, langabezia-tasa % 7,5 edo balio horretatik beherakoa izan den eskualde gehienetan, 35 urtetik gorakoen artean nabari diren langabezia-tasa konparazioz txikiagoen haritik etorri da elementu positibo bereizgarria. Nolanahi ere, joera orokor horren barruan, langabezia-zifra orokorren eta 35-49 urtekoen langabezia-maila espezifikoen artean ageri da loturarik nabarmenena.

Datuek aditzera ematen dute, beraz, langabezia-tasa orokorren egungo dinamikak zerikusi handia duela, beste adin-talde batzuetan atzemandako eragin bereizgarria ahaztu gabe, 35-49 urtekoen kolektiboaren langabezia-mailarekin, ezbairik gabe Euskadiko jardueraren eta okupazioaren muin nagusia osatzen duena.

Langabezia-tasa 16-64 urtekoetan, adinaren eta eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Adina				Guztira
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	>50 urte	
Gasteiz	26,8	15,9	8,7	4,1	10,8
Aiaraldea	25,8	8,1	5,1	2,0	6,4
Eskuinaldea	15,7	7,7	5,6	4,0	6,4
Bilbo	20,7	13,9	7,4	5,1	9,5
Ezkerraldea	27,9	12,0	8,9	7,5	10,6
Bizkaia-Kosta	23,3	12,8	5,9	3,2	7,8
Durantaldea	14,1	15,5	6,5	5,5	8,9
Donostialdea	20,1	10,5	5,6	4,4	7,5
Tolosa-Goierrri	23,6	8,8	2,5	2,9	5,6
Debagoiena	24,5	11,6	1,9	3,4	5,5
Debarrena	26,0	14,2	8,4	1,8	9,3
Guztira	22,7	12,2	6,7	4,8	8,7

Langabeen taldeko barne-ezaugarriak aztertzea interesgarria izan daiteke. Langabezia-egoeran emandako denboraren aldagaia kontuan hartuz gero, 2001ean izandako aldaketa 2009an mantendu edo sendotu dela egiazta dezakegu, langabeziaren hazkunde-dinamika berria gorabehera. 2001ean ikusten zen EAEko langabe gehienak iraupen laburreko edo ertaineko langabeak zirela. Ildo beretik, langabeen % 65,5ek urtebete baino gutxiago darama langabezia-egoeran. Langabeen % 33k urte bat baino gehiago darama langabezia-egoeran, eta lan bila bi

urteak gora daramaten langabeen proportzioa % 12,7 da. Azken bi zifra horiek azken urteetako beheranzko joera berresten dute.

16-64 urteko langabeak, langabezia-egoeran emandako denboraren arabera
(Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Langabezia emandako denbora	Absolutuak	%
< urte 1	59.179	65,5
1-2 urte	18.335	20,3
>2 urte	11.516	12,7
Ez dago eskuragarri	1.369	1,5
Guztira	90.400	100

Luzaroko langabeziaren eraginari dagokionez, eskualdeen arteko aldeak nabarmenak dira oraindik ere. Ildo horretatik, Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean, luzaroko langabeen proportzioak, hau da, lan bila urtebetetik gora daramatenen ehunekoa, % 33,6tik % 35,2ra bitarte izan da, eta proportzio hori handiagoa izan da beste eskualde batzuetan: % 39,1 Debagoienean, % 42,5 Eskuinaldean eta % 48 Durangaldean, hurrenez hurren. Gasteiz, Aiaraldea, Bizkaia-Kosta, Tolosa-Goierri eta Debabarrena eskualdeetan, aldiz, zifrak % 24tik % 28ra bitarteko mailan daude.

Zifra horiek eta langabeziaren zifra orokorrak alderatuz, zera ikusi dugu, zenbait eskualdetan langabezia-maila konparazioz txikia dela, baina luzaroko langabeziaren maila, aldiz, handiagoa dela konparazioz. Kasu horretan daude Eskuinaldea eta Debagoiena, baita Donostialdea ere, hein txikiagoan bada ere, EAEko batez besteko mailaren inguruan baitabil. Aitzitik, langabezia-tasa handiak dituzten zenbait eskualdetan luzaroko langabeziaren eragina konparazioz txikia dela ikusi dugu; esaterako, Gasteizen eta Debabarrenean, eta hein txikiagoan, Bizkaia-Kostan, batez bestekoaren azpiko langabezia-tasa baitu.

Bestetik, Bilbo; Ezkerraldea eta Durangaldea nabarmendu dira batez besteko zifrak gaintu dituztelako nola langabezia-tasei dagokienez hala luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboari dagokionez. Aiaraldean eta Tolosa-Goierriin, aldiz, langabezia-tasak txikiak izan dira konparazioz, eta luzaroko langabezia-mailak ere txikiak izan dira.

Luzaroko (urtebete baino gehiago) langabeen proportzioa, eskualdearen arabera
(%-tan)

Eskualdea	Luzaroko langabeen %-a
Gasteiz	24,4
Aiaraldea	27,8
Eskuinaldea	42,5
Bilbo	35,2
Ezkerraldea	33,6
Bizkaia-Kosta	27,3
Durungaldea	48,0
Donostialdea	34,6
Tolosa-Goierri	25,0
Debagoiena	39,1
Debarrena	24,2
Guztira	33,0

Langabeen aldez aurreko lan-esperientzia kontuan hartzen badugu, honako hau egiaztatuko dugu: hamar langabetatik bederatzik baino gehiagok (% 94,9) lan-esperientziaren bat izan du egungo langabezia-egoeran egon aurretik.

Hortaz, krisiak eragindako aldaketa kuantitatiboak gorabehera, langabezia mota horretan, lana bilatzen ari direnek badute aldeaz aurreko esperientziaren bat lanean hasi aurretik.

16-64 urteko langabeak, aldeaz aurreko lan-esperientziaren arabera
(Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Aurretiko lan-esperientzia	Absolutuak	%
Bai	85.753	94,9
Ez	3.278	3,6
Ez dago eskuragarri	1.369	1,5
Guztira	90.400	100

Errealitate horrek Euskadiko eskualde guztiak hartzen ditu eraginpean, eta Tolosa-Goierrik (% 9) bakarrik gainditu du nabarmen % 5eko maila. Zifra txikiagoa izan da Debagoienean eta Gasteizen (% 6 eta % 5, hurrenez hurren), eta EAEko gainerako eskualdeetan % 4,5aren azpitik ibili da¹⁸.

¹⁸ Ezin dugu aipatu gabe utzi Gasteizen eta Tolosa-Goierriin puntu horri buruzko informazioak eman ez duten langabeen proportzioa oso handia dela; kasu horretan, inolako lan-esperientziarik zuzenean adierazi ez dutenen proportzioa % 11,5era eta % 13,4ra handitu da, hurrenez hurren.

Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioa, eskualdearen arabera (%-tan)

Eskualdea	lan-esperientziarik gabeko langabeak %-tan
Gasteiz	5,0
Aiaraldea	2,3
Eskuinaldea	4,4
Bilbo	2,9
Ezkerraldea	2,9
Bizkaia-Kosta	1,4
Durangaldea	1,8
Donostialdea	4,1
Tolosa-Goierri	9,0
Debagoiena	6,0
Debarrena	1,9
Guztira	3,6

4.2. Azkenaldiko bilakaera.

Eskuragarri dauden bilakaera-datuaren azterketan sartzean¹⁹, nabarmen azpimarratzekoa da langabezia berragertu izana, eragin masiboko fenomeno gisa agertu izana, 2007tik 2009ra bitartean ikusitako bilakaeraren ezaugarri adierazgarria dela. Horrela, BJAren metodologia eta elebazioaren arabera, 2007an 31.400 pertsona eraginpean hartzetik 2009an 90.400 pertsona eraginpean hartzera igaro da langabezia

2007-2009 aldian izandako 59.000 langabe berriren hazkunde garbia % 187,9 da biurteko horretan fenomenoak erakutsitako eragin kuantitatiboari dagokionez. Bilakaerari dagokionez, dena den, gorde beharreko alderdi nagusia zera da, ikusitako joera-aldaketak haustura drastikoa dakarrela 1997-2007 aldian EAEn ezaugarri izan zen langabezia-mailen murrizte-prozesu funtsezko eta bizkorrarekin. Aldi horretan, langabeen guztizko kopuruak gutxitze nabarmena izan zuen, 1997an 190.885 pertsona izatetik 2001. urtean 95.085 pertsona izatera igaro baitzen (75.829 Eurostat/BJA metodo berriaren arabera), 49.100 pertsona 2005ean eta 31.400 pertsona 2007an. Bi urte eskasean, aitzitik, langabeen kopurua, hots, 90.400 pertsona gaur egun, mendearen hasierako mailetara itzuli da .

¹⁹ LMEaren aurreko eragiketetan azaldutako arrazoiak direla medio, langabeziari buruzko datuen bilakaeraren azterketa jatorrizko BJA metodoari dagozkion datuekin landuko da, 2001. urtera bitarte — urte hori barne—, eta data horretatik aurrera, Eurostat metodo berriari dagozkion datuak hartuko dira aintzat.

Termino erlatibotan, langabezia-zifren hazkunde nagusia gizonetzkoen biztanleriari dagokio (% +275,9 eta emakumeen kasuan, aldiz, % +115,9). Langabe berrien % 66,1 gizonak osatzen dute eta gainerako 33,9a emakumeek. Eragina kualitatiboki erabakigarria da gainera, eta 2009ko gizon langabeen zifrak hamarkadan zehar ikusitako lehengo mailak gainditzen ditu, 1997ko gizonetzko langabeen % 68,9ra iritsi arte. Eragina ez da horren erabakigarria emakumezkoen artean, eta 2009ko emakumezkoen langabezia 1997ko zifraren % 32,8 eskasa baino ez da. Emakume langabeen kopurua 2005eko kopurua nabarmen gainditzen badu ere, emakumezkoen artean oraindik ere 2003an izandako langabezia-zifren azpitik dago zifra hori.

Sexuaren arabera langabeziaren barne-banaketan adierazitako bilakaeraren ondorioak erabakigarriak dira. Lehen aldiz azken hamarkadetan, gizonak dira arazoaren muina, eta langabezia-egoeren % 58,7 biltzen dute 2009an. Adieraztekoa da, dena den, azkenaldiko aldaketek argi eta garbi islatzen zutela gizonetzkoek langabeen guztizko kolektiboan gero eta garrantzi gehiago hartzeko joera. Gizonen garrantzi erlatiboa langabeen guztizkoa 1997an % 40,4 izatetik 2005ean % 47,9 izatera igaro zen.

Adinari dagokionez, langabeziaren hazkundera erabakigarria da talde guztietan 2007-2009 aldian, % 163,4ko gutxieneko hazkunderarekin 25 urtetik beherakoetan, % 178,1era iritsita 50 urtetik gorakoetan. Hala eta guztiz ere, bitarteko adinekoei dagozkie hazkunde garrantzitsuenak: % 192,5eko hazkundera 25-34 urtekoetan eta % 199,8ko hazkundera 35-49 urtekoetan.

Batez ere 25 urtetik beherakoetara mugaturiko langabeziaren eraginaren irudiarekin kontrajarrita, gazteriaren artean modu ez-proporzionalean handiak diren langabezia-tasa batzuetan oinarrituta, egiari zor, adin horretatik goragoko biztanleriaren arazoa da batez ere langabeziaren problematika, eta halaxe izan zen, halaber, azken hamarkadan ere. Horrela, langabeen % 84,3 25 urtetik gorakoak dira 2009an, eta arazoaren gune nagusia 25-49 urtekoetan kontzentratuta dago, guztizkoaren % 71,1 baitira. Zifra horiek nabarmen hazten dira 1997koekin alderatuta (% 73,3 eta % 65,8, hurrenez hurren).

25-49 urtekoek problematika bereizgarri horri dagokionez duten berezitasuna beste adierazle batzuetan ere islatuta dago. Bestalde, egiaztatzen da adin-tarte horretako pertsonen 2007-2009 aldiko langabezia-zifren hazkunde garbiaren % 72,2 kontzentratzen dutela (25 urtetik beherakoek, aldiz, % 14,9 eta 50 urtetik gorakoek % 12,9). Bestalde, 25 urtetik beherakoen artean 2009ko langabeen kopurua 1997ko zifra berarekiko adierazten duen % 27,8ko proportzioarekin alderatuta, erreferentziazko proportzioa % 45,7ra hazten da 25-34 urtekoen artean eta % 59,2ra 35-49 urtekoen artean. Adierazi beharrekoa da, dena den, kontuan hartu beharreko adierazlea modu positiboan erlazionatzen dela adinarekin, eta horregatik dagokie kasu honetan proportziorik handiena 50 urtetik gorakoei. Gaur egun eraginpean hartzen dituen

langabezia-zifra 1997an 50 urtetik gorakoan artean zegoen langabeziaren zifren % 83,2aren baliokidea da.

Adinak aurrera egin ahala aztertutako proportzioaren goranzko joera hein batean erlazionatzen da adin txikiagokoen artean 2007ra arte langabeziaren zifra absolutuei buruzko beharakada handiagoarekin. Horrela, 1997tik 2007ra bitarte, langabezia-zifrak 25 urtetik beherakoan artean % 89,4 erori ziren, 25-34 urtekoen artean % 84,4, 35-49 urtekoen artean % 80,3 eta 50 urtetik gorakoan artean % 70,1. Adinak behera egin ahala langabezia-bolumenak beherakada handia izateko joera, gainera, errealitate konstante samarra izan da, nahitaez, kontuan harturiko aldiaren zehar.

Beste faktore garrantzitsu bat zera da, 50 urtetik gorakoan artean azken krisialdia dela-eta ikusitako bilakaera okerragoa, eta 2006-2007 aldiaren ere langabeziaren gorakada detektatu zen kolektibo horretan. Datu negatibo hori ez zen garrantzi kuantitatibo handikoa, 2006an adin horietako 4.146 langabe izatetik 2007an 4.282 izatera igaro baitziren soilik. Baina, dena den, joera-aldaketa garrantzitsua adierazten zuen, adin-talde handi bakarra baita mende berriaren hasierako urteetan langabeziaren zifren etengabeko jaitsierarako joera eten duena azken urteetan. Horregatik, langabeziaren bilakaera 2005-2009 laurteko osoan ikusten bada, egiazta daiteke langabeziaren hazkunde handiena 50 urtetik gorakoei dagokiela, % 144, eta eragin erlatiboak behera egiten du adinak behera egiten duen neurrian (35-49 urtekoen artean % 84, 25-34 urtekoen artean % 76,6 eta 25 urtetik beherakoan artean % 65,8).

**16-64 urteko langabeen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldian)²⁰
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gizonak	77.115	38.109	39.287	23.506	14.126	53.105
Emakumeak	113.770	56.976	47.494	25.594	17.274	37.295
< 25 urte	50.920	18.347	19.924	8.553	5.383	14.177
25-34 urte	74.679	36.159	32.790	19.334	11.672	34.146
35-49 urte	50.977	30.381	25.666	16.334	10.064	30.172
50-64 urte	14.310	10.197	8.402	4.879	4.282	11.906
Guztira	190.885	95.085	86.781	49.100	31.400	90.400

²⁰ 2001. urtera arte —urte hori barnean hartuta—, jatorrizko BJA metodologiaren arabera aurkeztu ditugu LMEaren zenbeteoak.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldia)**

(Hazkundera %-tan)

Sexua eta adina	Hazkundera %-tan					
	09/07	07/05	09/05	05/01	01/97	09/97
Gizonak	275,9	-39,9	125,9	-38,3	-50,6	-31,1
Emakumeak	115,9	-32,5	45,7	-55,1	-49,9	-67,2
< 25 urte	163,4	-37,1	65,8	-53,4	-64,0	-72,2
25-34 urte	192,5	-39,6	76,6	-46,5	-51,6	-54,3
35-49 urte	199,8	-38,4	84,7	-46,2	-40,4	-40,8
50-64 urte	178,1	-12,2	144,0	-52,2	-28,7	-16,8
Guztira	187,9	-36,0	84,1	-48,4	-50,2	-52,6

Langabezia-zifren hazkunde kuantitatiboarekin batera gorakada handia gertatu da langabezia-tasan. 1993. urteko % 25,9tik 1997ko % 20,3ra jaitsi zen, 2001eko % 9,9ra, 2005eko % 4,9ra eta 2007ko % 3,1era, baina langabezia-tasa berriz ere % 8,7ra igo da 2009an, bi urte lehenago baino 5,6 puntu gehiago. Langabezia-tasa 2003. urteko mailetara hurbildu da berriz ere, urte hartan % 8,9 izan baitzen.

Zifra absolututan bezain nabarmen ez bada ere, gizonezkoei dagokie langabezia-tasaren hazkunde handiena, eta tasa igo egin da 2007ko % 2,4tik 2009ko % 9,2ra. 6,8 puntuko igoera horrek gizonezkoen langabezia-maila 1999an zegoenera hurbiltzen du, une hartan % 9,7 baitzen²¹. Emakumezkoen tasa, bestalde, 4 puntu gehitu da, 2007ko % 4,1etik 2009ko % 8,1era igarota. 2005eko % 6,2 baino handiagoa bada ere, 2003ko % 11,5 baino nabarmen txikiagoa da tasa hori.

Gizonezkoen langabeziak eta emakumezkoenak izandako bilakaera desberdinak erabateko aldaketa ekarri du 2009an, dena den, lehen aldiz emakumeen artean txikiagoa den langabezia-tasarekin. Emakumezkoen biztanleriak, 1997-2007 aldian ere bere langabezia-mailen bilakaeran gizonezkoenak baino bilakaera hobea izan zuenak, askoz hobeto eusten dio krisialdiari.

²¹ Testuinguru horretan zehaztu behar da adierazitako % 9,7 hori jatorrizko BJA metodologia aplikatuta lortzen dela, metodologia horrek finkatzen baitu langabeziaren eragin handiagoa Eurostat/BJA hurbilketa berrian ondorioztatzen dena baino.

Adinari dagokionez, langabezia-tasen azkenaldiko hazkundera handiagoa da adinak behera egiten duen neurrian. Horrela, langabezia-tasak 14,7 puntu hazten da 25 urtetik beherakoen artean, % 8tik % 22,7ra igarota 2007-2009 aldian. Hazkundera 8,2 puntukoa da 25-34 urtekoen artean (% 4,1etik % 12,2ra), 4,4koa 35-49 urtekoen artean (% 2,4tik % 6,7ra) eta 2,9koa 50 urteko gorakoen artean (% 1,9tik 4,8ra). 35 urtetik beherakoen langabezia-tasak handiagoak dira 2009an 2001-2007 aldian ikusitakoak baino, eta 50 urtetik gorakoena, aldiz, 2003koa baino zertxobait handiagoa da, baina 2001ekoa baino txikiagoa. Bilakaera gutxien negatiboa 35-49 urtekoen dagokie, 2009an 2003koaren antzeko tasarekin.

**Langabezia-tasen bilakaera sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2009 aldia)
(%-tan)**

Sexua eta adina	Langabezia-tasak					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gizonak	13,8	6,7	6,9	4,0	2,4	9,2
Emakumeak	29,8	14,5	11,5	6,2	4,1	8,1
< 25 urte	42,0	19,3	20,8	11,0	8,0	22,7
25-34 urte	24,6	12,0	10,8	6,5	4,1	12,2
35-49 urte	14,4	8,1	6,8	4,0	2,4	6,7
50-64 urte	8,8	5,6	4,1	2,3	1,9	4,8
Guztira	20,3	9,9	8,9	4,9	3,1	8,7

la euskal eskualde guztietan izugarri hazi da langabeen bolumena 2007-2009 aldian. Hazkunde txikienak ere langabeen zifrari dagokionez izandako % 51,3ko eta % 104,1eko hazkundeekin lotzen dira, Eskualdea eta Bilbo eskualdeetan ikus daitekeenez. Hazkundera % 170-200 da Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, eta % 240-290eko zifretara iristen da Tolosa-Goierriin, Debagoiengan eta Debabarrenean. Baina hazkundera oraindik ere handiagoa da zenbait eskualdetan, hala nola Aiaraldean (% 302,9), Durangaldean (% 371,9) eta Gasteizen (% 464,2).

1997ko langabezia-zifrei dagokienez, 2007-2009 biurtekoaren gorakadaren eragina bereziki nabaria da Gasteizen, eta 2009ko langabezia-bolumena 1997an izandakoaren % 83,5. Adierazitako proportzio hori % 56-58an dago Durangaldean eta Debagoiena eskualdeetan, eta % 52-54an Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean. Eskualde guztietan, 2009ko langabezia-bolumena 2001ekoak baino erregistro handiagoetan dago, baita horiek jatorrizko BJA metodologian oinarrituta neurtzen direnean ere.

Kontuan harturiko proportzio hori % 44-45era jaisten da Ezkerraldean eta Donostialdean, eta % 38,5-40,5eko zifretara Aiaraldean, Bilbon eta Tolosa-Goierriin. Eskualde horietan, 2009ko langabezia-zifrak 2001ekoa gainditzeko joera du, azken hori BJA/Eurostat metodologia berriaren

arabera hartzen baita kontuan (Tolosa-Goierriin, jatorrizko BJA metodologiaren arabera hor ere). Bilbo da salbuespen bakarra, dagokion langabezia-zifra absolutua % 21,6an baita 2001eko Eurostat/BJA zifra baino txikiagoa.

Azkenik, Eskuinaldean 2009ko langabezia-zifra 1997an izandakoaren % 33,4 da, 2001eko Eurostat/BJA zifraren % 22,3 azpitik, eta horixe da euskal eskualde baten erregistro onena 2009an.

Langabeziaren zifra orokorren bilakaera negatiboa langabezia-tasen inguruan ere ikus daiteke. 2007-2009 aldiko tasa 7 puntu ingurukoa edo hortik gorakoa da Gasteizen (% 2,1etik % 10,8ra), Ezkerraldean (% 3,8tik % 10,6ra), Durangaldean (% 1,9tik % 8,9ra) eta Debabarrenean (% 2,5etik % 9,3ra), azken eskualde horretan tasa igo zelarik 2006-2007 aldian ere (% 2tik % 2,5era).

Bilborekin batera, eskualde horiek langabezia-maila handienak islatzen dituzte 2009an. Ezkerraldean, euskal batez bestekoarekiko ohiko tartea nabarmen gutxitzea ahalbidetu zion 1997-2007 aldiko bilakaeraren ondoren, 2007-2009 aldian izandako okerragotzeak 2007ko 0,6 puntuko tartea 1,9ra igo du 2009an. Gasteizen, Durangaldean eta Debabarrenean bilakaera hori okerragotze kualitatibo askoz ere deigarriagoa da, eskualde horiek lehen aldiz gaintzen baitute 1997az geroztik EAEren batez besteko langabezia-tasa.

Aiaraldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Donostialdea 2007-2009 aldiko langabezia-tasaren hazkundera 4-5 puntuan dago, euskal batez bestekoaren 5,6 puntuko hazkunderaren azpitik. Horri esker posizioa atxikitzen dute EAEren batez bestekoarekiko, normalean haren azpitik dauden langabezia-tasekin, Bilbon izan ezik. Eskualde horretan, batez bestekoarekiko tartea 2007ko 1,7 puntutik (% 4,9tik % 3,1era) 2009ko 0,8ra (9,5etik % 8,7ra) gutxitu da. Adierazi beharra dago, dena den, Bilboko langabezia-tasa gorantz datorrela 2006az geroztik, urte hartako % 4,8ko tasak 1,4 puntu jartzen baitzuen EAEko batez bestekoaren 3,4aren gainetik.

Tasen gorakada zertxobait txikiagoa da Tolosa-Goierriin eta Debagoienean, eskualde horiek 4 puntu inguru hazten baitute beren langabezia-tasa 2007-2009 aldian, eta horri esker konparatiboki aldekoa den posizioa atxikitzen dute EAE osoan.

Hazkundera oraindik ere txikiagoa da Eskualdean, 2,2 puntu eskaseko gorakadarekin 2007tik 2009ra bitarte (% 4,2tik % 6,4ra) Bilakaera egokia da, 2006-2007aldiko joera negatiboa orekatzen duena ²² eta Bizkaiko eskualde horri 2009an berriz ere, 2006an gertatzen zen bezala, EAEko batez bestekoaren azpitikoa langabezia-tasa izatea ahalbidetzen diona.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2009 aldian)**

(Datu absolutuak, hazkundera eta langabezia-tasaren aldaketak%-tan)

Eskualdea	Langabeak				Hazkundera%-tan		Langabezia-tasa			
	1997	2005	2007	2009	09/97	09/07	1997	2005	2007	2009
Gasteiz	18.072	3.033	2.673	15.084	-16,5	464,2	15,3	2,4	2,1	10,8
Aiaraldea	3.344	667	327	1.316	-60,6	302,9	17,7	3,4	1,6	6,4
Eskualdea	14.427	4.825	3.186	4.822	-66,6	51,3	21,5	6,3	4,2	6,4
Bilbo	40.676	11.217	7.687	15.686	-61,4	104,1	25,6	7,2	4,9	9,5
Ezkerraldea	44.373	13.088	6.666	20.051	-54,8	200,8	25,9	7,3	3,8	10,6
Bizkaia-Kosta	8.440	3.197	1.685	4.567	-45,9	171,0	17,0	5,9	3,0	7,8
Durangaldea	9.037	2.374	1.075	5.074	-43,9	371,9	18,3	4,4	1,9	8,9
Donostialdea	38.225	8.137	6.225	17.002	-55,5	173,1	18,5	3,7	2,8	7,5
Tolosa-Goierri	7.181	1.275	856	2.921	-59,3	241,4	14,8	2,4	1,6	5,6
Debagoiena	2.748	637	415	1.601	-41,7	286,2	9,7	2,0	1,4	5,5
Debarrena	4.363	651	605	2.275	-47,9	276,2	17,7	2,7	2,5	9,3
Guztira	190.885	49.100	31.400	90.400	-52,6	187,9	20,3	4,9	3,1	8,7

Interesgarria da 2007tik 2009ra arteko langabeziaren hazkunde kuantitatiboaren eskualde-banaketa kontuan hartzea. Horri dagokionez, erabakigarria da lau eskualdetan ikusten den hazkundearen kontzentrazioa, hots, Ezkerraldean (aldiaren guztizko hazkundearen % 22,7), Gasteizen (% 21), Donostialdean (% 18,3) eta, neurri txikiagoan Bilbon (% 13,6), lau eskualde horiek ikusitako guztizko hazkundearen % 75,5 bilduta.

Bilbon 2007-2009 aldiaren hazkundera 1997-2007 aldian izandako langabeziaren beherakadaren zifren % 24,2 da, EAEko batez bestearekiko oraindik ere zifra txikiagoekin Donostialdean eta Ezkerraldean (% 33,7 eta % 35,5, hurrenez hurren), eta Gasteizen, aldiz, 1997-2007 aldiaren beherakadaren % 80,6an dago eragina. Eskualde horretan, horrenbestez, 2007-2009 biurtekoaren langabeziaren gorakadak funtsezko zati batean ezabatzen ditu 2007ra arte langabeziaren murrizketari dagokionez ikusitako aurrerapausoak.

Adierazitako lau eskualde horietaz aparte, nabarmentzekoa da 2007-2009 aldian Bizkaia-Kostan eta Durangaldean batera izandako langabeziaren % 11,7ko igoera, eta proportzio hori % 8,3 da Tolosa-Goierriin, Debagoienean eta Debarrenean, eta % 1,7 eskasa Aiaraldean. Tolosa-Goierriin eta Aiaraldean izan ezik, bi eskualde horietan % 33aren azpitik baitago, kontuan

²² Eskualdearen langabezia-tasa % 2,4tik % 4,2ra igo zen 2006tik 2007ra bitartean.

harturiko gainerako eskualdeetan 2007-2009 biurtekoan langabeziaren hazkundearen eragina handiagoa da —betiere 1997-2007 aldian ikusitako beherakada bolumenarekiko— euskal batez bestekoa baino. % 42,7-44,4ko zifretan dago Bizkaia-Kostan eta Debarrenean, mailaren % 50 zertxobait gaindituta Durangaldean eta Debagoiengan.

Epe luzeragoko testuinguruan Gasteizen ikusten diren langabezia-zifren okerragotze bereizgarriaren aipamen berezia egin behar da, eskualde hori nabarmentzen baita 2007-2009 aldian langabezia igotzeko egindako ekarpen handiarengatik, 1997-2007 aldian langabezia jaisteko egin zuen ekarpena baino askoz ere handiagoagatik (% 21 batetik eta % 9,7 bestetik). Errealitate horrek EAEko beste hiriburuaren eskualdeetatik urruntzen du Gasteiz, eskualde horiek ezaugarritzat baitute 2007-2009 aldiko ekarpen negatiboa txikiagoa izatea 1997-2007 aldian langabeziaren beherakadari loturiko ekarpen positiboa baino (13,6 batetik eta % 20,7 bestetik Bilbon; % 18,3 batetik eta % 20,1 bestetik Donostialdean). Adierazleen multzo hori azken hamabi urteetako eskualde-bilakaera konparatu okerrenaren adierazgarri da, langabezia-zifra absolutuei gagozkiela.

Gasteizek langabezia-adierazleetan duen okerragotzeko konparatiboa Arabak azkenaldian langabeziari dagokionez izandako bilakaeraren testuinguru historikoan kokatu behar da, ezaugarritzat langabezia-zifren igoera eta jaitsiera sarriak dituen testuinguruan. Lurralde historiko horretan, hain zuzen ere, 2007-2009 aldiko langabeziaren gorakada ez da inolako nobedadea mende berrian. Bereziki 2001-2003 aldian ere ikusten zen hori, nahiz eta 2003-2005 aldian langabezia-zifretan izandako beherakada handiak biurteko horretako hazkundera nabarmen orekatzea ahalbidetzen zuen. Antzeko mugimendu bat ikusi zen 2005-2007 aldian, langabeziaren funtsezko beherakadarekin 2006-2007aldian, neurri handi batean 2005-2006 aldian ikusitako gorakada orekatzea ahalbidetzen zuena.

Dena den, Aiaraldea EAEn batez bestekoa gainditzen duen 2005-2007 aldiko langabeziaren beherakadari esker nabarmentzen da eta Gasteizen, aldiz, ez da gauza bera gertatzean, aldi horretan langabeziak izandako beherakada % 11,9 baita, EAEko txikienetako bat. Horren ondorioak sakondu egiten dira 2007-2009 aldian, hiriburuaren eskualdean izandako langabeziaren hazkundera oso garrantzitsu eta autonomia-erkidegoko beste edozein eskualderena baino handiagoarekin, aldi horretan Aiaraldea Gasteizen errealitatera berriz hurbiltzen bada ere, kasu horretan ere euskal batez bestekoa oso nabarmen gainditzen duen langabeziaren hazkundearekin.

**Langabeziaren beherakada eta gorakada absolutuaren eskualdearen arabeko banaketa
1997-2009 aldian, aldia eta eskualdea kontuan hartuta
(% horizontalak)**

Eskualdea	Langabeziaren beherakadaren eta gorakadaren eskualdearen arabeko banaketa 1997-2007 eta 2007-2009 -aldietan	
	Beherakada 1997-2007	Gorakada 2007-2009
Gasteiz	9,7	21,0
Aiaraldea	1,9	1,7
Eskuinaldea	7,0	2,8
Bilbo	20,7	13,6
Ezkerraldea	23,6	22,7
Bizkaia-Kosta	4,2	4,9
Durangaldea	5,0	6,8
Donostialdea	20,1	18,3
Tolosa-Goierni	4,0	3,5
Debagoiena	1,5	2,0
Debarrena	2,4	2,8
Guztira	100	100

Sexuaren arabeko langabezia-tasa espezifikoen bilakaera-azterketak erakusten duenez, 2007-2009 aldian beren langabezia-tasak gehien hazten ikusten dituzten eskualdeek — Gasteizek, Ezkerraldeak, Durangaldeak eta Debarrenak— ezaugarritzat dute bakarrak direla langabezia-tasen espezifikoetan dituzten hazkundeak EAEko batez bestekoaren gaineratik izatean, gizonetan zein emakumeetan. Hazkunde horiek, dena den, handiagoak dira gizonezkoen langabezia-tasetan (10,7 puntu eta emakumezkoenak, aldiz, 6,4 Gasteizen, 8 batzuenak eta 5,5 besteenak Durangaldean, 7,9 batzuenak eta 5 besteenak Debarrenean, eta 7,6 batzuenak eta 5,8 besteenak Ezkerraldean)²³.

Bilakaera horren ondorio negatiboena zera da, Gasteiz, 2007an euskal batez bestekoaren azpiko sexuaren arabeko langabezia-tasa espezifikoak zituen eskualdea, 2009an EAEn batez besteko tasen gaineratik dagoela, gizonetan zein emakumeetan, alde nahiko garrantzitsuarekin gizonezkoen tasari dagokionez (% 12,7 batetik eta % 9,2 bestetik). Durangaldearen posizio konparatiboa ere okerragotu egiten da, eta eskualde horrek ere gainditu egiten ditu EAEn sexuaren arabeko tasa espezifiko batzuk, nahiz eta emakumezkoen langabezia-tasari buruz izan soilik kasu honetan (% 8,8 batetik eta % 8,1 bestetik).

²³ Langabeziaren hazkundera, egia esan, zertxobait handiagoa da Debarrenean, eta eskualde horretan okerragotzea hasi zen jada 2006-2007 aldian. Tasa espezifikoen hazkundera 8,1 puntukoa da 2006-2009 aldian eta gizonen kasuan eta 6 puntukoa emakumeen kasuan).

Kontrako posizioan, kontuan harturiko aldiaren langabezia-tasaren hazkunde txikiagoa ezaugarritzat duten eskualdeek —Eskuinaldeak, Tolosa-Goierri eta Debagoienak— ezaugarritzat dute batez ere EAEn batez bestekoaren azpitik argi eta garbi dauden gizonezkoen tasaren hazkundera. EAEn hazkundera 6,8 puntukoa izan da, eta gorakadak, aldiz, 3,6-4,1 puntukoak izan dira gizonen artean kontuan harturiko eskualdeetan. Adierazitako posizio on horri, Eskuinaldean emakumezkoen langabezia-tasak 2007-2009 biurtekoan izandako beherakada gehitzen zaio, hau da EAEn sexuaren arabera tasa espezifiko batean aldi horretan ikusitako beherakada bakarra²⁴. Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, aitzitik, hazkundera 4,5 eta 4,1 puntukoa da emakumezkoen tasetan, 4 puntu dagoen euskal batez bestekoaren zertxobait gainera.

Azkenaldiko bilakaerari esker Eskuinaldea berriz ere EAEn langabezia-tasaren azpitik jartzen da berriz ere gizonetan zein emakumeetan, 2007an EAEn batez besteko mailen gainera jarri zuen 2006-2007 aldiko tasaren hazkunderaren ondoren, gizonezkoen zein emakumezkoen biztanleriari dagokionez.

2007-2009 biurtekoan Euskadin langabezia-tasaren hazkundeko bitarteko mailetan dauden eskualde gehienek, aldiz, emakumezkoen tasaren konparatiboki txikiagoa dute, Eskuinaldean ikusi dugunaren antzeko ildotik, hain zuzen ere. Hori gertatzen da Bilbon, 2,1 puntu hazkunderarekin emakumezkoen langabezia-tasaren 2007-2009 aldiaren, eta hazkundera 3,3-3,5 puntukoa da, aldiz, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean²⁵. Eskualde horietan hazkundera euskal batez bestekoaren azpitik bada gizonezkoen tasari dagokionez, gorakada zertxobait handiagoa da eremu geografiko horietan 2007-2009 aldiaren langabezia-tasaren hazkunderaren eragin txikiagoa duten eskualdeetan ikusitakoa baino. Hori horrela, langabezia-tasa 5,6-5,9 puntu gehitu da Bizkaia-Kostan eta Donostialdean eta 6,6 Bilbon. Hazkunde konparatibo txikiagoak, alta, Donostialdeari ahalbidetzen dio 2007an EAEn batez besteko mailetan egotetik 2009an gizonezkoen langabezia-tasaren ia puntu bat azpitik egotera igarotzea.

²⁴ Adierazi beharrekoa da Eskuinaldean 2007-2009 aldiko emakumezkoen langabezia-tasaren beherakadaren aurretik 2006-2007 aldiko % 3,1etik % 5,5era bitarteko gorakada izan zela. 2006-2009 aldiko bilakaerak erakusten duen 2,2 puntuko igoerak 2007-2009 aldiaren euskal batez bestekoaren azpikoak diren emakumezkoen langabezia-tasaren hazkunde-mailetan jartzen dute eskualde hori (+4 puntu). Joera hori gizonetan ere ikusten da, langabeziaren gorakada jarraituarekin 2006-2009 aldiaren, gizonezkoen langabezia-tasa % 1,8tik % 7,3ra igarota, kasu horretan 5,5 puntu hazkunderarekin, 2007-2009 aldiaren Tolosa-Goierri eta Debabarrenean ikusitakoa baino handiagoa baino oraindik ere nahiko azpitik 2007-2009 biurtekoan EAEn gizonek izandako langabezia-tasaren batez besteko hazkunderarekiko (+6,8 puntu).

²⁵ Oraindik ere EAEn emakumezkoen langabezia-tasaren batez besteko hazkunderaren azpitik bada ere, hazkundera egiaz 2,9 puntukoa da Bilbon 2006-2009 aldiaren biltzen bada, tasa 2006ko % 5,9tik 2009ko % 8,8ra gehituta.

Bitarteko posizioetan, Aiaraldearen kasua 2007-2009 aldiaren emakumezkoen tasaren bilakaerari dagokionez langabezia-tasaren bilakaera txarrena duten eskualdeen kasura hurbiltzen da. Eskualde horretan ikusten den 5,3 puntuko hazkundera Euskadiko handienetakoa da, Debabarrenean ikusitakoa gaindituta, adibidez. Kontraste nabarmenean, gizonezkoen tasaren hazkundera, +4,5 puntu, EAEn batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da. Bilakaera horrek Tolosa-Goierri eta Debagoienean ikusitakora hurbiltzen du, eta hiru eskualde horietan da emakumezkoen langabezia-tasaren hazkundera absolutua gizonezkoen langabezia-tasarekin izandakoaren berdina edo hori baino handiagoa.

Aurkezturiko datuek langabeziaren dinamika orokorren eta gizonezkoen langabezia-tasaren bilakaeraren arteko erlazio nabarmena agertzen dute, gizonen egoeran izandako aldaketek tasaren bilakaera orokorra baldintzatzen dutela: gizonezkoen langabezia-tasaren zenbat eta hazkundera handiagoa, langabezia-tasa orokorraren tasa handiagoa, eta alderantziz. Aiaraldean bakarrik baldintzatzen du langabeziako adierazle orokorra nabarmenki handia den emakumezkoen langabezia-tasaren hazkundera, beren langabezia-tasa orokorretan batez besteko hazkundera duten eskualdeen testuinguruan.

Komeni da aipatzea, bestalde, langabezia-tasaren hazkundera-prozesuak aurrekariak dituela 2006-2007 aldiaren, Eskualdean, Bilbon eta Debabarrenean tasaren gorakada sumatzen den aldiaren, hain zuzen ere. Gorakadak aldi horretan emakumezkoen tasak hartzen ditu batez ere eraginpean, eta 2007-2009 aldiaren ikusitakoa baino eragin kuantitatibo txikiagoa du. Horrela, Debabarrenean eta Eskualdean 2006ko % 3-3,5eko zifretatik 2007ko % 4,6-5,5eko zifretara igaroko dira; Bilbon, 2006an oraindik ere % 5,9ko tasa zuela, % 6,7ra iritsi zen 2007an. Eskualdeko gizonezko langabezia-tasa ere hazi egin zen, % 1,8tik % 3,2ra iritsita, 2005-2007 biurtekoan langabezia-tasa orokorrean eskualde horretan ikusitako bilakaera bereizgarri kaskarra sendotuz.

Aipaturiko joerez gain, langabezia-tasa espezifiko batzuk eskualde jakin batzuetan 2005-2007 aldiaren egonkortu direla ere sumatu da. Donostialdearen kasuan, bi sexuak hartzen ditu horrek eraginpean, nahiz eta oraindik ere emakumezkoen langabezia-tasaren beherakada txiki baten testuinguruan izan. Tasak egonkortzeko prozesua murriztu egin da gizonen artean Gasteizen, baina 2005. urtearekin alderatuta, hazkunderaren ikuspegitik begiratuta (% 2 2006an eta 2007an, eta soilik % 1,4 2005ean). Bestalde, Debagoienean gehienbat emakumeen artean sumatzen da egonkortzeko joera. Donostialdeak, Gasteiz eta Debabarreneak, aitzitik, langabezia-tasa espezifiko oso murriztuak zituzten 2007an, % 3,2ko gehienekoarekin Donostialdean emakumezkoen biztanleriari dagokionez.

**Langabezia-tasen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera
(2005-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Gizonak			Emakumeak		
	2005	2007	2009	2005	2007	2009
Gasteiz	1,4	2,0	12,7	3,7	2,2	8,5
Aiaraldea	2,6	1,2	5,7	4,7	2,2	7,5
Eskuinaldea	5,0	3,2	7,3	8,1	5,5	5,3
Bilbo	6,3	3,5	10,1	8,4	6,7	8,8
Ezkerraldea	5,6	3,0	10,6	9,9	4,9	10,7
Bizkaia-Kosta	5,4	2,3	8,2	6,7	3,9	7,2
Durangaldea	3,1	1,0	9,0	6,6	3,2	8,8
Donostialdea	3,6	2,5	8,1	3,8	3,2	6,7
Tolosa-Goierri	1,9	1,3	4,9	3,0	2,1	6,7
Debagoiena	1,1	0,7	4,8	3,3	2,3	6,4
Debarrena	1,9	1,1	9,1	4,0	4,6	9,5
Guztira	4,0	2,4	9,2	6,2	4,1	8,1

Adinari dagokionez, eskualde bakar batean ere ez da sumatzen langabezia-tasa espezifikoen murrizketa edo euspenik 2007-2009 aldian, tasa horiek euskal eskualde guztietan gehitu direlarik.

Gai hori zehatzago kontuan hartuz gero, egiaztatzen da 2007-2009 aldian langabezia-tasen bilakaera txarrena duten eskualdeek —Gasteizek, Ezkerraldeak, Durangaldeak eta Debarrenak— ezaugarri erkide nabarmenak dituztela langabezia-tasa espezifikoetan ikusitako hazkunderen orientazioan. Salbuespen jakin batzuk izan ezik, oro har langabezia-tasen hazkunde oso aipagarriak ikusten dira 50 urtetik beherakoen talde guztietan.

25 urtetik beherakoen kasuan, EAEko 14,7 puntuko batez besteko hazkunderarekin kontrastean, 2006-2007 alditik 2009. urtera bitarteko aldiko langabezia-tasaren hazkundera 19-20 puntuan dago Gasteizen eta Ezkerraldean, 26 puntu gehituta Debarrenean, eskualde horretan gazteen langabezia-tasa 2006an ia ezereza izatetik 2009an % 26 izatera iritsi delarik²⁶. 25-34 urtekoen artean EAEn batez besteko zifretan 8,2 puntuko hazkundera izan da, eta hazkunde hori 11,9, 13,6 eta 14,1 puntukoa izan da Debarrenean, Durangaldean eta Gasteizen, hurrenez hurren. 35-49 urtekoen euskal batez bestekoa 4,4 puntukoa da, eta langabezia-tasa, aldiz, 5,2, 6,3, 6,9 eta 7,7 puntu hazi da Durangaldean, Ezkerraldean, Gasteizen eta Debarrenean, hurrenez hurren.

²⁶ 2009ko tasen diferentzialaren bilakaeran 2006an eta 2007an ikusitako langabezia-maila txikiaren maila hartzen da, eta ikusitakoaren arabera, kasu askotan adinaren arabera langabezia-tasa espezifikoek 2006tik aurrera hasten dute goranzko bidea.

25 urtetik beherakoek Durangaldean edo 25-34 urtekoek Ezkerraldean izan duten langabezia-tasaren euskal testuinguruko hazkunde txikiagoak (10,2 eta 7,4 puntu, hurrenez hurren) konpentsazio gisa du eskualde horietan 50 urtetik gorakoek langabezia-tasari dagokionez dituzten 3,7ko eta 4,8ko hazkundeak, 2,9ko euskal batez bestekoa gainditzen baitute. Gasteizek eta, bereziki, Debabarrenak, ordea, langabezia-tasaren hazkunde-maila txikiagoa dute adin horietan (2,7 eta 0,8 puntu, hurrenez hurren).

Kontrako ildoan, 2006-2007 tartetik eta 2009. urtera bitarteko aldian beren langabezia-tasak modu ez horren garbian hazi direla ikusten duten eskualdeetan, edo hazkunde hori EAEren batez bestekoaren antzeko mailetan bada, batez bestekotik hurbil dauden edo haren azpitiko langabezia-tasaren hazkundeak sumatzen dira oro har ia adin guztietan. Eskualde horietan salbuespen gisa sumatzen dira batez besteko horrekiko askoz ere hazkunde handiagoak azkenaldian. Horrek modu bereziki garbian hartzen du eraginpean 25 urtetik beherakoen langabezia-tasa Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, 18,7 puntutik 22,7 puntura bitarteko hazkundeekin (14,7 batez beste), joera hori Debagoienean gehitu egiten delarik 25-34 urtetakoetara. Azken kasu horretan hazkundea 10,2 puntukoa da eta batez bestekoa 8,2 puntukoa. Aiaraldea eta Tolosa-Goierri errealitate hori batez bestekoa baino hazkunde txikiagoekin konpentsatzen dute 25 urteko eta hortik gorako artean, eta Debagoienean, aldiz, tasa orokorren hazkunde konparatu txikiagoa 35-49 urtekoen langabezia-tasaren hazkunde oso mugatura lotzen da, pertsona horien % 1,9 eskasa baitzegoen langabeian 2009an.

Dena den, 2007-2009 aldiko langabezia-tasa orokorren hazkunde-mailaren eta adin-talde horren bilakaera espezifikoren arteko erlazioa garbiena islatzen duen adin-taldea 35-49 urtekoena da. Horrela, biurteko horretan langabezia-tasa orokorra gutxien hazten ikusi duten eskualdeetan, adin horretako langabezia-mailaren hazkundea 2 puntutik beherakoa da Tolosa-Goierri eta Debagoienean (3,5 Eskuinaldean), eta 3,3-4,2koa da hazkunde orokor ertaineko eskualdeetan (Aiaraldea, Bilbo, Bizkaia-Kosta eta Donostialdea). Hazkunde bost puntutik gorakoa da, ordea, 2007-2009 aldeko langabeziaren gorakadak kalte gehien egindako eskualdeen artean (Gasteiz, Ezkerraldea, Durangaldea eta Deba).

Adinari dagokionez azpimarratu beharreko alderdi bat langabeziaren hazkundeari buruzko lehenengo arazoak eskualde dezentetan 2007-2009 aldiko krisia baino lehen agertu izana da. 2006-2007 aldiko bilakaera txarrena, adin-talde gehienetara hedatu izanagatik, Eskuinaldea, Bilbo eta Debabarrena eskualdeei dagokie. Guztietan ere, aldi horretan hazten da 25-34 urtekoen langabezia-tasaren hazkundealdia, eta adin-talde horretako langabezia-tasa 2 puntu inguruan edo hortik gora gehitzen da Eskuinaldean eta Debabarrenean. Bilbon ez bezala, bertan beherakada izan baitu aldi horretan, 25 urtetik beherakoetan ere nabarmen handitu dira

langabezia-mailak bi eskualde horietan, 2007an Debabarrenean % 8,1era iritsita, 2006an maila ia nulua izan ostean; Eskualdean, hazkundera % 7,1etik % 12,4ra izan da.

Txikia bada ere, tasen gutxi gorabehera puntu-erdiko hazkundera berriz ere erkidea zaie Eskualdeari, Bilbori eta Debabarrenari 50 urtetik gorako artean, eta 35-49 urtekoen arteko langabeziaren hazkundera, aldiz, Eskualdera mugatzen da, eskualde horretan bakarrik hazten baita langabezia-tasa 2006-2007 aldian adin guztietan. 2007-2009 aldian, dena den, Eskualdea hobeto egokitzen da langabeziaren goranzko presioetara, eta prozesu horri hobekien eusten dion eskualdeetako bat da. EAEko tasaren batez besteko hazkunde-tasen barruan atxikitzen da Bilbo ere, eta Debabarrena, aldiz, 2007aren ondoren Euskadin bere langabezia-tasak gehien hazten ikusten dituen eskualdeen artean dago, 2006-2007 aldiaren bilakaera txarra sendotuz, horrenbestez.

Adinaren araberako langabezia-mailen eskualdeko beste hazkunde-prozesu batzuk ere sumatzen dira 2005-2007 aldian. 25 urtetik beherakoei dagokienez, testuinguru horretan bereziki deigarria da Debagoienera eta Tolosa-Goierri ikusten den gorakada, 2007-2009 aldian ere atxikiko zen gorakada, eskualde horietako 25 urtetik beherako langabezia-zifra 2005eko % 5etik 2009ko % 24ko inguruko mailetara aldatuta.

Donostialdean 25-34 urteko buruzko langabezia-tasaren goranzko joera 2006-2007 aldian hasten bada ere, Debagoienera ikusten da beste inon baino argiago 2005-2009 aldian osorik 25 urtetik beherakoetan izandako prozesua errepikatzen dela, tasaren hazkunde jarraituekin 2006tik aurrera, eta horrek 25-34 urtekoen arteko langabeziaren eragina urte horretako % 1,4tik 2009ko % 11,6ra igaroraraziz. 25 urtetik beherako artean ikusitakoa ez bezala, kasu honetan 2007-2009 aldia baino lehenagoko hazkundera mugatua da, % 2,3ko langabezia-tasa eskasarekin 25-34 urtekoen artean Debagoienera 2007an.

35 urtetik gorako artean, 2006-2007 aldian ikus daiteke, halaber, puntu-erdi inguruko gorakada langabezia-zifretan 50 urtetik gorako artean Ezkerraldean. Aldaketa hori garrantzitsua da, eskualdeko tasak EAEren batez bestekoarekiko arian-arian urruntzeko prozesuaren hasiera baita.

Arabako Aiaraldea eta Gasteiz eskualdeei dagokienez, eskualde horietan 2006-2007 aldian langabezia-tasak beherakada izan zuten 35 urtetik beherako artean, eta tasa horiek, aldiz, nabarmen hazi ziren 2005-2006 aldian. Langabezia-tasaren jaitsiera 2006-2007 aldian nabarmena zen Aiaraldean eta Gasteizen 25-34 urtekoen artean, baita Aiaraldean ere 25 urtetik beherako artean, eta Gasteizen, aldiz, sendotu egin zen % 5etik gorako gazteen langabezia-tasa 2007an. Horrela, 2005etik 2006ra bitarte % 2,6tik % 7,3ra gehitu ondoren, tasa % 6,6an atxiki zen azken urte horretan.

Bilakaera hori oso garrantzitsua da Arabako eskualdeetan, agerian uzten baititu eremu geografiko horietan 35 urtetik beherakoak eraginpean hartzen dituzten enplegurako mugak, batez ere gazteenei dagokienez. Izan ere, bi eskualde horiek 2007-2009 aldian gazteei buruzko beren langabezia-tasak 20 puntu baino gehiago hazten ikusten dituzten bakarrak dira. Dena den, 25-34 urtekoei dagokienez okerrago bereizgarria berriz ere langabezia-tasen hazkunde handiaren islatzen da euskal testuinguruari dagokionez, 14,1 puntu igota, eta 8,4 puntu, ordea, EAE osoari dagokionez.

Horrenbestez, ikus daitekeenez, langabeziaren azkenaldiko hazkundearekin loturiko arazoen zati bat, batez ere zenbait eskualdeetan —hala nola Gasteizen, Debagoienan edo Debabarrenean— gazteenak langabezia-arazoei dagokienez, 2007-2009 aldiko krisia baino askoz ere lehenagoko jatorria dute.

**Langabezia-tasen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
(2005-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Adina											
	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			50-64 urte		
	2005	2007	2009	2005	2007	2009	2005	2007	2009	2005	2007	2009
Gasteiz	2,6	6,6	26,8	3,4	1,8	15,9	2,2	1,8	8,7	1,3	1,6	4,1
Aiaraldea	10,9	3,1	25,8	3,7	1,8	8,1	2,6	1,8	5,1	1,9	0,4	2,0
Eskuinaldea	14,2	12,4	15,7	8,0	6,4	7,7	4,6	2,9	5,6	4,6	1,1	4,0
Bilbo	21,7	8,1	20,7	9,4	6,7	13,9	5,5	4,1	7,4	3,0	3,3	5,1
Ezkerraldea	13,7	9,0	27,9	9,3	4,6	12,0	5,4	2,5	8,9	4,0	3,2	7,5
Bizkaia-Kosta	16,4	13,3	23,3	8,2	4,8	12,8	5,9	1,8	5,9	0,9	0,7	3,2
Durangaldea	8,2	4,0	14,1	7,6	1,9	15,5	3,1	1,7	6,5	0,9	1,8	5,5
Donostialdea	9,2	6,2	20,1	4,4	3,9	10,5	3,1	2,1	5,6	2,0	1,5	4,4
Tolosa-Goierrri	4,1	10,9	23,6	3,0	1,1	8,8	2,5	0,7	2,5	0,8	0,9	2,9
Debagoiena	3,3	5,8	24,5	3,6	2,3	11,6	1,6	0,8	1,9	0,4		3,4
Debabarrena	3,1	8,1	26,0	3,2	4,2	14,2	2,5	0,7	8,4	2,5	1,4	1,8
Guztira	11,0	8,0	22,7	6,5	4,1	12,2	4,0	2,4	6,7	2,3	1,9	4,8

Kolektibo langabearen barne-ezaugarriak aztertzean, erlazio negatibo nabarmena ikusten da langabeen zifren hazkunde-intentsitatearen eta langabezia-egoeran ematen duten denboraren artean 2007-2009 aldiko langabeziaren hazkunde handiena egoera horretan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonen dagokie: % 199,2 eta % 192,7, aldiz, langabezia urtebetetik bi urtera bitarte dauden pertsonen artean eta % 117,7 enplegu baliatzeko egoeran bi urte baino gehiago dauden pertsonen kasuan. Iraupen laburreko langabeen egungo zifra 1997an zegoenaren % 85,1en baliokidea da, eta proportzioa % 46,6ra jaisten da langabeen urtebetetik bi urtera bitarte pertsonen dagokienez eta % 14,2 eskasa egoera horretan bi urte baino gehiago daramaten pertsonen dagokienez.

Langabezia-zifra absolutuen bilakaera kontuan izanda, funtsezkoenean 2007-2009 aldian iraupen laburreko langabeen kolektiboari loturiko hazkunderan gauzatzen dira adierazitako joerak. Horrela, aldi horretan izandako 59.000 langabeen hazkunde garbiaren % 66,8 langabezian urtebete baino gutxiago daramaten langabeei dagokie, % 20,5 urtebetetik bi urtera bitarte daramatenei eta % 10,6 bi urte edo hortik gora daramatenei.

Horren ondorioa luzaroko langabeen indar erlatiboak % 36,8tik % 33ra izandako beherakada da, betiere lan bila urtebete baino gehiago daramatenei dagokienez. Zifra hori 2006. urtean izandako % 30,4ko gutxienekoa baino handiagoa eta 2003ko % 35,3tik oso hurbil badago ere, nabarmen urruntzen da 2001eko % 47,5etik eta 1997ko % 63,1etik. Ildo berean, bi urte baino gehiago langabeen dauden pertsonen proportzioa % 12,7raino jaisten da, adierazlearen beherakada-prozesu batean, kasu honetan jarraitua, 1997ko % 42,5etik hasita% de 1997.

Aurreko zifrek ezin dute ezkutatu, dena dela, langabeziaren gorakada absolutuak 11.554 lagunetik 29.852 laguneraingoko gorakada ere eragitea luzaroko langabeen guztizko zifran (5.290etik 11.516ra langabezia-egoeran bi urte edo hortik gora daramaten lagunei dagokienez). Gainera, hazkunde horren zati bat 2007 baino lehenago ikusten da, eta egiaztatu da 2006-2007 aldian luzaroko langabezia % 11,5 gehitu da, eta 2006an 10.360 pertsona eraginpean hartzetik 2007an 11.554 eraginpean hartzera igaro da. Bilakaera hori urtebetetik bi urtera bitarte langabezia-egoeran dauden pertsonen izandako % 35,4ko gorakadari lotzen zaio, langabezia kronifikatuena den kolektiboaren oraindik ere aldeko bilakaera konpentsatuta, bi urtez geroztik edo hortik gora dauden pertsonen arteko % 7,7ko jaitsierarekin.

16-64 urteko langabeen bilakaera, langabezian emandako denboraren arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Langabezian emandako denbora	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
< urte 1	32.392	19.776	59.179	-38,9	199,2	82,7
> urte 1	16.708	11.554	29.852	-30,8	158,4	78,7
1-2 urte	9.114	6.264	18.335	-31,3	192,7	101,2
>2 urte	7.594	5.290	11.516	-30,3	117,7	51,7
Guztira	49.100	31.400	90.400	-36,0	187,9	84,1

Oharra: ED/EE ez dira kontuan hartu

Interesgarria da 2007-2009 aldiko eskualdeko langabezia-zifra absolutuen dinamika aztertzea iraupen labur eta luzeko bilakaeraren arabera.

Horri dagokionez, egiaztatzen da 2007-2009 aldian % 275etik gorako langabeziaren hazkunde orokorra duten bost eskualdeetatik hirutan —Gasteiz, Aiaraldea eta Debabarrena— nabarmentzen dela iraupen laburreko langabeziari loturiko langabezia-zifren hazkunde-osagai sendoa. Luzaroko langabeziaren hazkundera eskualde horietan guztietan biurteko horretan batez besteko zifrak baino handiagoa bada ere (% 212,6; % 187,3 eta % 168,5 batetik eta % 158,4 bestetik, aldiz, EAEren batez besteko gisa), hazkundera askoz ere deigarriagoa da iraupen laburreko langabeziari dagokionez (% 596,9; % 359,6 eta % 331,4 batetik eta bestetik, aldiz, 199,2 inguruko batez besteko zifrak). Urtebetetik beherako langabeziaren garrantzi erlatiboa langabeziaren zifren guztizko hazkundera % 71,8ra igotzen da Gasteizen eta % 72,4ra Aiaraldean, eta proportzio hori % 79,3ra ere iristen da Debabarrenean.

Durungaldea da 2007-2009 aldian % 275etik gorako langabezia-bolumenaren hazkundera duen eskualdeetako bat iraupen laburreko euskal batez bestekoarekiko oso gainteko hazkundera izateagatik nabarmentzen dena, arestian aipaturiko eremu geografikoetan izandakoetatik (% 273,6) ez oso urrun gainera. Kasu honetan, dena den, hazkundera askoz ere handiagoa da, % 560,5, luzaroko langabeziari dagokionez, eta langabezia horrek mugatzen du 2007-2009 aldian eskualde horretan langabeziaren hazkunde absolutuaren % 51,6a.

Termino absolututan beren langabezia-mailak hazten dituzten eskualdeen barruan, Debagoiena nabarmentzekoa da halaber luzaroko langabeziak izandako hazkunde oso handiarengatik, eta gainera konparatiboki handiagoa. Eskualde horretan, langabeziaren gorakada ez da Durungaldean bezain nabarmena, horrelako langabezia motari zein iraupen laburreko langabeziari dagokienez (% 482,4 batetik eta % 217,5 bestetik). Langabeziaren hazkunderaren % 43,7 luzaroko langabeziari lotuta dago eskualde horretan.

Luzaroko langabeziaren konparatiboki handiagoa den hazkunde baterako joera ageri da halaber langabeziaren guztizko bolumenaren hazkundera bitarteko posizioetan (% 170-240) duten eskualdeetan. Horixe gertatzen da Bizkaia-Kosta, Donostialdea edo Tolosa-Goierri eskualdeetan (% 248,4 eta % 141,4; % 245,8 eta % 143,7, eta % 264,6 eta % 215,0, adierazitako eskualdeetako bakoitzean iraupen laburreko langabeziak izandako gorakadarekin alderatuta). Dena den, 2007an luzaroko langabeziaren bolumen murrizta kontuan izanda, eskualde horietan 2007-2009an ikusitako langabeziaren guztizko hazkunderaren % 60,3-68,2 iraupen laburreko langabeei dagokie.

% 68arekin, Ezkerraldeak ere parte hartzen du —beren langabezia-zifrei dagokienez hazkunde ertaineko eskualdeen artean— iraupen laburreko langabeziak 2007-2009 aldian

langabeziaren gorakadaren barne-banaketan zeregin erabakigarria izateko duen joeran. Bizkaia-Kostan, Donostialdean edo Tolosa-Goierri ez bezala, kasu honetan langabezia-zifren hazkundera zuzenean handiagoa da iraupen laburreko langabeen artean (% 216 batetik eta bestetik, aldiz, % 174,7 luzarokoen artean).

Eskuinaldean eta Bilbon, langabezia-zifra orokorraren hazkundera % 51,3ra eta % 104,1era murrizten da, hurrenez hurren, % 187,9ko batez besteko zifraren oso azpitik. Eskuinaldean gorakadak batez bestekoaren oso azpitik daude iraupen laburreko zein luzeko langabezia (% 47,4 eta % 65), eta Bilbon, aldiz, iraupen laburreko langabeziara mugatzen da ezaugarri hori (% 53,2), eta iraupen laburreko langabeziak garbiago egiten du gora (% 149). Eta hori horrela, iraupen laburreko langabeek langabeziaren gorakadaren % 54,3 biltzen dute Eskuinaldean, eta Bilbon, aldiz, gorakada horren % 76.

Langabezia-egoerako denboraren arabera langabeziako hazkunde garbien barne-banaketari dagokionez, nabarmentzekoa da iraupen laburreko 39.403 kasu berri garbien kontzentrazio sendoa Gasteizen (% 22,6), Bilbon (% 15,4), Ezkerraldean (% 16,5) eta Donostialdean (% 16,5). Gehieneko urbanizazio-maila duten lau eskualde horiek 2007-2009 aldiko horrelako langabeziaren hazkunde garbiaren % 77,7 biltzen dute.

% 70,5era murrizten bada ere, lau eskualde horien indarra erabakigarria da, halaber, 2007-2009 aldiko luzaroko langabe garbien 18.298 kasu berrietan. Dena den, Gasteizen eta Bilbon garrantzi erlatiboa murriztu egiten da (% 13,7 eta % 10,5, baterako % 24,2arekin, iraupen laburreko langabeziaren hazkundera daukaten % 38,1arekin kontrastean), eta Ezkerraldearen eta Donostialdearena, aldiz, hazi (% 23,4 eta % 22,9, baterako % 46,3arekin, iraupen laburreko langabeziaren gorakadan izandako parte-hartzearen % 39,6 gainditzen duena). Kasu horretan, gainera, nabarmentzekoa da Durangaldeari loturiko luzaroko langabeziako kasu garbi berrien % 11,3 (iraupen laburreko langabeziari buruzkoen % 4,9).

Bestalde, gogorarazi behar da langabezia-modalitate guztien gorakada zenbait eskualdeetan 2007-2009 aldiaren aurrekoa dela. Luzaroko langabeziari dagokionez, Gasteiz eta Debabarrena dira EAEn 2005-2007 aldi osorako langabezia mota hori hazten ikusten duten eskualde bakarrak, Gipuzkoako eskualdean modu oso leunean bada ere. 2006tik 2007ra bitartean, luzaroko langabeziaren hazteko joera Bizkaiko eskualde gehien-gehienetara zabaldu zen, Durangaldera izan ezik, eta prozesu horrek kontraste egiten du eskualde horietan guztietan 1997-2005 aldian luzaroko langabeziaren zifretan izandako jaitsiera handi eta orokortuarekin.

Iraupen laburreko langabeziari dagokionez, hazkundeak ikusten dira 2006-2007 aldian Debabarrena eta Eskuinaldea eskualdeetan. Gorakada bereziki deigarria da Eskuinaldean, eta eskualde horretan luzaroko langabeziak ere gora egiten du aldi horretan. Egiaz, 2006-2009

aldiaren bilakaera globala kontuan hartuz gero, eskualde horrek duen langabeziaren bilakaera Ezkerraldeak duenaren nahiko antzekoa da, % 168,7ko hazkundearekin aldi horretan iraupen laburreko langabeziari dagokionez eta % 192,7ko hazkundearekin luzaroko langabeziari dagokionez. Eskuinaldean protagonismo zertxobait handiagoa baino ez luke izango luzaroko langabeziak azken urteetako langabeziaren gorakadak (% 43,8 batetik eta % 32 baino ez, aldiz, Ezkerraldean).

16-64 urteko iraupen laburreko langabeen (langabezia urtebete baino gutxiago daramatenak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	2.168	1.494	10.410	-31,1	596,8	380,1
Aiaraldea	447	199	916	-55,4	359,6	104,8
Eskuinaldea	3.072	1.874	2.762	-39,0	47,4	-10,1
Bilbo	7.361	4.081	10.160	-44,6	149,0	38,0
Ezkerraldea	8.462	4.211	13.307	-50,2	216,0	57,3
Bizkaia-Kosta	2.707	1.327	3.202	-51,0	141,4	18,3
Durangaldea	1.550	707	2.640	-54,4	273,6	70,4
Donostialdea	4.839	4.521	11.017	-6,6	143,7	127,7
Tolosa-Goierri	863	655	2.065	-24,1	215,0	139,2
Debagoiena	452	307	975	-32,1	217,5	115,5
Debarrena	471	400	1.725	-15,1	331,4	266,4
Guztira	32.392	19.776	59.179	-38,9	199,2	82,7

16-64 urteko luzaroko langabeen (langabezia urtebete baino gehiago daramatenak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gasteiz	865	1.179	3.686	36,4	212,6	326,2
Aiaraldea	219	127	366	-41,9	187,3	66,9
Eskuinaldea	1.753	1.243	2.050	-29,1	65,0	17,0
Bilbo	3.856	3.607	5.527	-6,5	53,2	43,3
Ezkerraldea	4.626	2.455	6.744	-46,9	174,7	45,8
Bizkaia-Kosta	490	358	1.248	-26,8	248,4	154,9
Durangaldea	825	368	2.434	-55,3	560,5	195,1
Donostialdea	3.298	1.704	5.891	-48,4	245,8	78,6
Tolosa-Goierri	412	200	730	-51,4	264,6	77,1
Debagoiena	184	108	626	-41,6	482,4	239,9
Debarrena	180	205	550	14,0	168,5	206,0
Guztira	16.708	11.554	29.852	-30,8	158,4	78,7

Adierazienez, azkenaldiko joerak % 36,8tik % 33raino beherakada ekarri dute 2007-2009 aldian luzaroko langabeziak langabezia-egoeren osotasunean duen proportzioari gagozkiola.

Eskualde-datuaren bilakaerak luzaroko langabeziaren proportzioaren beherakada handia erakusten du aldi horretan, 10 puntutik hurbilekoa edo goragokoa, iraupen laburreko langabeziaren egoera luzaroko iraupenarekiko konparatiboki oso gaineratua den eskualdeetan betiere: Gasteiz, Aiaraldea, Bilbo eta Debarrena. Prozesu berak argitzen du 3,2 puntuko beherakada Ezkerraldean, betiere iraupen laburreko langabeziako modalitatearen hazkunde bereizgarri txikiagotik, horrek argitzen baitu beherakadaren indar txikiagoa aztertutako proportzioan.

2003ari dagokionez, langabezia-bolumen absolutuari gagozkiola 2009tik hurbilen dagoen urteari dagokionez, luzaroko langabeziaren beheranzko joerak funtsezkoa izaten jarraitzen du Debarrenean, % 52,2tik % 24,2rako jaitsierarekin, eta 5 puntutara hurbiltzen da edo gaineratzen ditu, halaber, Gasteizen eta Bilbon (% 29,4tik % 24,4ra lehenengo kasuan; % 40,9 % 35,2ra bigarrenean). Luzaroko langabezen proportzioa, aldiz, antzekoa da Aiaraldean (% 27,8 2009an, 2003ko % 28,6arekiko zortzi hamarren eskas azpitik). Ezkerraldea, adierazlea 2009an handiagoa da eta guzti (% 33,6 eta 2003an, aldiz, % 29,9).

Gainerako eskualdeetan, 2007-2009 aldian luzaroko langabeziaren hazkunde askoz ere handiagoekin, langabezia mota honi dagokion proportzioa gehitu egiten da. Hazkundera 1,6 puntukoa da Tolosa-Goierri, baina 3,5era iristen da Eskuinaldean eta 6,1-7,3ko zifretara Bizkaia-Kostan eta Donostialdean. 13 puntuak gaineratu ere egiten dira Durangaldean eta Debagoienean.

2003ari dagokionez, luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboan ikusitako hazkunderak 14 puntutik gorakoak dira Durangaldean eta Debagoienean (% 31,5etik % 48ra 2009an lehenengo kasuan eta % 24,5etik % 39,1era bigarrenean), baina baita Eskuinaldean ere (% 28,5etik % 42,5era). Beherakada handiak ikusten dira, aldiz, Bizkaia-Kostan (2003ko % 36,2tik 2009ko % 27,3ra) eta Tolosa-Goierri (% 49,6tik % 25ra), eta Donostialdean murrizketak izandako indarra (2003ko % 40,4tik 2009ko 34,6ra) beste zenbait eskualdeetan —hala nola Gasteizen eta Bilbon— ikusitakora hurbiltzen da.

**Luzaroko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2009 aldian)
(%-tan)**

Eskualdea	Luzaroko langabeak %-tan					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gasteiz	54,7	41,6	29,4	28,5	44,1	24,4
Aiaraldea	54,5	55,7	28,6	32,9	39,0	27,8
Eskuinaldea	61,6	44,9	28,5	36,3	39,0	42,5
Bilbo	66,1	50,8	40,9	34,4	46,9	35,2
Ezkerraldea	65,7	48,5	29,9	35,3	36,8	33,6
Bizkaia-Kosta	61,7	48,4	36,2	15,3	21,3	27,3
Durungaldea	66,6	42,9	31,5	34,7	34,3	48,0
Donostialdea	62,0	45,4	40,4	40,5	27,4	34,6
Tolosa-Goierri	58,6	44,4	49,6	32,3	23,4	25,0
Debagoiena	58,2	41,8	24,5	29,0	25,9	39,1
Debarrena	72,5	65,3	52,2	27,6	33,9	24,2
Guztira	63,1	47,5	35,3	34,0	36,8	33,0

Langabeziak aldez aurreko lan-esperientziaren arabera izandako bilakaerari dagokionez, 2007-2009 aldian langabeziak izandako gorakada lan-esperientzia duten pertsonen langabezia izandako beherakadari lotuta dago funtsean. Esperientziarik gabeko langabeen kopurua aldian % 36,6 gehitu bada ere, hazkundera % 196,4 da aldez aurreko lan-esperientzia duten langabeei dagokienez. Izan ere, 2007-2009 biurtekoan langabezia-zifretako enplegu garbiaren hazkunderaren % 96,3 aurretik okupazio motaren bat izan duten pertsonekin lotuta dago.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, aldez aurreko lan-esperientziaren arabera
(2005-2009 aldian)**

Lan-esperientzia	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2007	07/05	09/07	09/05
Bai.	45.500	28.930	85.753	-36,4	196,4	88,5
Ez	3.600	2.400	3.278	-33,3	36,6	-8,9
Guztira	49.100	31.400	90.400	-36,0	187,9	84,1

Oharra: ED/EE ez dira kontuan hartu

2007-2009 aldiko langabeziaren barne-bilakaerak langabeen guztizko kolektiboaren barruan lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioak epe luzerako beherakada nabarmena izateko duen joera indartzen du. Langabezia hori guztizkoaren % 28,5 zen 1997an; 2001ean, aldiz, % 16,8; 2005ean, % 7,3, eta 2009an, % 3,6.

Lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioaren beherakada 2007-2009 aldian nabarmena da euskal eskualde guztietan, Gipuzkoako eremu geografiko batzuen salbuespen bakarrarekin. Horrela, langabezia-modalitate horrek aldi horretan % 2,2tik % 4,1era igo zen Donostian eta % 1,6tik % 9ra Tolosa-Goierriin. Proportzioa Debagoienean % 7,4tik % 6ra

murrizten bada ere, 2009ko zifrak ere epe ertainerako goranzko joera islatzen du eskualde horretan, 2005eko % 2,6aren nabarmen gainera. Egiazta daitekeenez, dena den, ezein kasutan ere ez dira islatzen joera horiek esperientziarik gabeko langabeziaren zeregin erlatiboaren proportzio nabarmenetan.

Azkenaldiko adierazleak 2003. urtekoekin alderatuta, hori izan baitzen langabeziaren eragin kuantitatibo garrantzitsuko azken urtea 2009 baino lehen, esperientziarik gabeko langabeziaren indar erlatiboaren beherakada bereziki adierazgarria da Gipuzkoan, 20 puntutik hurbil dauden edo hortik gorako murrizketekin ia eskualde guztietan. Tolosa-Goierri soilik jarraitzen du 2003ko zifretatik hurbil, 2009ko % 9arekin, 2003ko % 10,3ra hurbiltzen dena.

Arabako eta Gipuzkoako eskualdeetan, oro har 2003an lehen enplegua eskuratzeko arazoak gutxiago eraginpean harturikoetan, lan-esperientziarik gabeko langabeziaren eraginaren beherakada 4-8,5 puntuko tartean dago. Gasteiz da salbuespena, 1,6 puntu eskaseko beherakadarekin, baina abiapuntutzat 2003ko lan-esperientziarik gabeko pertsonen proportzio baxuena hartuta (% 6,6, eta 2009an, aldiz, % 5).

Lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2009 aldian)
(%-tan)

Eskualdea	Lan-esperientziarik gabeko langabeak %-tan					
	1997	2001	2003	2005	2007	2009
Gasteiz	22,5	13,7	6,6	8,2	6,6	5,0
Aiaraldea	27,8	20,9	7,2	7,5	7,5	2,3
Eskuinaldea	41,9	22,0	8,2	10,6	13,4	4,4
Bilbo	28,6	18,1	11,2	8,2	10,2	2,9
Ezkerraldea	28,6	17,3	7,7	9,9	8,2	2,9
Bizkaia-Kosta	30,4	16,4	9,3	4,6	9,6	1,4
Durangaldea	24,8	12,4	10,1	9,6	7,3	1,8
Donostialdea	26,2	13,0	23,7	1,5	2,2	4,1
Tolosa-Goierri	24,0	21,7	10,3	3,0	1,6	9,0
Debagoiena	36,6	16,4	36,9	2,6	7,4	6,0
Debarrena	33,0	23,9	41,4	3,8	3,0	1,9
Guztira	28,5	16,8	12,8	7,3	7,6	3,6

5. Biztanleria ez-aktiboa

5.1. Egungo egoera.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboak 414.282 lagun biltzen ditu guztira 2009. urtean. Horrela, EAEn adin aktiboan dagoen biztanleriaren % 28,5 ez-aktibotzat defini daiteke lan-merkatuan parte-hartzeari gagozkiola, Eurostat/BJA metodologia aplikatuta.

Emakumeak dira nagusi pertsona ez-aktiboaren kolektiboaren barruan, eta haien % 62,6 dira. Inaktibitate-tasak emakumeen artean duen eragin askoz ere handiagoari lotzen zaio hori: % 36,1, eta gizonetan % 21,1.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduerarik ezaren tasa %-tan)

Sexua	Absolutuak	%	Inaktibitate-tasa
Gizona	154.852	37,4	21,1
Emakumea	259.429	62,6	36,1
Guztira	414.282	100	28,5

Pertsona ez-aktibo gehienak honako bi adin-tarte hauetan biltzen dira: alde batetik, 50 urtetik gorakoak, biztanleria ez-aktibo guztiaren % 44,1 direla; beste alde batetik, 25 urtetik beherakoak, % 27,3 direla. 25-34 urtekoak biztanleria ez-aktiboaren % 10,4 dira, eta 35-49 urtekoetan proportzio hori % 18,2ra igotzen da.

Inaktibitatearen intzidentziarik handiena 20 urtetik beherakoetan ikusten da, % 93 izatera iritsi baita. 20-24 urtekoetan % 45,3ra jaisten den arren, inaktibitatearen eragina erabakigarria da oraindik ere adin-talde horretan. Aldiz, jaitsiera nabarmena gertatu da 25-34 urtekoetan: 25-29 urtekoetan tasa % 16,7 da, eta % 11,7 —mailarik txikiena— 30-34 urtekoetan. Zifrak progresiboki hazten dira 35 urtetik gorakoen artean 60-64 urtekoen % 71,4ra iritsi arte. Inaktibitate-tasak argi eta garbi atxikitzen dira, aldiz, % 20aren azpitik 50 urtera arte, % 12,1eko zifrekin 35-39 urtekoen artean eta % 14,9-16,4ko zifrekin 40-49 urtekoen artean. Adin horretatik aurrera nabarmen hazten dira, % 24,4ra iritsita 50-54 urtekoen artean eta % 36,6, aldiz, 55-59 urtekoen artean.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta inaktibitate-tasa %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Inaktibitate-tasa
16-19 urte	65.482	15,8	93,0
20-24 urte	47.635	11,5	45,3
25-29 urte	23.683	5,7	16,7
30-34 urte	19.481	4,7	10,8
35-39 urte	22.253	5,4	12,1
40-44 urte	25.525	6,2	14,9
45-49 urte	27.531	6,6	16,4
50-54 urte	39.474	9,5	24,4
55-59 urte	52.033	12,6	36,6
60-64 urte	91.185	22,0	71,4
Guztira	414.282	100	28,5

Etsia harturiko biztanleria ez-aktiboak, beste okupazio bat eskuratu ezin izango dutela uste dutelako jadanik enplegua bilatzen ez duten pertsonak osatutakoak, 14.649 pertsonako zifra biltzen du 2009an. Guztizko biztanleria ez-aktiboaren % 3,5 dira.

16-64 urteko etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa
(Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Jarduerarik ezaren egoera-mota	Absolutuak	%
Etsia hartutako ez-aktiboak	14.649	3,5
Bestelako ez-aktiboak	399.633	96,5
Guztira	414.282	100

Biztanleria ez-aktiboaren barruan, talde bereziki garrantzitsua osatzen dute honako hauek: enplegua bilatzen ari direla eta lanerako prest daudela diotenak, eta horietatik batzuk duela gutxi jarri ahal izan dira kontaktuan enplegu-zerbitzuekin, langabezia-txartela berritzeko. Pertsona horiek eta langabeak ezin dira berezi, gaur egun, baldin eta azken hilean okupazio berria bilatzeko gestio edo ekintza espezifikoak egin ez izanagatik ez bada, eta horrelako ekintzarik egin ez dutenak ez-aktiboak dira, ez langabeak, Eurostat/BJA metodoa aplikatuta.

2009an, talde horrek 23.243 lagun biltzen ditu, hots, 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren % 5,6. Nolanahi ere, talde hori aktiboek gehituko bagenie, aktiboak % 2,2 haziko lirateke, ez asko, egia esan. Aitzitik, % 25,7ko hazkundea litzateke langabeen zifra potentzialei dagokienez, kasu horretan langabezia-adierazlea % 10,7raino gehituta.

Talde horren sexuaren araberako banaketak nolabaiteko oreka du ezaugarritzat 2009an, emakumezkoen % 50,5arekin eta gizonezkoen % 49,5arekin. Dena den, termino erlatibotan, errealitate horrek intzidentzia nahikoa handiagoa du gizonen artean: gizonezko ez-aktiboaren taldearen % 7,4, eta emakumezko ez-aktiboaren % 4,5.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-tan)

Sexua	Absolutuak	%	Ez-aktiboak guztira %-tan
Gizona	11.497	49,5	7,4
Emakumea	11.746	50,5	4,5
Guztira	23.243	100	5,6

Adina kontuan hartzen badugu, biztanleria ez-aktiboaren baina lanerako prest dagoenaren funtsezko muina 20-29 urteko pertsonen dagokie 2009an. Talde hori kontuan izandako kasuen guztizkoaren % 57,1 da: % 28,4 da 20-29 urtekoen artean eta % 28,7, aldiz, 30-39 urtekoen artean. 40-54 urteko pertsonak guztizkoaren beste % 32,3 garrantzitsua dira. Ekarpena % 7,5era murrizten da 55-64 urtekoen artean eta % 3,2ra 20 urtekoen artean.

Termino erlatiboei dagokienez, 25-39 urtekoek izan dute eraginik handiena. Kasu horretan, ez-aktibotzat hartutako biztanleriaren % 14,7-17-4k enplegurako prest dagoela dio kontuan harturiko bost urteko adin-taldearen arabera. % 10aren azpitik bada ere, kontuan harturiko proportzioak EAEko batez besteko zifrak gainditzen ditu 20-24 urteko eta 40-54 urteko pertsonen artean. Gazteenetan, aldiz, proportzioa % 6,2ra iristen da, eta zifrak % 7,5 ingurura iristen dira 45-54 urtekoen artean eta % 9,6ra 40-44 urtekoen artean. 55 urtetik gorakoen artean, baita 20 urtetik beherakoen artean ere, ordea, lanerako prest egoteko joera ez-aktiboaren artean % 2,5 baino txikiagoa da.

Aurreko datuak aurkeztuta, bilduriko egoeren eragin kuantitatibo eta kualitatiboa kontuan izanda, eragin handienak duten pertsonak 25-39 urtekoak direla egiaztatzen da. Talde horrek enplegurako prest dauden ez-aktiboaren guztizkoaren % 44,5 biltzen du, eta adin-tarte horretan egoera horretan dauden pertsona ez-aktiboaren proportzioa % 15,8 da 40-54 urtekoak enplegurako prest dauden pertsona ez-aktiboaren % 24,7 biltzen du, adin-tarte horretan egoera horretako pertsona ez-aktiboaren % 8,1arekin. 20-24 urteko pertsonak talde osoaren % 12,6 dira, horien arteko 6,2arekin prestasun-egoeran.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Ez-aktiboak guztira %-tan
16-19 urte	739	3,2	1,1
20-24 urte	2.933	12,6	6,2
25-29 urte	3.674	15,8	15,5
30-34 urte	3.390	14,6	17,4
35-39 urte	3.274	14,1	14,7
40-44 urte	2.443	10,5	9,6
45-49 urte	2.095	9,0	7,6
50-54 urte	2.961	12,7	7,5
55-59 urte	1.121	4,8	2,2
60-64 urte	611	2,6	0,7
Guztira	23.243	100	5,6

Lurralde-ikuspegiarako hurbilketa bereziki interesgarri da lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboaren taldea aztertzea. Puntu horretan, azpimarratzekoa da, hasteko, kolektiboaren kontzentrazio garrantzitsua Bilboko areako hiru eskualdeetan, Bilbok, Ezkerraldeak eta Eskuinaldeak kasu horien % 44 biltzen dutelarik. Donostialdeak ere, % 20,5arekin, kolektibo horren zati garrantzitsu bat kontzentratzen du. Durangaldea eta Bizkaia-Kostak beste % 13,1 bat biltzen dute, Gipuzkoaren gainerakoari dagokion % 13aren antzeko zifra. Arabak, bestalde, kasuen % 8,7 besterik ez du biltzen.

Denda, guztizko biztanleria ez-aktiboarekiko potentzialki prest dauden pertsonen intzidentzia ikusitako aldean azterketa da interesgarriena eskualde-arloan, eta arestian adierazitakoarekin zertxobait desberdina den irudia eskaintzen du. Ildo horretan ikus daiteke kontuan harturiko egoeren intzidentzia handiena Eskuinaldeari dagokiola, biztanleria ez-aktiboaren % 9,3arekin enplegurako prest dagoela, atzetik Debarrena duela, % 8arekin. EAEn batez bestekoaren argi eta garbi gaineretik daude Durangaldea eta Tolosa-Goierrri eskualdeak (% 7,2 eta % 7, hurrenez hurren).

Kontuan harturiko egoeren intzidentzia dezente txikiagoa da, eta EAEn batez bestekoaren inguru dabil, % 4,8-5,8ko tartean, Bilbo, Ezkerralde, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debagoiena eskualdeetan. Bestalde, % 3,3-3,8ko gutxienekoak sortzen dira Arabako Gasteiz eta Aiaraldea eskualdeetan.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, eskualdearen arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-tan)

Eskualdea	Absolutuak	%	Ez-aktiboak
Gasteiz	1.682	7,2	3,3
Aiaraldea	338	1,5	3,8
Eskuinaldea	3.369	14,5	9,3
Bilbo	3.327	14,3	4,9
Ezkerraldea	3.706	15,9	4,8
Bizkaia-Kosta	1.304	5,6	5,4
Durangaldea	1.746	7,5	7,2
Donostialdea	4.759	20,5	5,8
Tolosa-Goierri	1.459	6,3	7,0
Debagoiena	666	2,9	5,5
Debarrena	887	3,8	8,0
Guztira	23.243	100	5,6

5.2. Azkenaldiko bilakaera.

Euskadiko 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboak izan duen bilakaera aztertuta²⁷ 2007-2009 aldirian, EAE biztanleria mota horrek izan duen beherakadako prozesu historikoaren indartzea egiaztatzen da. Dena den, beherakada-erritmoak gutxitu egin dira aurreko biurtekoarekin alderatuta, 2005-2007 aldirian ikusitako % 2,9ko beherakadatik 2007-2009 aldirian ikusitako beherakadara igarota. Errealitate horrek mende berrian biztanleria ez-aktiboak izandako beherakada-erritmoen dezelerazioarako joera orokorragoa islatzen du. 1997-2001 aldirian ikusitako beherakada-erritmoen azelerazioaren ondoren (aktiboaren kopurua % 11,4 jaitsi zen orduan eta 1993-1997 aldirian, ordea, % 3,1), inaktibitate-zifren murrizketaren indarra % 6,7ra gutxitu zen 2001-2005 aldirian eta % 5,1era 2005-2009 aldirian.

Biztanleria ez-aktiboaren zifren beherakadaren dezelerazioa batez ere gizonezkoen biztanlerian ikusitako bilakaerari lotzen zaio, % 10,4ko hazkundearekin 2007-2009 aldiriko biztanleria ez-aktiboaren zifretan. Inaktibitatearen hazkunde-erritmo hori aurreko aldirian ezezaguna bada ere, neurri batean Eurostat/BJA metodologiaren orientaziora lotuta, gizonezkoen arteko biztanleria ez-aktiboaren oro har goranzko joera errealitatea da 2003tik aurrera. Gizonezkoen biztanleria ez-aktiboaren bolumenaren hazkundea 2003-2005 aldirian sumatzen da lehenik, % 0,1eko hazkundearekin, 2005-2006 aldirian % 0,7ra iristen dena. 2003tik 2009ra bitartea 2006-2007 aldirian baina ez sumatzen gizonezko biztanleria ez-aktiboaren bolumenaren beherakada-une bat (% -1,2).

²⁷ Langabeekin bezalaxe, atal honetan ere BJA metodo zaharreko datuak baliatu ditugu 2001. urtera arte (urte hori barnean hartuta), eta hortik aurrera, Eurostat/BJA metodologia berriarekin lan egin dugu.

Inaktibitate-zifren beheranzko joera indartu egiten da, aldiz, emakumeen artean. Emakumezkoen biztanleria ez-aktiboaren beherakada-erritmoa indartu eta guzti egin zen 2007-2009 aldian, % 8,4ko jaitsierarekin, 2005-2007 aldiko % 4a gainditzen duena. Oro har, 2005-2009 laurtekoaren % 12,1eko beherakadak 2001-2005 aldiko % 6,8a gainditzen du, edo 1993-1997 aldiko % 5a, baina baita 1997-2001 laurtekoaren % 9,5a ere. Emakumeen arteko inaktibitatearen beherakada absolutuaren benetako garrantzia erabakigarria da, zalantzarik gabe: 1997-2009 aldiko ez-aktiboaren bolumeneko murrizketa absolutuaren % 79,8 ere emakumeei lotzekoa da.

Adina kontuan izanda, 2007-2009 aldian biztanleria ez-aktiboaren bolumenean izandako beherakada handienak 35 urtetik gorakoei dagozkie, % 5,9an dauden zifrekin 35-49 urtekoen artean eta % 5,1ean 50 urtetik gorakoaren artean. Aitzitik, biztanleria ez-aktiboaren bolumenak gorakoa egiten du 25 urtetik beherakoetan eta 25-34 urtekoen artean (% 3,1 eta % 4,3, hurrenez hurren).

Inaktibitate-zifrek, dena dela, bilakaera nahiko desberdina islatzen dute adin-taldeen arabera azken urteetan. Hasteko, 2007-2009 aldian inaktibitate-zifren beherakada-prozesuarekin jarraitzen duten taldeei erreparaturaz gero, 35-49 urtekoen artean egiazta daitekeenez, 1997-2001 aldian % 3,3 eskaseko murrizketa izan ondoren, ez-aktiboaren bolumenaren beherakada bizkortu egiten da ordutik aurrera, % 8,3aren 2001-2005 aldian eta % 9,5arekin 2005-2009 aldian. Oro har, 35-49 urtekoek beren biztanleria aktiboa 2005-2009 aldian % 19 jaitsi dela ikusten dute, adin horietan jarduera-tasen hazkundeari lotzen zaio prozesuaren barruan.

50 urtetik gorakoei dagokienez, 1997-2009 aldian EAEren batez besteko mailak baino nabarmen txikiagoak diren biztanleria ez-aktiboko zifren beherakada-erritmoak ikusten dira, inaktibitate-zifren gorakada jakinei lotuta.

1997-2001 aldian izandako beherakada garrantzitsuaren ondoren (% -5,9, aldi horretan 25 urtetik beherakoaren artean gairiturikoa), % 1,4ko lehen hazkunde bat sumatzen da adin horretan ez-aktiboaren kopuruan 2001-2003 aldian. Zifren beheranzko joera (% -1,9 2003-2005 biurtekoan eta % -1,4 2005-2006 aldian) 2003-2006 aldian berreskuratu bazen ere, 2006-2007 aldian % 1,3ko gorakada izan zuen berriz ere biztanleria ez-aktiboko bolumenak 50-64 urtekoen artean. 2007-2009 aldian, dena dela, biztanleria ez-aktiboaren bolumenak nabarmen gairiditzen du EAEren batez bestekoa (% -5,1 eta batez besteko zifra, aldiz, % -2,2). Oro har, 50 urtetik gorakoek biztanleria aktiboaren beren bolumena % 11,2 jaisten ikusi dute 1997-2009 aldian, 35-49 urtekoen artean ikusitakoaren nahiko azpitik, horrenbestez.

% 39,9arekin, 1997-2009 aldiko biztanleria ez-aktiboaren zifraren beherakada handiena, dena den, 25 urtetik beherako biztanleriari dagokio. 1997az geroztik adin-talde horretako biztanleria ez-aktiboaren bilakaeran izandako noranzko-aldaketa nabarmenaren adierazgarri da hori. Izan ere, 1993-1997 aldian % 5,5ko hazkundera izan ondoren, adin horietako biztanleria ez-aktiboa % 24,8 jaitsi zen 1997-2001 aldian eta % 16,9 2001-2005 aldian, 2001-2005 adian ere jaitsiera-erritmo garrantzitsuak atxikita, % 6,8ko jaitsierarekin bi urte eskasean. Kasu horretan, ordea, bilakaera honako honekin lotzen da neurri handi batean: lehengo mende amaierako krisi demografikoaren ondorioz, 25 urtetik beherakoetan guztirako bolumenak izandako jaitsiera.

25 urtetik beherakoen egoeraren azterketak, haatik, zenbait alderdi espezifikoko sartzen ditu 2007-2009 aldian, eta berriz ere islatzen duen —1993-1997 aldian ere gertatzen zenez eta krisi demografikoari loturiko efektiboen murrizketa gorabehera— pertsona ez-aktiboen kopuruaren gorakada bat. Krisiaren eraginari esker % 3,1eko gorakada gertatu da adierazitako biurtekoan 25 urtetik beherako biztanleria ez-aktiboaren zifretan.

Joera desberdinena 25-34 urteko kolektiboak du. 2001-2003 aldian jaitsiera garrantzitsua gertatu bazen ere, adin horietako ez-aktiboen kopuruak goranzko joera agertzen du 1997-2006 aldian. 25-34 urtekoen biztanleria ez-aktiboaren zifrak, 1993-1997 aldian % 10,8ra jaitsitakoak, % 4,8 egin zuen gora 1997-2001 aldian eta % 7,2, aldiz, 2001-2006 aldian. 2006-2007 aldian jaitsiera handia izan ondoren (% -6,9), adin horietako inaktibitate-zifrek % 4,3 gora egin dute berriz ere 2005-2009 aldian. Oro har, 25-34 urteko biztanleria ez-aktiboaren bolumena % 9,2 handiagoa da 2009an 1997ko zifra baino. Adin-talde guztien artean EAEn ikusitako hazkunde bakarra da, aldi historiko horretan EAEn ugalkortasuna erakutsitako goranzko susperraldiarekin lotuta neurri handi batean.

**16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(2005-2009 aldian)²⁸
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak			Hazkundera %-tan		
	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05
Gizonak	141.107	140.310	154.852	-0,6	10,4	9,7
Emakumeak	295.217	283.292	259.429	-4,0	-8,4	-12,1
< 25 urte	117.702	109.710	113.117	-6,8	3,1	-3,9
25-34 urte	42.685	41.376	43.163	-3,1	4,3	1,1
35-49 urte	83.252	80.040	75.309	-3,9	-5,9	-9,5
50-64 urte	192.684	192.477	182.692	-0,1	-5,1	-5,2
Guztira	436.324	423.602	414.282	-2,9	-2,2	-5,1

²⁸ 2001. urtera arte —urte hori barnean hartuta—, BJA metodologia zaharraren arabera aurkeztu ditugu LMEaren zenbatekoak.

Eskualde-datuen azterketa bereziki interesgarria da inaktibitate-zifren beherakadaren moteltze-prozesuaren azpian dagoen logikan sakontzeko. Puntu horri dagokion daturik deigarriena 2007-2009 krisialdian euskal eskualde gehienetan egiaz ikusten den biztanleria ez-aktiboaren zifren gorakada da, EAeko adierazle orokorrean izandako beherakadaz haratago. Horrelako biztanleriaren bolumenaren hazkundera % 3,5-5,1eko mailetan dago Eskuinaldean, Durangaldean eta Debabarrenean, eta % 10eko zifrara edo hortik gorakoetara hurbiltzen da Aiaraldean, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Eskualde horietan guztietan zifren gorakada horien emaitza inaktibitate-tasen hazkundera ere izaten da.

Adierazitako gorakaden emaitza orokorrean biztanleria ez-aktiboaren zifren hazkundera izan da 2005-2009 laurtekorako, 2005-2007 aldian eskualde horien arteko askotan ikusitako inaktibitate-zifren jaitsiera konpentsatuta. Adierazitako eskualdeen artean, Tolosa-Goierri soilik gehitu dira inaktibitate-zifrak kontuan harturiko laurtekoaren bi biurtekoetan. Eskualde horretan hazi da beste inon baino gehiago biztanleria ez-aktiboa 2005-2009 aldian, % 11,4, Debagoienaren % 8,2aren eta Eskuinaldearen % 4,8aren gainetik, Aiaraldea eta Durangaldea % 2tik azpitiko zifretan daudela. Debabarrenean, 2005-2007 aldian bere biztanleria ez-aktiboak izan duen jaitsiera handiaren eraginez, beheranzko emaitza garbia ere islatzen du biztanleria ez-aktiboaren zifretan 2005-2009 aldirako (% -11,2).

Bestalde, adierazi behar da Eskuinaldea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena direla, hau da, 2005-2009 aldian biztanleria ez-aktiboaren beren zifrak % 5etik hurbileko edo hortik gorako mailetan hazten ikusi dituzten eskualdeak, nabarmentzen diren bakarrak beren inaktibitate-tasek 2005-2009 aldia osorako baterako hazkundera izan dutelako (+1,2 puntu Eskuinaldean, +2,9 Tolosa-Goierri eta +3 Debabarrenean).

Debabarrenean ikusitakoaren aurkako zentzuan, beste euskal eskualde batean, Bizkaia-Kostan, 2005-2007 aldian biztanleria ez-aktiboaren zifretan izandako % 4,3ko gorakada handiaren eraginez, 2007-2009 aldiko % 3,9ko jaitsiera gorabehera, hazkunde txiki bat izan da inaktibitate-zifretan 2005-2009 laurteko osorako (% +0,2).

Beste bi eskualdetan inaktibitate-zifren beherakadaren euspenaz ere hitz egin daiteke 2007-2009 aldiari dagokionez, 2 puntuko pasatxoko murrizketa soilekin Gasteizko eta Donostialdeko biztanleria ez-aktiboaren bolumenean. Gipuzkoan joera hori % 1 inguruko beherakadekin lotzen da 2005-2007 aldian zein 2007-2009 aldian, eta Gasteizen, alde, 2007-2009 aldiko % 4,6ko beherakada kontrastean dago aurreko biurtekoari dagokion % 2,3ko gorakadarekin. Dena den, bilakaeraren zati bat adin aktiboan dagoen biztanleriaren guztizko bolumenaren hazkunderarekin lotzen da, eta eskualde horretan izango du jaitsierarik handienetakoa inaktibitate-tasak 2005-2009 aldian (-2,3 puntu)

Bilbo eta Ezkerraldea, bestalde, arestian adierazitako joeretatik urruntzen dira, eta % 5etik gorako beherakada-erritmoei eusten diete beren inaktibitate-zifretan, 2005-2007 biurtekoan zein 2007-2009 biurtekoan, eta Ezkerraldean beheranzko joera bizkortu egingo da azken biurteko horretan (% 9, eta % 5,3, aldiz, 2005-2007 aldiran). Bi eskualde horietan, inaktibitate-zifren beherakadak % 13 gainditzen du 2005-2009 laurteko osorako, Debabarreneko % 11,2arekin soilik aldera daitekeen beherakadarekin. Bilakaera horren emaitza 2005-2009 aldiran inaktibitate-tasek Bilbon, Ezkerraldean eta Debabarrenean izandako beherakada da (4,4 puntu, 4,2 puntu eta 3,2 puntu, hurrenez hurren).

1997-2009 aldi osoan, inaktibitate-zifren beherakada, dena dela, arau da euskal eskualde guztientzat, % 20tik gorako zifrekin Bilbon, Ezkerraldean eta Gipuzkoako eskualde guztietan. Zifra % 15 inguruko mailetan atxikitzen da Eskuinaldean eta Durangaldean eta % 5etik hurbil dauden mailalara jaisten da, aldiz, Gasteizen, Aiaraldean eta Bizkaia-Kostan.

Inaktibitate-tasen beherakadak eraginpean hartzen ditu, halaber, euskal eskualde guztiak 1997-2009 aldiran, tasetako 6-7,5 puntuko murrizketekin horietako gehienetan. Gainera, Ezkerraldeak, 1997an inaktibitate-tasa handiena duen eskualdeak, 11,2 puntuko murrizketa lortzen du. Aitzitik, beherakada 4,9 puntura mugatzen da Bizkaia-Kostan, 4,2ra Gasteizen eta 3,2ra Aiaraldean, 1997an Donostialdearekin batera inaktibitate-maila txikiak izateagatik nabarmentzen diren eskualdeetan. Adierazitako hiru eskualde horietatik, Gasteiz baino ez dago 2009an EAEko inaktibitate-tasa duten eskualdeen artean.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2009 aldira)

(Datu absolutuak, hazkunde eta inaktibitate-tasaren aldaketak %-tan)

Eskualdea	Ez-aktiboak				Hazkunde %-tan			Inaktibitate-tasa			
	1997	2005	2007	2009	07/05	09/07	09/05	1997	2005	2007	2009
Gasteiz	52.747	51.558	52.755	50.346	2,3	-4,6	-2,4	30,8	28,9	29,3	26,6
Aiaraldea	9.569	8.927	7.822	8.974	-12,4	14,7	0,5	33,7	31,3	27,8	30,5
Eskuinaldea	41.801	34.490	34.411	36.157	-0,2	5,1	4,8	38,4	31,2	31,2	32,4
Bilbo	88.776	77.692	71.847	67.250	-7,5	-6,4	-13,4	35,9	33,3	31,2	28,9
Ezkerraldea	115.214	89.199	84.507	76.885	-5,3	-9,0	-13,8	40,2	33,1	32,2	28,9
Bizkaia-Kosta	25.780	24.131	25.166	24.184	4,3	-3,9	0,2	34,1	30,9	30,8	29,3
Durangaldea	29.103	23.751	23.242	24.167	-2,1	4,0	1,8	37,1	30,7	29,2	29,8
Donostialdea	106.696	84.390	83.513	82.497	-1,0	-1,2	-2,2	34,1	27,5	27,2	26,6
Tolosa-Goierrri	27.301	18.587	18.839	20.700	1,4	9,9	11,4	36,0	25,6	26,2	28,5
Debagoiena	16.168	11.187	10.852	12.104	-3,0	11,5	8,2	36,3	26,4	26,8	29,4
Debabarrena	14.435	12.412	10.649	11.019	-14,2	3,5	-11,2	37,0	34,2	30,2	31,0
Guztira	527.592	436.324	423.602	414.282	-2,9	-2,2	-5,1	35,9	30,4	29,7	28,5

Etsia hartutako biztanleria aktiboari dagokionez, deigarria da kolektibo horrek erakusten duen gorakada handia 2007-2009 aldian. Egoera horretan dagoen pertsonen bolumena 2007ko 4.738tik 2009ko 14.649ra igaro da. Eraginpeko pertsonen zifrak hiru bider baino gehiagoan gainditzen du 2009an 2007koa.

Ikusitako bilakaerak 2007-2009 biurtekoan Euskadin enplegu-baldintzek izandako okerragotze nabarmena, 1997-2007 aldian izandako hobekuntzako prozesu nabarmenaren ondoren. Krisiaren eragina hain da deigarria, ezen 2009ko etsia hartutako pertsona ez-aktiboaren zifrak % 39,5ean gainditzen duen 1997ko 10.505eko zifra, eta zifra hori 2007. urtera arte ondorez erregistraturikoak baino askoz ere handiagoa da.

**Etsia hartutako 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
(1997-2009 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

	Absolutuak						Hazkundera %-tan
	1997	2001	2003	2005	2007	2009	2009/2007
Etsia hartutako ez-aktiboak	10.505	4.535	4.267	7.001	4.738	14.649	209,2

Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kolektiboaren bilakaera arreta bereziarekin da kontuan hartu beharrekoa. Egiaztatu ahal izan denez, jarduera neurtzeko metodologian aldaketak sartuz geroztik garrantzi handia hartu du talde horrek, zeren BJA metodologia aldatu aurretik, kolektibo hori biztanleria langabearen multzoan, oro har, sailkatzen baitzen.

Pertsona ez-aktiboaren talde horretan, 2007-2009 aldian ere gorakada gertatu da, 2007ko 15.380 kasuetatik 2009ko 23.243 kasuetara, eta zifra hori % 2,7 baino ez da 2001ekoa baino txikiagoa. 2006ko 20.882 pertsonako zifra baino handiagoa bada ere, 2009ko zifra, dena dela, 2005ean ikusitako 31.433 pertsonako gehienekoa baino % 26,1 txikiagoa da.

2007-2009 aldiko datuen bilakaerak goranzko joera bat islatzen du, aldi horretan izandako langabeziaren hazkunde indartsuaren testuinguruan balioetsi beharrekoa. Horrela, biurteko horretan izandako langabeziaren gorakada-prozesuaren indarra berresten du adierazleak, langabezia-zifren igoeraren norabide berean mugituta. Kasu horretan, dena den, hazkunde-indarra langabeziari buruzko dinamika aztertzerakoan ikusitakoa baino dezente txikiagoa da.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
(2001-2009 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

	Absolutuak				Hazkundera %-tan				
	2001	2005	2007	2009	05/01	07/05	09/07	09/05	09/01
Lanerako prest dauden	23.893	31.433	15.380	23.243	31,6	-51,1	51,1	-26,1	-2,7

Ez-aktiboaren guztizko kolektiboaren barran lanerako prest dagoen biztanleriaren indarraren bilakaerak ikusitako aldakuntza garrantzitsuak ditu ezaugarritzat, horietako asko ildo desberdinekoak. Ildo horretan, 2001-2003 aldian % 4,9tik % 3,2ra jaitsi ondoren, proportzioa % 7,2ra igo zen 2005ean 2006an % 4,9ra eta 2007an % 3,6ra jaisteko. 2005eko mailetara iritsi gabe ere, adierazlea % 5,6ra igo zen 2009an, 2001-2009 aldiko bigarren maila handienara, hain zuzen ere.

Garrantzitsua da 2001-2009 aldian ikusitako bilakaera azterturiko adierazlea aztertzea, arreta berezia emanaz 2007-2009 aldian ikusitako hazkunderaren ildoari, baina baita inaktibitate-egoera batekin lotuta prestasun-egoeren intzidentzia handieneko bi urteei ere hau da, 2005. eta 2009. urteei.

Sexuari dagokionez, pertsona ez-aktiboaren enplegurako prest egoteko tasaren hazkunde askoz handiagoa ikusten da 2007-2009 aldian gizonen artean. Tasa, kasu horretan, 3 puntu hazi da adierazitako biurtekoan, eta emakumeen artean, aldiz, 1,3. Bi kasuetan 2005koekin alderatuta txikiagoak badira ere, tartea txikiagoa da gizonen artean (-1,2 puntu eta -2 puntu, aldiz, emakumeen artean). Gainera, adierazlea gizonen artean 2009an 2001eko baino askoz ere handiagoa bada ere (% 7,4 batetik eta % 5 bestetik), hamarren bat txikiagoa da emakumeen artean (% 4,5 batetik eta % 4,6 bestetik). Azterturiko egoeren eraginak azken urteetan gizonen artean nabarmenki hazteko joera du.

Adina kontuan hartuta, 2007-2009 aldiko gorakada 25-39 urtekoei dagokie batez ere, kasu horietan enplegurako prest egoteko tasaren 6 puntutik 9 puntura bitarteko hazkundera pertsona ez-aktiboetan. Betiere 2005eko gehienekoen azpitik, batez ere 25-34 urtekoen artean, 30-34 urtekoen kasuan baino ez dute nabarmen gaitzen, dena dela, 2001eko adierazlea.

2007-2009 aldian ikusitako hazkundera 35-39 urtekoena baino zertxobait txikiagoa da, baina nabarmen oraindik ere, 50-54 urtekoen kasuan, eta dezente txikiagoa da, aldiz, 45-49 urtekoen artean (+1,7). Dena den, pertsona ez-aktiboaren enplegurako prest egoteko tasak 2001ekoak baino 3 puntu handiagoak dira adin horietan, eta 2005eko zifretatik hurbil daude oro har. Hori

horrela, 2007-2009 aldiko gorakadaren intzidentzia bereziki deigarria da kontuan harturiko adin-taldeetan.

25-54 urtekoen multzoa kontuan hartzean, egiazta daiteke 2007-2009 aldian soilik jaisten dela azterturiko adierazlea 40-44 urtekoen artean (-1,3). Adierazlea, bestalde, puntu 1eko gehieneko zifretan hazten da 25 urtetik beherakoetan edo 55 urtetik gorakoetan. Adin-talde horietan, 2009ko tasak 2005ekoak baino txikiagoak dira betiere, baina 2001eko baino zertxobait handiagoak ere bai, oro har.

Eskualdeari gagozkiola, lanerako prest dauden pertsonen buruzko adierazlea handitu egin da 2007-2009 aldian 3,5-3,6 puntuan Durangaldean eta Donostialdean, 5,4 puntuan Tolosa-Goierri eta 6,6-6,8 puntuko zifretan Eskuinaldean eta Debabarrenean. Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, 2009ko zifra da 2001-2009 aldiko handiena, betiere puntu batean baino gehiagoan gaudituta 2005eko adierazlea. 2009ko zifra 2001eko baino nabarmen handiagoa da Durangaldean eta Donostialdean, baina kasu horretan puntu eskas batean 2005eko gehienekoaren azpitik.

Pertsona ez-aktiboen enplegurako prest egotearen adierazlearen hazkundeak 2009an ere gaudituta egiten du 2007ko Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan (+1 eta +1,5 puntu, hurrenez hurren). Bizkaia-Kostan 2009ko zifra 2001-2009 aldiko handiena da, eta Ezkerraldean, aldiz, 2009ko adierazlea 2 puntu dago 2005eko zein 2001eko zifraren azpitik.

Adierazitako eskualdeetan ez bezala, enplegurako prest dauden pertsona ez-aktiboen proportzioa praktikan gelditu egiten da 2007-2009 aldian, bi hamarren eskaseko hazkundearekin. Debagoienean ere 0,4 puntuko beherakada du, eta puntu 1etik gora murriztu da Arabako eskualdeetan (-1,6 Gasteizen eta -1,2 Aiaraldean). 2009ko zifrak 3 puntuan baino gehiagoan dira txikiagoak Aiaraldean eta Bilbon 2005ekoekin alderatuta, eta egoera hori Gasteizera ere extrapola daiteke, kasu horretan 2006ko zifra biltzen bada, eskualde horretako pertsona ez-aktiboen proportzioa urte horretan % 6,2ko gehienekoraino eramaten baitu. Eskualdeen talde horretan, Debagoiena da 2009ko adierazlea 2001eko adierazlearen gainetik duen eskualde bakarra, 2005ekotik hurbil dagoen maila atxikita.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
sexuaren, adinaren eta eskualdearen arabera
(2001-2009 aldia)**

(Ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-tan)

	2001	2003	2005	2007	2009
Sexua					
Gizona	5,5	4,8	8,7	4,5	7,4
Emakumea	4,6	2,4	6,5	3,2	4,5
Adina					
16-19	0,8	0,7	2,1	1,0	1,1
20-24	4,6	3,8	8,2	5,2	6,2
25-29	20,0	10,3	23,5	7,0	15,5
30-34	12,5	10,6	20,4	8,7	17,4
35-39	14,4	7,9	15,1	8,5	14,7
40-44	7,6	8,3	12,4	10,9	9,6
45-49	4,4	3,3	9,0	5,9	7,6
50-54	4,2	2,0	6,6	3,3	7,5
55-59	2,0	1,8	4,0	1,5	2,2
60-64	0,5	0,4	1,1	0,1	,7
Eskualdea					
Gasteiz	2,9	2,3	4,1	4,9	3,3
Aiaraldea	5,8	4,5	7,2	5,0	3,8
Eskuinaldea	5,6	3,0	6,9	2,7	9,3
Bilbo	6,3	3,1	12,1	4,8	4,9
Ezkerraldea	7,0	5,2	7,2	3,9	4,8
Bizkaia-Kosta	4,0	0,9	3,5	3,9	5,4
Durungaldea	3,6	4,7	8,0	3,8	7,2
Donostialdea	4,0	3,2	6,7	2,2	5,8
Tolosa-Goierra	1,9	0,7	5,7	1,6	7,0
Debagoiena	4,3	0,3	5,9	5,9	5,5
Debarrena	2,1	0,1	3,2	1,2	8,0
Guztira	4,9	3,2	7,2	3,6	5,6

6. Lanerako prest dagoen biztanleria

Biztanleria landunari eta ez-aktiboari buruzko datuetan ikusi den bezala, EAEko lan-merkatuan lan-indarraren eskaintza ez da langabeen taldera soilik mugatzen (talde horretako batzuk, gainera, jada ez daude egiaz lanerako prest, jada aurkitu duten beste lan batean hastear baitaude). 2009. urteko laugarren lauhilekoan, beste lan bat lortzeko prest dauden pertsonen egiazko kopurua EAEn 148.353 pertsona da, kasu horien % 60 langabeek osatzen dutela eta % 24,3 landunek²⁹ eta % 15,7 Eurostaten araudian inspiraturiko BJA metodologia aplikatuta ez-aktibotzat harturikoeak. Termino absolututan, talde horretan 89.031 langabe daude, 36.079 landun eta 23.243 ez-aktibo.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko duten loturaren arabera (Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Jarduerarekiko harremana	Absolutuak	%
Landuna	36.079	24,3
Langabea	89.031	60,0
Ez-aktiboa	23.243	15,7
Guztira	148.353	100

Oharra: Landunen kasuan, inkesta egin zen garaikoa ez den beste enplegu batean hasteko prest egon behar dute. Langabezian egonda baina beste lan batean noiz hasiko zain dauden langabeak ez dira barnean hartu.

Kolektibo hori ikuspegi ebolutibo batean kontuan hartzean, euskal lan-merkatuaren irudiak ageri-agerian islatzen du 2007-2009 aldiko bere krisialdia, % 108,5 gehituta enplegurako prest dauden 16-64 urtekoen kopurua, 2007ko 71.146ko zifrarekiko.

Hazkunde handiena, % 184,2arekin, langabeei dagokie 2007-2009 aldian, enplegurako prest dauden pertsona ez-aktiboak dagokien 51,1aren gaineratik eta 15 eguneko epean beste lanpostu berri baten hasteko prest egongo liratekeen landunen % 47,7aren gaineratik. Langabeek egiten dute, halaber, ekarpenik handiena, % 74,7arekin, 2007-2009 aldian enplegurako prest dauden 77.207 pertsona berrien hazkunderako. Zifra % 15,1 da landunei dagokienez, eta % 10,2 lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboak dagokienez.

Bestalde, adierazi beharrekoa da, 2009an enplegurako prest dauden 148.353 pertsonak % 11,5eko hazkundera direla 2001eko datuarekiko, kasu honetan Eurostat/BJA metodologia berriari jarraiki neurturikoa alderaketak errazteko. Hazkundera % 7,5 da beste enplegu bat

²⁹ Gogoan izan puntu honetan honako hauek bakarrik kontuan hartzen direla: beste enplegu bat bilatzen ari diren eta 15 egunetan lan hori lortzeko prest dauden landunak.

bilatzen ari diren landunei dagokienez, baina % 12,9 lanerako prest dauden langabeen eta pertsona ez-aktiboen baturari dagokionez (112.274 kasu 2009an eta 99.459 2001ean).

Garrantzitsua da egiaztatzea 2009ko lanerako prest zeuden 112.274 langabe eta pertsona ez-aktiboak 2001-2009 aldiko zifra handiena direla, 2001eko 99.459ko eta 2003ko 100.241eko kopuruak gaindituta.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera³⁰
(2001-2009 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-tan)

Jarduerarekiko harremana	Absolutuak					Hazkundera %-tan
	2001	2003	2005	2007	2009	09/07
Landuna	33.575	28.027	35.242	24.435	36.079	47,7
Langabea	75.565	86.504	49.100	31.330	89.031	184,2
Ez-aktiboa	23.893	13.737	31.433	15.380	23.243	51,1
Guztira	133.033	128.268	115.775	71.146	148.353	108,5

2007-2009 aldiaren ikusitako bilakaera negatiboaren emaitza lanerako prest dauden pertsonen proportzioaren edo prestasun-tasaren hazkundera handia da, 16-64 urteko biztanleriari dagokionez.

Bilakaera hori haustura da 2003-2007 aldiko beheranzko bilakaeran. Horrela, 2001-2003 aldiaren % 9-9,5eko mailetatik hurbil egon ondoren, 2003-2005 aldiaren nabarmendu zen prestasun-tasaren murrizketa garrantzitsu bat, azken urte horretan % 8,1era iritsita. Beherakada deigarriena, dena den, 2005-2007 aldiari dagokio, 2006an tasa % 6an eta 2007an % 5ean zegoelarik.

2007-2009 aldiko krisiaren ondorioz, % 10,2an kokatu zen prestasun-tasa 2009ko amaieran, aldiko tasa handienera iritsita eta 5,2 puntu 2007an lorturiko gutxienekoaren gainetik.

³⁰ Atal honetan aurkezten diren 2001eko datuak Eurostat/BJA metodologia berriari dagozkio.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera
(2001-2009 aldia)
(Prestasun-tasa, %-tan)**

Urtea	Prestasun-tasa
	%
2001	9,3
2003	9,1
2005	8,1
2007	5,0
2009	10,2

Aurreko urteetan ikusitakoa ez bezala, gaur egun enplegurako prest dagoen biztanleriaren zati handi bat, guztizkoaren % 53, gizonek osatzen dute. Izan ere, prestasunaren intzidentzia puntu bat handiagoa da gizonetzkoen artean 2009an: % 10,7 gizonetan eta % 9,7 emakumeetan.

Aurreko errealitate hori ez zaio krisialdiaren azkenaldiko eraginari lotzen soilik, gizonen artean prestasun-tasaren 6,5 puntuko hazkundearekin 2007-2009 aldian eta 3,9 puntukoarekin emakumeen artean. Emakumezkoen biztanleriak 2001-2007 aldian izandako bilakaera hobeari ere erantzuten dio.

Aldi horretan ikusten denez, tasetan konbergentzia-prozesua nabarmena gertatu da generoaren arabera. Horrela, bada, 2001ean 4 puntuko aldea zegoen emakumearen kaltetan eta 2007an, ordea, 1,6ra igaro da alde hori. Tasa 5,5 puntu jaitsi da 2001etik 2007ra bitartean emakumeetan (% 11 izatetik % 5,8 izatera igaro da) eta gizonetan, ordea, jaitsiera 3,2 puntukoa da (% 7,3tik % 4,2ra murriztu da).

Krisialdian, emakumezkoek eusteko ahalmen handiagoa erakusten dute, aldean noranzkoa aldatuta, oraingoan emakumearen alde. Dena den, ikusi ahal izan denez, emakumezkoen adierazleen bilakaera bereizgarri hobea duten epe luzeagorako testuinguru batean egikaritzen da prozesua.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan)**

Sexua	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2007	2009
Gizona	78.686	53,0	7,3	6,9	4,2	10,7
Emakumea	69.667	47,0	11,4	9,2	5,8	9,7
Guztira	148.353	100	9,3	8,1	5,0	10,2

Lanerako prest dagoen biztanleriaren bi heren inguru, guztizkoaren % 66,7, 20-39 urteko tartean kontzentratuta daude, 20-29 urtekoen % 32,1arekin, eta 30-39 urteko % 34,6arekin. 40-49 urteko pertsonak beste % 18,5 garrantzitsu bat dira, 50 urtetik gorakoak % 13,2 eta 20 urtetik beherakoak % 1,7 eskasa.

20 urtetik beherakoak salbuespen izanik (horietatik % 3,5ek soilik baitio prest dagoela lan berri bat lortzeko), 20 urtetik gorakoaren artean, fenomeno horrek gazteenen artean lortu ditu mailarik handienak, eta adinean aurrera egin ahala, intzidentzia murriztu egiten da. Gehieneko mailak, izan ere, 20-29 urtekoen artean sumatzen dira, adin horietan biztanleriaren % 20 inguruk adierazten baitu beste enplegu bat lortzeko prest dagoela (% 20,9 20-24 urtekoen artean, % 18,1 25-29 urtekoen artean). Dena dela, zifrak oraindik ere nabarmen hurbiltzen dira maila horietara 30-34 urtekoen artean, guztizkoaren % 16,2.

Zertxobait txikiagoak badira ere, tasek oraindik ere gainditu egiten dute % 10eko atalasea 35-39 urtekoen artean (% 12,1). Zifrak erlatiboki handiak dira oraindik (% 6,9-8,2ko mailak) 40-39 urtekoetan. Prestasun-tasak, aldiz, % 4,4 jaitsi dira 55-59 urtekoen artean, eta % 1,6 eskasean dago 60-64 urtekoen artean.

Prestasun-tasaren azkenaldiko bilakaerak adin guztien okerragotze orokortua erakusten du. Dena den, 20-39 urtekoen artean ikusten da beste edozein tartetan baino gehiago prestasun-tasaren hazkunde handiena, eta goranzko noranzkoan gainera, adinak behera egiten duen neurrian: 6,1 puntu 35-39 urtekoetan, 9 puntu inguru 25-34 urtekoetan eta 11,1 20-24 urtekoetan. 2001ean prestasun-tasa handienak dituzten adin-taldeak ere badiren arren, gorakada handiak ikusten dira, halaber, 2001-2009 aldian 20-24 urtekoen artean (% 16tik % 20,9ra) eta 30-34 urtekoen artean (% 13,2tik % 16,2ra). Zifrak % 18 inguruan atxikitzen dira 25-29 urtekoen artean eta % 12 inguruan 35-39 urtekoen artean.

2007-2009 aldiko hazkundea zertxobait txikiagoa bada ere, garrantzitsua ere bada, 2,7ko eta 4,5 puntuko hazkundera eta 40-59ko pertsonen artean. Adin horietan hazkunde deigarriena 45-54 urtekoen dagokien (+4,5 puntu 45-49 urtekoetan eta +3,9 50-54 urtekoetan). Adin-talde horietan azpimarratzekoak dira, halaber, 2,5 puntuko hazkundeak 2001. urtearekiko (% 5,7tik % 8ra 45-49 urtekoen artean eta % 4,4tik % 6,9ra 50-54 urtekoen artean).

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
adinaren arabera**
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan)

Adina	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2007	2009
16-19 urte	2.461	1,7	4,0	4,4	2,5	3,5
20-24 urte	21.938	14,8	16,0	13,7	9,8	20,9
25-29 urte	25.655	17,3	17,8	15,3	9,0	18,1
30-34 urte	29.189	19,7	13,2	11,1	7,1	16,2
35-39 urte	22.112	14,9	12,0	9,6	5,9	12,1
40-44 urte	14.089	9,5	7,9	7,3	5,1	8,2
45-49 urte	13.399	9,0	5,7	6,4	3,5	8,0
50-54 urte	11.226	7,6	4,4	4,1	3,0	6,9
55-59 urte	6.255	4,2	3,2	3,5	1,7	4,4
60-64 urte	2.029	1,4	,7	1,2	0,6	1,6
Guztira	148.353	100	9,3	8,1	5,0	10,2

Beste enplegu bat lortzeko prest dagoen taldean azpimarratzekoa da gehiengoak ikasketamailla handia duela. Horri dagokionez, biztanleria horren % 52,4k lanbide-heziketako edo unibertsitateko ikasketak ditu. % 18,2k profesionalak ez diren bigarren mailako ikasketak ditu, eta gainerako % 29,4ak ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu.

Ikasketamailla handiagoaren eta beste enplegu bat eskatzeko joera handiagoaren arteko erlazioa prestasun-tasak aztertzean nabarmentzen da hein batean. Egiaztatzen da, ildo horretan, prestasun-tasak nabarmen handiagoak direla bigarren mailako ikasketak dituzten kolektiboetan, % 11,5 inguruko prestasun-tasekin eta % 9,8 ingurukoak. aldiz, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonetan, eta % 11,7ko gehienekoa lortzen da, gainera, bigarren mailako ikasketak dituzten profesionalak dituzten pertsonetan.

Kontuan harturiko kolektiboetan, 2001ean ikusitakoaren antza hartzen du berriz ere 2009ko egoerak, ezaugarritzat prestasun-tasa askoz ere handiagoak direla bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 11 batetik eta % 7,5 azterketarik gabeko pertsonetan, lehen mailako ikasketak dituztenetan edo profesionalak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenetan). Izan ere, 2007-2009 aldiko tasen hazkundeak gora egiteko joera du ikasketamailla hobetzen den neurrian: 5,1 puntu lehen mailako ikasketetan, 5,9 profesionalak ez diren bigarren mailakoetan eta 6,4 bigarren mailako ikasketak dituzten profesionalak. Bilakaera horrek 2001-2007 joera hausten du, 5,8 puntuko beherakadarekin profesionalak ez diren bigarren mailako azterketak dituzten pertsonen prestasun-tasetan, profesionalak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten tituludunen 1,8 puntuen eta lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten pertsonen 2,9 puntuen oso gainetik.

Dena den, ikasketa-maila handiagoa duten pertsonen aldeko elementu bat ikusten da, batez ere titulazio tertziarioa badute. Kasu horretan, 2001eko errealitateak ere prestasun-tasen okerragotzea agertzen zuen ikasketa-maila handiagori lotuta, % 12,4ko gehienekoa lortuz unibertsitateko ikasketak dituztenen artean. Dena den, tasen hobekuntza gehienekoa zen 2001-2007 aldian talde horretan, 7,6 puntuan murriztuta 2007an % 4,8ra iritsi arte.

Azkenaldiko gorakadak kolektibo horren posizio hobea berresten da, 4 puntuko gutxieneko hazkundearekin 2007-2009 aldian, prestasun-tasa % 8,8ra eramanda 2009an. Lehen mailako ikasketak dituztenei dagokienarekiko zertxobait gainera dago 2007an, eta 2009a, aldiz, tasarik txikiena titulu tertziarioa edo unibertsitatekoa dutenei dagokie orain.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
ikasketa-mailaren arabera**
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan)

Ikasketa-maila	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2007	2009
Lehen mailakoak	43.645	29,4	7,6	7,0	4,6	9,8
Bigarren mailakoak	26.971	18,2	7,3	7,5	5,5	11,4
Profesionalak	41.096	27,7	11,0	9,2	5,2	11,7
Unibertsitatekoak	36.641	24,7	12,4	9,0	4,8	8,8
Guztira	148.353	100	9,3	8,1	5,0	10,2

Eskualde-eremuari dagokionez, hona hemen daturik esanguratsuenak: EAEn enplegurako prest dagoen biztanleriaren % 46,4 Bilbo inguruko hiru eskualdeetan bizi da, bereziki Bilbon eta Ezkerraldean (egoera horretan daudenen % 39,8 biltzen dute). Beste % 18,4 bat Donostialdean metatzen da, eta Gasteizen, lanerako prest daudenen % 14,3 biltzen da. Atzetik, Bizkaiko gainerako eskualdeak daude, % 11rekin, Gipuzkoako gainerakoak, % 8,5arekin, eta Aiaraldea, % 1,4arekin.

Termino erlatibotan, krisiaren eraginak berriz ere areagotu egin ditu eskualdeen arteko aldeak, prestasun-tasaren adierazlearen bidez neurtuta, 5,8 puntuko aldearekin gehien eta gutxien faboraturiko eskualdeen artean, argi eta garbi 2001ean izandako 9,3 puntuen azpitik baina 2007ko 3,5 puntuen gainera.

Barne-aldeak areagotzeko testuinguru horretan, zenbait alde tradizional azaltzen dira berriz ere, esaterako Ezkerraldea eraginpean hartzen duena. Eskualde hori, 2007an EAEn batez besteko mailetatik hurbil zegoena, % 12,6ko tasan zegoen 2009an, 2007an erregistraturiko % 5,2aren gainera eta 2001eko % 10,6aren gainera halaber.

Dena den, 2007-2009 aldian prestasun-tasa orokorrean hazkunde handia izan zuten (6,2-7,6 puntu) beste hiru eskualde 2007ra arte EAEn batez besteko prestasun-maila inola ere gainditzen ez zuten eskualdeak ziren. 2009an, haatik, Gasteiz, Durangaldea eta Debabarrena Ezkerraldearen antzeko mailetan daude, % 11tik % 11,7ra bitarteko prestasun-tasekin. Tasa horiek gainera 2,7 puntuko hazkundera dira 2001eko zifreakiko Durangaldean, 3,3 Gasteizen eta 7,7 Debabarrenean.

Aiaraldearen salbuespen bakarrarekin, 2007-2009 biurtekoaren prestasun-tasak 3,4-4,6 puntuan zeuden gainerako euskal eskualdeetan. Egiaztatzen denez, gorakada horrek ez du saihesten Eskuinaldean eta Bilbon egungo tasak 2001ekoak baino txikiagoak izaten jarraitzea, 2009an % 10eko mailak gainditzen dituen eskualdeetako bat Bilbo bada ere (% 10,9 eta % 8,9, aldiz, Eskuinaldean, euskal batez bestekoaren azpitiko tasekin eskualdeen artean bere posizioa sendotzen duen eskualdeak, 2007an ikusitakoaren ildotik). 2001-2009 aldian prestasun-tasaren gorakadak sumatzen badira ere Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Debagoienean, eta zertxobait nabarmenago, Tolosa-Goierriin, eskualde guztietan ere prestasun-tasak EAEn batez bestekoaren azpitik jarraitzen du, Debagoienaren % 6,9aren eta Bizkaia-Kostaren eta Donostialdearen % 8-8,9aren artean (% 7,7 Tolosa-Goierriin).

Aiaraldearen prestasun-tasaren hazkundera EAEn 2007-2009 aldian ikusitakoaren arteko txikiena da, eta 2,7 puntu eskasean hazi da aldi horretan (% 4,4tik % 7,1era), eta hori horrela, 2001. urtekoekiko 2,8 puntuan txikiagoak diren mailetan kokatzen da. Urte hartan EAEn batez bestekoren zertxobait gaineratik egotetik 2009an enplegurako prestasun-tasa txikiena duten bigarren eskualdea izatera igaro da Aiaraldea, Debagoienak gainditzen duela soilik.

Prestasun-tasa eskualdeko lan-merkatuaren egoera neurtzeko adierazle onenetako bat den neurrian, 2009ko errealitateak aldaketa garrantzitsu bat islatzen du dimentsio horretan gehien edo gutxien laboraturiko eskualdeen rankingean. 2001. urtearekiko oro har okerragotze-testuinguru batean bada ere, krisiaren ondorioz, euskal eskualde batzuek konparatiboki gehien laboraturiko beren posizioa atxikitzen dute, egoera horren ezaugarri prestasun-tasa txikiagoak direla. Egoera horretan adieraztekoak dira Bizkaia-Kosta eta Gipuzkoako eskualde guztiak, Debabarrena izan ezik.

Beste eskualde batzuek beren posizioa hobetu dute, 2001ean EAEn batez bestekoaren gaineratik zeuden zifretatik 2009an nabarmen txikiagoak diren tasetara igarota. Kasu horretan kokatu beharko genituzke Aiaraldea eta Eskuinaldea. Bere posizioa nabarmen hobetzen badu ere, 2001ean enplegurako prestasun-tasa handiena zuen eskualdea izateari utzi eta 2009an EAEn batez bestekotik hurbil kokatuta, Bilbo oraindik ere % 10etik gorako zifretan dago.

Komentatu dugunez, posizio-galera dute ezaugarritzat, aldiz, Gasteizek, Durangaldeak eta Debarrenak, 2001ean EAEn batez bestekoaren azpitiko prestasun-tasak izatetik (% 8,3ko gehienekoarekin Durangaldean) 2009an % 11ko zifrak gainditzera igaro baitira eskualde horiek, eta Ezkerraldeak soilik gainditzen ditu zifra horiek.

Alderdi negatiboenean, Ezkerraldea da, hain zuzen ere, 2009an prestasun-tasa handiena duena, % 12,6, EAEn batez bestekoaren 2,4 puntu gaintetik, urte horretan, dena dela, rankingaren posizio txarrenetan kokatzen bazen ere, Bilbok soilik gainditzen zuen tasarekin.

Esanguratsua da azpimarratzea, azkenik, 2009an enplegurako presta dagoen biztanleriaren bolumenaren banaketa 2001-2009 aldien beren posizioa okerragotzen ikusten duten lau eskualdeen garrantzia. Ildo horretan, Gasteizek, Ezkerraldeak, Durangaldeak eta Debarrenak 2009an dauden enplegu-eskatzaileen % 45,8 biltzen dute.

**Beste enplegu bat lortzeko prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
eskualdearen arabera**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-tan)

Eskualdea	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2007	2009
Gasteiz	21.217	14,3	7,9	5,4	5,0	11,2
Aiaraldea	2.089	1,4	9,9	5,9	4,4	7,1
Eskuinaldea	9.889	6,7	10,3	9,7	4,6	8,9
Bilbo	25.408	17,1	13,3	11,9	6,7	10,9
Ezkerraldea	33.580	22,6	10,6	9,7	5,2	12,6
Bizkaia-Kosta	7.373	5,0	7,3	6,4	5,3	8,9
Durangaldea	8.946	6,0	8,3	7,1	3,5	11,0
Donostialdea	27.245	18,4	8,4	7,0	4,7	8,8
Tolosa-Goierrri	5.619	3,8	5,7	6,0	3,2	7,7
Debagoiena	2.818	1,9	6,1	4,4	3,5	6,9
Debarrena	4.169	2,8	4,0	3,9	4,6	11,7
Guztira	148.353	100	9,3	8,1	5,0	10,2

7. Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa

Orain arte aurkeztutako datuak 2009. urtearen azken hiruhilekoan izandako jardueraren egoerari buruzkoak dira. Ikuspegi hori geldoegia denez, interesgarria da adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriak urte osoan lanarekin duen harremana aztertzea.

Azterketa hori egiten badugu, azken urte honetan Euskal Autonomia Erkidegoko 16-64 urteko biztanleriaren % 71,1ek enpleguarekin erlazioaren bat izan duela egiaztatuko dugu. Krisia gorabehera, proportzio hori 2006koa (% 71,4) eta 2007koa (% 71,9) baino hamarren gutxi batzuk txikiagoa baino ez da izan. Bestalde, 2001eko adierazlea (% 64,3) eta 2002koa (% 67,5) baino nabarmen handiagoa izan da. Halaber, 2003ko zifrak (% 69,6) eta 2005ekoak (% 70,5) gainditu ditu proportzio horrek:

Azken urtean, 16-64 urteko biztanleriaren % 5,7k 6 hilabete baino gutxiagotan izan du lana, % 3,5ek 6-9 hilabeteen, % 3,9k 9-12 hilabeteen, eta % 58,6k urte osoan, etengabe. Azken zifra hori, beraz, 2005ekoa eta 2006koa baino handiagoa izan da (% 57,8 eta % 58,6, hurrenez hurren), eta 2001-2003ko aldikoak baino askoz handiagoa (% 52,3 2001ean, eta % 53,6-53,7 2002an eta 2003an). Dena dela, 2007ko ehunekoa (% 60,9) baino 1,5 puntu txikiagoa izan da, urte osoan modu jarraituan landun izan direnen zifra absolutua 2007. urtearekin alderatuta % 0,8 murriztu izanaren ondorioz. Gainera, 2007-2009 aldian 16-64 urtekoen kopuruan izandako % 1,8ko gehikuntzaren testuinguruan gertatu da hori.

2009ko hamabi hilabeteetan beren enpleguan era jarraituan landun izan diren pertsonen proportzioak 2007ko zifrarekin alderatuta izan duen 1,5eko beherakada konpentsatu egin da, neurri batean, azken hamabi hilabeteen barruan noizbait landun izan diren 16-64 urteko biztanleen gehikuntzarekin (% 11 2007. urtean, eta % 11,8 2009an). Bilakaera hori urteko uneren batean enplegu bat lortzen duten, baina hamabi hilabeteetan enplegu horri era jarraituan eutsi ezin dioten biztanleen kopuruan izandako gehikuntza handiari lotuta dago. Pertsona horiek 156.760 ziren 2007. urtean, eta 170.670 2009an; beraz, % 8,9ko gehikuntza izan da.

9-11 hilabeteko aldi batean lan egin duten pertsonak % 2,5 gutxiago izan dira aldi horretan, baina aldaketa hori, azken batean, azken urtean 9 hilabete baino gutxiagotan lan egin duten pertsonen bilakaeraren ondorioa izan da. Kasu horretan, eraginpean hartutako pertsonak 114.595 ziren 2007. urtean, eta 129.552 izan dira 2009an; beraz, % 13,1eko gehikuntza izan da biurtekoan.

16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean emandako denboraren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2007. urtearekiko aldakuntza)

Lanean emandako denbora	2009	%	2007	Aldakuntza (%) 2009/2007
12 hilabete	862.015	59,4	868.793	-0,8
9-12 hilabete	41.117	2,8	42.164	-2,5
6-8 hilabete	46.790	3,2	39.947	17,1
< 6 hilabete	82.762	5,7	74.649	10,9
Batere ez	419.256	28,9	400.407	4,7
Guztira	1.451.941	100	1.425.959	1,8

Krisia gorabehera, eskuragarri ditugun datuek adierazten dute jarduerari dagokionez kategoriak oraindik ere oso irekiak direla, eta horrek eragina du langabezia-egoeretatik okupazio-egoeretara igarotzean nahiz jarduerari eta jarduerarik ezari dagozkien egoeretan.

Landunei dagokienez, 2009ko azken hiruhilekoan landunen % 9,2k ez du lan jarraitua izan urte osoan. Dena dela, datu horrek esan nahi du finkatu egin dela adierazle horretan 2006tik aurrera ikusi den beheranzko joera (% 13,6 2006. urtean, % 10,6 2007an, eta % 9,2 gaur egun). 2001etik 2003ra bitarte izandako gehikuntzen ondoren (adierazlea % 13,7tik % 15,4ra igo zen aldi horretan), beheranzko joerak 2003tik 2005era bitarte izan zenari jarraitu dio. Izan ere, azken urte horretan landun izan ziren pertsonen proportzioa % 12,7ra iritsi zen, eta 2006an gora egin zuen berriz ere (% 13,6). Nolanahi ere, adierazle horri jarraiki, lan-merkatuaren dinamismoa behera egiten hasi zen 2003. urtetik aurrera.

Hala ere, adierazi beharra dago lan-merkatuaren okupazio-dinamismoaren beheranzko joera hori lotuta dagoela, neurri handi batean, okupatutako lanpostuen epe luzerako finkatzearekin. Aldi berean, fenomeno hori finkatutako enpleguak dituzten pertsonen (eta, bereziki, kontratu mugagabea duten soldatapekoen) proportzioaren igoerari lotuta dago. Igoera horrek argitzen du zergatik diren handiak oraindik, krisi-testuingurua gorabehera, EAEko 16-64 urteko biztanleen okupazio jarraituaren zifrak (2001-2006ko aldikoak baino handiagoak eta 2007koek baino gaituztenak). Azken batean, Euskadin 2007an okupazio jarraituari lotuta zeuden lanpostuen % 99,2k jarraitzen du 2009an, zifra garbietan.

Lanik ez duen biztanleriari dagokionez, 2009. urtearen amaieran langabezia zeuden biztanleen % 47k erlazio motaren bat izan du enpleguarekin azken urtean. Zifra hori 2007koa baino handiagoa da (% 46,4), eta 2007an baino jende gehiago hartzen du eraginpean, EAEko langabezia-tasak gora egin baitu. Beste adierazle batzuk negatiboagoak izan badira ere, datu horrek erakusten du Euskadin lan-mugigarritasunari lotutako dinamika handia dagoela oraindik ere. Langabeak produkzio-sisteman txertatzeko ehunekoak 2001ekoak eta 2002koak baino

askoz handiagoak dira (% 35,3 eta % 40,9, hurrenez hurren), eta urte haietako langabezia-tasa gaur egungoaren antzekoa zen. Nolanahi ere, zifra horiek 2003koak (% 51,1) eta 2005. eta 2006. urtekoak (% 49 inguru) baino txikiagoak dira, eta horrek berretsi egiten du langabeentzat zailagoa izan dela okupazioaren munduan txertatzea 2003. urtetik aurrera.

Azken urtean enpleguarekin erlaziorik bat izan duten pertsonen proportzioa % 10,5era iritsi da biztanleria ez-aktiboan. Zifra horrek 2001eko eta 2002ko erregistroak gainditzen ditu (% 5,7 eta % 7,5, hurrenez hurren), baita 2005etik 2007ra bitartekoak ere (% 8,7-9,5). Halaber, lortutako zifrarik handiena ere gainditu du (% 9,8 2003. urtean). Adierazle horrek erakusten duenez, hasieran espero zena baino lan-dinamika handiagoa izan da.

Gaur egun langabezian edo ez-aktibo dauden biztanleek produkzio-sistemari egiten dioten ekarpen nabarmena gorabehera, egiazta daiteke sistema hori praktikan esparru itxi samarra dela eta, funtsean, gaur egun beren okupazio jarraituari eustea lortzen duten biztanleek kontrolatzen dutela. Horrela, beraz, gaur egungo landunek (16-64 urteko biztanle guztien % 65,2k) Euskadin 2009. urtean lan egindako hilabete metatuen % 95,7 hartzen dute. Gaur egungo langabeen eta ez-aktiboen kasuan, berriz, ehuneko hori % 2,1era baino ez da iristen, kolektibo horiek adierazitako adinetako biztanle guztien % 6,2 eta % 28,5 badira ere, hurrenez hurren.

Ikuspegi horretatik, nabaria da gaur egun lanik ez duen, langabezian dagoen edo ez-aktiboa den biztanleriak ekarpen txiki samarra egiten diola sortutako guztizko lan-masari. Hala ere, adierazi beharra dago azken urteetan igoera bat izan dela. Izan ere, % 2,6tik % 2,8ra bitarteko zifrak lortu ziren 2006an eta 2007an, eta % 4,3ra iritsi dira 2009an. Azken datu horrek, gainera, 2001etik (% 3) 2003ra (% 4,3, hau da, gaur egungoaren berdina) etengabe gora egin zuen, baina ondoren beherakada bat izan zuen (% 3 2005ean, % 2,8 2006an eta % 2,6 2007an) adierazle horren beheranzko joera hautsi du. Puntu horretan, beraz, lan-merkatuak Euskadin dinamismo txikiagoa islatu ordez, gaur egun lanik ez duten pertsonen enpleguari egindako ekarpena gero eta handiagoa dela esan daiteke, eta zirkunstantzia horrek ezeztatu egiten du biztanleria ez-aktiboa langabezia-egoerara edo inaktibitate-egoerara ohitzen dela dioen hipotesi oro.

16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko gaur egungo erlazioaren eta azken urtean lanean emandako denboraren arabera
(% bertikalak)

Azken urtean lanean emandako denbora	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
12 hilabete	90,8	1,0	,2	59,4
9-12 hilabete	2,4	9,9	2,2	2,8
6-9 hilabete	2,4	14,2	2,6	3,2
< 6 hilabete	4,3	21,9	5,5	5,7
Batere ez	0,1	53,0	89,5	28,9
Guztira	100	100	100	100
Lanean emandako hilabeteak (guztira %-tan)	95,7	2,1	2,1	100
Garrantzia biztanleria osoan	65,2	6,2	28,5	100

2009. urtean modu jarraituan landun izan den biztanleriaren garrantzi erlatiboa erreferentziatzen hartzen badugu, egiazta dezakegu sexuaren arabera oso nabarmenak direla; izan ere, 16-64 urteko landunen artean modu jarraituan jardun duten gizonak % 66,5 dira, eta emakumeak, aldiz, % 52,1. Nolanahi ere, emakumeen okupazio jarraituaren goranzko joera gertakari nabarmena da azken urte hauetan. Urte osoan modu jarraituan landun izan diren emakumeen proportzioa % 39 zen 2001ean, 2003an % 41,7ra igo zen, 2005ean % 45,8ra, 2007an % 49,7ra, eta % 52,1era iritsi da 2009an.

2009an modu jarraituan landun izan diren pertsonen proportzioaren jaitsierari eutsi izanaren arrazoia (zifrak 2005. eta 2006. urteetakoak baino handiagoak dira oraindik) emakumeen zifraren bilakaera positiboa izan da azken batean. Gizonen egoerak, berriz, zifra orokorrekin islatzen dutena baino neurri handiagoan egin du okerrera. Okupazio jarraituan jardun duten 16-64 urteko gizonen zifrarik handienak 2007koak dira (% 71,9). 2009. urtean, berriz, proportzio hori 5,4 puntuan jaitsi da, eta % 66,5ean geratu da. Zifra hori 2001ekoa baino 1,1 puntu handiagoa izanik ere, ikus daiteke alde handiagoa dagoela emakumeen adierazlean izandako 13,1 puntuko igoerarekin.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %)

Sexua	2001	2005	2007	2009
Gizonak	65,4	69,5	71,9	66,5
Emakumeak	39,0	45,8	49,7	52,1
Guztira	52,3	57,8	60,9	59,4

Adinak ere alde handiak eragiten ditu, eta alde handia dago adin-taldeetan. Izan ere, hainbat taldetan urtean enplegu jarraituaren esperientzia izan dute biztanle gehienek, baina beste hainbat taldetan ez. Azken horien artean, 25 urtetik beherakoak nabarmentzen dira bereziki: 20-24 urtekoen % 29k eta 16-19 urtekoen % 2,5ek modu jarraituan jardun du. Antzeko egoeran dago, halaber, 60 urtetik gorako taldea. Kasu horretan, okupazio jarraituan aritu direnak % 26,9 baino ez dira izan.

25-59 urtekoen artean, ordea, biztanle gehienek lortzen du okupazio jarraituari eustea urte osoan. Proporzioa ez da % 60ra iristen 25-29 urtekoen artean (% 59,2), eta % 70etik gorakoa da 30-49 urtekoengan. Proporziorik handienak 40-49 urtekoen kasuan lortzen dira (% 74-75). Proporzioa adierazitako zifretara hurbiltzen da 50-54 urteko pertsonen artean (% 69,2), baina % 59,3ra jaisten da 55-59 urtekoen kasuan (25-29 urtekoen taldean lortutako antzeko zifrak).

Okupazio jarraituaren tasek duela gutxi izan duten beherakadak eragin desberdina du adin-taldeetan. Beherakadarik esanguratsuenak 25-34 urtekoen kasuan gertatu da. Izan ere, horien okupazio jarraituko tasek 4 puntutik gora egin dute behera (-4,8 puntu 25-29 urtekoen artean, eta -4,5 puntu 30-34 urtekoen artean). Edonola ere, 20-24 urteko eta 35-49 urteko pertsonen artean ere garrantzitsua izan da beherakada (% 2-3,5). Eta 20 urtetik beherako artean beherakada puntu 1ekoa baino izan ez bada ere, abiapuntu zifra % 3,5 zen 2007. urtean, 2006an % 4,4ko beherakada izan ondoren.

Pertsona zaharragoen egoerak askoz bilakaera hobea izan du. Izan ere, hiru hamarrenetan baino ez da jaitsi 50-54 urtekoen okupazio jarraituaren maila, eta adierazleek gora egin dute 55 urtetik gorako kasuan. 2007tik 2009ra bitarte izandako igoerarik deigarriena 55-59 urteko pertsonena izan da, 4,3 puntukoa izan baita (0,9koa 60-64 urteko pertsonen kasuan).

Datu horiek garrantzi handia dute epe luzerako bilakaeraren ikuspegitik. Izan ere, 2007-2009ko krisiaren eraginez 2001-2ko adierazleetara itzuli gara 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, baina egoera oso bestelakoa da 50-59 urteko pertsonengan. Kasu horretan, okupazio jarraituaren zifrek berriki izan duten egonkortzea edo hobekuntza 2001etik 2009ra bitarte izandako igoerei lotuta dago (9,4 puntu 50-54 pertsonen kasuan, eta 13,1 puntu 55-59 urtekoen kasuan). Halaber, 60-64 urteko pertsonen tasak egin du hobera 2007tik 2009ra bitarte (4,3 puntuko igoerak izan ziren 2001etik 2009ra bitarte). Edonola ere, kasu horretan azpimarratu beharra dago aztertutako adierazleak egonkortzeko joera hartu duela 2005. urtetik aurrera.

50 urtetik gorako pertsonen egoera hobea, hein batean, 45-49 urteko pertsonen taldera zabal daiteke. Kasu horretan 2007tik 2009ra bitarteko okupazio jarraituaren tasak beherakada handia izan badu ere (% 77,4tik % 74,3ra), azken urteko tasak 2005eko eta 2006ko tasak

gainditu ditu, eta 2001ekoa baino 7,9 puntu handiagoa da. Gainera, 2001etik 2007ra bitarte, adin-talde horrek izan zuen igoerarik handiena okupazio jarraituko tasan.

25-44 urteko pertsonen kasuan 2007tik 2009ra bitarte okupazio jarraituaren tasan izan duten beherakadak, ordea, 2001etik 2007ra bitarteko gehikuntzen galera handia ekarri du. Adibidez, 2001. urtearekiko igoerak 2,2-4,5 puntura murriztu dira. 40-44 urteko pertsonen kasuan, 2007ko zifrak baino ez du gainditzen 2009koa; 25-39 urtekoen kasuan, berriz, berriki izandako beheraldiak 2005. urtearen aurrekoak baino adierazle txikiagoetara eraman gaitu.

Aurkeztutako datuak aztertzean, ezin da ahaztu azpian dagoen fenomeno garrantzitsu bat, hots, 55 urtetik beherako pertsonen kasuan 2007-2009ko aldiko okupazio jarraituaren tasek 2001etik 2007ra bitarteko goranzko tasen aldean izan duten beherakadaren gero eta eragin handiagoa. 2007-2009ko biurtekoan aurreko urteetako igoerekin konparatuta izan den beherakadari egotz dakioken galera erlatiboa % 30 ingurukoa izan da 40-49 urteko pertsonengan, eta % 45-55ekoa 30-39 urtekoengan. 25-29 urteko pertsonen kasuan, berriz, % 68,8ra iritsi da, 20-34 urtekoen kasuan % 75,2ra, eta 20 urtetik beherako kasuan % 126,8ra.

Adierazitako testuinguruan, 55 urtetik gorako pertsonen kasuan baino ez diote eutsi okupazio jarraituaren tasaren goranzko joerari 2007tik 2009ra bitarte; 50-54 urteko pertsonen kasuan, okupazio jarraituaren maila egonkortu egin da (hiru hamarreneko beherakada baino ez da izan adierazitako aldian).

Beraz, esan daiteke, termino erlatibotan eta okupazio jarraituaren adierazleari dagokionez, 2007-2009ko krisiaren eragin negatiboa handiagoa izan dela pertsonen adinak behera egin ahala. 20 urtetik beherako pertsonen kasuan, eragin negatibo hori aurreratu egin da. Izan ere, talde horren okupazio jarraituaren tasa nabarmen jaitsi zen 2006tik 2007ra bitarte, garai hartan tasa horrek % 4,4ko igoera izan arren.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %)

Adina	2001	2005	2007	2009
16-19 urte	2,7	2,3	3,5	2,5
20-24 urte	27,9	31,2	32,2	29,0
25-29 urte	57,0	59,6	63,9	59,2
30-34 urte	67,0	72,0	75,3	70,8
35-39 urte	69,5	73,4	76,5	73,2
40-44 urte	70,6	74,4	77,2	75,1
45-49 urte	66,4	73,9	77,4	74,3
50-54 urte	59,8	65,4	69,5	69,2
55-59 urte	46,2	52,2	55,0	59,3
60-64 urte	22,6	26,2	26,0	26,9
Guztira	52,3	57,8	60,9	59,4

Datuak eskualdearen arabera kontuan hartuta, egiazta daiteke 2009an egoerarik onenean egon den eskualdea Donostialdea dela, okupazio jarraitua duten 16-64 urteko biztanleak % 62 baitira bertan; proportzio hori % 60-60,5era iritsi da Bizkaia-Kostan eta Debagoienean.

Gainerako eskualde gehienetan, proportzioa EAEko batez besteko adierazlerra hurbiltzen da (% 58,6-59,4 Gasteizen, Aiaraldean, Eskuinaldean, Bilbon eta Tolosa-Goierriin). Ezkerraldean eta Durangaldean, berriz, tasa EAEko batez bestekoa baino ia bi puntu txikiagoa da (% 57,5 inguru). Tasarik txikiena Debabarrenekoa da, okupazio jarraitua duten 16-64 urteko pertsonen proportzioa % 54,9 baino ez baita.

Okupazio jarraituaren eragina bi eskualdetan baino ez da gehitzen 2007-2009 aldian. Horietako bat Bilbo da, 16-64 urteko pertsonen okupazio jarraituko bere tasa % 58,5etik % 59,4ra igaro baita, berriz ere Eskuinaldea adierazle horretan gaituta, 2001ean eta 2003an gertatu zen bezalaxe. Adierazlearen beherakadak 2007-2009 biurtekoan Ezkerraldearen eta, batez ere, Eskuinaldearen ezaugarri badira ere (-0,6 puntu eta -1,9 puntu, hurrenez hurren), hiru eskualde horiek dira oro har probetxu gehien ateratzen dutenak mende berriaren lehen hamarkadan ikusitako bilakaerari dagokionez, 10 puntutik gorako hazkundekin okupazio jarraituko tasetan. 2007ra arte EAEn batez bestekoarekiko 2 puntu baino gehiago azpitik, 2009an, aldiz, Euskadiren batez besteko zifretan kokatzea lortu du Bilbok, Eskuinaldea eta Ezkerraldea 0,8 eta 1,7 puntu azpitik zeudela (2001ean alde negatiboa 3,9 eta 6,5 puntukoa zen).

Okupazio jarraituko tasa hobetzen duen beste eskualde bat Bizkaia-Kosta da. 2007tik 2009ra bitarteko % 58,7 % 60,1era hazkunderari esker, eskualde hori, 2003-2007 aldian adierazlearen okerragotze konparatiboa ezaugarritzat zuen hori, berriz ere kokatzen da 2001-2003 aldian ezaugarritzat zituen EAEn batez bestekoarekiko gaitetiko mailetan. 2001. urtearekiko tasarekiko hazkundera ere (+7,1 puntu) nabarmentzekoa da.

Donostialdean ere okupazio jarraituko tasen azkenaldiko beherakadak ez du eragin handiegirik, % 0,4 eskaseko murrizketarekin 2007. urteko % 62,4arekin alderatuta. Horri esker, rankingeko lehen postura iristea lortu du 2009an adierazle horri dagokionez. 2001eko % 55,7arekiko oso gainteko mailetan bada ere, 2005. urteaz geroztik izan duen egonkortze nabaria du ezaugarritzat, haatik, Donostialdearen okupazio jarraituko tasak.

Beherakadak askoz ere nabarmenagoak dira —3 eta 3,5 puntu bitartekoak— Gasteiz, Aiaraldea eta Debagoiena eskualdeetan, hau da, 2007an faboratuenen artean zeuden eskualdeetan, % 62,5 eta 63,6 bitarteko okupazio jarraituko tasekin. Beherakada horren ondorioz, Gasteiz eta Aiaraldea batez bestekotik hurbil kokatu dira 2009an okupazio jarraituko maileri dagokionez, eta Debagoiengan, aldiz, puntu batean baino gehiagoan jarraitzen du batez bestekoaren gaintetik.

Dena dela, 2007-2009 aldian izandako aldaketak joera kezkarriagoak erakusten dizkigute. Gasteizen eta Debagoienaren kasuan, azkenaldiko beherakadak 2001-2003ko aldiaren mailetan jarri ditu bi eskualde horiek. Arabako eskualdean ez bezala, bertan egonkortzerako joerak apenas aldatzen baitzuten 2005-2007 aldian izandako gorakada batzuek, Debagoiengan, aldiz, 2009ko % 60,5a beherakada nabarmena —eta etengabea gainera— da 2006ko % 65,7aren gehienekoarekiko, hau da, urte hartan eskualde hori okupazio jarraituko adierazlean EAE lider nabarmen gisa jartzen zuen gehienekoarekiko. Testuinguru horretan, Debagoiena nabarmentzen da euskal eskualde bakarra delako non okupazio jarraituko adierazlearen beheranzko azkenaldiko joera 2006ra aurreratzen den.

Adierazitako bilakaeraren ondorioz, kontuan harturiko hiru eskualdeei gagozkiela, Aiaraldean bakarrik da 2009ko tasa 2001eko baino nabarmen handiago (% 59,4 batetik eta % 53,7 bestetik, 5,7 puntuko aldea eta Debagoiengan eta Gasteizen 1,3 puntukoa eta 0,5 puntukoa besterik ez, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria landun jarraituari buruzko adierazlean izandako beherakadak gehieneko mailak, 6-7 puntu, lortzen dituzte Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena eskualdeetan. Ikusitako murrizketa handiak 2005-2007 aldian EAEn batez bestekoaren gaintetik egoteko joera zuten eskualdeak eraginpean hartzen baditu ere, ondorio deigarriak ditu beherakadaren eraginak. Horrela, Tolosa-Goierri eta Durangaldea, 2007an EAEn batez bestekoa 2,8 eta 5 puntuan gainditzen zuten eskualdeak, batez besteko horren 0,2 eta 1,9 puntu azpitik daude 2009an. Dena den, 2001eko 6,8 eta 3,6 puntuan gainditzen duen okupazio jarraituko adierazlea atxikitzen dute, eta errealitatea horrek argi eta garbi bereizten ditu Debabarrenetik. Eskualde horrek bakarrik ikusten du okupazio jarraituko bere tasa jaisten 2009an 2001ekoarekin alderatuz gero (% 54,9 batetik eta % 58,2 bestetik 2001ean EAEn batez bestekoa ia 6 puntuan gainditzen duen mailarekin).

Azken batean, aurkezturiko datuek ez dute soilik Bilboko areako hiru eskualdeen 2001-2009 aldiko bilakaera positiboa erakusten, kontuan izanda eskualde horiek erlatiboki ondo eusten diotela krisiaren eraginari okupazio jarraituko adierazlean. Erakusten du, halaber, Gasteizen, Debagoienaren eta Debabarrenaren bilakaera negatiboa, eskualde horiek nabarmendu egiten baitira 2009an 2001ekoen inguruko edo horien azpitiko okupazio jarraituko tasak izateagatik. Errealitate hori are deigarriagoa da kontuan izanez gero 2001ean adierazle handienak zituzten hiru eskualdeak zirela, gutxienez 2,5 puntu Donostialdeko adierazleen gainetik, eta eskualde hori dago, hain zuzen ere, rankingaren lehenengo postuetan 2009an okupazio jarraituko adierazleari dagokionez.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Eskualdea	2001	2005	2007	2009
Gasteiz	58,6	59,8	62,6	59,1
Aiaraldea	53,7	59,3	62,5	59,4
Eskuinaldea	48,4	56,8	60,6	58,6
Bilbo	49,0	53,9	58,5	59,4
Ezkerraldea	45,8	52,0	58,2	57,7
Bizkaia-Kosta	53,0	57,3	58,7	60,1
Durangaldea	53,9	59,7	63,8	57,5
Donostialdea	55,7	61,4	62,4	62,0
Tolosa-Goierrri	52,3	65,9	65,9	59,1
Debagoiena	59,2	65,1	63,6	60,5
Debabarrena	58,2	58,9	61,2	54,9
Guztira	52,3	57,8	60,9	59,4

2009ko azpitiko joera, hots, lanpostu egonkorrenak sendotzea, egonkortasun horretara gutxien bideraturikoen eta kontratazioko zehaztugabeak ez diren modalitateetan eutsitakoen kaltetan, berretsi egiten da inkesta egin zen unean benetan landuna zen biztanleriaren okupazio jarraituko tasak aztertzean. Horrela, 2001eko % 86,3tik 2003ko 84,6ra jaitsi ondoren, urte horretatik aurrerako gorako joera sendotzen du 2009ko adierazleak, biztanleria horren arteko okupazio jarraituko proportzioa 2007ko % 89,4raino eta 2009ko % 90,8raino igota.

Horrenbestez, 2009ko adierazleak LME aplikatzeko unean aurreko hamabi hilabeteetan modu jarraituan landun izateari eutsi dion biztanleria landunaren proportzioan 2001az geroztik lorturiko maila handiena islatzen du. 2009ko zifrak 1,4 puntuan gainditzen du 2007koa.

Adierazleak zerbitzuetan gora egiten badu ere, % 88,2tik % 90,1era, industrian gertatzen da hazkunde deigarriena, krisialdiak eraginpean harturiko lehenengo sektorean, eta adierazlea % 2007ko 90,9tik 2009ko % 93,1era igo da. Modu jarraituan landunak diren pertsonen proportzioa, aldiz, murriztu egiten da eraikuntzan eta nekazaritzan (% 91,8tik % 90,1era eta % 96,1etik, % 91,9ra, hurrenez hurren). Dena dela, eraikuntzaren adierazlea bigarren handiena da 2001az geroztik, 2005eko % 87 inguruko mailak argi eta garbi gaindituta.

Adarren arabera egindako hurbilketa zehatzago batean, 2009an egiaztatzen da egoera jakin batzuk nagusitzen direla adar eta sektore guztietan, enplegu jarraituko maila handiak ezaugarritzat dituzten egoerak, % 85etik gorako zifrekin jarduera-sektore eta -adar ia guztietan.

Zifra horren azpitik 2009an arrantza (% 84,3), elikagai-industria (% 83,8), ostalaritza (% 83,9) eta etxeko zerbitzua (% 82,2) daude soilik. Adierazitako lehenengo bi adarretan, 2007an % 85 maila hori gainditzen zutenetan, gutxienez bi puntuko beherakada ikusten da okupazio jarraituko tasetan 2007-2009 biurtekoari gagozkiola. Adierazlearen goranzko joera ikusten da, aldiz, ostalaritzaren eta etxeko zerbitzuaren adierazlean gutxienez 2005az geroztik.

Oraindik okupazio jarraituko biztanleriaren % 85 gainditzen badu ere, nabarmentzekoa da, halaber, okupazio jarraituko adierazlearen beherakada handia industria petrokimikoan, 2007ko pertsona landun jarraituen % 94,8tik 2009ko % 86,4ra igarota. Biztanleria landun jarraituko % 85-90ean daude, halaber, garraio-materialen fabrikazioko, hezkuntza eta beste merkataritza-zerbitzu batzuetan adarrak (% 89,9, % 89,8 eta % 88,4, hurrenez hurren). Gainerako merkataritza-zerbitzuei dagokienez izan ezik, beherakada txikia baita nagusi, gainerako adarretan, ordez, adierazlearen mailak hazkundera izan du 2007-2009 aldian.

Okupazio jarraituko pertsonen proportzio handiena duten adarren artean, zifrak hurbildu egiten dira edo gainditu egiten dituzten % 92,5eko mailak nekazaritzan eta bigarren sektoreko adar gehienetan, arestian adierazitako adarrak eta eraikuntzaren adarra izan ezik. Zerbitzuetan, adierazitako erregistro horiek Administrazio Publikoan lortzeaz gain (hori zen 2009 gainditzen zituen adar bakarra), garraio eta komunikazioetan eta finantza-erakundeetan ere gainditzen dira, eta % 90etik gora dago merkataritzako, enpresei egindako zerbitzuetako eta osasuna eta gizarte-zerbitzuetako adarrean. Nekazaritzan izan ezik, paragrafo honetan adierazitako adarretako 2007-2009 dinamikak okupazio jarraituaren eraginaren hazkundera du ezaugarritzat.

Zenbait adarretan % 90eko mailara iristea lortzen ez bada ere, nabarmentzekoa da, halaber, okupazio jarraituak zerbitzuen sektorean izan duen gorakada ia erabatekoa, lehen aipaturiko merkataritza-zerbitzuen adarraren salbuespen bakarrarekin. Kasu horretan beherakada txikia ikusten da, % 89tik % 88,4rako.

**Azken urtean modu jarraituan okupaturiko 16-64 urteko biztanleria,
sektorearen eta egungo jarduera-adarraren arabera**
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Jarduera-adarra eta sektorea	2001	2005	2007	2009
Nekazaritza	95,0	95,2	96,1	91,9
Industria	88,9	89,9	90,9	93,1
Eraikuntza	81,8	86,9	91,8	90,1
Zerbitzuak	85,3	86,1	88,2	90,1
Nekazaritza	95,1	96,0	96,4	93,9
Arrantza	94,3	92,9	94,5	84,3
Erauzketa-industria	94,9	97,0	93,2	100,0
Elikagai-industria	81,5	79,4	86,1	83,8
Paper-industria	90,1	89,4	91,0	93,0
Industria petrokimikoa	86,0	92,0	94,8	86,4
Kautxu-industria	91,5	89,5	92,1	95,5
Bestelako gai ez-metalikoen industria	91,8	92,7	90,4	95,3
Metalurgia	90,3	90,7	92,0	93,8
Makinagintza	90,6	92,4	89,8	96,0
Material elektrikoa	83,8	85,9	89,7	92,3
Garraio-materiala	89,0	92,9	89,6	89,9
Hainbat manufaktura-industria	88,1	88,2	92,2	95,1
Energia-produkzioa	86,5	86,2	88,2	97,1
Eraikuntza	81,8	86,9	91,8	90,1
Merkataritza	86,1	86,0	88,4	90,2
Ostalaritza	78,5	80,7	83,3	83,9
Garraioak eta komunikazioak	90,1	89,5	89,8	94,3
Finantza-erakundeak	89,5	90,7	89,5	96,2
Enpresetarako zerbitzuak	82,3	85,1	87,5	90,1
Administrazio Publikoa	87,3	92,4	92,6	94,1
Hezkuntza.	86,0	86,6	88,7	89,8
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	87,2	84,9	89,4	90,3
Bestelako merkataritza- zerbitzuak	83,9	85,9	89,0	88,4
Etxeko zerbitzuz	81,6	78,4	80,4	82,2
Guztira	86,3	87,3	89,4	90,8

Okupazio jarraituko pertsonen proportzioa oso handia da ia mota profesional guztietan, % 90etik gorako zifrekin, lan kalifikatuak eta kalifikatu gabeak dituzten langileen artean izan ezik. 2007-2009 aldiaren bilakaerak islatzen du, halaber, adierazleak hazkunde garrantzitsuak izan dituela teknikarien artean (% 89,8tik % 92,7ra), makineriako operadoreen artean (% 90,9tik % 94,6ra) eta administrazio motako langileen artean (% 88,6tik % 90era).

Okupazio jarraituko tasa txikiena langile kalifikatu gabeei dagokie, landun jarraituen % 84,7arekin, 2007an izandako % 85,7aren puntu 1 azpitik. Adierazle hori % 90aren azpitik dago, halaber, langile kalifikatuen artean, % 88,6arekin, eta kasu honetan hamarren eskasa baino ez 2007ko zifrarekin alderatuta. Dena den, gainerako talde profesionaletan bezala, zifra horiek argi eta garbi hartzen diete gaina 2001-2006 aldian ikusitako maiei. Euskadiren enplegu okupatuak egonkortzeko joera talde profesional guztietan adierazten da, horrenbestez.

**Azken urtean modu jarraituan okupaturiko 16-64 urteko biztanleria,
egungo lanbidearen arabera**
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Lanbidea	2001	2005	2007	2009
Indar Armatuak	81,3	74,7	100	100
Zuzendariak	95,5	96,4	97,3	97,4
Teknikariak	86,8	88,5	89,8	92,7
Enplegatu administrariak	85,9	86,2	88,6	90,0
Langile kalifikatuak	84,9	85,8	88,7	88,6
Makineriako operadoreak	90,1	91,0	90,9	94,6
Kalifikaziorik gabeko langileak	80,0	80,2	85,7	84,7
Guztira	86,3	87,3	89,4	90,8

Gutxienez 2001. urtetik (urte horretan hasi zen adierazle hori jasotzen), okupazio jarraitua oso handia da soldatapekoak ez diren langileen artean, familia-laguntzarekin loturiko pertsonen salbuespen bakarrarekin. Kolektibo horretan izan ezik 2005-2009 aldiko okupazio jarraituko mailek % 95 mailak gainditzen dituzte soldatapekoak ez diren biztanleria mota guztietan, langile enplegatzailerik eta autonomo zein kooperatibisten artean.

2007-2009 aldian, okupazio jarraituko tasen hazkunde joera sendotu egiten da, halaber, beren lanpostua langile enplegatzailerik eta autonomo gisa mantentzen duten pertsonen artean, eta % 98,9ko eta % 97,1 gehienekoak lortzen dira. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, langile kooperatibisten artean, beherakada txikiaren 2007-2009 aldian (% 98,4tik % 96,6ra). Beheranzko joera hori deigarriagoa da familia-laguntzen kolektibo txikian, eta kasu horretan % 91,8tik % 82,2ra murrizten da adierazlea 2007-2009 aldian.

Soldatapekoak ez diren langile gehienek artean bezala, kontratu mugagabea daukan soldatapeko biztanleriak ere okupazio-jarraitasuneko maila handiak islatzen ditu, modu jarraituan okupaturiko % 96,1arekin 2009an, 2007an izandako mailarekiko % 0,4 eskas azpitik.

Logikari jarraiki, okupazio jarraituaren eragina txikiagoa da kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen artean. Horrela, aldi baterako kontratua duten soldatapekoen % 61ek soilik izan du okupazio jarraitua urte osoan, eta proportzio hori kontraturik gabeko landunen artean ikusitakoa baino txikiagoa ere bada (% 74,1).

Hala eta guztiz ere, azkenaldiko bilakaeraren arabera, okupazio jarraituari eusteko baldintza gutxienak betetzen dituzten kolektiboek hobetzeko joera dute epe luzera. Horrela, okupazioko egonkortasun-adierazleak goranzko joera izaten jarraitzen du kontraturik gabeko pertsonen artean, 2005-2006 aldian izandako beherakadaren ondoren. 2007-2009 aldian aldi baterako kontratua daukaten soldatapeko biztanleriaren artean gauza bera gertatzen ez bada ere, landun jarraituen proportzioa % 63,1etik % 61era murriztu baita, kasu honetan ere 2009ko adierazleak nabarmen gainditzen ditu 2001-2006 aldiko erregistroak, % 54,5eko gehienekoarekin 2006an.

Horrenbestez, datuek erakusten dutenez, salbuespen txiki batzuk izan ezik, enpleguarekin harreman jarraitua izateko probabilitatea gaur egun okupatuta dagoen biztanleriaren artean mendearen lehen erdian ikusitakoa baino askoz handiagoa da oraindik ere 2009an, baita enpresarekin kontratazio mugagaberik ez dagoen kasuetan ere.

**Azken urtean modu jarraituan okupaturiko 16-64 urteko biztanleria,
egungo lanbide-egoeraren arabera**
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Egoera profesionala	2001	2005	2007	2009
Enplegatzailea	96,8	97,6	97,8	98,9
Autonoma	93,2	95,0	94,6	97,1
Familia-laguntza	89,3	90,7	91,8	82,2
Kooperatibista	98,4	97,2	98,4	96,6
Adm. Publikoko soldatapekoak	88,5	89,8	92,4	92,3
Enpresa publikoko soldatapekoak	88,8	89,4	92,0	92,3
Enpresa pribatuko soldatapekoak	83,6	84,6	87,4	89,1
Beste egoera bat	67,9	73,0	72,5	76,2
Guztira	86,3	87,3	89,4	90,8

**Azken urtean modu jarraituan okupaturiko 16-64 urteko soldatapeko biztanleria,
egungo kontratu motaren arabera**
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Kontratu mota	2001	2005	2007	2009
Mugagabea	96,0	96,3	96,5	96,1
Aldi baterakoa	53,3	53,7	63,1	61,0
Kontraturik gabe	70,3	67,4	72,2	74,1
Guztira	84,4	85,5	88,2	89,7

8. Lana bilatzeko neurriak.

Lan Merkatuaren Erroldan (LME) lana bilatzeko politikak aztertzen dira, baina langabeen taldean ez ezik, honako hauetan ere oinarritzen da: lana bilatzen ari direla eta inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko gestio eraginkorrak egin dituztela dioten 16-64 urteko guztietan. Erreferentziako kolektibo hori 135.904 lagunek osatzen dute EAEn³¹.

Lehenik lana bilatzen den lurralde-eremua aztertzen badugu, 2009an berriz ere argi eta garbi azpimarratzekoa da Euskadin lan-merkatua tokian tokikoa dela. Hortaz, lana bilatzen ari diren biztanle gehienek —guztirakoaren % 76,53k— gehienez ere euren Lurralde Historikoan aurkituko dutela pentsatuz egiten dute. Soilik % 121,2k bilatzen du lana Euskal Autonomia Erkidego osoan edo Nafarroan, eta % 10,7k Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Bi azken zifra horiek, aldiz, % 20,5 eta % 4,5raino igo ziren 2007an.

2007an ez bezala, 2009an, aldiz, alde garrantzitsuak ikusten dira okupazio-egoeraren arabera. Nabarmenena lurralde historikotik kanpo bilatzera bideraturiko pertsonen proportzioari buruzkoa da, eta proportzio horrek gora egiten du enplegu-eskatzaila lan-merkatu eta produkzio-sistemaren gehiago hurbiltzen den neurrian. Horrela, lurralde historikotik gorako lurralde-eremuetan lan-bilaketa zabaltzen duten pertsona ez-aktiboak % 24,8a dugu, eta proportzio horrek, aldiz, gora egiten du langabeen eta landunen artean (% 29,8ra eta % 41,1era, hurrenez hurren). EAetik edo Nafarroatik kanpo lana bilatzeko biztanleriaren zatiari lotuta daude neurri handi batean aldeak: % 4,3, % 9,0 eta % 18,1, hurrenez hurren.

EAetik kanpoko merkatuetara zabaltzeari buruzko adierazleak normalean hazi egiten dira 2007. urtearekin alderatuta, gaur egun landunak diren pertsonen artean askoz ere modu garbiagoan bada ere, langabeen artean ikusitakoarekin alderatuta behintzat. Horrela, beste lan bat bilatzen ari diren landunetan % 27,1etik % 41,1erako jauzia dago EAeko kanpo-merkatuetara irekitako pertsonen dagokionez 2007-2009 aldian. Langabeen eta pertsona ez-aktiboak dagokionez, aldiz, % 25,2tik % 29,8rako eta % 12,3tik % 24,8rako da jauzia.

³¹ Datu horietan sartzen dira oraindik ere lana aurkitu ez duten langabeak (89.031 pertsona, jada lana aurkitu eta lanean hastear dauden langabeak kenduta), baita azken 4 asteetan lana bilatzeko gestioak egin dituzten landunak eta ez-aktiboak ere (32.625 eta 14.248 pertsona, hurrenez hurren). Azpimarratzekoa da, pertsona ez-aktiboak kolektiboari dagokionez, horrek prest zeuden pertsona ez-aktiboak kolektiboan bere garaian barne harturikoez bestelako pertsonak hartzen dituela eraginpean kasu gehienetan, horietako askok ezaugarritzat aldi horretan lana bilatzeko mugimenduak egin ez izana dutelarik.

**Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria
jarduerarekiko erlazioaren eta enplegua bilatzeko lurralde-eremuaren arabera
(% bertikalak)**

Lana bilatzeko eremua	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
Udalerria	20,9	27,3	35,7	26,6
Lurralde Historikoa:	38,1	43,0	39,4	41,4
Autonomia Erkidegoa (EAE)	19,4	18,0	17,9	18,3
EAE/ Nafarroa	3,6	2,7	2,6	2,9
Espainia	11,8	5,8	3,9	7,1
Munduko gainerako herrialdeak	6,3	3,2	0,5	3,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Oraindik ere lana bilatzeko modu nagusietako bat enplegu bulego publikoetara jotzea da (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, Lanbide, udal-bulegoak eta abar), eta lana bilatzen ari direnen % 68,4k bide hori erabiltzen du. Horien artean, % 76,2k (lana bilatzen ari diren guztien % 52,1ek) bulego horiekin kontaktua izan du azken lau asteetan lan-eskaintzei buruzko informazioa lortzeko. Handia den arren, proportzio hori zertxobait txikiagoa da enplegua bilatzeko beste modu esanguratsu batzuen baina. Adierazitako moduak honako hauek dira: enplegu-eskaintzak komunikabideetan kontsultatzea (lana bilatzen ari direnen % 57,8k baliatzen du bide hori) edo ahaide edo lagunei galdetzea (% 57,3).

Lana bilatzen ari direnen artean eragin txikiagoa duten arren, testuinguru horretan, ezin aipatu gabe utzi % 50ek komunikabideetan iragarkiak jarri dituela edo iragarkiren bati erantzun diola, eta % 42,9 zuzenean enpresarekin harremanetan jarri dela. Erabiltzen den beste modu bat enplegu-bulego pribatuetara eta Aldi Baterako Laneko Enpresetara jotzea da: lana bilatzen ari direnen % 38,8k jotzen du horietara. Maila txikiagoetara jaitsita, % 19,4k lan-poltsetan izena eman du eta 14,8k azterketak edo elkarrizketak egin ditu.

2001. urtean ikusitakoari dagokionez, honako alderdi hau deigarria da: 2009an nabarmen gaineratik dago pertsonekin, enpresetan, edo kolokazio-zerbitzuetan lana bilatzeko zuzeneko gestioak egiten dituzten lagunen proportzioa. Ildo horretatik, alde batetik, 2009an nabarmen hazi da lan-eskaintzak kontsultatzeko zerbitzu publikoetara jotzen dutenen edo prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko informazioa eskatzen dutenen proportzioa. (2001ean % 42,7 izatetik 2009an % 52,1 izatera eta % 25,2tik % 35,7ra igaro da, hurrenez hurren). Handiagoa da, halaber, enpresaburuekin zuzeneko harremanetara, enplegu-bulego pribatu eta ABLEetara edo ahaide eta lagunetara jotzen duten lan-eskatzailen proportzioa (% 29tik % 42,9ra, % 27,8tik % 38,8ra eta % 44,6tik % 57,3ra, hurrenez hurren).

Era berean, aztertutako aldiaren eraberraren hazia dira, ordea, lana bilatzeko gainerako modalitateak. Ildo horretatik, ikusi dugu komunikabideetan iragarkiak jarri dituzten edo iragarkiei erantzun dieten lagunen proportzioa nabarmen hazi dela, 2001eko % 38,6tik 2009ko % 50era lehenengo kasuan, eta bigarren kasuan % 52,2tik % 57,8ra.

Lan-politsetako inskripzioak ere hazkunde nabarmena izan du, 2001eko % 14,7tik 2009ko % 19,4ra igaro baita enplegu-gestioak egiten dituzten pertsonen dagokienez, eta gauza bera gertatzen da saltokietan eta beste leku publiko batzuetan iragarkiak jartzearekin (% 3,7 2001ean baina % 8,2 2009an). Azterketa edo elkarrizketetan parte hartzeak eta autoenplegua baliatzeak beren mailak atxikitzen dituzte, dena den, 2001ean eta 2009an, eta bereziki murrizkak dira autoenplegua lortzeko ikuspegiari dagokionez (eskatzaileen % 4,4 2009an, 2001eko % 3,8aren zertxobait gaineratik).

Jarduerarekiko egoeraren araberrako aldeak ez dira bereziki nabarmenak lan bila dabilzan langabe eta lagunen portaerari dagokionez, oso antzeko zifrekin. Lagunen ikuspuntutik begiratuta, gehienez ere ikus daiteke enpresaburuekin harremanetan jartzeko joera handiagoa (kasuen % 48, eta langabeen artean, aldiz, % 44) eta, batez ere, komunikabideetako iragarkiak baliatzea (% 57 batetik eta % 48,1 bestetik). Langabeek, bestalde, askoz ere garbiago baliatzen dituzte zerbitzu publikoak (horien % 79 eta, aldiz, lagunen % 37,9), batez ere ikastaroak baliatzeari dagokionez (% 43,2 batetik eta % 15,3 bestetik) eta enpleguei buruzko informazioa lortzeari dagokionez (% 63 batetik eta % 27,1 bestetik).

Bestalde, lan bila dabilen biztanleria ez-aktiboaren portaera 2009an ez da gehiegi desberdintzen biztanleria langabeari dagokionetik, nahiz eta kasu askotan enplegua bilatzeko zenbait sistema baliatzeari dagokion maila zertxobait txikiagoa den. Alde nagusiak zerbitzu publikoetan enpleguei buruzko informazio-eskaera txikiagoari (% 40,8 eta langabeen artean, aldiz, % 63) eta enpresen arduradunekin izandako harreman txikiagoari (% 24,4 batetik eta % 44 bestetik) buruzkoa da, baina baita ere ikusten da, neurri txikiagoan bada ere, ABLEak baliatzeari (% 33,1 batetik eta % 39,1 bestetik) eta komunikabideetako iragarkiak baliatzeari (% 45,8 batetik eta % 58,8 bestetik) dagokionez. Aitzitik, langabeei zein lagunei dagokienez, pertsona ez-aktiboak dira azterketa edo elkarrizketetan parte hartzeko, autoenplegura irekitzeko edo saltokietan iragarkiak jartzeko gehien bideraturikoak. Ondorioz, horien arteko zati garrantzitsu bat azterketen emaitzen edo enplegu-bulegoen erantzunaren zain dago.

**Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria
jarduerarekiko erlazioaren eta enplegua bilatzeko moduaren arabera**
(bilaketa mota bakoitza erabili dutenen %-a)

Lana bilatzeko modua	Jarduerarekiko erlazioa				2001
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira	
Enpleguko bulego publikoa	37,9	79,0	71,7	68,4	70,3
. Txartela berritu edo zigilatu	21,4	63,5	63,4	53,4	53,3
. Ikastaroei buruzko informazioa jaso/ikastaroak egin	15,3	43,2	35,4	35,7	25,2
. Lehenengo aldiz izena eman	4,4	14,1	6,6	11,0	11,4
. Datuak berritu	13,4	32,9	17,1	26,6	22,4
. Lan-eskaintzei buruzko informazioa	27,1	63,0	40,8	52,1	42,7
. Lan-eskaintza jaso	3,4	9,5	4,5	7,5	5,8
. Beste batzuk	1,1	7,6	2,1	5,5	3,6
Enpleguko bulego pribatua /ABLE	40,4	39,1	33,1	38,8	27,8
Enpresaburuekin harremanetan jarri	48,0	44,0	24,4	42,9	29,0
Ahaideei edo lagunei galdetu	59,5	57,3	53,0	57,3	44,6
Komunikabideetan iragarkiak jarri edo horiei erantzun	57,0	48,1	45,8	50,0	38,6
Azterketa edo elkarrizketa	13,4	14,2	21,7	14,8	14,3
Autoenplegua	2,7	4,7	6,7	4,4	3,8
Lan-eskaintzak kontsultatu komunikabideetan	60,1	58,8	45,8	57,8	52,2
Enpleguko bulegoaren deiaren zain	10,3	17,2	26,1	16,5	14,7
Eskaeren edo azterketen zain	12,1	12,1	17,2	12,6	11,3
Iragarki-taula eta dendetan iragarkiak jarri	6,9	8,4	9,3	8,2	3,7
Lan-poltsetan izena eman	20,2	19,0	20,5	19,4	14,7

Bilatzen den lanaldi motari dagokionez, ia gehienak lanaldi osoan lan egiteko prest daude: % 93,5 (% 43,2 modu eskusiboan eta % 50,2k onartzen du lanaldi partzialeko eskaintza). Lanaldi partzialerako joera txikiagoa landunei lotzen zaie (% 51,7 lanaldi osorako lana baino ez du bilatzen eta, aldiz, langabeen artean % 40,9k eta ez-aktiboen artean % 38,5ek)

Kontuan harturiko pertsonen % 6,5ek soilik bilatzen du lanaldi partzialeko edo ordukako lan bat baino ez, eta 2007ko % 9,6a baino txikiagoa da proportzio hori. Horrelako lana bilatzen duten pertsonen proportzioa gainetik atxikitzen da biztanleria ez-aktiboaren artean (% 10,6 biztanleria ez-aktiboan eta % 5,8, aldiz, langabeen eta % 6,8 landunean).

**Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria
jarduerarekiko erlazioaren eta bilatzen den lanaldi motaren arabera**
(% bertikalak)

Bilatzen den lanaldi mota	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
Soilik lanaldi osoa	51,7	40,9	38,5	43,2
Partziala edo osoa	41,5	53,3	50,9	50,2
Soilik partziala	5,7	5,5	6,6	5,7
< 15 ordu astean	1,1	0,3	3,9	0,9
Guztira	51,7	40,9	38,5	43,2

Lana bilatzen ari den eta lana bilatzeko gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleriak lanean hasteko hainbat baldintza proposatu ditu. Inkesta egin zen unean beste okupazio bat lortzeko benetan prest dagoela esaten duen kolektiboaren zatira mugatuta, honako baldintza hauek hartzen ditu kontuan LMEak: bizileku-aldaketa, diru-sarrerak edo kategoria espero zirenak baino txikiagoak izatea, eta lanaldi partzialean lanean jarduteko prest egotea.

Adierazitako baldintzak kontuan izanda, egiaztatzen da 2009an kontuan hartutako pertsonen % 27,8 prest legokeela horiek guzti-guztiak onartzera beste lanpostu bat lortzeko prozesuan. 2001eko % 25etik 2003ko % 24,5era, 2005eko % 20,8ra eta 2007ko % 14,5era modu ia jarraituan erori ondoren, 2001az geroztik ikusitako baldintza orokorren onarpen-maila handiena da, eta 2007ko mailen bikoitzean kokatzen da ia. Gainera, onarpen-mailak gora egiten du eraginpeko pertsonak produkzio-sistemara hurbiltzen diren neurrian, eta ez-aktiboaren arteko % 13,2tik langabeen arteko % 29,9ra eta enplegua bilatzen duen biztanleriaren % 29,9ra igarotzen da. Adierazle horiek guztiek 2007koak bikoizteko joera dute (% 7,4; % 13,6 eta % 16,2 urte horretan aipaturiko taldeetan), eta gainera modu jarraituan hazten da 2006tik aurrera biztanleria landunaren kasuan (% 12,6 urte hartan).

Aipatu baldintza horietatik guzti-guztiak onartzeko prest ez dagoen taldearen arrazoiak aintzat hartuz gero, eragozpen nagusia bizilekuz aldatzea da. Baldintza guztiak onartzeko prest ez daudenen artean, % 78,4k ez du onartzen baldintza hori, eta proportzio hori gehitu egiten da ez-landunen artean (% 65,1 landunen artean, % 82,5 langabeen artean eta % 79,5 biztanleria ez-aktiboaren artean).

2009an eragin garrantzitsua (baina ez nagusia) duen beste alderdi bat honako hau da: diru-sarrerak kalifikazioari dagozkionak baino txikiagoak izatea. Lan bila ari diren, gestioak egiten dituzten eta lanerako prest daudenen % 41,7k ez du zirkunstantzia hori onartu 2009an, bereziki gaur egun lanean jarduten dutenen kasuan (% 55,6 eta langabeen artean, aldiz, % 37,7 eta ez-aktiboaren artean % 33,2).

Gainerako faktoreak garrantzitsuak badira ere, horien eragina txikiagoa da. Lanbide-kategoria kalifikazio-mailari dagokiona baino txikiagoa izateari dagokionez, zirkunstantzia horrek aztertutako lagunen % 34,1 hartzen du eraginpean, eta % 32 lanaldi partzialeko lan-aukerari dagokionez. Baldintza horiei dagokienez, talde kritikoenak landunak eta ez-aktiboak dira, zirkunstantzia horren eraginpean daudenen % 33-45ek ez baititu baldintza horiek onartuko, eta proportzio hori, ordea, % 30era jaitsi da zentzu hertsian langabezia daudenetan.

Azken batean, mugigarritasun geografikoa da, 2009an ere, gogoko lana lortzeko eragozpen nagusia, enplegu berrian hasteko baldintzaren bat jartzen dutenen gehiengoari dagokionez. Hala ere, 2009an, 2007an gertatzen zen bezalaxe, beste lan batean hasteko landunek ezartzen

duten baldintza nagusietako bat maila ekonomikoa eta lanbide-maila hobetzeko itzaropena da, bereziki, lana bilatzen ari diren landunen edo ez-aktiboen kasuan.

2005-2006 aldian ikusitakoaz ez bezala, eta ezarritako baldintzen multzoaren onarpen-adierazlearen goranzko joerarekiko koherentea izanik, oro har, dena dela, murrizteko joera dute enplegu-eskatzailleen igurikimenek urte horretatik aurrera. 2009ko lan batean hasteko igurikimen txikiagoek lanean hasteko baldintza espezifikoko guztien errefus-ehunekoen beherakadak bultzatzen dituzte.

Horrela, lan bila ari diren, gestioak egiten dituzten eta lanerako prest daudenen artean 2005-2006 aldian % 32,8tik % 44,3ra gehitzen da kalifikazioarekin bat datozen diru-sarreraren eskaria, adierazlea berriz ere % 34,8ra iristen da 2007an eta berriz ere % 30,1era jaisten da 2009an. Esperotako baino lanbide-kategoria txikiagoa onartuko ez luketen pertsonen artean, % 23,7tik % 32,9ra igotzen da proportzioa 2005-2006 aldian, % 26,1era jaisten da 2007an eta % 24,6ra 2009an. Lanaldi partzial batean hasiko ez liratekeen artean, azkenik, 2005-2006 aldian % 22tik % 32,1era igo ondoren, zifrak % 25,2ra jaisten dira 2007an eta % 23,1era 2009an. Bizileku-aldaketarako ezezkoak ere ez dio goranzkoari eusten, 2007an oraindik ere gertatzen zenaren aurka. Hori horrela, 2005-2007 aldian errefus-maila modu deigarrian igo ondoren —% 61,1 2005ean, % 62,6 2006an eta % 71,8 2007an— adierazlea 15 puntu pasatxoan murrizten da 2009an, % 56,6an kokatuta.

Aztertutako bilakaeran, oro har, 2006-2009 aldian igurikimenak beherantz egokitu behar izan direla ikusi dugu, eta horrek zentzu hertsian langabe direnak ere hartzen ditu eraginpean. Horrela, bada, langabeen % 27,3k gaur egun espero du diru-sarrerak kalifikazioaren parekoak izatea, eta 2006an % 37,5 ziren; % 22,3k ez luke onartuko kalifikazioari dagokion kategorian baino beheragoko lanposturik (2006an % 24,5); azkenik, % 21,7k ez luke onartuko lanaldi partzialeko lanposturik, eta 2006an % 25,4 ziren. Aldiz, bizilekuz aldatzeari uko egingo lioketenen proportzioa 2005eko % 63,5tik 2006ko % 64,7ra igaro da, eta 2007an % 75,8ra, proportzio hori 2009an % 59,8ra murriztu delarik.

Dena den, adierazi beharrekoa da igurikimenean beherakada 2006-2009 aldian baino ez dela oro har gertatzen, eta sarriago aipaturiko baldintzei dagokionez, 2007-2009 aldian. Ildo horretan, 2006. urtearekiko orokorki hartuta murrizten badira ere, onartu gabeko baldintzen eragina 2009an ere handiagoa da langabeen artean 2007an ikusitakoa baino, baita 2005ean ikusitakoa baino intzidentzia txikiagoa duten zenbait baldintza motatan, batez ere maila beheragoko enplegua onartzeari dagokionez (% 22,3 2009an eta % 18,3 2005ean) edo lanaldi partzialeko enplegu batean hastera (% 21,7 batetik eta % 16,8 bestetik).

Lan bila ari den, gestioak egiten dituen eta lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria jarduerarekiko erlazioaren eta hainbat baldintza onartzeko prest egotearen arabera³²
(% bertikalak)

2009

Baldintzak	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
Baldintza guztiak onartuko lituzke	29,9	27,5	13,2	27,8
Baldintzaren bat ez luke onartuko	70,1	72,5	86,8	72,2
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	65,1	82,5	79,5	78,4
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	55,6	37,7	33,2	41,7
Espero zena baino beheragoko kategoria	45,0	30,8	32,9	34,1
Lanaldi partziala	38,1	29,9	37,3	32,0
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	45,7	59,8	69,0	56,6
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	39,0	27,3	28,8	30,1
Espero zena baino beheragoko kategoria	31,6	22,3	28,6	24,6
Lanaldi partziala	26,8	21,7	32,4	23,1

2007

Baldintzak	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
Baldintza guztiak onartuko lituzke	16,2	13,6	7,4	14,5
Baldintzaren bat ez luke onartuko	83,8	86,4	92,6	85,5
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	76,4	87,7	100	84,0
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	50,7	34,2	71,7	40,6
Espero zena baino beheragoko kategoria	43,1	23,2	40,8	30,5
Lanaldi partziala	40,2	23,0	47,5	29,5
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	64,0	75,8	92,6	71,8
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	42,4	29,5	66,4	34,8
Espero zena baino beheragoko kategoria	36,1	20,0	37,8	26,1
Lanaldi partziala	33,7	19,9	44,0	25,2

2005

Baldintzak	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
Baldintza guztiak onartuko lituzke	19,9	21,3	18,6	20,8
Baldintzaren bat ez luke onartuko	80,1	78,7	81,4	79,2
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	67,8	80,7	92,9	77,1
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	58,0	34,9	20,6	41,4
Espero zena baino beheragoko kategoria	45,7	23,3	22,4	29,9
Lanaldi partziala	44,3	21,4	3,2	27,8
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	54,3	63,5	75,6	61,1
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	46,5	27,4	16,8	32,8
Espero zena baino beheragoko kategoria	36,6	18,3	18,2	23,7
Lanaldi partziala	35,5	16,8	2,6	22,0

³² Prestasunak guztizko biztanleria langabearen % 100 hartzen du eraginpean, baita enplegu bila dabilzan landunen % 87,4 ere. Dena den, % 15,7ra jaitsi egiten da lan bila dabilzan eta gestioak egiten dituzten pertsona ez-aktiboen artean. Guztira, 119.788 pertsonak osatutako kolektiboa da.

Lan berri bat bilatzen ari direla, lan hori lortzeko gestioak egin dituztenek atzemandako muga nagusiak zein diren jakin dezakegu LMEari esker. Arazo hori garrantzitsua da, aztertutako pertsonen % 86,5ek adierazi baitu lana lortzeko arazo objektiboren bat izan duela, eta proportzio hori 2001eko eta 2003koa (% 83,5) baino nabarmen handiagoa da, nahiz eta 2005ekoa (% 93) eta 2006koa (% 91,8) baino zertxobait txikiagoa den, 2007koarekin (% 87) bere horretan mantenduz³³. Problematikak intzidentzia nahiko antzekoa du kontuan harturiko talde guztietan, nahiz eta zertxobait handiago izan landunen eta pertsona ez-aktiboen artean (% 88,5 eta % 89,2, eta langabeen artean, aldiz, % 85,3, 2001ekoaren antzeko zifra azken kasu horretan).

Arazo nagusiak kalifikazioari buruzko alderdiei dagozkienak dira, ikasketa-mailei, hizkuntzak jakiteari eta lan-esperientziari lotuta. Kolektiboaren % 61,7k horrelako arazoak adierazten du, eta zifra horrek gora egiten du 2007ko % 59,8arekiko eta 2003. urteko mailetatik (% 61,4) hurbil dago, nahiz eta oraindik 2005eko % 67,1arekiko eta 2006ko % 63arekiko nahiko azpitik dagoen (baita 2001eko 63,4arekiko ere) Eragina handiagoa da enplegu bila dabilzan landunen artean (% 65,2 eta % 61,8, aldiz, biztanleria ez-aktiboaren artan eta % 60,4 langabeen artean).

Muga espezifikoei helduta, enplegu-eskatzailen % 32,6k aipatzen du 2009an instrukzio-maila, eta proportzio hori % 28,3 da behar besteko lan-esperientziarik ez izateari dagokionez eta % 25,9 hizkuntzak jakiteari dagokionez.

Aurreko urteekiko, beherakada nabarmena du lan-esperientziaren inguruko arazoaren eraginak, 2001-2005 aldian normalean % 37-38an dagoen intzidentziarekin baina oraindik ere % 32,3an mantentzen zena 2007an 2009ko % 28,3ra jaitsi baino lehen. Dena den, 2007ko % 27,7tik 2009ko % 32,6ra igotzen da ikasketa-mailei loturiko arazoei dagokien proportzioa. 2005ean ikusitako gehienekoaren (% 33) antzeko mailan badago ere, 2001eko eta 2003ko % 27-28tik hurbil dauden zifren baino askoz ere handiagoa da adierazlea, eta horrek iradokitzen du epe ertainean arreta berbideratu egin behar duela esperientzia azpimarratze horretatik prestakuntza-mailarantz. Hizkuntzak jakiteari dagokionez, 2009ko % 25,9ko zifra ere gorakada da 2007ko % 22,2arekiko edo 2002ko eta 2003ko % 19-20ko zifrekiko, eta, dena den, 2006an zein 2001ean ikusitakoekiko (% 25,4 eta 24,8, hurrenez hurren) hurbilekoa da.

³³ Puntu honetan zehaztea komeni da konparazio benetakoena 2001-2003 aldiko datuekin eginikoa dela, aldi horretako datuek 2009koarekiko askoz ere hurbilagoa den langabezia-bolumena baitute 2005-2007 aldiari dagokiona baino.

Ikasketei eta lan-esperientziari loturiko problematiken multzotik oso urrun, adina ageri zaigu, lana bilatzen ari direnen % 17,9k aipatu baitu arazo hori. Enplegurako bigarren muga handi gisa jarraitzen badu ere, hamarkadako txikiena da zifra hori, eta 2001ean izandako % 18,5eko gutxienekoaren azpitik ere dago. 2002ko eta 2003ko % 25,5eko eta % 26,5eko zifretatik oso urrun dago. 2009an, dena den, adinaren eraginak nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du pertsona ez-okupatuaren artean: % 21,1 ez-aktiboaren artean eta % 19,2 langabeen artean eta % 12,9, aldiz, biztanleria landunaren artean.

Oso deigarria da adinari lotutako mugek oraindik ere sexuari edo familia-kargak izateari loturiko zailtasunak gaintzen dituztela, hots, gestioak egin dituzten enplegu-eskatzailen % 14,2 eraginpean hartzen duten zailtasunak. Adierazleak behera egiten du 2005-2007 aldiko zifrekiko, 2006ko % 16,1eko gutxienekotik 2007ko % 19,5 gehienekora bitarteko aldaketekin, baina 2001-2003 aldiko mailetara (% 13,3-14,7) hurbilduta. 2009an, bestalde, sexuari eta generoari loturiko problematikek bereiz hartzen dute eraginpean biztanleria ez-aktiboa: % 19,6, eta biztanleria langabe edo ez-aktiboan, aldiz, % 12,9-13,8ko zifrak.

Sexua, berez, lana bilatzen ari direnen % 3k soilik adierazi du eragozpen dela, eta familia-kargak izateak, aldiz, garrantzi handiagoa du, aztertutakoen % 11,5 baitago egoera horretan 2009an. Zifra hori oraindik ere 2001eko % 9,8a edo 2003an erakusten duen gutxieneko % 6,6a baino dezente handiagoa da, bi urteko beherakada jarraituaren ondoren. Dena den, 2005-2006 aldian adierazleak erakusten duen % 12-12,6 tartearen azpitik dago eta, batez ere, 2007ko % 16,4aren azpitik. Jarduerarekiko erlazio-terminotan, familia-kargei loturiko problematikak landunen % 9,3a, langabeen % 11,6a eta ez-aktiboaren % 16a hartzen ditu eraginpean.

2009an, sexuari edo familia-kargei loturiko mugak hirugarren problematika nagusi gisa ere ez dute jarraitzen lana lortzeko baliatzeko aukerak mugatzeari dagokionez. Hirugarren postu hori urte horretan mugigarritasun geografikorako mugei dagokie, lana bilatzen ari direnen % 16,9ko aipaturiko gaia baita, talde guztien arteko barne-alde handiegirik gabe (gehienekoa, % 19,2arekin, biztanleria ez-aktiboari dagokio, biztanleria langabeak edo landunak izandako % 16,6-17ko zifren zertxobait gainetik). Problematika horren eragina gehitu egiten da 2007ko % 13,8arekiko, zifra hori 2001eko eta 2002ko % 13-14ko zifrekiko hurbilekoa delarik, baina 2005eko % 14,9aren eta 2006ko % 17,6aren azpitik jarraitzen du.

2009an, bestalde, garrantzi pixka bat galtzen dute soldata-helburuek lanean hasteko prozesuan muga garrantzitsu gisa. Beste enplegu bat baliatzeko zailtasuna faktore horrekin lotzen duen aztertutako biztanleriaren indarra % 12,2ra murrizten da, eta modu jarraituan erortzen da 2006-2009 aldian 2006ko % 19,3ko gehienekotik (% 16,2 2007an). Beherakada hori kontraste handia da 2003-2006 aldian ikusten den hazkundearekin, lehen urtean % 8,3ko

gutxienekotik abiatuta. 2009ko adierazlea, haatik, 2001eko % 11,4ra eta 2002ko % 12,4ra hurbiltzen da.

Jatorri geografikoa, bestalde, lana bilatzen dutenen % 6,3k aipatzen du, 2001-2003 aldian % 2,5eko zifra hamarren eskas batzuetan gainditzen zituzten zifrekiko, 2005-2006 aldiko % 4 inguruko zifrarekiko eta 2007ko % 5,8ko zifrarekiko etengabe aurrera eginez. Hortaz, biztanlerian duen eraginari dagokionez garrantzia kontuan hartuz mende berriaren lehenengo urteetan modu jarraitutan hazteko joera duen muga gutxietako bat da.

Proportzioa azkenean % 2,4ra iristen da arazo fisikoak izateari dagokionez, aurreko urteetan ikusitakoen ildo bereko erregistroa.

Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria jarduerarekiko erlazioaren eta lana lortzeko sumatutako mugen arabera
(erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a)

Mugak	Jarduerarekiko erlazioa			
	Landunak	Langabea	Ez-aktiboak	Guztira
<i>Kalifikazioari/esperientziari lotuak</i>	65,2	60,4	61,8	61,7
Ikasketa-maila	28,1	34,9	28,5	32,6
Hizkuntzak	31,4	23,7	26,6	25,9
Lan-esperientzia	25,5	28,6	32,9	28,3
<i>Sexu-arazoei edo familia-kargei loturikoak</i>	12,9	13,8	19,6	14,2
Familia-kargak	9,3	11,6	16,0	11,5
Sexua	3,7	2,6	4,1	3,0
Soldata-helburuak	12,3	12,1	12,2	12,2
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	17,0	16,6	19,2	16,9
Adina	12,9	19,2	21,1	17,9
Jatorrizko herrialdea	7,0	5,7	8,3	6,3
Muga fisikoa	1,0	2,6	4,5	2,4
<i>Mugaren bat</i>	88,5	85,3	89,2	86,5

Kalifikazioaren edo esperientziaren arazoaren barne-azterketak agerian utzi du arazoaren edukia aldatu egiten dela lortutako ikasketa-mailaren arabera. Ildo horretatik, ikasketa-maila txikiarekin loturiko problematikaren kasuan, egiaztatu dugu arazo horren eraginpeko gehienak lanbide-arloko edo unibertsitateko ikasketarik ez duten taldeetakoak direla (gutzizkoaren % 65,1). Hizkuntzekin edo behar besteko lan-esperientziarik ez izatearekin loturiko arazoei dagokienez, aldiz, lanbide-arloko edo hirugarren mailako ikasketak dituztenek aipatu dituzte gehienbat (% 54,6 eta % 59, hurrenez hurren).

Datuak termino erlatibotan dagozkion erreferentzia-taldeen barruan aztertzen baditugu, oro har egiaztatzen da ikasketa-mailaren problematikak modu bereizgarrian hartzen duela

eraginpean hasierako prestakuntza-maila txikiagoa duen biztanleria, eta problematika hori indartu egiten da, gainera, krisi-zirkunstantzia berrietan. Ildo horretan, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten langabeen % 50,9 nabarmentzen ditu ikasketa-mailari loturiko mugak, eta proportzio horrek berriz ere gora egiten du 2005eko % 52,4tik 2007ko % 32,5era izan zuen beherakada jarraituaren ondoren. Adierazleak 2005era arte islatu zuen gorazko joera hartu du berriz ere, eta 2001ean ikasketa-maila horretan zeudenen % 39,8 eraginpean hartzetik 2005eko jada adierazitako % 52,4ra iritsita, zifra hori oraindik 2009koak baino zertxobait handiagoa bada ere. Bilakaera nahiko antzekoa da bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenei dagokienez. Ikasketa-mailen arazoa aipatzen dutenen proportzioak ere goranzko joera du 2001-2005 aldian, 2001eko % 31,4tik 2003-2005 aldiko % 37tik hurbileko zifretara igarota, kasu horretan hazkundea 2006ra arte luzatzen bada ere, urte horretan adierazleak % 46ko gehienekora iritsi zelarik. 2007an % 28,7ra jaitsi ondoren, adierazlea % 37,1eraino igo da 2009an, kasu horretan, dena dela ere, 2006an lorturiko gehienekoaren azpitik argi eta garbi.

Adierazleak ikasketarik gabeko edo lehen mailako edo bigarren mailako ikasketa profesionalak dituzten pertsonetan duen susperraldiarekin kontrastean, 2001eko % 27,1etik 2007ko % 33,3ra ia modu jarraituan hazi ondoren, instrukzio-mailaren problematika aipatzen dutenen proportzioa % 26,2ra murrizten da 2009an. Joera antzekoa da hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean, nahiz eta kasu horretan beheranzko joera lehenago hasten den, 2006-2007 aldian. Horrela, 2001-2003 aldian % 12 baino zertxobait handiagoak ziren zifretatik 2006ko % 18,7raino aurrera egin ondoren, adierazlea % 17,5era erortzen da 2007an eta % 16ra 2009ra.

Bestalde, lan-esperientziaren arazoa aztertzean, egiaztatzen da laneratzeko mugek oro har goranzko joera dutela, langabeen ikasketa-maila hobetzen den neurrian. Problematika horrek beste lan bat bilatzen ari diren unibertsitateko tituludunen % 35,2 eta lanbide-arloko bigarren mailako ikasketak dituztenen % 22,7 hartzen ditu eraginpean, baina lehen mailako ikasketak edo beheragokoak dituztenetan % 22,7ra jaitsi da. Joera horretarako salbuespen bakarra bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak egiten dituztenei buruzkoa da, horien arteko % 28,5k nabarmentzen duela lana lortzeko muga gisa lan-esperientziarik ez izatea.

Bigarren mailako ikasketa-ez profesionalak dituztenen kasuan, dena den, 2001eko % 33,5etik hazi ondoren, epe ertaineko beheranzko joera bat ikusten da lan-esperientzia ez izateari loturiko problematiken adierazlean, 2005eko % 45,3ko gehienekotik 2006ko % 34,8ra eta 2009ko % 28,5era igarota (2007ko % 35,7rainoko aldi baterako gorakada aparte utzi gabe).

Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan izandako hazkunde txiki bati (% 21,4tik % 22,7ra) dagokionez izan ezik, 2007-2009 aldiko lan-esperientziaren eraginaren beheranzko joera beste ikasketa-maila batzuetan partekaturiko bereizgarria da. Hori horrela, adierazlea % 32,9tik % 27,6ra jaisten da bigarren mailako ikasketa profesionalak dituztenen artean eta % 38,4tik % 35,2ra hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean. Ikasketa-maila guztietan, eta kalifikatuenetan bereziki gainera, lan-esperientziari loturiko arazoen adierazlea, bestalde, askoz ere txikiagoa da 2009an 2001-2003 aldian zegoena baino (5 puntu inguru gutxiago ikasketarik gabeko edo lehen mailako edo bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean eta 10 puntu gutxiago bigarren mailako titulazio profesionala edo hirugarren mailakoa dutenen artean).

Hizkuntzen problematikak, bestalde, nolabaiteko berdintzea du ezaugarritzat instrukzio-mailari gagozkiola, ikasketa mota guztietan kasuen % 25-27ko aztertutako pertsonen proportzioa eraginpean hartuta. Zifra horiek oro har goranzko susperraldia islatzen dute 2007-2009 aldian hizkuntzekin erlasionaturiko problematikei gagozkiela, lan bilatzen ari diren eta gestioak egin dituztenen artean. Ildo horretan, oro har berriz ere 2001ean izandakoekiko hurbilekoak dira, baina 2 puntutik gorako hazkunderekin urte horrekin alderatuta bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean (% 25,2 2009an eta % 21,5 aldiz 2001ean), edo unibertsitate-ikasketak dituztenen artean (% 25,9 eta 2001ean, aldiz, % 23,1).

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta kalifikazioa/esperientziari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria muga motaren eta ikasketa-mailaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Muga mota eta ikasketa-maila	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
<i>Ikasketa-maila</i>		
Lehen mailakoak	44,4	50,9
Bigarren mailakoak	20,7	37,1
Profesionalak	22,2	26,2
Unibertsitatekoak	12,7	16,0
Guztira	100	32,6
<i>Hizkuntza-maila</i>		
Lehen mailakoak	27,7	25,2
Bigarren mailakoak	17,7	25,2
Profesionalak	28,7	26,9
Unibertsitatekoak	25,9	25,9
Guztira	100	25,9
<i>Lan-esperientzia</i>		
Lehen mailakoak	22,7	22,7
Bigarren mailakoak	18,3	28,5
Profesionalak	26,9	27,6
Unibertsitatekoak	32,1	35,2
Guztira	100	28,3

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Sexuarekin eta familia-kargekin loturiko arazoak gehienbat emakumeak hartzen dituzte eraginpean oraindik ere. Sexuarekin loturiko lanerako mugak izan dituzten kasuen % 93,4, eta familia-kargekin zerikusia dutenen % 66,6 lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen emakumeei dagokie. Dena den, gorakada ikus daiteke azken urteetan gizonak familia-kargei loturiko problematiketan duten egitekoari dagokionez (2007an horrelako arazoak zituzten guztizkoaren % 16,5etik 2009ko % 33,4ra, % 6,3tik % 7,1erako hazkundera lotuta kolektibo horretan arao horrek eraginpean harturiko gizonen guztizko proportzioan).

Eraginpeko biztanleria gutxiengoa izaten da kasu guztietan, baina nolnahi ere, daturik deigarriena lana bilatzen ari diren emakumeen artean familia-kargak duten eragina da orain ere: emakume horien % 16,9k gaur egun adierazi du familia-kargen arazoa muga dela lan berria lortzeko. 2007ko % 23,9arekiko beheranzko joera garbian bada ere, eta ezin ahaztuko dugu urte horrek enplegu-eskatzaileren zifren funtsezko murrizketa izan zuela ezaugarritzat, 2009ko adierazlea 2005eko eta 2006ko mailetan atxikitzen da (% 17,9 eta 15,6 bi urte horietan), argi eta garbi gaudituta 2003. urtean ikusitako % 9,1eko gutxienekoa eta baita 2001eko % 13,2a ere. Aitzitik, 2003ko proportzioarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu nabarmen ari dela jaisten beste lan bat lortzeko sexua mugatzat hartzen duten emakumeen proportzioa. 2009ko % 6,2a 2007ko % 6,9a, 2006ko % 7,8a, 2005eko % 10,5a eta 2003ko % 2,8a baino txikiagoa da. 2006az geroztik, 2001ean izandako konparatiboko murriztagoa den mailaren azpitik dago adierazlea (% 8,8 izan zen urte hartan).

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta sexuari eta familia-kargei loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria muga motaren eta sexuaren arabera

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Muga mota eta sexua	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Sexua		
Gizonak	6,6	0,4
Emakumeak	93,4	6,2
Guztira	100	3,0
Familia-kargak		
Gizonak	33,4	7,1
Emakumeak	66,6	16,9
Guztira	100	11,5
Mota bat edo bestea		
Gizonak	28,4	7,4
Emakumeak	71,6	22,4
Guztira	100	14,2

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Oro har, lana bilatzen ari diren eta beste okupazio bat lortzeko gestioak egin dituzten emakumezkoen biztanleriaren % 22,4k sexuari edo familia-kargak izateari loturiko lanerako muga motaren bat planteatzen du 2009an (gizonezkoen biztanleriaren % 7,4k, aldiz). Proporzio hori 2002ko % 19,4tik 2005eko % 26,7ra igo bazen ere, % 21,9ra jaitsi egin da 2006an, 2001eko eta 2003ko antzeko mailetara itzulita (% 21,1 eta % 21,4). 2006-2007 aldian ikusitako gorakada handia, % 29arekin azken urte horretan, horrenbestez, ez da sendotu 2009an, eta azken urteko zifrak 2001-2003 aldian nagusi zirenetara hurbildu dira.

Lana bilatzen ari diren eta gestioak egin dituzten emakume eskatzaileen egoeran sakontzean, gehienez 12 urteko adingabeak etxeko unitatean egoteak funtsezko izaten jarraitzen du 2009an. Ildo horretan, sexuarekin eta familia-kargekin enplegurako mugak nabarmentzen dituen emakumeen proportzioa batez bestekoaren azpitik dago adin horretako seme-alabak ez dituztenen artean, ezkondata dauden edo ez alde batera utzita (% 18,6 eta % 10,8, hurrenez hurren). Aitzitik, adierazitako mugek beren kargura seme-alabak dituzten emakume ezkonduen % 52,3a hartzen dute eraginpean, eta egoera horretan dauden ezkongabeen % 38,2a.

12 urtetik beherako seme edo alabaren bat edukitzeak, hortaz, funtsezko etena eragiten du emakumeen artean sexuarekin eta familia-kargekin loturiko mугen eragina neurtzeko garaian. 2005ean ikusitakoarekin kontrastean, dena den, 2006az geroztik —2001ean gertatzen zen bezalaxe— ezkondata egoteak berriz ere zailtasunak ekartzen ditu familia eta enplegua uztartzeko garaian. Horrela, genero-mugen intzidentzia askoz ere txikiagoa da emakume ezkonduen artean (% 18,6 eta ezkongabeen artean, aldiz, % 10,8 12 urtetik beherako seme-alabarik ez badago; % 52,3 batetik eta % 38,2 bestetik horrelako adingabeak daudenean).

2009ko eta 2001eko zifrak alderatuta, ezkontzaren eragin diferentzialak ez du beti norabide berean jarduten. Seme-alabarik gabeko emakumeen kasuan, emakume ezkonduen kalterako intzidentzia-aldea 2001eko 3,1 puntutik 2009ko 7,9 puntua gehitzen da, emakume ezkonduen artean sexuarekin edo familia-kargekin loturiko mугen intzidentzian izandako hazkundeari (% 15,2tik % 18,6ra) loturiko zirkunstantzia, emakume ezkongabeekin ikusitako beherakadarekin kontrastean (% 12,1etik % 10,8ra).

Seme-alabak dauden kasuetan aldea oso handia bada ere (+14,1 puntu emakume ezkonduen kaltetan), 2001-2009 aldiko joera, aldiz, bateragarria da seme edo alaba bakarra dagoen kasuko aldearen nolabaiteko egonkortzearekin, sexu-arazoen eta familia-kargen intzidentziaren eraginaren beherakada partekatu batekin —eta, gainera, nahiko antzeko batekin— loturikoa. Emaitzak murriztu ere egiten dira 2001-2009 aldian emakume ezkonduen kasuan 2 seme-alaba edo gehiago dauden kasuetan, eta kasu horretan hazkunde erkideak ikusten dira sexuari eta familia-kargei loturiko mугen intzidentzian, baina indar handiagokoak

emakume ezkongabeetan (2001eko % 37,3tik 2009ko % 50,2ra, % 52,9tik % 61,8ra igota emakume ezkonduetan):

Adierazi beharrekoa da, bestalde, 2009an 12 urtetik beherako seme edo alaba bat egoteak alde garrantzitsu batzuk sartzen dituela kontuan harturiko problematiken intzidentzian, 2007an edo 2001ean ez bezala. Ildo horretan, eragin bereizgarri oso nabarmena ikusten da 2 seme-alaba edo gehiago duden kasuetako sexuarengatiko edo familia-kargengatiko mugen intzidentzian (% 61,8 eta emakume ezkonduen kasuan, aldiz, % 46,9; % 50,2 eta emakume ezkongabeen kasuan, % 32,5).

Lana bilatzen ari diren, gestioak egin dituzten eta generoari edo familia-kargak izateari loturiko arazoak izan dituztela adierazi duten 16-64 urteko emakumeak, egoera zibilaren eta 12 urte bitarteko seme-alaba kopuruaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren arabera	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak	15,4	18,6
Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak	26,1	10,8
Seme-alabadun emakume ezkonduak	43,0	52,3
<i>Seme edo alaba 1</i>	24,4	46,9
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	18,5	61,8
Seme-alabadun emakume ezkongabeak	15,6	38,2
<i>Seme edo alaba 1</i>	9,0	32,5
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	6,6	50,2
Guztira	100	22,4

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Adinari dagokionez, enplegurako muga gisa, eragozpen hori izan dutela adierazten duten enplegu-eskatzaileen % 76,3k 40 urte edo gehiago ditu, baina gehienbat 40-54 urtekoetan metatzen da arazo hori. Adin-tarte hori lana bilatzen ari diren, gestioak egin dituzten eta adinari loturiko mugak aipatu dituztenen % 59,4 da.

Izan ere, adin-tarte horretan nabarmen hazi da adinaren arazoa izan dutela esan dutenen kopurua, lana bilatzen ari direnen artean. Horrela, 20-35 urtekoen % 10ek baino gutxiagok nabarmentzen du gai hori, eta adierazlea, aldiz, % 11,4ra iristen da 35-39 urtekoen artean, eta proportzioa % 27,5era igotzen da 40-44 urtekoen artean, % 42,6ra iritsita 45-49 urtekoen artean. 50 urtetik gorakoetan, adina eragozpen bihurtzen da lana lortzeko eta lan berria bilatzen ari diren eta gestioak egiten ari diren gehienei eragiten die arazo horrek.

Dena den, oro har ikustean da adinaren eraginak beherakada oso garrantzitsua izan duela lan lotzeko elementu mugagarri gisa 2001-2003 aldiaren eta 2009. urtearen artean. Joera horrek gehien faboraturiko adin-taldean, 2001-2009 aldian, 30-44 urtekoak dira, 7,3 puntutik 8,6 punturako jaitsierarekin arazoaren intzidentzia-mailetan, eta 45 urtetik gorakoak, 10 puntutik gorakoa beherakadekin adin-talde guztietan.

Baina azkenaldiko datu guztiak ez dira erabat aldekoak. Gauzak horrela, azkenaldiko bilakaerak gorakada erakusten du 60 urtetik gorakoen artean. 2001-2005 aldian % 95,7tik % 69,3ra jaitsi ondoren, adin-talde horretan gorakada ikusten da adinaren arazoaren intzidentzian, eta horrek enplegurako muga horren intzidentzia modu jarraituan igotzen du % 82,9raino 2009an.

Adinari loturiko mugaren eragina murrizta bada ere 20-24 urtekoen artean, adierazlearen joera gehienbat goranzkoa da 2001az geroztik, urte horretako % 2,5eko intzidentziaz 2009ko % 8,1era igarota, zifra hori 2003an gainditzen bada ere % 13,4arekin. Biztanleria gazteenaren problematika, 20 urtetik beherakoena, maila murrizetan dago 2009an, % 7,6an, 2001eko % 13,1aren eta 2005eko eta 2007ko % 20tik gorako zifren azpitik.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta adinari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Adina	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
16-19 urte	1,0	7,6
20-24 urte	6,6	8,1
25-29 urte	3,3	3,3
30-34 urte	3,7	3,3
35-39 urte	9,1	11,4
40-44 urte	14,9	27,5
45-49 urte	21,4	42,6
50-54 urte	19,2	51,9
55-59 urte	15,0	69,4
60-64 urte	5,9	82,9
Guztira	100	17,9

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Nazionalitatearen araberako jatorriari dagokionez, faktore horri loturiko laneratze-problematiken % 87 Europar Batasunetik kanpoko pertsonak aipatzen dute. Beste % 9,6 bat Europar Batasuneko beste estatu batzuetako pertsonen dagokie, eta gainerako % 3,4a espainiar nazionalitateko pertsonak dira.

Egia esan, lana bilatzen ari diren, lana lortzeko gestioak egin dituzten eta Europar Batasuneko Estaturen batekoak ez direnen % 43,3k aipatu du jatorriarekin loturiko arazoren bat izan duela lan-munduan sartzeko. 2001-2005 aldiko % 50-60ko zifretatik 2006-2007 aldiko % 35-40ko mailetara jaitsi ondoren, % 35,7 gutxienekoarekin azken urte horretan, adierazleak lehen aldiz egiten du gora 2003az geroztik, hamarkadako lehenengo urteetako mailetara iritsi gabe bada ere.

Aurkako joera ikusten da, aldiz, Europar Batasuneko beste estaturen bateko nazionaliei dagokienez, % 38,8tik % 31,6ra 2007-2009 aldian, 2001-2003 aldiko % 10-15eko zifren gainetik, dena den ³⁴.

Bestalde, Estatuko herritartasuna duten pertsonen tasa % 0,3 baino ez da.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta generoari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Nazionalitatea	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Espainiakoa	3,4	0,3
EBko beste herrialderen batekoa	9,6	31,6
EBkoa ez den beste herrialderen batekoa	87,0	43,3
Guztira	100	6,3

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

³⁴ Esan behar da 2001-2002 aldiko datuak ez direla zorrotz konparagarriak 2005az geroztikakoekin. Ildo horretan, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarren jatorri geografikoari loturiko problematiketan 2005-2006 aldian ikusitako gorakada handia aldi horretan Errumania eta Bulgaria erkidego politiko horretan sartu izanak mugatzen du.

9. Atzerritarrak

Oso zaila da Euskadin bizi diren 16-64 urteko atzerritarren jarraipena behar bezala egitea. Izan ere, bizilekuan mugikortasun handia du talde horrek, eta oso zaila izaten da erregistro administratiboen bidez (esaterako, Erroldaren bidez) azterketak egitea; horretaz gain, kasu askotan, egoera instituzionalean daudenen edo pasadizokoen taldekoen berezko ezaugarriak ere hartzen ditu talde horrek. Bestalde, herritartasun berria nahiko erraz lortzen dute sarritan, bai ezkontuta, bai naturalizazio-prozesuen bidez. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartuta, jarraian EAEko 16-64 urteko atzerritarrei buruzko zenbatekoak aurkeztuko ditugu, baina kontu handiz aztertu beharrekoak dira. Alabaina, atzerritarren taldea garrantzitsua denez, egoki iruditu zaigu gizarte-talde horren garrantzia eta ezaugarriak hobeto aztertzea.

LMEaren datuei jarraiki, 2009an, EAEko familia-etxebizitzetan bizi diren 16-64 urteko 71.513 lagunek beste Estatu bateko nazionalitatea dute. Euskadiko 16-64 urteko biztanleriaren % 4,9 islatzen du zifra horrek; horietatik % 3,9 Europar Batasunetik kanpoko Estaturen batekoa da eta gainerako % 1a Europar Batasuneko beste Estaturen batekoa³⁵.

16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen arabera
(Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Nazionalitatea	Absolutuak	%
Estatua	1.380.428	95,1
EBko beste Estaturen batekoa	14.814	1,0
EBtik kanpoko Estaturen batekoa	56.699	3,9
Guztira	1.451.941	100

Europar Batasuneko ez den beste herrialderen batetik etorritako atzerritarren presentzia nabarmena da EAEko hiru eskualdetan: Gasteizen, Eskuinaldean eta Bilbon. Bertako biztanleen % 36 soilik bizi da hiru eskualde horietan, baina proportzioa % 38,1era igotzen da EBko beste Estaturen batetik datozen herritarren kasuan, eta % 55,9ra Europar Batasuneko ez den herrialde bateko herritar atzerritarren kasuan.

³⁵ Beste kontsiderazio metodologiko batzuk aparte utzi gabe, kapitulu honetan emandako datuak balioesteko garaian ez dugu ahaztu behar atzerritarrei buruzko datuetan ez daudela sartuta ez pasadizokoak, ezta instituzioetan nahiz bestelako zentro kolektibotan —pentsioak, ostatuak, eta abar— dagoen biztanleria ere. 16 urtetik beherako edo 65 urtetik gorako biztanleria ere ez dago bilduta.

Europar Batasuneko ez den herrialderen batetik etorritakoen artean, % 17,8 Donostialdean bizi da. Arestian adierazitako eskualdeetan ez bezala, kasu honetan adierazitako proportzioa eskualde horretan bizi den bertako biztanleriaren zatiaren azpitik dago (% 21,5). Donostialdeak ere Europar Batasunetik datozen atzerritarren % 18 biltzen du.

16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen eta eskualdearen arabera
(% bertikalak)

Eskualdea	Nazionalitatea		
	Estatua	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Gasteiz	12,5	15,9	25,6
Aiaraldea	2,1	1,3	1,4
Eskuinaldea	7,6	8,0	9,8
Bilbo	15,9	14,2	20,4
Ezkerraldea	18,7	13,7	8,7
Bizkaia-Kosta	5,7	10,3	4,9
Durantaldea	5,7	3,5	3,5
Donostialdea	21,5	18,0	17,8
Tolosa-Goierri	5,0	12,5	3,5
Debagoiena	2,9	1,2	0,9
Debarrena	2,4	1,4	3,4
GUZTIRA	100	100	100

2005. urtera arte, atzerritarren artean askoz handiagoa zen jarduerarako joera. Dena den, jarduera-tasak goranzkoari eusten badio ere bertako biztanleriaren kasuan 2005-2007 aldian, % 69,4tik % 70,3ra igarota, beherakada handiak ikusten dira atzerritarren artean. Biurteko horretan, tasa % 81,6tik % 72,1era murriztu da Batasuneko beste herrialderen batetik etorritakoen kasuan, eta % 75,9tik % 70,2ra Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako herritarren kasuan. Azken kasu horretan, 2005. urtean, biztanleria nazionalak baino 6,5 puntu handiagoko jarduera-tasak zituzten abiapuntu, eta 2007an antzeko zenbatekoetara iritsi da. Batasunetik kanpoko atzerritarren kasuan, diferentzial positiboa 12,2 puntu jaitsi zen 2005. urtean, eta 2007an soilik 1,8.

2007-2009 biurteko krisialdiak, dena den, nazionalitatearekiko talde guztietan susmatzen den jarduerarako joeraren hazkundera eragiten du, atzerritarren artean moduan askoz ere garbiagoan bada ere. Estatuko herritarren artean igoera 0,9 puntukoa da (% 70,3tik % 71,2ra), baina 3,9 puntukoa, aldiz, Europar Batasunetik kanpo datozenen artean (% 70,2tik % 74,1era) eta 14,4koa Europar Batasunaren barruko beste Estatu batetik datozenen artean (% 72,1etik % 86,5era). Emaidza, neurri batean, 2005eko errealitatera itzultzea da, 2009an jarduerarako joera handiagoarekin atzerritarren artean. Hala ere, 2009ko jarduera-tasa 1,8 puntuan txikiagoa da Europar Batasunetik kanpoko biztanleriaren artean 2005ekoarekiko, bertako biztanleriak izandako 1,8 puntuko eta Europar Batasunerako gainerako herrialdeetatik datozenen 4,9 puntuko hazkunderarekin kontrastean.

Bestalde, atzerritarren kolektiboa askoz ere gehiago hartzen du eraginpean langabeziak, eta berezitasun hori areagotu egiten da krisialdi egoera berri batean. Langabezia-tasak % 15,8ra igotzen dira EBko beste estatu batzuetako herritartasuna dutenen artean eta % 27ra Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren artean, bertako biztanleriarentzat aurreikusitako % 7,8a baino 2-4 bider handiagoak diren zifrekin.

Tasak 4,9 puntuan egiten du gora estatuko herritarren artean 2007ko % 2,9arekiko, eta atzerritarren artean, aldiz, askoz ere maila handiagoetan. Kasu deigarriena Europar Batasunetik kanpoko herritarrena da. 2005-2006 aldian ikusitako hobekuntzaren ondoren —% 11,9tik % 8,8rako beherakadarekin—, tasak murrizteari utzi zion 2007an, 2006an aldeztatik ikusitako % 8,8an atxikita—. Tasak gora egiten du ondoren 15,1 puntu 2009ko % 27ko maila lortu arte. EBko beste herrialde bateko herritarren kasuan, tasak 7,7 puntuan egin du gora azken biurtekoan, 2007ko % 8,1etik 2009ko % 15,8ra igarota. Kasu horretan, dena den, bilakaerak hazkunde bat erakusten zuen jada 2006-2007 aldian, % 5,1eko tasa eskasarekin 2006an, garai hartan gainbehera nabarmenean 2005eko % 13,9arekiko.

Europar Batasuneko beste herrialdeko bateko herritarren artean langabezia gehitu bada ere, jarduera-mailetan izan duen goranzko joera nabarmena lagungarria izan da azken urteetan okupazio-koefizientea gehitzeko, 2007ko % 66,3tik 2009ko % 72,8ra igaro baita 2009an, eta zifra horrek 2,5 puntuan baino gehiagoan gaintitzen du 2005eko % 70,2a. EBko beste herrialde bateko herritarren bilakaera positiboak bertako biztanleek 2007-2009 aldian izandako koefizientearen beherakadarekin kontrastean dago, kasu horretan % 68,2tik % 65,6ra murriztuta, eta horrek kolektibo hori 2005eko mailaren zertxobait azpitik kokatzen du, garai hartan okupatuta zegoen 16-64 urtekoen % 66,1arekin.

Bilakaera negatiboena EBtik kanpoko herrialde bateko herritarrei dagokie. Kasu horretan, 2009an jarduerak izan duen gorakada gorabehera, 2007-2009 aldian langabeziak izandako hazkunde sendoak % 64tik % 54,1eko beherakada eragin du okupazio-koefizientearen. Kasu horretan, egiaztatzen da, gainera, okupazio-mailen beherakada lehenago hasi dela, % 67,2ko koefizientearekin 2006an. 2006-2009 aldian, horrenbestez, 13,1 puntu galdu dira kontuan harturiko atzerritarren artean.

Nolabait ere, EBtik kanpo datozen atzerritarren arteko okupazioaren bilakaera negatiboaren jatorria 2005-2006 aldiari ere lotu ahal zaio. Ildo horretan, kolektiboaren okupazio-koefizientearen egonkortzea ezaugarri duen aldia dugu hori, hiru hamarren eskaseko hazkundearekin, bertako herritarren arteko 1,5 puntuko eta EBko beste herrialde batetik datozenen arteko 4,8ko gorakadarekin kontrastean.

EBtik kanpoko herrialde batetik datorren biztanlerian okupazioak duen bilakaera konparatiboki negatiboa hobeto kontrasta daiteke EAEn batez besteko zifretatik bereizten duen okupazio-diferentzialaren bilakaera. Horrela, egiazta daitekeenez, 2005-2006 aldian, aztertutako biztanleria 2005ean EAEn baina 0,7 puntu handiagoa zen okupazio-koefizientea izatetik 2006an 0,4 puntu txikiagoa den zifra izatera igaro zen. EAEn batez besteko koefizientearekiko tartea 4,1 puntuan ezartzen da 2009an 11,2ko gehienekoa lortzeko. EBtik kanpoko biztanleriaren okupazioaren arazo diferentzialak 2007-2009 aldiko krisialdia baino askoz ere lehenagokoa den jatorria du, 2009an ikusitako aldean garrantzia zehazten duena krisialdi hori bada ere.

Aurkezturiko datuek ez dute esan nahi, alabaina, Euskadin 2007-2009 aldian okupazioan izandako beherakada absolutuaren arrazoia etorkienei lotzen zaienik. Guztizko etorkinen gorakada-testuinguru batean, baita haien jarduerarako joeraren gorakada-testuinguru batean ere, kolektiboaren zati baten okupazio-koefizienteen beherakada bat bateragarria izan daiteke okupaturiko etorkinen gorakada absolutuarekin. Egin esan, atzerritar landunen kopuruak gora egin du 2007ko 35.725etik 2009ko 41.437ra. Pertsona okupatuena hazkundera 8.439tik 10.787ra izan da EBko herritarren artean, eta 27.286tik 30.650era EBtik kanpoko atzerritarren artean. Estatuko herritarren arteko okupazioa, aldiz, 935.232tik 905.822ra jaitsi da 2007-2009 aldian.

Atzerritarren arteko langabezia-tasen hazkunde handiak ez du esan nahi hori Euskadiren langabeziaren ardatz nagusia denik. Ildo horretan, komeni da zehaztea atzerritarrek langabeziak Euskadin 2007-2009 aldian izandako hazkunde absolutuaren % 16,9 azaltzen dutela soilik (% 14,7 EBtik kanpoko pertsonen kasuan eta % 2,2 soilik EBko beste Estaturen bateko herritarrei dagokienez). 2007-2009 aldian langabezian eroritako 59.000 pertsonen % 83,1ek estatuko herritartasuna du.

16-64 urteko biztanleriaren funtsezko okupazio-adierazleak, nazionalitatearen arabera
(%-tan)

2009

Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatua	71,2	7,8	65,6
EBko beste Estaturen batekoa	86,5	15,8	72,8
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	74,1	27,0	54,1
Guztira	71,5	8,7	65,2

2007

Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatua	70,3	2,9	68,2
EBko beste Estaturen batekoa	72,1	8,1	66,3
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	70,2	8,8	64,0
Guztira	70,3	3,1	68,1

2006

Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatua	69,9	3,2	67,6
EBko beste Estaturen batekoa	79,0	5,1	75,0
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	73,7	8,8	67,2
Guztira	70,0	3,4	67,6

2005

Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatua	69,4	4,7	66,1
EBko beste Estaturen batekoa	81,6	13,9	70,2
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	75,9	11,9	66,9
Guztira	69,6	4,9	66,1

Atzerritarrentzat funtsezko arazoa da lanerako baimenik ez izatea. Atzerritar aktiboaren % 15,6k ez zuen 2009an baimenik EAEn lan-jarduera bat egikaritzeko, eta zifra horrek adierazlearen beherakada jarraitu islatzen du 2006ko % 20,4az geroztik, baina 2005eko % 15,7aren antzekoa. Lan-baimenik ez lortzeak Europar Batasunetik kanpoko herrialderen bateko biztanleria atzerritar aktiboaren % 18,5 hartzen du eraginpean 2009an eta Batasuneko estaturen bateko bertakoan % 6,3.

Testuinguru horretako datu garrantzitsu bat zera da, EBko gainerako herrialdeetatik datozen eta gaur egun landunak diren atzerritarren % 2,9 2009an lanean ari dela lan-baimenik izan gabe, eta proportzio hori % 10,3 da EBtik kanpoko atzerritarren artean. Oro har, atzerritar landunen % 8,4 lan-baimenik gabe ari da lanean. Oraindik deigarria bada ere, zifra horrek beherakada garrantzitsua erakusten du 2006ko % 19,7arekiko eta 2007ko % 16,8arekiko.

Adierazitako beherakada hori krisiaren ondorioz produkzio-sisteman lan-baimenik gabeko langile atzerritarrak gutxiago baliatzearen emaitza da. Ildo horretan, lan-baimenik ez izatea askoz ere handiagoa da langabeen kasuan, gorakada eta guzti aurreko urteak kontuan izanez gero. Horrela, egiaztatzen da atzerritar langabeen % 38,1ek ez duela lan-baimenik 2009an, eta zifra horrek 2007ko % 35a eta 2006ko % 29a gainditzen du. Lanik gabeko langabeen proportzioa % 40,7ra iristen da EBtik kanpoko etorkinen artean, baina oraindik ere % 24,1ean dago Batasuneko beste estatu batzuetako herritartasuna dutenen artean.

Lanerako baimenik ez duen 16-64 urteko biztanleria atzerritar aktiboa jarduerarekiko erlazioaren eta nazionalitatearen arabera
(%-tan)

Nazionalitatea	Jarduerarekiko erlazioa		
	Landunak	Langabeak	Guztira
EBko beste Estaturen batekoa	2,9	24,1	6,3
EBtik kanpoko Estaturen batekoa	10,3	40,7	18,5
Guztira	8,4	38,1	15,6

Atzerritarrek euskal ekonomiaren sektore eta jarduera-adar guztietan duten presentziaren desberdintasuna nabaria da. Biztanleria hori, izan ere, ostalaritzan, hezkuntzan eta etxeko zerbitzuan biltzen da. Bertako biztanleriaren % 22,3 eskasak lan egiten du ekonomiaren adar horietan, eta proportzioa, aldiz, % 56,6 da EBko beste herrialde batzuetako herritarren kasuan, eta % 66,6 Europar Batasuneko kide ez diren Estatuetakoko bertako herritarrei dagokienez³⁶.

Europar Batasuneko beste Estaturen bateko herritarrei dagokienez, nabarmendu behar da landunek garrantzi bereizgarria dutela eraikuntzan eta hezkuntzan. Kasu horretan, landunen % 44,9 adar horietan biltzen da (% 35,5 eraikuntzan eta % 9,4 hezkuntzan), eta % 15 inguruko zifrak ditugu, aldiz, bertako biztanleriaren eta Batasunetik kanpo datorrenaren kasuan. Atzerritarren kolektibo horretan, nabarmentzekoa da, halaber, etxeko zerbitzuan eta ostalaritzan lanean ari den % 11,8a, eta % 30a zerbitzuen sektoreko gainerako adarrei eta beste % 13,3 bat industria eta nekazaritzari dagokie.

EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako biztanleriari dagokionez, batez ere ostalaritzan eta etxeko zerbitzuan duen gaur egungo indarrarengatik nabarmentzen da, eta biztanleria landunaren % 51,7 dago bi adar horietan bilduta (% 7 bertako biztanlerian eta % 11,8 EBren beste Estatu batzuetako biztanlerian). Beste % 13,3 bat eraikuntzan ari da lanean, biztanleria

³⁶ Adierazi beharra dago atzerritarrak produkzio-sisteman modu bereizgarrian sartzeari dagokionez gehien sartzen diren esparrua izateari uzten dioela manufaktura-industriak, Euskadin Industriak izandako krisiaren ondorioz.

landunaren % 26,1 gainerako zerbitzuetan biltzen delarik, hezkuntza barne, eta gainerako % 8,9a industrian eta lehen mailako sektorean.

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(% bertikalak)

Jarduera-adarra eta sektorea	Nazionalitatea		
	Estatua	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Nekazaritza	1,6	2,1	1,3
Industria	23,2	11,3	7,5
Eraikuntza	7,9	35,5	13,3
Zerbitzuak	67,3	51,2	77,9
Nekazaritza	1,3	2,1	0,3
Arrantza	0,3		1,1
Erauzketa-industria	0,2		
Elikaqai-industria	1,4		1,2
Paper-industria	1,3	0,6	0,2
Industria petrokimikoa	0,9		
Kautxu-industria	1,5		0,9
Bestelako qai ez-metalikoen industria	0,7		
Metalgia	6,4	1,7	2,7
Makinagintza	3,8	3,7	1,3
Material elektrikoa	1,5		
Garraio-materiala	2,9	3,0	0,6
Hainbat manufaktura-industria	1,9	2,3	0,6
Energia-produkzioa	0,8		
Eraikuntza	7,9	35,5	13,3
Merkataritza	14,6	4,4	10,9
Ostalaritza	5,4	4,7	21,8
Garraioak eta komunikazioak	6,3	5,0	4,0
Finantza-erakundeak	2,6		
Enpresetarako zerbitzuak	10,6	9,0	4,5
Administrazio Publikoa	5,6	1,8	0,5
Hezkuntza	7,4	9,4	1,6
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	8,7	2,5	3,2
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	4,6	7,3	1,5
Etxeko zerbitzuek	1,6	7,1	30,0
Guztira	100	100	100

Europar Batasunetik kanpoko Estaturen batetik etorritako etorkinen artean, biztanleria ez-kalifikatua da nagusi. Etorkin horien artean % 53,8k lanbide-kategoria horretako lanetan ari da, Batasuneko beste herrialdeetako herritarren artean ikusitako % 21,7aren eta bertako biztanleriaren dagokion % 15,6aren oso gaineratik. Zifra, dena den, 2006an ikusitako % 67,1a baino askoz ere txikiagoa da.

Aitzitik, atzerritar horiek zuzendarien, teknikarien eta kargudunen artean parte-hartze oso txikia dute: % 7,1 eta Europar Batasuneko beste Estatu batzuetako bertakoena, aldiz, aldiz, % 26,5 eta Estatuko herritartasuna dutenen % 36,1.

Deigarria da, dena den, atzerritarren kolektiboak horrelako lanpostuetan duen goranzko joera 2007. urtearekiko (% 5,7 batetik eta % 7,1 bestetik EBtik kanpoko landunen kasuan eta % 19,6 eta % 26,5 bestetik Batasuneko beste Estatu batzuetako pertsonen kasuan). Indar erlatiboaren hazkunde hori atzerritarren 2007-2009 aldiko okupazioaren testuinguru hedakorrean gertatzen denez, nolabaiteko berbideratzea erakusten du, lanbide-kategoria kalifikatuetagorako berbideratzea, biztanleria horri dagokionez.

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta lanbide-kategoriaren arabera
(% bertikalak)

Lanbide-kategoria	Nazionalitatea		
	Estatua	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Kalifikazio gabekoa	15,6	21,7	53,8
Kalifikatua	48,3	51,7	39,0
Kargudunak	3,5	1,4	0,5
Teknikariak	24,5	18,8	3,5
Zuzendariak	8,1	6,3	3,2
Guztira	100	100	100

Europar Batasunetik kanpoko herrialderen bateko atzerritarren beste ezaugarri nabarmen bat da enpresa pribatuaren soldatapeko lanetan metatzen direla (% 86,1, eta EBko beste Estaturen bateko herritarren proportzioa, aldiz, % 81,9 da, eta bertakoena % 67,3 dela). Soldatapekoak ez direnen taldean duten parte-hartzea, aldiz, mugatua da, % 10,2an baitago, eta EBko Estaturen bateko bertakoen edo herritarren artean, aldiz, % 16 inguruko zifrak. Proportzio hori, dena den, zertxobait gehitzen da 2007. urteko % 8,2arekiko.

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta lanbide-egoeraren arabera
(% bertikalak)

Egoera profesionala	Nazionalitatea		
	Estatua	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Enplegatzailea	3,4	1,4	0,3
Autonomoa	9,9	13,3	8,4
Familia-laguntza	0,3		0,4
Kooperatibista	2,5	1,3	1,1
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	10,9	0,7	1,1
Enpresa Publikoko soldatapeko langilea	5,1	0,3	
Enpresa Pribatuko soldatapeko langilea	67,3	81,9	86,1
Beste egoera bat	0,7	1,1	2,6
Guztira	100	100	100

Europar Batasuneko kanpoko herrialdeetatik datozen etorkinen lan-kolokatasun handia da beste alderdi deigarri bat. Alabaina, neurri handi batean krisialdiari loturiko kolokako enpleguen galeraren ondorioz, kolektibo horretan kontratu mugagabea daukan soldatapeko biztanleriaren proportzioa, 2006-2007 aldian % 46tik % 39,5era jaitsi ondoren, % 52,3raino igo da 2009an. Hala eta guztiz ere, % 27,8k oraindik ere aldi baterako kontratuarekin lan egiten du, eta % 19,9k kontraturik gabe, eta azken zifra hori 2005eko % 19,1aren antzekoa da (2006ko % 25,9a eta 2007ko % 24,2a baino txikiagoa bada ere).

Kolokako egoeran dauden pertsonen proportzioa txikiagoa da, baina oraindik ere garrantzitsua, Batasuneko beste Estaturen batetik datozen soldatapekoen artean. % 2,8 eskasa baino ez dago kontraturik gabe, 2007ko % 11,9aren azpitik, baina 2007-2009 aldian % 36,6tik % 38,8ra gehitzen da aldi bateko kontratazio moduren bat baliatzen duena. Kontratu mugagabea duten pertsonen proportzioa, haatik, % 51,5etik % 58,4ra igo da 2007-2009 aldian

Oro har, bertako biztanleriaren % 17,6 dago lan-kolokatasuneko egoeran, eta proportzio hori, aldiz, igo egiten da EBko beste Estatu batzuetako herritarren artean % 41,6raino eta Batasunetik kanpoko herritarren artean % 47,7raino. Zifra horiek hobekuntza dira kasu askotan 2005-2007 aldian ikusitakoarekiko, aldi horretan aldez aurreko % 21,7ko gutxienekoa izan baitzen bertakoen biztanleriaren kasuan eta % 54ko gutxieneko EBtik kanpoko pertsonen artean. Salbuespena EBko beste herrialderen batetik datozen atzerriarrei dagokie, 2006ko % 25,7ko gutxienekoarekin, 2009ko zifraren azpitik, horrenbestez.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta kontratu motaren arabera
(% bertikalak)

Kontratu mota	Nazionalitatea		
	Estatua	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Mugagabea	82,4	58,4	52,3
Aldi baterakoa	16,4	38,8	27,8
Kontraturik gabe	1,1	2,8	19,9
Guztira	100	100	100

Kontratu-baldintzak itxuraz okerragotu badira ere, soldatapeko biztanlerian behintzat, EBko beste herrialderen batetik datozen landunen kolektiboan soil-soilik ikusten da nazionalitatearen arabera beste enplegu bat bilatzen dutela adierazten duten landunen proportzioaren beherakada bat. Kasu horretan adierazlea 2007ko % 6,9tik 2009ko % 3,8ra igaro da, oraindik ere 2006ko % 4aren azpitik. Bertakoen biztanlerian, adierazle hori % 4an dago 2007ko % 2,5aren gainetik, baita 2006ko % 3,9aren gainetik ere. Okerragotze handiena EBtik kanpoko herrialdeetatik datorren biztanleriari dagokio, aurreko urteetan ere ikusitako goranzko prozesua sendotuz,

gainera. Kasu horretan, kontuan harturiko adierazlea 2005eko % 12,9tik 2006ko % 13,7 igaro da, 2007ko % 16,8ra eta 2009ko % 18,1era.

Azkenaldiko igoera hori gorabehera, zenbatekoen arabera oso gutxi dira, argi eta garbi, beste lan bat bilatzen ari diren landunak atzerritarren artean. Kolokatasuna eta lan-eragozpenak onartu egiten ditu atzerritar landunen funtsezko zati batek. Antza, pertsona horien gehiengo zabal bat ez da konformatzeen bere okupazio-egoerarekin

Lana bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen arabera
(Lana bilatzen ari direnak %-tan)

Lana bilatzen ari da	Bilatzen ari direnak %-tan
Estatua	4,0
EBko beste Estaturen batekoa	3,8
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	18,1
Guztira	4,5

Langabeziak atzerritar aktiboaren artean dituen ezaugarriak dagokienez, Euskadiko gizonezkoen biztanleriaren artean ikusitako egoeraren okerragotzea da, halaber, kolektiboaren ezaugarri. Azkenaldiko bilakaerak, izan ere, 2006an biztanleria aktibo atzerritarrak ezaugarri zuen errealitatera itzultzen gaitu, hau da, gizonezkoen langabeziaren nagusitasun argi eta garbia. Gizonek atzerritar jatorriko pertsonen langabeziari begira egiten duten ekarpenak, 2006koak % 56,9 zenak, berriz ere gorantz egiten du 2009ko % 63,5eraino, 2007an % 22,1 eskasera jaitsi ondoren.

Aurreko egoera, beste ezer baino lehen, atzerriko gizonezko biztanleriaren gorakadaren isla da. 2005eko % 12,5etik 2006ko % 9raino eta 2007ko % 3,8raino jaitsi ondoren, langabezia-tasa kolektibo horretan % 27,9raino igoarazten du krisialdiak.

Aitzitik, nahikoa garrantzitsua da biztanleria atzerritar aktiboaren artean emakumezkoen langabeziak duen halaber goranzko eragina, eta gainera epe ertainerakoa, orekatzeko . Emakume atzerritarren arteko langabezia-tasak gora egiten zuen jada 2006-2007 aldian. 2005-2006 aldian % 9,2tik % 7,2ra jaitsi ondoren, tasak gora egin zuen berriz ere 2007an % 13,8raino. 2009an joera indartu egiten bada ere, % 20ko langabeziarekin urte horretan, biztanleria atzerritar aktiboaren testuinguruan, langabeziaren hazkundea, aldiz, konparatiboki txikiagoa da 2007-2009 aldian emakumeen artean gizonen artean baino. Emakumezkoen langabezia-tasa biurteko horretan 6,2 puntu hazi zen, eta gizonen arteko hazkundea, aldiz, 24,2 puntukoa da.

2007-2009 aldiko langabeziaren goranzko joeraren eraginak 25-34 urteko pertsonak hartzen ditu batez ere eraginpean. Kasu horretan, 2005-2007 aldian oro har % 7-9ko mailetan

eutsi ondoren, gorakada nabarmena ikusten da 2007-2009 aldian, langabezia-tasak 2009an % 30,6ra iritsita, edozein adin-talderen handiena, 25 urtetik beherakoen % 23,5aren gainetik eta guzti. 2006-2007 aldian nabarmen hazi ondoren, % 9,3tik % 26ra, 2009ko zifra 2007ko baino zertxobait txikiagoa ere bada gazteenen artean.

Nahiz eta ez garen iristen 35 urtetik beherako biztanleria atzerritarren artean ikusitakoen pareko maila handietara, langabeziak nabarmen egiten du gora halaber 35 urtetik gorako artean. 2005-2007 aldian % 16,3tik % 4,4ra erori ondoren 35-49 urtekoen artean, langabezia 2009an % 19,6ra iristen da adin-talde horretan, 2005eko 3 puntuan baino gehiagoan gainditzen duen tasara. Gauza bera gertatzen da 50 urteko eta hortik gorako artean, kasu horretan gorakada 2006-2007 aldira aurreratzen bada ere. Gauzak horrela, % 9,1etik % 2ra murriztu ondoren 2005-2006 aldian. langabezia-tasa % 11ra igo zen 2007an, joera hori sendotuta 2009ko % 18ko tasarekin, 2005eko bi aldiz gainditzen duen zifrarekin

Deskribaturiko bilakaeraren ondorioz biztanleria atzerritar langabearen barne-banaketan izandako joera-aldaketa da, 25-49 urtekoen goranzko garrantziarekin. Talde hori, 2007an jada langabe guztien % 59,9 zen hori, % 78,4 izatera igaro da 2009an, eta 25 urtetik beherakoen garrantzi erlatiboa % 32,2tik % 14,6ra jaitsi da 2007-2009 aldian.

Nabarmendu beharreko beste datu garrantzitsu bat zera da, gazteen langabezia-tasa antzekoa dela atzerritarren eta bertakoen artean (% 23,5 batetik eta % 22,6 bestetik), eta etorkinen kalterako aldea, ordea, nabarmenen hazten dela adinak aurrera egin ahala 25 urtetik gorako artean. Horrela, langabezia-tasa 2,9 aldiz handiagoa da 25-34 urteko atzerritarren artean (% 30,6 batetik eta % 10,7 bestetik), 3,2 handiagoa 35-49 urtekoen artean (% 19,6 batetik eta % 6,2 bestetik) eta 4 handiz handiagoa 50 urteko eta hortik gorako artean (% 18 batetik eta % 4,5 bestetik).

16-64 urteko atzerritar langabeak, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak eta langabezia-tasa %-tan)

Sexua	% bertikalak	Langabezia-tasa
Gizonak	63,5	27,9
Emakumeak	36,5	20,0
Adina	% bertikalak	Langabezia-tasa
16-24 urte	14,6	23,5
25-34 urte	49,8	30,6
35-49 urte	28,6	19,6
50 urte eta hortik gora	7,0	18,0
GUZTIRA	100	24,4

Langabeziaren barne-ezaugarriei dagokienez, adieraztekoa da lan-esperientziarik gabeko langabe atzerritarren proportzioa % 7,7 eskasean zegoela 2009an, 2007ko % 22,3arekiko oso azpitik zegoen zifrarekin, eta berriz ere % 6,5etik hurbil 2006an. 2007an bezalaxe, dena den, adierazlea biztanlerian oro har dagoena baino (% 3,6) dezente handiagoa da.

Bestalde, luzaroko langabeziaren eraginari dagokionez, 2005-2006 aldian % 25,4tik % 20,8ra jaitsi ondoren —bi kasuetan ere, urte haietako EAEko batez bestekoen azpiko zifrak—, 2009an % 30ean dago, oraindik ere Euskadiko langabe guztiei dagokienez ikusitako % 33aren azpitik.

Oso luzaroko langabezia, aldiz, % 13an mantentzen da, hamarren gutxi batzuentatik 2007ko % 13,8aren azpitik dagoen zifra, baina argi eta garbi 2006ko % 8,1aren gainetik. Atzerritarren zifra kasu honetan EAEko langabeen artean izandako % 12,7aren antzekoa da.

16-64 urteko langabe atzerritarrei buruzko beste hainbat adierazle
(Erreferentzia-taldearen gainekoa %-tan)

Adierazlea	%
Lan-esperientziarik gabeko langabeak	7,7
Luzaroko langabezia (> urte 1)	30,0
Oso luzaroko langabezia (> 2 urte)	13,0

Eskualdeen, azpieskualdeen eta udalerrien araberako datuak

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera. LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Biztanleria landuna		
		2007	2009	09/07 bil. (%)
Gasteiz	Arabako Haranak	2.508	2.715	8,2
	Lautadako gainerakoa	7.458	7.231	-3,1
	Vitoria-Gasteiz	108.290	107.169	-1,0
	Arabako Mendialdea	1.428	1.527	7,0
	Errioxa	4.941	5.357	8,4
	Guztira	124.625	123.998	-0,5
Aiaraldea	Gorbeialdea	4.139	4.069	-1,7
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	7.575	7.341	-3,1
	Laudio	8.230	7.699	-6,5
	Guztira	19.944	19.109	-4,2
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	12.168	11.674	-4,1
	Getxo	35.668	35.339	-0,9
	Leioa	13.992	12.975	-7,3
	Erandio	10.798	10.733	-0,6
	Guztira	72.626	70.721	-2,6
Bilbo	Bilbo	150.399	149.887	-0,3
	Total	150.399	149.887	-0,3
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	28.319	29.427	3,9
	Barakaldo	41.502	42.094	1,4
	Basauri	20.576	18.567	-9,8
	Galdakao	14.441	13.909	-3,7
	Portugalete	20.991	19.918	-5,1
	Santurtzi	19.323	19.655	1,7
	Sestao	12.222	12.128	-0,8
	Enkarterria	13.557	12.982	-4,2
	Guztira	170.931	168.679	-1,3
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	18.838	17.437	-7,4
	Markina-Ondarroa	11.758	11.067	-5,9
	Plentzia-Mungia	24.182	25.417	5,1
	Guztira	54.778	53.921	-1,6
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	10.660	10.042	-5,8
	Durungaldeko gainerakoa	31.588	30.254	-4,2
	Durango	12.965	11.508	-11,2
	Guztira	55.213	51.804	-6,2
Donostialdea	Hondarribia	8.063	7.113	-11,8
	Irun	27.632	27.637	0,0
	Donostialdeko gainerakoa	47.869	44.820	-6,4
	Errenteria	17.141	17.313	1,0
	Donostia	81.660	82.375	0,9
	Urola-Kostako gainerakoa	24.351	21.011	-13,7
	Zarautz	10.358	10.252	-1,0
	Guztira	217.074	210.520	-3,0
Tolosa-Goierri	Goierri	29.742	26.888	-9,6
	Tolosaldea	22.408	22.054	-1,6
	Guztira	52.150	48.942	-6,2
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	19.025	18.364	-3,5
	Arrasate	10.234	9.034	-11,7
	Guztira	29.259	27.398	-6,4
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	13.128	11.385	-13,3
	Eibar	10.830	10.895	0,6
	Guztira	23.958	22.280	-7,0
EAE	GUZTIRA	970.957	947.259	-2,4

16-64 urteko langabeen bilakaera. LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Langabeak		
		2007	2009	09/07 bil. (%)
Gasteiz	Arabako Haranak	24	293	1135,3
	Lautadako gainerakoa	159	406	154,8
	Vitoria-Gasteiz	2.358	13.822	486,3
	Arabako Mendialdea	52	147	184,9
	Errioxa	81	416	412,7
	Guztira	2.673	15.084	464,2
Aiaraldea	Gorbeialdea	53	110	108,9
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	134	654	388,8
	Laudio	140	552	293,8
	Guztira	327	1.316	302,9
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	669	1.097	64,0
	Getxo	1.246	2.215	77,8
	Leioa	890	947	6,4
	Erandio	382	563	47,6
	Guztira	3.186	4.822	51,3
Bilbo	Bilbo	7.687	15.686	104,1
	Guztira	7.687	15.686	104,1
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	1.008	2.785	176,2
	Barakaldo	1.335	7.222	440,9
	Basauri	596	1.405	135,8
	Galdakao	474	1.091	130,4
	Portugalete	1.039	2.115	103,5
	Santurtzi	1.006	2.812	179,6
	Sestao	915	1.343	46,8
	Enkarterria	294	1.277	334,9
Guztira	6.666	20.051	200,8	
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	647	2.143	231,0
	Markina-Ondarroa	133	1.053	690,5
	Plentzia-Mungia	904	1.370	51,6
	Guztira	1.685	4.567	171,0
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	145	1.189	718,5
	Durangaldeko gainerakoa	719	2.869	299,1
	Durango	211	1.016	381,3
	Guztira	1.075	5.074	371,9
Donostialdea	Hondarribia	97	419	333,0
	Irun	892	2.432	172,6
	Donostialdeko gainerakoa	1.518	4.402	189,9
	Errenteria	215	824	282,5
	Donostia	2.991	7.139	138,7
	Urola-Kostako gainerakoa	385	995	158,2
	Zarautz	126	791	529,7
Guztira	6.225	17.002	173,1	
Tolosa-Goierri	Goierri	676	2.375	251,4
	Tolosaldea	180	547	204,0
	Guztira	856	2.921	241,4
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	164	1.022	523,3
	Arrasate	251	580	131,1
	Guztira	415	1.601	286,2
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	379	999	163,4
	Eibar	225	1.276	465,9
	Guztira	605	2.275	276,2
EAE	GUZTIRA	31.400	90.400	187,9

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera. LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Biztanleria aktiboa		
		2007	2009	09/07 bil. (%)
Gasteiz	Arabako Haranak	2.532	3.008	18,8
	Lautadako gainerakoa	7.617	7.636	0,2
	Vitoria-Gasteiz	110.648	120.991	9,3
	Arabako Mendialdea	1.479	1.674	13,2
	Errioxa	5.022	5.772	14,9
	Guztira	127.298	139.082	9,3
Aiaraldea	Gorbeialdea	4.192	4.179	-0,3
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	7.709	7.995	3,7
	Laudio	8.371	8.252	-1,4
	Guztira	20.271	20.426	0,8
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	12.837	12.771	-0,5
	Getxo	36.914	37.554	1,7
	Leioa	14.882	13.922	-6,5
	Erandio	11.180	11.296	1,0
	Guztira	75.813	75.543	-0,4
Bilbo	Bilbo	158.086	165.573	4,7
	Guztira	158.086	165.573	4,7
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	29.328	32.211	9,8
	Barakaldo	42.837	49.317	15,1
	Basauri	21.172	19.972	-5,7
	Galdakao	14.915	15.000	0,6
	Portugalete	22.030	22.033	0,0
	Santurtzi	20.329	22.467	10,5
	Sestao	13.137	13.471	2,5
	Enkarterria	13.851	14.259	2,9
Guztira	177.597	188.730	6,3	
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	19.485	19.581	0,5
	Markina-Ondarroa	11.891	12.120	1,9
	Plentzia-Mungia	25.086	26.788	6,8
	Guztira	56.463	58.488	3,6
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	10.805	11.231	3,9
	Durangaldeko gainerakoa	32.306	33.123	2,5
	Durango	13.176	12.524	-4,9
	Guztira	56.288	56.878	1,0
Donostialdea	Hondarribia	8.160	7.532	-7,7
	Irun	28.524	30.069	5,4
	Donostialdeko gainerakoa	49.387	49.222	-0,3
	Errenteria	17.356	18.137	4,5
	Donostia	84.652	89.514	5,7
	Urola-Kostako gainerakoa	24.737	22.005	-11,0
	Zarautz	10.484	11.044	5,3
Guztira	223.299	227.522	1,9	
Tolosa-Goierri	Goierri	30.418	29.263	-3,8
	Tolosaldea	22.588	22.600	0,1
	Guztira	53.006	51.863	-2,2
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	19.189	19.386	1,0
	Arrasate	10.485	9.614	-8,3
	Guztira	29.674	28.999	-2,3
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	13.507	12.384	-8,3
	Eibar	11.056	12.171	10,1
	Guztira	24.563	24.555	0,0
EAE	GUZTIRA	1.002.357	1.037.659	3,5

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera. LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Biztanleria ez-aktiboa		
		2007	2009	09/07 bil. (%)
Gasteiz	Arabako Haranak	1.064	791	-25,6
	Lautadako gainerakoa	2.281	2.747	20,4
	Vitoria-Gasteiz	46.763	44.614	-4,6
	Arabako Mendialdea	524	422	-19,6
	Errioxa	2.123	1.772	-16,5
	Guztira	52.755	50.346	-4,6
Aiaraldea	Gorbeialdea	1.152	1.408	22,2
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	2.693	2.908	8,0
	Laudio	3.976	4.657	17,1
	Guztira	7.822	8.974	14,7
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	4.154	4.435	6,8
	Getxo	18.872	18.922	0,3
	Leioa	5.816	7.159	23,1
	Erandio	5.569	5.641	1,3
	Guztira	34.411	36.157	5,1
Bilbo	Bilbo	71.847	67.250	-6,4
	Total	71.847	67.250	-6,4
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	14.424	12.173	-15,6
	Barakaldo	21.936	16.359	-25,4
	Basauri	8.080	9.696	20,0
	Galdakao	5.404	5.605	3,7
	Portugalete	10.321	10.825	4,9
	Santurtzi	11.536	9.515	-17,5
	Sestao	6.364	6.353	-0,2
	Enkarterria	6.442	6.360	-1,3
	Guztira	84.507	76.885	-9,0
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	10.121	10.396	2,7
	Markina-Ondarroa	5.169	5.175	0,1
	Plentzia-Mungia	9.876	8.612	-12,8
	Guztira	25.166	24.184	-3,9
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	4.083	3.970	-2,8
	Durangaldeko gainerakoa	13.439	13.479	0,3
	Durango	5.720	6.717	17,4
	Guztira	23.242	24.167	4,0
Donostialdea	Hondarribia	2.640	3.350	26,9
	Irun	11.921	10.604	-11,0
	Donostialdeko gainerakoa	16.708	17.585	5,2
	Errenteria	7.911	7.460	-5,7
	Donostia	33.794	30.097	-10,9
	Urola-Kostako gainerakoa	6.334	9.597	51,5
	Zarautz	4.205	3.803	-9,5
	Guztira	83.513	82.497	-1,2
Tolosa-Goierri	Goierri	11.517	13.165	14,3
	Tolosaldea	7.321	7.535	2,9
	Guztira	18.839	20.700	9,9
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	6.722	6.875	2,3
	Arrasate	4.130	5.229	26,6
	Guztira	10.852	12.104	11,5
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	4.213	5.490	30,3
	Eibar	6.437	5.529	-14,1
	Guztira	10.649	11.019	3,5
EAE	GUZTIRA	423.602	414.282	-2,2

16-64 urtekoen okupazio-koefizienteen bilakaera (%-tan). LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	2007	2009
Gasteiz	Arabako Haranak	69,8	71,5
	Lautadako gainerakoa	75,4	69,6
	Vitoria-Gasteiz	68,8	64,7
	Arabako Mendialdea	71,3	72,9
	Errioxa	69,2	71,0
	Guztira	69,2	65,5
Aiaraldea	Gorbeialdea	77,5	72,8
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	72,8	67,3
	Laudio	66,7	59,6
	Guztira	71,0	65,0
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	71,6	67,8
	Getxo	63,9	62,6
	Leioa	67,6	61,5
	Erandio	64,5	63,4
	Guztira	65,9	63,3
Bilbo	Bilbo	65,4	64,4
	Guztira	65,4	64,4
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	64,7	66,3
	Barakaldo	64,1	64,1
	Basauri	70,3	62,6
	Galdakao	71,1	67,5
	Portugalete	64,9	60,6
	Santurtzi	60,6	61,5
	Sestao	62,7	61,2
	Enkarterria	66,8	63,0
	Guztira	65,2	63,5
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	63,6	58,2
	Markina-Ondarroa	68,9	64,0
	Plentzia-Mungia	69,2	71,8
	Guztira	67,1	65,2
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	71,6	66,1
	Durangaldeko gainerakoa	69,1	64,9
	Durango	68,6	59,8
	Guztira	69,4	63,9
Donostialdea	Hondarribia	74,7	65,4
	Irun	68,3	67,9
	Donostialdeko gainerakoa	72,4	67,1
	Errenteria	67,8	67,6
	Donostia	68,9	68,9
	Urola-Kostako gainerakoa	78,4	66,5
	Zarautz	70,5	69,1
	Guztira	70,8	67,9
Tolosa-Goierrri	Goierrri	70,9	63,4
	Tolosaldea	74,9	73,2
	Guztira	72,6	67,4
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	73,4	69,9
	Arrasate	70,0	60,9
	Guztira	72,2	66,7
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	74,1	63,7
	Eibar	61,9	61,6
	Guztira	68,0	62,6
EAE	GUZTIRA	68,1	65,2

16-64 urtekoen langabezia-koefizienteen bilakaera (%-tan). LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	2007	2009
Gasteiz	Arabako Haranak	0,7	7,7
	Lautadako gainerakoa	1,6	3,9
	Vitoria-Gasteiz	1,5	8,3
	Arabako Mendialdea	2,6	7,0
	Errioxa	1,1	5,5
	Guztira	1,5	8,0
Aiaraldea	Gorbeialdea	1,0	2,0
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	1,3	6,0
	Laudio	1,1	4,3
	Guztira	1,2	4,5
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	3,9	6,4
	Getxo	2,2	3,9
	Leioa	4,3	4,5
	Erandio	2,3	3,3
	Guztira	2,9	4,3
Bilbo	Bilbo	3,3	6,7
	Guztira	3,3	6,7
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	2,3	6,3
	Barakaldo	2,1	11,0
	Basauri	2,0	4,7
	Galdakao	2,3	5,3
	Portugalete	3,2	6,4
	Santurtzi	3,2	8,8
	Sestao	4,7	6,8
	Enkarterria	1,4	6,2
	Guztira	2,5	7,5
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	2,2	7,2
	Markina-Ondarroa	0,8	6,1
	Plentzia-Mungia	2,6	3,9
	Guztira	2,1	5,5
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	1,0	7,8
	Durungaldeko gainerakoa	1,6	6,2
	Durango	1,1	5,3
	Guztira	1,4	6,3
Donostialdea	Hondarribia	0,9	3,9
	Irun	2,2	6,0
	Donostialdeko gainerakoa	2,3	6,6
	Errenteria	0,9	3,2
	Donostia	2,5	6,0
	Urola-Kostako gainerakoa	1,2	3,1
	Zarautz	0,9	5,3
	Guztira	2,0	5,5
Tolosa-Goierrri	Goierrri	1,6	5,6
	Tolosaldea	0,6	1,8
	Guztira	1,2	4,0
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	0,6	3,9
	Arrasate	1,7	3,9
	Guztira	1,0	3,9
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	2,1	5,6
	Eibar	1,3	7,2
	Guztira	1,7	6,4
EAE	GUZTIRA	2,2	6,2

16-64 urtekoen langabezia-tasen bilakaera (%-tan). LME 2007 eta 2009

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	2007	2009
Gasteiz	Arabako Haranak	0,9	9,7
	Lautadako gainerakoa	2,1	5,3
	Vitoria-Gasteiz	2,1	11,4
	Arabako Mendialdea	3,5	8,8
	Errioxa	1,6	7,2
	Guztira	2,1	10,8
Aiaraldea	Gorbeialdea	1,3	2,6
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	1,7	8,2
	Laudio	1,7	6,7
	Guztira	1,6	6,4
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	5,2	8,6
	Getxo	3,4	5,9
	Leioa	6,0	6,8
	Erandio	3,4	5,0
	Guztira	4,2	6,4
Bilbo	Bilbo	4,9	9,5
	Guztira	4,9	9,5
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	3,4	8,6
	Barakaldo	3,1	14,6
	Basauri	2,8	7,0
	Galdakao	3,2	7,3
	Portugalete	4,7	9,6
	Santurtzi	4,9	12,5
	Sestao	7,0	10,0
	Enkarterria	2,1	9,0
	Guztira	3,8	10,6
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	3,3	10,9
	Markina-Ondarroa	1,1	8,7
	Plentzia-Mungia	3,6	5,1
	Guztira	3,0	7,8
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	1,3	10,6
	Durangaldeko gainerakoa	2,2	8,7
	Durango	1,6	8,1
	Guztira	1,9	8,9
Donostialdea	Hondarribia	1,2	5,6
	Irun	3,1	8,1
	Donostialdeko gainerakoa	3,1	8,9
	Errenteria	1,2	4,5
	Donostia	3,5	8,0
	Urola-Kostako gainerakoa	1,6	4,5
	Zarautz	1,2	7,2
	Guztira	2,8	7,5
Tolosa-Goierrri	Goierrri	2,2	8,1
	Tolosaldea	0,8	2,4
	Guztira	1,6	5,6
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	0,9	5,3
	Arrasate	2,4	6,0
	Guztira	1,4	5,5
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	2,8	8,1
	Eibar	2,0	10,5
	Guztira	2,5	9,3
EAE	GUZTIRA	3,1	8,7

ERANSKINA

Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri teknikoak

Lan Merkatuaren Errolda (LME) Euskal Estatistika Planaren barnean hartuta dagoen eragiketa da, eta estatistika hori, egungo formatuarekin, 1993az geroztik urtero egiten da (1996., 2000. eta 2004. urteetan izan ezik). Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak du eragiketaren ardura, Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) koordinatuta.

Oro har, LMEak bi helburu nagusi planteatzen ditu:

a) Lehenik eta behin, lehenetasuna emango zaio Lurralde Historikoa baino txikiagoak diren lurralde-eremuetan lan-merkatuaren azterketaren erreferentzia eratzeari, eta adierazitako lurralde-eremuak enplegu eskualdeak edo herrialdeak dira.

b) Bigarrenik, eta osagarri gisa, lan-merkatuari erantsi zaizkienei buruzko datuak emateaz gain, lurralde-eremuetako sektoreen, gizartearen eta lanbidearen egiturari buruzko hurbilketa egitea. Jarduerari, okupazioari edo langabeziari buruzko eragiketetan ohikoak diren estatistika-akatsen mailak baino txikiagoak diren mailek eusten diote (BAI edo BJA) hurbilketa horri.

Adierazitako helburuetatik abiatuta, urteak joan eta urteak etorri, LMEaren planteamendu metodologikoak aldatu egin dira —interesak eta aurrekontuen ahalbideak bat eginda—.

Hasiera batean errolda erreal gisa planteatu zen eta 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden etxebizitza guztiak ekortu ziren. Aurrekontuaren aldetik, erroldaren eragiketari eutsi ezin zitzaien, eta errolda horrek egiaz funtzionaltasunik ez zuela egiaztatu zenez, hasierako metodologia birplanteatu zen beste formulazio baten bidez, 1989an egindakoa . Bereziki, lagin motako hurbilketa egitea erabaki zen.

Orduan, Sailaren eta Eskualdeetako Enplegu eta Trebakuntza Batzordeen finantza-laguntza izanik, 1989ko Lan Merkatuaren Erroldaren eragiketa abian jarri zen 43.000 etxebizitzako laginarekin, aipatutako Batzordeei dagozkien 32 eskualdeetan banatuta. Hurbilketa horri esker Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 150.000 lagun ingururi buruzko datuak jaso ahal izan ziren.

1989ko eragiketari ekiteko garaian ikusi zen LME eta BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera) inkesta koordinatu egin behar zirela nahitaez. Hortaz, LME galdesorta BJAn zeuden

oinarrizko galderetara egokitzea erabaki zen. Nolanahi ere, galdera guztiak jarri orde, EUSTATEk prestatutako bertsio erraztua —biztanleria landuna eta langabeak sailkatzen dituen— erabili zen.

Aurrekontuen inguruan izandako zailtasunek irauten zuten, eta Eskualdeetako Batzardeak modu formalean desagertu zirenez, 1993ko eragiketari begira, eragiketaren edukia berriz ere aztertu zen. Eragiketaren lagin-izaera dela egiaztatu ondoren, lagina 12.000 etxebizitzara murriztu zen. Orain, etxebizitza horiek hamaika enplegu-eskualdetan edo -arroatan banatuta daude.

Bestalde, homogeneizatzeko ahaleginak egin arren, egiaztatu zen LMEak ematen zituen zenbatekoak eta BJAk ematen zituenak oso desberdinak zirela, batez ere langabeei eta landunei buruzko datuak. Horren ondorioz, Eustatek kudeatutako eragiketarekin ahalik eta koordinazio handiena izateko modua aurkitzea erabaki zen. Hori horrela izanik, BJAren galdesorta oinarrizko galdesortatzat hartzea erabaki zen, eta LMEaren zifra handiak Eustaten estatistika-eragiketa horren zifretara egokitu ziren. Printzipio horietan oinarrituta, 1993tik 1995era bitarte EUSTATEk laugarren hiruhilekoan BJAren bitartez egindako inkestarekin modu koordinatuan garatu zen LME. Koordinazio-prozesuari esker, aldi horretako BJAren galdesortak LME laginaren zatitzat erabili ahal izan ziren.

1997tik aurrera, LMEaren lagin-maila zabaltzea erabaki zen, EUSTATEko eskualde guztietan eta EAEko udalerrri handietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko informazioa eskuratu ahal izateko, eta ez soilik LMEaren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handietan. Aurrekontu-zailtasunen ondorioz 1993ko hasierako planteamenduetara murriztu behar izan zen lagin-maila.

Azken batean, bilakaera horren ondorioz, eta izenak bestelakorik adierazten badu ere, gaur egun LME lagin-eragiketa da. Euskal Autonomia Erkidegoko 12.000 familia-etxebizitza ditu helburu, eta datu-bilketa etxebizitza bakoitzean bizi diren 16 urtetik gorako guztien arabera aplikatuko da urte bakoitzeko azken hiruhilekoan. Dena den, 2005. urteaz geroztik, LMEak berezko laginarekin soilik eragiten du, urteko laugarren hiruhilekoaren BJA laginaren zatia gehitzeari uko eginez. Eustatek BJA galdesorta sinplifikatu zuen, baina LMEak BJAren jatorrizko galdesortaren oinarrizko egiturari eutsi zionez, orain zailagoa da laginak bat egiteko prozesua. Jasotzaile-sistema bikoitza behar izango zen eta horrek izugarri eragotziko luke LMEaren emaitzen aurkezpena, ezinbestean modu integratuan aurkeztu behar baitira.

Hala ere, nabarmentzeko modukoa da LMEan oraindik ere BJA galdesorta erabiltzen dela, funtsean. Hortaz, neurri batean esan daiteke eragiketa BJAren jarraipena eta osagarria dela eskualde osoko datuak lortzeko. Izan ere, aldagai handiei dagokienez, LMEaren emaitzak urte

bakoitzeko laugarren hiruhilekoan BJAr dagozkion datuetara egokitzen dira, bi azterketa-modu horien artean kontraesanik izan ez dadin. Dena den, galdesortaren edukia arian-arian zabaldu egin dela aipatu behar dugu, informazio berria lortzeko eskaerak gero eta gehiago baitziren, eta eragiketa urtero egiten dela aintzat hartuta. Horrela, bada, eta funtsean BJA galdesorta oinarri hartuta, LME galdesortan galdera osagarriak ere badira, eragiketan jasotako informazioaren edukia aberastearren.

LMEaren bereizgarri den jatorrizko BJA galdesorta zabaltzeari prozesu bat gehitu behar zaio; hain zuzen ere, Eustatek garatutako sinplifikazio-prozesua, jatorrizko BJA galdesortaren diseinuari dagokionez. Horrek ondorio garrantzitsua eragin du LMEan. Urteak joan, urtean etorri, LME galdesortan item berriak sartu dira, jatorrizko BJA galdesortan ez daudenak, eta horrekin batera, galdesorta horren oinarritzko egiturari eutsi zaio orain, eragiketari eduki berria ematearren. Horrela, bada, LME lan-merkatuari buruzko eragiketa bat da, eta gaur egun, BJAREN bidez lor zitekeena baino informazio askoz ere zabalagoa lortzeko aukera ematen du. Baina ekarpen osagarri hori ez da egiten BJAREN jarraitutasun-ikuspegitik begiratuta; LME eragiketa urte bakoitzeko azken hiruhilekoan soilik egiten da oraindik ere.

BJA bezalaxe, LMEak taula moduan ere funtzionatzen du. Hortaz, eragiketaren oinarritzko beste erabilera bat da gure autonomia-erkidegoan bizi den 16 urtetik gorako biztanleriari eragiten dioten aldaketei buruzko luzaroko informazioa ematea.

Modu orokorrean azaldu dugun prozedura metodologikoa bat dator LME eragiketarekin lortu nahi ziren helburuekin. Ildo berari jarraiki, LMEaren oinarritzko helburua ez da BJAK lortzen dituen datuetatik aldentzen den datu-iturria izatea, baizik eta jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarritzko aldagaien gaineko eskualde-arloko hurbilketa egitea, eta ez bakarrik lurralde-arlokoa edo Euskal Autonomia Erkidego osoaren arlokoa. Bigarren mailako helburutzat, LME lagin askoz handiagoan oinarritzen denez, zenbait talderi dagokienez (esate baterako, langabeen kolektiboa bera), BJARENak baino esplotazio-aukera handiagoak emateko aukera du. BJA galdesorta sinplifikatzeko prozesuaren testuinguruan, LMEari esker, gainera, BJAK ematen duena baino informazio zabalagoa lortzeko aukera dugu gaur egun.

Azkenik, honako hau adierazi behar da: BJAN langabeen taldea definitzeko Eurostaten araudiak hartu ostean, 2001. urteaz geroztik Eustat/BJA metodologia berria erabiltzen da jardueraren araberako kategoriak mugatzeko. Distortsioak saihestearren, egoera guztien —batez ere, langabeziarekin eta jarduerarik ezarekin loturikoak— bilakaeraren azterketa egiteko garaian, hasierako BJA metodologiari dagozkion bilakaera-datuak eskaini izan ditu LMEak 2003. urteko eragiketara arte, luzaroko azterketan datuak modu koherentean interpretatzea erraztuz. 2005etik aurrera ez dago metodologia zaharrari dagokion daturik; horren ondorioz, zenbait alderditan datuak interpretatzeko eta egokitzeko arazoak izan daitezke. Txostenean zehaztu

dugu zein bide hartu dugun epe luzera jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko aldagaietan denboran zehar izandako aldaketan zentzuzko jarraipena egiteko.

Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak

1997. urteaz geroztik, EUSTATEko eskualde guztiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri handiei buruzko informazioa ematen du LMEak. Nolanahi ere, lurralde-eremu horietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruz erantsi direnak soilik daude eskuragarri.

Komenigarria da datuei buruzko egitura-azterketa egitea LMEan erabili ohi diren 11 enplegu- eskualde eta -arroa handiei dagokienez; honako hauek dira eskualde eta arroa horiek:

1. ESKUALDEA. GASTEIZ

EUSTATEk honako eskualde hauek sartzen ditu: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrek eta Arabako Errioxa.

LMEari dagokionez, eskualde hori bost azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera honako eskualde hauek dira: Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrek, eta Arabako Errioxa, baita EUSTATen arabera Arabako Lautada eskualdea ere. Azken eskualde hori LMEaren arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Gasteiz udalerrria eta Arabako Lautadako gainerakoa.

2. ESKUALDEA. AIARALDEA

EUSTATEk honako eskualde hauek sartzen ditu: Kantauri Arabarra eta Gorbeialdea.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta honako hauek dira: EUSTATen arabera Gorbeialdea eta Kantauri Arabarra. Azken eskualde hori LMEaren arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Laudio udalerrria eta Kantauri Arabarreko gainerakoa.

3. ESKUALDEA. ESKUINALDEA

EUSTATen arabera, Bilbo Handiari loturiko Eskuinaldea barnean hartzen du.

LMEari dagokionez, eskualde hori lau azpieskualdetan banatzen da: Getxo, Leioa eta Erandio, bai eta Bilboko iparraldean dauden gainerako udalerrriak ere, Txorierrikoak barnean hartuta.

4. ESKUALDEA. BILBO

Bilboko udalerria hartzen du barnean.

5. ESKUALDEA. EZKERRALDEA

EUSTATen arabera Bilbo Handiari lotuta dagoen Ezkerraldea eskualdeari eragiten dio, baita Enkarterria eskualdeari ere.

LMEari dagokionez, eskualde hori zortzi azpieskualdetan banatzen da: Barakaldo, Basauri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi eta Sestao, baita EUSTATen araberako Enkarterria eta Txorierriko hegoaldean edo Ezkerraldean bertan dauden Bilbo Handiaren gainerako udalerriak ere.

6. ESKUALDEA. BIZKAIA-KOSTA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da eta azpieskualde horiek EUSTATen araberako eskualdeak dira.

7. ESKUALDEA. DURANGALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Durangaldea eta Arratia-Nerbioi.

LMEari dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera eskualdeak dira, Durango izan ezik; udalerrri hori bereizita aztertzen baita.

8. ESKUALDEA. DONOSTIALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Urola-Kosta, Donostia, Donostialdea eta Bidasoa Beherea.

LMEari dagokionez, eskualde hori zazpi azpieskualdetan banatzen da, eta honako udalerrri hauek hartzen ditu barnean: Hondarribia, Irun, Donostia, Errenteria eta Zarautz, EUSTATen arabera Donostialdeko gainerako udalerrriak, eta Urola-Kostako EUSTATen arabeko gainerako udalerrriak.

9. ESKUALDEA. TOLOSA-GOIERRI

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Tolosaldea eta Goierri.

LMEari dagokionez, eskualde hori bi azpieskualdetan banatzen da eta EUSTATen arabeko eskualdeak dira.

10. ESKUALDEA. DEBAGOIENA

EUSTATen arabera Debagoiena eskualdea sartzen da.

LMEari dagokionez, Arrasate udalerrria ez dago eskualdearen gainerakoaren barnean hartuta.

11. ESKUALDEA. DEBABARRENA

EUSTATen arabera Debabarrena eskualdea sartzen da.

LMEari dagokionez, Eibar udalerrria ez dago eskualdearen gainerakoan barne hartuta.

Aurkeztu ditugun eskualdeak bat datoz Eustaten eskualde-hurbilketa historikoarekin, eta 1993. urteaz geroztik ez da aldaketarik egin eskualdeen antolaketan.

AURKIBIDEA

1.	Adin aktiboan dagoen biztanleriari buruzko datu orokorrak	2
1.1.	Egungo egoera.	2
1.2.	Azkenaldiko bilakaera.	4
2.	Biztanleria aktiboa	7
2.1.	Egungo egoera.	7
2.2.	Azkenaldiko bilakaera.	11
3.	Biztanleria landuna	20
3.1.	Egungo egoera. Datu orokorrak.	20
3.2.	Egungo egoera. Egiturazko datuak.	28
3.2.1.	Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuak.	28
3.2.2.	Lanbidearen araberako datuak.	36
3.2.3.	Lanbide-egoeraren araberako datuak.	40
3.2.4.	Egun lana lortzeari buruzko datuak.	47
3.2.6.	Enplegu-aniztasuna.	50
3.2.7.	Lanak eragindako diru-sarrera garbiak.	51
3.3.	Azkenaldiko bilakaera. Datu orokorrak.	60
3.4.	Azkenaldiko bilakaera. Egiturazko datuak.	77
3.4.1.	Sektoreen eta jarduera-adarren araberako datuak.	77
3.4.2.	Lanbidearen araberako datuak.	94
3.4.3.	Lanbide-egoeraren araberako datuak.	105
3.4.3.1.	Soldatapeko biztanleriari buruzko datu osagarriak.	115
3.4.4.	Enplegua bilatzearen araberako datuak	125
4.	Langabeak	128
4.1.	Egungo egoera.	128
4.2.	Azkenaldiko bilakaera.	137
5.	Biztanleria ez-aktiboa	159
5.1.	Egungo egoera.	159
5.2.	Azkenaldiko bilakaera.	163
6.	Lanerako prest dagoen biztanleria	172
7.	Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa	180
8.	Lana bilatzeko neurriak.	193
9.	Atzerritarrak	210

Eskualdeen, azpieskualdeen eta udalerrien araberako datuak	222
Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri teknikoak	230
Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak	234